Excusez, cher Monsieur l'abbé, ma documentation réellement défectueuse... j'ai fait de mon mieux. Il paraît que Ttipi a fait des vers fameux sur le jugement dernier que l'on est prêt à me communiquer sur un simple désir.

Votre dévoué P. Ithurburu, vicaire

Beraz ikerketa horrek argi guti eman zion, eta Lafitte bere hartan egonen da: Elissalde zukeela izena gure Ttipik. Eta izen horrekin ekarria da bai Xanti Onaindiaren liburuan (*Milla euskal olerki eder*), bai berriki atera den Patri Urkizuren liburuan. Artetik erran behar da ez dakigula nondik atera duen Onaindiak apaiza zela gure Ttipi.

Horiek hola, Lafitte zenaren paperak miatzen ari nintzelarik, kausitu nituen Maurice Harriet apezak Larresoroko Semenariolari utzi zizkion esku-iskribuak, eta horien artean gutun bat, honi igorria: Monsieur Harriet, directeur du Grand Séminaire, Bayonne. Eta gutun horretan, bertsuak; eta bertsuen ondotik egilearen izena, honela emana:

“Urruñan eguina abustuaren 13an 1853. Martin Halsouet dit Ttipi”.

Bertsuen gaia: Montebideorat joaitea.

Hain xuxen urte hartan izan zen Urruñako bestetako lehen bertsu lehiaketa, Antoine d'Abbadie d'Arrastek eta Urruñako auzapezak eratua, orduko afixa batek dioen bezala:

“Nota: Pilota partida baino lehen, iñanen da goraki eçagut aracia pherxuetaco guduan garaia eraman duena, eta harc eguin pherxuak iñanen dire cantatuac herrico guiçon gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizcatuko baita musicari gor-phutz bat: eta ondoan, pherxuetan garaitu duenari emanen çaiçco, Antonio d'ABBADIE yaunaren partezco untçaco urrea eta ohorezco makila”.

Eguina Urruñaco herrico etchean Agorrillaren 29an 1853an.  
 Baldarapheça, A. de LARRALDE - DIUSTEGUY”.

Badakigu Harriet apezak biltzen zituela lehiaketa horretarako beretsuak. Ikus Jean Haritschelarren liburuan, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* 448-453 orriak.

\* \* \*

Baina nor da Martin Halsouet hori? Urruñako herriko etxeko liburu zaharretan hatxeman dut 1855-ean hila dela Ttipi baitan.

“L’an mil huit cent cinquante cinq, le vingt sept du mois de Août, à quatre heures de relevée, par devant nous adjoint du maire de la commune d’Urrugne, Canton de ST Jean de Luz, Département des Basses-Pyrénées, sont comparus Pierre Lohiet, âgé de cinquante deux ans, cultivateur, et Jean Montory, âgé de trente deux ans, laboureur, les deux domiciliés au dit Urrugne et voisins du défunt, lesquels nous ont déclaré que ce jour à sept heures du matin, Martin Halsouet, âgé de soixante deux ans, laboureur, veuf de Catherine Churio, domicilié en la maison de Ttipibaita en cette commune, y est décédé ainsi que nous nous en sommes assuré et les déclarants ont signé avec nous le présent acte après que lecture leur en a été faite”.

L’Adjoint du Maire J. Dorbe

Eta huna sortzeko ageria:

“aujourd’huy le vingt germinal l’an troisième de la république française une et indivisible par devant moi Jean Larramendy officier public élu pour rédiger les actes destinés à constater les naissances, mariages et les décès des citoyens sont comparus en la maison commune d’Urrugne Etienne Halsouet métayer d’Anxobaita martin halsouet cadet de tipibaita assistés de gracieuse Etcheverry demeurant à Siboure tous trois de la municipalité d’urrugne département des basses pyrennées lesquels m’ont déclaré que la nommée Jeanne Etcheverry métayère d’anxobaita épouse en légitime mariage du susdit étienne halsouet est accouchée avant hier en son domicile à anxobaita d’un enfant mâle qu’ils m’ont présenté et auquel on lui a donné le nom de martin et le prénom halsouet, d’après cette déclaration que les susdits Etienne et martin halsouet assistés de la susdite gracieuse Etcheverry ont certifié conforme à la vérité et à la présentation de l’enfant dénommé J’ai rédigé en vertu des pouvoirs qui me sont délégués le présent acte que les susdits Etienne et martin Halsouet n’ont pas signé, non plus que ditte gracieuse Etcheverry pour ne savoir écrire”.

Fait à la maison commune d’urrugne les dits jour mois an que dessus.

Larramendy officier public

Horra beraz nor genuen gure Ttipi: Martin Halsouet, Ttipibaitako nagusia edo bordaria (maixterra). Ttipi baita Mendiondo edo Mendixoko deitzen den Urruñako auzo batetako baserri ttiki bat zen. Euskal Herrian ohi den bezala, bere etxearen izenetik deitzen zuten koblaria. Etzen apeza beraz, X. Onaindiaren liburuan errana den bezala. Seme bat (Alexandre) eta bi alaba (Jeanne eta Marie-Dominique) bazituen. Alaba hauek batek bastart bat eta besteak hiru ukan zituzten: horren gatik erran zukeen Iturbururen letran aipatua den amonak jende “okherrak eta trastiak” zirela.

1855eko abuztuaren 27an hil zen gure Ttipi, eta 31an haren alaba Marie-Dominique bere zazpi hilabeteko alabarekin: kolera heldea edo izurritea zen orduan Urruñan.

Badakigu eritasun horrek hiltzen zituenak Sokorriko kapera edo ermita inguruan ehortziak izan zirela: han ditake beraz oraino haren gorpua.

Alexandre semearenak dira beraz 1876an Lissarague erretor berriari eman ziren bertsuak. Hau ezkongabea zen, eta “Bunbullunbaitan” hila da 1893an.

*Bertsolaritzaren Historiako* 2gn tomoan, hiru “pheza” dira Ttipiren izenarekin: Dama gazte xarmant bat, Mila zortzi ehun ta berrogoi hama-bi, eta Diputatu berriak. Hauek biak iritzi desberdinekoak politika arloan, Napoleon hirugarrenaren eta A. Xahoren goresmenetan! Galdatuaren arabera ari zitaken!

Ikus dezagun orain 1853 urtean izan zen “Concours de Poésie” delakoan agertzeko egin zuen kantua:

Aire honetan: Iguzki denian çoin den eder itçala

\* \* \*

Montebideoren aipu handiac  
Niri eman dauzkit aleguerantciac  
Deliberaturic harat juaitia  
Cer çorokeria!  
Esperantçarekin han aberaxtia  
Ethorri çait idia.

\* \* \*

Juan behar naiçela erran diot amari  
Harc ez ninduen nihondic utci nahi  
Nolaspeit gan nahi bortcha egunic hari  
orobat aitari  
Guero urrikiac baitçaiçkit etorri  
Eguinican lan hori.

\* \* \*

Aita amac dire yarri tristecian  
 Hitceman nuela aditu çutenian  
 Ni heyen aldian nigarra beguian  
 Illun bihotcian  
 Ez yakin nola eguin heien kitatcian  
 Yarri naiz tristecian.

\* \* \*

Ama erituric ohian çait guelditu  
 Nere solas onez ecin dut consolatatu  
 Ama ez khechatu huts eguinez barcatu  
 Behar naiz partitu  
 Nic eguin fortunac çuc içanen tutçu  
 Har ezazu descantsu.

\* \* \*

Untcia pasayan bere mariñelekin  
 ni engaiatua guateco harekin  
 ezin despeitu familiarekin  
 Aita eta amarekin  
 eta aubridekin han bacen cer eguin  
 oroc bihotcian miñ.

\* \* \*

Adio aita eta ama aubride maitiac  
 hauço adiskide ahaide guciac  
 nere sor lekua bai eta mendiac  
 Ustentut guciac  
 nere tristeciac çuen kitatciac  
 ez dirare chumiac.

\* \* \*

Cantu hauc eman ditu urruñaco ttipic  
 ez citaken mintça arrutinatic baicic  
 ez tu escolarik ez principioric  
 malur du hortaric  
 ibili izan balitz escolan gasteric  
 baçuken orotaric”.

*Urruñan eguiña abustuaren 13an 1853  
 Martin Halsouet dit Ttipi*

Ez dizuet nik erranen bertsu horien aberastasunak edo ahuleziak zein diren: lan hori uzten diet ni baino jakintsunagoei. Harriet apezak ez zituzkeen hanbatekoak kausitu: badakigu 36 kantuetarik 8 bakarrik agertu zitzaizkela epai-mahainekoei. (Ikus Haritschelar...) Etzuen beraz Ttipik saria eraman. Sumindu ote zen horretaz, Etxahun bezala, nork daki? Apal edo umila zen menturaz, berak zioen bezala, zuenetik ari zen. "Ibili izan balitz eskolan bazuken orotarik."



## II

## Jaiotza

auj sord'hui le vingt germinal l'an troisième de la république  
 française un et indivisible pardevant moi Jean Larramendy  
 officier public et pour rédiger les actes de tenir à constater  
 les naissances, mariage et les décès des Citoyens. Soit comparé  
 en la maison commune d'Arrogne Etienne halspout métayer  
 d'Arrosbaila martin halspout Caset de tipibaita amitiés de  
 g'acianne Etcheverry demeurant à Siboure tous deux de la  
 municipalité d'Arrogne département du Bassé pyrenneaux lesquels  
 m'ont déclaré que le nommer Jeanne Etcheverry métayere  
 d'Arrosbaila pour en septième mariage d'avec Etienne halspout  
 ont accouché avant hier en son domicile d'Arrosbaila d'un enfant  
 mâle qui le mout présente et auquel on lui a donné le nom de  
 martin et le surnom halspout, d'après cette déclaration que les  
 Jurés Etienne et martin halspout assistés de la Jurte g'acianne  
 Etcheverry ont certifié conforme à la vérité et à la présentation  
 qui m'a été faite de l'enfant dénommé J'ai rédigé en vertes et  
 pourvis qui me sont délégués le présent acte lequel J'ai signé  
 et martin halspout n'ont pas signé non plus que ditte g'acianne  
 Etcheverry pour me servir de vice  
 fait à la maison commune d'Arrogne le dit jour moi ange  
 Dessus Larramendy officier public



III

Heriotzea

N<sup>o</sup> 79.

M. A. S. U. U. U. U.

Martin

requisitoires ont été adressés au  
moyen des formules ci-jointes  
aux personnes ci-dessus nommées

Le nombre huit-cent cinquante cinq, le vingt-huit du mois de février, à quatre heures  
de relevés, par devant nous présent le maire de la Commune d'Orreaga  
Bontan de St. Jean de Luz, L'inspecteur, maître des Revenus - Pénitenciers, dont sont composés  
Pierre Sobiet, âgé de cinquante deux ans, le substitué et Jean de Labat, âgé  
de trente deux ans, le procureur, les deux dominiels au vic. d'Orreaga et  
quatre inspecteurs, lesquels nous ont déclaré que ce jour à quatre heures  
matin, Martin, Paulin, âgé de dix ans et deux ans, le procureur  
vic. de Catherine, Olivier, dominiel en la maison de St. Jean de Luz.  
Ces communes, y est de ce jour, ainsi que nous nous en sommes assuré, et  
les déclarations ont été signées avec nous, le présent acte, après que les deux  
actes faits.

Sobiet  
Secretary  
L. Sobiet

L'Inspecteur des Revenus  
L. Sobiet



## J. B. ELIZANBURUREN BERTSOGINTZAZ BI HITZ

Sara, 91-XII-20

Patxi Altuna

1. Egun hauetanxe inguruan suertatu zaizkidan bizpahiru xehetasunek bultzatu naute J. B. Elizanbururen bertsogintzan beti atentzioa eman izan didan puntu baten azterketari zenbait ordu eskaintzera. Xehetasun horiek izan dira, batetik Etxepareren obra —aztertu nahi dudan puntuan Elizanbururenaz hain bestelakoa— azken hiru hilabete hauetan ikertzen jardun izana Euskal Filologiako ikasleekin eskolan; bestetik, duela ia ehun eta hogeitau urte aita Jose Ignacio Aranak guztiz bururatu gabe utzi zuen “Arte métrica de la lengua bascongada” *Fontes*-erako berriki prestatu izana, eta azkenik, Oihenarten mendeurrena gainean dugula eta, haren bertsogintzaz hartuak nituen ohar batzuk tolestatzen aritu izana. Hiru lagun on horien erakaspeneren eta jardunbidearen argitan eman nahi nuke hemen arras laburkiro aditzera Elizanbururen bertsogintzako puntu interesgarri bat.

2. Norknahi daki Etxeparek, geroztikako bertsolari guziek bezala, ez zuela legerik ezagutzen ez betetzen elisio-sinalefeï dagokien puntuan; egiten zituela edo ez, alegia, gogoak eman bezala edo bertsoaren konbentientzien arabera, eta, areago dena, hori dela, hain zuzen, gure herri-bertsogintzaren bereizgarrietako bat. Halaber mundu guziak daki Oihenartek euskarari bertsogintza hori baino dotoreagoa —ikasiagoa eta landuagoa—, Europako hizkuntzek garai hartan eihotzen zutenaren parekoa, opa ziolako eman zituela batikpat bi lege, eta horietako bat hau zela: bertsoan barrena hitz bat bokalez amaitzen eta haren ondoko hitza bokalez hasten zenoro, zeinahi zirelarik bokal horiek, elkarrekin urtu eta silaba bat osatu behar zutela ezinbestean, bertsogilearen edo poetaren aukeran utzi gabe inola ere.

3. Aspaldi idatzi nuen, lege bat ematea erraza baita eta norberak edo bestek emana betetzea ez hain erraza, ez zela txikia Oihenarten meritua berak eman legea eman ez ezik, bete ere beti egin zuelako, inoiz hutsegín gabe, inprimategiko errakuntzaren batean edo bestean izan ezik.

Meritu horren ondoan akats txiki bat ere egotzi behar geniola, ordea, ez baitzuen eskubiderik, berak sorturiko bertsogintza berriaren izenean, berak baino lehen halakoa erabili ez zuten guziak txarresteko eta *vulgares versificatores* izendatzeko. Bertsogintza zaharraren ondoan berria ongi zegokeen, bientzat baitzen leku, baina ez zen zer erdeina eta arbuia hura berria goresteagatik. Oihenarten bideari ez zitzaion gero damurik inor jarraitu, jakina den bezala, neurri batean Gasteluzar izan ezik.

4. Beraz elisio-sinalefak noraezean egitera behartzen du Oihenartek poeta, eta bi mende geroago lege bera beretuko du Sabino Aranak, pixka bat bigundurik, egia esan, eta lege hori hartuko dute beretzat "olerkari" izeneko Lizardi, Orixe, Lauaxeta eta gainerakoek. Nork esan Etxeparek eta gainerako bertsolariek puntu horretan duten askatasun osoa baino hobe den ala ez Oihenartek, orduko Europako hizkuntza landuetako bertsogintzaren usarioetatik ikasi zuen lege zorrotz hori? Poesia oztopoak gainditzen eta zoztorrak menderatzen baletza bai. Oihenartez ari zelarik idatzi zituen Mitxelenak, hain zuzen, honako hitz hauek: "Bertoak, koblak, edozein jende-mendek errax egin ditzake. Ez da hori, ordea, gizon landuei dagokienez hitz-neurtuz mintzatzea. Lege zorrotzagoak jartzen dituzte hauek eta eragozpen-debekuak elkarren gainka. Zailago eta ederrago, eta ezina ederren, egingo balitz".

5. Alde horretatik poesia ona egiteko axolakabea zela iruditzen zitzaigun askatasuna edo zorroztasuna, horrelako lege bat ematea edo ez, betetzea edo ez, eta azken batean gustu kontua zela, poesia beste zerbaitean datzalako, baina hara non datorkigun aita Jose Ignacio Arana hor goian aipaturiko eta oraino argitara gabeko "Arte métrica de la lengua bascongada" delakoan esanez elisio-sinalefa gehiegik bertsoan ez dirudielari ongi: "Las muchas sinalefas y sinéresis y las sílabas de más de dos consonantes que no sean onomatópicas hacen duro y demasiado pesado el verso eúscaro y por tanto se deben economizar". Beraz Oihenartek, European zehar ibiltzeko moduko poesia nahi bagenuen, elkarren segidako bi hitzen azken-lehen bokalak beti elkarrekin urtu behar genituela; Aranak, berriz, hori bertsoan maiz gertatzen bazen, bertsoa astuna eta gogorra gertatzen zela. Zer egin?

6. Dilema horretatik itzurtzeko eta bien esana betetzeko ez zaigu bide bat baizik gelditzen: alegia, galerazi ahaleginean bokalez amaituriko hitzaren ondoan inoiz suerta dadin bertsoan bokalez hasiriko beste hitz bat, eta horretarako nola edo hala egin, hitz guziak edota kontsonantez hasi edo kontsonantez amai daitezen; edota, hori ezin galeraz baledi eta inoiz edo behin elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrek ezinbestean bokalak izan behar balute, elkarrekin urtu eta elisio edo sinalefa egin. Eta puntu honetara helduz gero, galdegin genezake zein duen Elizanburuk bere lege, baldin legerik badu, auzi honetan: Etxepare eta

bertsolariena ala Oihenartena, ala Aranarena. Galdera hau egitean ez dut inondik ere suposatzen, halere, Sarako poetak Oihenarten ez eta Aranaren araua ezagutzen zuenik eta, baldin bietariko bati jarraitu bazaio, hori gehienez ere bere barneko euskal bertso senak irakatsirik bururatu ahal izan du.

7. Neure lantxo honetarako Antonio Labayenek 1978an argitaratu zuen liburuxkaz baliatu naiz. Zenbait hutsegite dituela esan didate eta Elizanbururen kantak ez daudela beti zuzen aldatuak. Nabari da hori bertso batzuetan, ez baitituzte han eta hemen behar adina silaba. Ez dakit *h*-ak ere beti ongi ezarriak dauden. Zer nahi gisan, ez dut uste makur horien baitan egongo direnik nere ikerketa xume honen ondorioak. Xumea diot, bizpahiru kantutan bakarrik oinarritu bainaiz, azken orduan eta presaka burutu dudalarik neure ikerketa, baina merezi lukeela uste dut gainerako kantuetara ere hedatzea, jakiteko ea halakoa den beti edo gehienetan bederen Elizanbururen bertsoak ontzeko teknika.

8. Liburuxka horrek dakarren sortako lehen kantuak —“Gazte hiltzera dohana” izendatuak— hamaika bertso ditu, berrogeitalau lerro, alegia. Hamasei bider suertatzen dira elkarren ondoan hitz baten azken bokala eta beste baten lehena eta halaz ere ez du poetak bitan baizik sinalefa egiten —biotan *aita-ama* konposatua dugularik, nahiz konposatu bera beste behin lau silabaz ahoskatzen duen—; beste hamalauetan, Oihenartek aginduaren kontra, sinalefa txuliatu eta dieresia egiten du bi bokalen artean, nahiz izan berdinak nahiz desberdinak bi bokalak, hala nola “Eta nere oinetan; Lore sortu orduko; Ni ere hala nola; Aita-ama maiteak”, eta abar, aipatu molde guziok, lehen hemistikioak beti, zazpi silabakoak direlarik. Zer esanik ez, zesura gertatzen den lekuan —hots, zazpigarren silabaren ondoren, hamairu silabakoak baitira bertso guziak— arrazoi handiagoz egiten duela gauza bera.

9. Sorta bereko bigarren kanta utzirik, ez baitut garbi ikusten, inprimategian iragazi zaizkien hutsarteak gatik edo, zer neurri darabilen hor poetak, gatozen hirugarrenera, “Agur herriari” deritzanera, zeinen lehen bertsoa bederen —“Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia”— ia mundu guziak buruz baitaki. Bertsogintza aztertzen ari garen alderdiaren aldetik, Aranek dioenez bertsoa astuntzen duten sinalefak ahal den gutxiena egitearen aldetik, alegia, kantu hau bikaina eta are betegina, eredugarria, izendatzeko kupidarik ez nuke. Nekez molda daiteke bertso sorta arinagorik eta biziagorik, Aranek esango lukeen bezala. Hona zergatik.

10. Hamaika ahapaldi ditu honek ere, lehengoak bezala, beraz berrogeitalau lerro. Sistematikoki txuliatzen ditu sinalefak; ez ordea, lehen bezala, egin zitzakeelarik egin gabe utzirik, hartara Oihenarten legea urratuz, baizik ez sofituz elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrak

bokalak izan daitezen. Gezurra badirudi ere, zesuratik kanpo —hauek ere hamairu silabako bertsoak izaki, zazpigarrenaren ondoan zesura dutenak— bi bider bakarrik kausitzen dira ere horretan bi bokal elkarren ondoan: bat, “Bide-hegiko aritza”, non ez baitakit sinalefa, zortzi gabe zazpi silaba izan zitzan, bi lehenbiziko hitzen artean egin zukeen ala bigarren eta hirugarrenaren artean; eta bi, “Ire adar lodiek” (biak zortzigarren ahapaldian), hemen zazpi silaba dituelarik sinalefa egin gabe utzirik. Zinezko “tour de force” da hori, ene ustez. Zesuraren lekuan bost bertsotan bakarrik dugu aurrean eta atzean bokala eta, zer esanik ez, ez du horietan ere sinalefarik egiten.

11. Arras bestelako itzulpidez baliatzen da beste kantu lehengoa bezain ezagun batean, “Nere etxea edo laboraria” deritzanean eta lehenbiziko bertsoa “Ikusten duzu goizean” duen hartan. Hemen aitzitik elkarren segidako pilo bat bi hitz aurkitzen dugu, azken-lehen letrak bokalak dituztenak —hogeitik gora segurki— eta halare ez du sekulan sinalefarik egiten, baizik dieresia eginez bi silaba bezala kontaktzen. Kantu osoan gertatzen den fenomeno bakarra da “ordua” bi silabaz ahoskatu beharra, baldin berak “Othoruntz ordua” kantatu bazuen, eta ez “ordu”. Hauek horrela direla, nekez pentsa daiteke sinalefak lekutzeko jokabide bitariko hori halabehar hutsez eta poetaren harxedarean gaindik gertatua denik. Besterik ere bururatzen zaigu: jokabide bitariko hori ez ote da gainera poetaren garatze eta umotze baten ondorioa eta bi garai desberdinen ispilu eta errainu?

12. Laburbilduz esango nuke Elizanburuk bere bertsoak tolestatzeko tankerarekin erantzun bipila (eta berria?) ematen diola euskal bertsogintzak betidanik planteatua duen galderari: “Euskal bertsogintzan sinalefak bai ala sinalefak ez?”, eta mendeetan zehar galdera horri eman zaizkion hiru erantzunei —“bai, beti” (Oihenartek), “ia beti” (Sabino Aranak), “bai eta ez, aukeran” (Etxeparek eta bertsolariek)— beste bat gehitu eta berretu diela aita Jose Ignacio Aranaren araua berea eginez; hots, “sekulan ez, edo ahalik gutxiena, bederen”, horretarako bi bide erakutsiz: galerazi erabat elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrak bokalak izatea, edota hala gertatuz gero, egin beti dieresia.

13. Eta Erromako poetak kantatu zuen bezala, “baldin gauza txipian enxemplu handiez balia ahal badadi”, hau da ene ustez, Elizanbururen bertsoei darien naturaltasun, garbitasun, eta erraztasun —hain zaila den erraztasun— kutsuaren eta usaiaren iturria, non irakurleak uste baitu batere bortxarik eta gatazkarik gabe moldatuak direla. Honek bestalde ez digu lehendik dakiguna sendotu baizik egiten, alegia, Elizanburu ez zela bete-betean bertsolaria, etxean ontzen zituela lumaz bertsoak, eta ez jendaurrean zuzenean; baina aldi berean ez zela Oihenartek nahi zituzkeen poeta landu, ikasi, eskola handiko haietakoa ere.

(Azken orduko ohartxo bat egin beharrean naiz, gauzak bere lekuan uzteko: ni baliatu naizen Labayenen liburuko kantetatik Xabier Elosegik Saran eskuratu didan liburuxkakoetara alde handixea dago eta nik hor goian eman ditudan zenbait kopuru pixka bat aldatu beharko lirateke, bizpahiru goiti-beheiti. Halaber Labayenen “Bide-hegiko aritza” Xabier Elosegik eman didanean “Bide hegiko haitza” da eta “Othoruntz ordua” aldiz “Otruntz ordua”).





## JEAN BAPTISTE ELIZANBURUREN BIZITZA

Sara, 1991-XII-21

X. Elozegi

Jean Baptiste Elizanbururen biografia handirik ez bada ere, badira bere bizitzaren goiti-beheitiak eman dituzten hainbat idazle, eta horietako bat, menturaz joriena, Antonio Maria labaien jauna.

Baina, maiz gertatzen den bezala, baten hutsak bertzek errepikatuz egiak bailira agertzen dira ondorenean. Eta hala zuzenak ez diren xehetasun batzu han-hemenka argitaratuak izan dira.

### BURASOAK - FAMILIA

Louis Dassancek bere lana argitaratu arte (1) uste izan da Jean Baptisteren aita Heleta aldekoa zela eta ama aldiz, Zugarramurdiarra.

Aita, Michel Elizanburu, Baigorriarra zen sortzez (05.03.1790), nahiz familiaz Azkaratekoa izan. Hemeretzi urtetan, errienta zelarik, ezkondu zen Ortzaizen, 1809ko otsailaren batean.

Ama, Jeanne Irazabal, Ortzaiztarra zen, 1789ko uztailaren batean sortua, eta 20 urte zituen ezkondu zirelarik (2). Ez zen nehundik ere

---

(1) "Recherches sur la filiation du poète J.B. Elissamburu" *Gure Herria* 1970. Louis Dassance.

(2) Ohargarria da oraindik ere Saratarrek diotena: Jean Baptiste Elizanbururen ama Zugarramurdikoa zen, Palazio deitu etxekoa hain zuzen ere. Egia ez baldin bada hala badu uste horrek oinarririk.

Jean Baptiste Elizanbururen seme bakarra, Joset, Urruñan sortu zen 1877ko apirilaren 14an. Estudioak egin eta, mende hastapenean, Saran ideki zuen farmazia (lehenik Lauretsenean, ondotik Xaalean eta azkenik Lekuederrean), eta oraindik bizi diren lekuko batzuen erranetarik badakigu Joseten izeba Zugarramurdin bizi zela, Palazio etxean, eta alarguntsa zela.

Hain zuzen delako botikarioa, urtero abenduaren 26an Zugarramurdira joaten omen zen izebari bisitaren egitera eta hori eguraldi txarra izanik ere...

Horiek horrela bazukeen funtsa saratarren lehen aipaturiko ustea...

Zugarramurdikoa, Labaien ondotik bertze zenbait idazlek hori badiote ere (Estornes Lasa,...).

Dassanceren lanetik jakin dugunez, Michel, aita, Aduanan sartu zen ezkondu eta berehala, 1811an, eta 1813an Lekunberriko Aduanan zen. Bertzalde Jean Baptisteren lau anaia zaharrenak, Léon, Joseph, Martin eta Jean Aduanetako enpleatu izan ziren.

Elizanburutarren lehen zortzi haurrideak hauek izan ziren:

- Gratianne, 1813an (edo lehentxago) sortua.
- Dominique (edo Marie Dominique) Ortzainen sortua (12.06.1814) (3).
- Léon Ortzainen sortua (1.03.1816).
- Marie, 1817an sortua.
- Joseph, Arnegin sortua (23.11.1818).
- Martin (“Luttin” izengoitiz), Lasan sortua (26.03.1820).
- Jean, Lasan sortua (3.02.1823).
- Gracieuse, 1824 eta 1826 artean sortua.

Horra bada, Lekunberri, Ortzaize, Arnegi eta Lasa bizitoki izan ondoan Elizanburu senar-emazteak eta 8 haurrideak heldu zaizkigula Sarara 1826an.

Lehenik Piarresenea (4) etxean kokatu ziren eta bertan sortu ziren:

- Martin (29.01.1827).
- Jean Baptiste (14.08.1828).

---

Horra egia: Palazio etxeko alargunsa hori, “palaziana” eta ere “señorita” deitzen zutena, Urruñarra zen sortzez eta ezkontzaz bilakaturik zen Zugarramurdiarra. Etiennette (edo Estephanie) Eyheraburu Urruñan sortu zen 1847ko martxoaren 14an eta Palazioko nagusiarekin (don Romualdo) ezkondu zen. Etiennette bertzalde Françoise Eyhereburu, Jean Baptiste Elizanbururen emaztearen ahizpa zen. Jakingarria litzake nola bilakatu zen Zugarramurdiko “palaziana” gure Urruñarra!

(3) Dominique Elizanburu François Harizaletarekin ezkondu zen Saran (28.11.1839). Senarra Iguzkiagerreko bordako maizterra zen, Dominique Kolokarenea etxean bizi zelarik. Ordukotz Dominiquek lehen haurra ukana zuen, iduriz delako Harizaleta aita zelarik (Marie 9.09.1838). Familia Harretxeko bordan kokatu zen eta bertan sortu ziren Gracianne Harizaleta (27.09.1840) eta Jean Harizaleta (22.01.1842).

François Harizaleta Ameriketara joan zen... Dominique artean, Saran, ukan zituen bertze bi haur (aita ez-ezagunenak): Jean Elissamburu Granadan sortua (3.09.1849) eta Jeanne Marie Gracianne Elissamburu Martingazteenean sortu zena (24.10.1852). Denbora horietan François Harizaleta agiri guzietan “passé à Montevideo” hitzez aipatzen dute.

1959ko ekainaren 28ko agiri batetan hauxe irakurtzen ahal da: “Dominica Elissamburu et François Harizaleta conjoints d’état de labeur, domiciliés à Sare”...

Dominique Munddunirenean hil zen (21.07.1870); bertze guziak, iduriz, Saratik joan ziren...

(4) Piarresenea: Bastandegia eta Harretxea etxeen artean, bide erditsuan zen etxe ttipinoa, erreka ondoan. Gerora ere guardak bizi izan ziren etxea (suntsitua).

Ondotik Adameta etxean (5) sortu zen azken haurridea:

– Jeanne (22.12.1830).

Familia hori 9 urtez egon zen Saran, Piarresenean lehenik, ondotik Adametan eta azkenik, iduriz, Granadan. Granada etxean, hain xuxen, hil zen Jeanne Irazabal ama (4.10.1835). Artean aita, Michel Elizanburu Arrangoitzeko aduanan zen lanean sous-lieutenant gisa eta han berean hil zen (1.11.1835).

Familia Arrangoitzera eramateko xedetan ote zen? Emaztearen heriotzea dela-ta, ezina gertatu ote zitzaion? Dena den Arrangoitzeko hilerrian ehortzia da Michel Elizanburu.

Zer gertatu zen orduan hameka umezurtz horietaz? Jakin badakigu 1859an guziak bizirik zirela (6).

Pentsa daiteke, lau seme zaharrenak gazterik sartuko zirela Aduanan. Léon Uztaritzen ezkondu zelarik (25.04.1842) jadanik “brigadier des douanes” kargua ba zuen; ez zitaken Aduanan sartu berria... Martin ere 1842an Oletako Aduanan ari zen lanean... Bertze batzu Ortzazera eraman ote zituzten?

Beraz Jean Baptistek zazpi urte zituen, eta Granada etxean bizi zen, umezurtz gelditu zelarik.

Labaienek dioenez Harizmendia etxeok lagundu zuten Jean Baptiste. Egia da Harizmendiako nagusia, Jean Baptiste Etcheverry, izan zela J.B. Elizanbururen baraioko aitabitxi.

Bertzalde Moskorrondoa etxeko jauna zen Mendiburu errient nagusiak adiskidetasun handia omen zuen Elizanburutarrekin...

(5) Adameta: Iletegia lantegia egina izan zelarik bertan ziren zombait etxe bota egin zituzten:

Errotaldeborra - Errotaldebordaxumea - Errota - Haranbidea/Adameta (eraikuntza bereko bi zati, bakoitzak bere izena zuena).

(6) 28.06.1859 “Audience...”

– Gracianne, dendaria, Ortzazizen bizi.

– Dominica, laborantzatik bizi zen Saran.

– Léon, Donibane Lohitzuneko Akotz auzoan Aduanako “brigadier” gisa.

– Marie, Etcheverryren alarguntsa, laborantzatik bizi, Ortzazizen.

– Joséph, Ortzazizen laborari (Aduana utzi ondoren beraz).

– Martin, Ortzazizen laborari (hau ere Aduanan egona).

– Jean Aduanako “sous-brigadier” gradodun, Zuraiden.

– Gracieuse, sehi, Baionan.

– Martin, errient, Zuraiden.

– Jean Baptiste, Clermont Ferrand hirian armadako “sous-lieutenant” gisa.

– Jeanne, Bordalen bizi zena.

Dena den, ez dakigu xuxen nun bizi izan ziren Elizanburutarrak (Saran geldituak zitazkenak). Dominique arrebak Kolokarenean bizi izan zenak etxean hartu ote zituen haurride zombait?

Jean Baptiste, bertze haurrak bezala, herriko eskolan ibili zen dudark gabe eta elizako beretter ere izan zen. Hain zuzen Dominique arreba ezkondu zelarik (28.11.1839) elizako ezkont-agirian, Jean Baptisteren sinadura agertzen da. Jakingarria da ere “Piarres Adame” liburuttoan honako elkar-hizketa hau irakurtzen ahal dugula: “To!, to!, to!... ez haiz hi beattar izana”, eta Peiok: “Bai, jauna...”. Eta badakigu delako Peio gaztea, Jean Baptiste Elizanburu bera zela...

Tarrothu zelarik Larresoroko semenarioan sartu zen ikasle, bizitzaren nekeak eta zailtasunak ongi ezaguturik, naski.

**Istudioak.** Larresoron iragan zituen gaztaroko urteak, bainan ez dakigu Saran gelditzen zen familiarekiko hartu-emanak atxiki zituenentz.

1843-1847 urte horiek markatu zuten dudarik gabe Elizanburu gaztearen pertsonalitatea. Han berean sortu bide zitzaion euskal kulturarekiko amodioa. Han egin zuen Elizanburuk Gratien Ademaren ezagutza eta elgarrekin egin zituzten zombait kantu, hala nola 1846an goseteari “Betiri Sants” izenekoa eta ere bertze bat Zumalakarregi gizon ospetsuari.

Adema eta Elizanbururen bideak urrundu ziren: Adema azpezgoaren bidetik barna sartu zen eta Saratarrak armadakoa hartu zuen. Euskaltzaletasunak berriro gurutzerazi zituen. Politikaren gorabeheren gainetik adiskidetasunak iraun zuen azkeneraino.

## ARMADA

20 urte zituelarik (7), 1849ko apirilaren 30an, Baionako kasernan bi urteko engaiamendua sinatu zuen Elizanburuk. Duvoisin en hitzetan zakua bizkarrean (hau da bertze deusik gabe) sartu zen armadan. Dena den, ez zen soldadogoa egitera joan.

54an Errejimenduan eman zuten soldado arrunt eta errejimendu honetan egon zen luzaz (bertze bietan bi urtetarako sinatu zuen eta 1855an 7 urtetarako).

1851n, Vaucluse departamenduan “campagne intérieure” deitu batean parte hartu zuen.

---

(7) Ezkontzagirian: “armadura joan aintzinean Saran bizi zena”.  
Armadako paper batean (24.8.1857) “azken egoitza Urruña”.

Afrikan ere bietan egon izan zen bertako gudutan: lehenik 1853 otsailaren 13tik 1854ko abenduaren 21 arte eta ondoren 1855ko maiatzaren 28tik 1857ko urriaren 15 arte.

Artean emeki emeki gradotan igaten joan zen...

- 1850ean: “caporal”.
- 1851n “sergent”.
- 1857an “adjudant”.

1859ko ekainaren 29an, Clermont Ferrand hirian zen “sous-lieutenant” gisa.

1860 urtean grado berarekin Savoie eskualdean omen zen (ikus Duvoisin).

1861ko abenduaren 29an Enperadorearen guardian, hau da, “Premier Régiment de Grenadiers de la Garde Impériale” delakoan sartu zen. Ez zen, iduriz, gauza erraza eta podereari buruzko atxikimendua frogatu beharrezkoa ziteken... Errejimendu honetan iragan zituen 10 urte.

Artean, ez dakigularik xuxen zer arrazoinez “Légion d’Honneur” delakoan xingoladun eman zuten (26.12.1864 edo 26.1.1865).

1870ko uztailaren 19an hasi zen Alemaniaren kontra Frantziako armadak egin zuen gerla. Elizanburu, ordukotz lotinenta zena, kanpaña hortan parte hartu zuen. Elizanburuk berak egin txosten batean kontatzen ditu egun haietako goiti beheitiak. Parisetik 1870ko uztailaren 20an abiatu ziren. Uztailaren 22tik 26 arte Nancy hirian egon ziren. 28an Metz hirian ziren. Agorriaren 14an Borny deitu tokiko gudukaldian parte hartu zuen eta 16an Gravelotte herrixkako gatazka bortitzetan ere. 18an St. Privat deitu tokian ziren eta ondoko egunetan izan zituzten bertze ekintza zombait, hala nola itxurazko ateraldi bat (31.8.1870-1.9.1870).

1870ko buruilaren 12an, tokian berean, kapitain izendatu zuten, Elizanbururen beraren hitzez, adinarengatik (“tour d’ancienneté”).

Ondotik, urriaren 7an bertze ekintza batean parte hartu ondoren, ez du bertzerik aipatzen. Urriaren 29an preso hartu zuten (Metz hiriko kapitulazionea) eta Westfalia eskualdeko Soest herrian egon zen preso Azaroaren 4tik 1871ko apirilaren 6 arte. 1871ko apirilaren 10an 14 Errejimenduan eman zuten (Auxerre hirian). Nagusi berriek (Errepublika emana zuten agintean Inperioaren ondotik) bere gradoan konfirmatu zuten Elizanburu kapitaina.

Saratarraren txostenetik badakigu ere 14 garren Errejimunduaren konpañia baten buru eman zutela eta armada Parisera sartu aintzineko eta ondoko ekintzetan parte hartu zueela (24.4.1871-7.6.1871). Gauza ageria denez Pariseko jazar-kundea edo bertze hitzez “La Commune de

Paris” delakoan armadak egin represioea bortitza izan zen: 20.000 (edo batzuen ustez 40.000) heriotze izan ziren federatuen aldetik eta 700 inguru armadako lerrotan.

1872ko maiatzaren lehenean 125. Errejimenduaren kapitain izendatu zuten eta 1874ko abenduaren 31n Baionan zen 34 Errejimenduan [Artean, oraino Sedan hirian zelarik (!) Urruñako alaba batekin ezkondua zen (10.6.1874)].

1876ko azaroaren 18an, eri zelako, lanetik kanpo utzi zuten “en non activité”, 6 ilabete baino gehiago beharko zituelako osatzeko...

1879ko agorriaren 25an erretretan zen (30 urtetan armadan egona bait zen). Halere kargu berri bat (ala ohorezko kargu bat?) eman zioten 1880ko otsailaren 18an (Capitaine Adjudant Major).

Azkenik Elizanbururen demisioea 1881ko abenduaren 6an onartua izan zen.

## EUSKAL HERRIRATZEA

Familia aberats bateko alaba zen Françoise Eyherabururekin ezkondu zen Urruñan berean (10.6.1874).

Ez du iduri senar emazteak Sedanera (J. Baptisteren bizitoki ofizialera) joan zirenik bizitzera. Aldiz, Elizanburu ofizialki Baionaratua urte ondarrean izan baldin ba zen ere, iduriz lehenago ere utzia zuen Sedaneko egonlekua. Geroago aztertuko ditugun paperetan agertzen denez, 1874 urtean Vichy hiriko uretara joan behar (?) izan omen zuen bere osagarriarengatik eta ondoren hiru hilabeteko pausaldia izan zuen...

Ezkondu aintzinetik, Elizanburuk baimena galdatua zuen armadako buruzagiari eta baia eman aintzinetik inkesta bat egin erazi zuten. Hortik ageri da Françoise Eyheraburu ondasunez Elizanburu bera baino aintzez aberatsagoa zela. Notariaren aintzinean egin kontratuan gauza bera ikusten ahal da.

Françoise Eyheraburu Hiriarte eta (16.8.1842) zen, eta ezkondu zelarik aita eta bi anaia hilak ziren. Aita Pierre Eyheraburu Urruñako Herriko-Etxeko enpleatua izana zen, herriko lanen buru gisa. Ama Marie Catherine Hiribarren komertsanta zen, eta anaia, Pierre Celestin, zimentu lantegi baten nagusia, ahizpa gaztena berriz, Etiennette edo Estephanie, 1847ko martxoaren 14an sortu zen eta noiz ez dakigularik Zugarramurdira ezkondu zen.

Hiriarte eta sortu zen senar emazteak ukan zuten seme bakarra, Léon Joseph (14.4.1877), Jean Baptiste Elizanburu “en non activité” emana zelarik.

Urruñan, beraz, biri izan zen Elizanburu zombait urtez. 30 urte bete behar zituelarik militar gisa, erretretari buruzko paperak eta galdeak egin zituen eta hala dakigu Sarara joan nahi zuela han betirako geldituz (8.11.1879).

Manterolari egin gutun baten bidez badakigu Saran zela 1880ko urtarrilaren 22an.

## ERITASUNA

Dakigunez lanetik kanpo utzi zuten Saratarra (18.11.1876), eri handi zelakoan. Egiazki eri ote zen Elizanburu? Ikus dezagun paperek zer dioten.

“Inspection Générale de 1875” deitu dokumentuan ez da nehundik ere ageri gure olerkaria eri denik. Bertzalde erran genezake, azkar, gerlarako on, eta horrelakoak irakurtzen ditugula eta ere “basque, a l’habitude des montagnes”.

1876ko dokumentu bertsuan Jeneral batek, azkar eta gerlarako on ikusten badu ere, “Inspecteur Général” karguduna ez da critzi berekoa. Honek, hain zuzen hauxe dio: “itxuraz azkarra izanagatik osagarria eskastua du azken urtetan... bere egin beharrak ezin izango ditu bete eta zerbitzua utzi beharrean izanen da aldi batentzat”.

Mediku batek egin gutunean (6.9.1876) irakurtzen ahal dugu Elizanburu azken 4 urtetan maiz egon zela eri, halabainan ospitalean egun bat ere iragan gabe. 1872an Vichy hirira joan behar izan omen zuen “gastralgie” eritasunaren artatzera. 1874an ere Vichy hirira joan zela eta ondoren hau ilabeteko pausaldia izan zuela... 1876an berriro Vichy hirira eta ilabete osoa pausa... “Arrunt ezindua da eta administrazioneko lanak egiten baldin ba ditu ez da berdin bertatzen bertzetan”. Eta bururatzen du erranez “eta ofiziale honek ez badu egun bat ere iragan ospitalean, ezkondua delako da eta bere etxean pausatzen delako da”.

Bertze dokumentu batean (10.9.1876) gauza bertsuak errepikatzen dira, argituz, bertzalde, sei hilabetetan ezin izanen duela bere osagarria berreskuratu.

1876ko urriaren 31n galde ofiziala egina da. Eritasunaren izena ere aipatzen da “Dyspepsie gastralgique chronique”. Laster galde hori onartua da (18.11.1876).

1879ko apirilaren 21eko Baionako ospitale Militarreko ageri batean irakurtzen dugu “bere eritasunaren ondotik Elizanburu arrunt ahuldua

da, eta bertzalde Armadan 30 urte eginak bait ditu erretretara joan beharko luke kapitaina”.

Egiazki eri ote zen Elizanburu? Ez da erraza galde honi erantzutea; dena den Manterolari izkiriatutako gutunetan ez da horrelakorik ageri, nun ez den 1881ko maiatzaren 10ekoan. Hain zuzen Manterolaren galde bati erantzunez hauxe dio: “bai, bizi naiz oraino, baina doi doia. Banabila, baina herrestantxe bezala. Zer nahi duzu?... Osasuna galtzen da laster, baina gero ez berriz kausitzen batzuetan luzaz ere. Halere ez dut behar sobera errenkuratu, zeren Jainkoari eskerrak urte hainitzez gozatu bainaiz osasunik ederrenaz. Orai tzarraren aldia eta Jainkoak hala nahiko duen artean...”.

Beraz bai egiazki eri senditzen du bere burua 1881.urtean, baina lehenagoko urtetaz ez dugu bertze lekukotasunik. Aipatzekoa halere Armadako 1880 agiri bat. Oroit gaitezen orduan, lanetik kanpo, eta erretretan zela Elizanburu. Alta ba zuen, ofizialki bederen, armadako kargu bat eta buruzagiek Elizanbururi buruz hauxe diote: “constitution robuste”, bonne sante”, “vigoureux” eta holako...

## SARAN

Gure familia (senar-emazteak eta Joset seme bakarra), beraz, Saran kokata zen, Lekuederrea etxean.

– 1880ko urtarrilean Sarn ziren.

– 1881.urtean juje-laguntzaile izan ondoren, 1882an Ezpeletako kantonamenduko bakezko jujea izendatua izan zen. Ezpeletara joaten omen zen herriak eskenitako Ene izeneko zaldi gainean.

1870ez geroz Frantzia estadoak bildu zafraldiaren ondotik ainitz kanbiamendu dira; Errepublika emana izan da eta orotan xuri gorrien arteko politika borrokak biziki bortitzak dira.

Gure Elizanburu giristino suhar bezanbat zen gorrien aldekoa bete betean. Ez dakigu armadako denboretan bere pentsamoldea agertzen zuenentz, ez dugu batere frogarik atxeman hortaz. Denboraldi haietako lelukotasun bakarrak bere kantuak ditugu eta horiek ez digute ezer erakusten hortaz...

Dena den, Saran bizi zelarik eta herriko bozak izanik horra Jean Baptiste Elizanburu gorrien listan presentatzen dela. 1881ko urtarrilaren 9an bozak izan ziren, eta 1881ko urtarrilaren 23an Herriko-Etxean boz kondatzeak. Bozik gehien bildu zituena Elizanburu izan zen. Ez zen aspaldi Sarara etorria zela baina, iduriz, Saratarrek estimu handitan zuten.



Auzapeza hautatua izan zelarik 15 (16 etarik) kontseilari ziren bilduak Herriko etxean, J.B. Elizanburu barne. Bainan, gauza harrigarria, Jacques Abbadie izan zen hautatua 14 bozez eta ez Elizanburu. Ondotik auzapez bigarren (axuanta) dute hautatzen eta hor ateratzen da Elizanburu 14 bozez ere. Bainan, iduriz, Elizanburuk ez zuen herriko kargurik nahi, eta bere xede bakarra gorrien listari bere laguntza ekartzea zen... Dena den, ez zen gehiago nehoiz Herriko-Etxean agertu kontseilua bildu izan zelarik eta laster Elizanbururen ordez bertze bat izan zen hautatua.

Elizanbururen bizitzako azken hamar urteren berri handirik ez dugu jakin ahal izan Saran berean. Bada halere zerbait jakingarririk. Urte haietan telegrafa berrikuntza handia zen eta ainitz mintzo zen jendea hortaz. Saran ere telegrafa eman behar zela eta diru eske bat antolatua izan zen, suskizioe gisa. Herriko etxeko bilkura batetan (21.11.1886) diru biltze hortaz mintzatu ziren kontseilukoak eta liburu ofizialean eman zuten emaileen lista osoa. Horra xehetasun batzu:

- Abbadie/Aguirre: 300 - Dop Henry 100 - Lereboure Gustave 100 - Mendiboure J.B. 50 - Elissague (jaun auzapeza) 50.
- Ondotik 10 eta 30 liberen artean 11 pertsona eta horien artean: Webster, Elizanburu, Eliçagaray medikua, Diharassarry Eugène, Landerretche erretora...
- Azkenik 18 emaile libera bat eta 10 liberen artean (horien artean Augustin Etcheverry zapataina eta bertsulari eta poeta ezagutua Amirin errienta, Aprendisteguy bikarioa...).

Orotara 836 libera.

Dena den pentsatzen ahal dugu goxoki igaro zituela bere azken urteak. Saran berean bazuen adiskide handi bat Webster angelesa (8) Bexienian bizi zena eta liburu egile, euskal kultura ongi ezagutzen eta maitatzen zuena... Eta Saraz bertzalde badu hartu emanik, mugaz bi aldetan, orduko euskaltzale handiekin, hala nola, zombait bakarrik aipatzeko Guilbeau jauna eta Manterolarekin. Hain zuzen Elizanburu/Guilbeau/Manterola, hiruak izan ziren Donibane-Lohizuneko 1881eko bestetan bertsulari sariketaren jupeak.

Emaztea gazterik hil zen, 49 urte bete gabeak zituelarik, (4.07.1891), eta laster etorri zitzaion Elizanbururi ere azken orena (31.12.1891).

---

(8) 1882ean Sarara joana DL'tik. Osasun eskasez batzuen iduriz. Diru eskasez Duvoisin-en eritiziz.

## J.B. ELIZANBURUREN LANAK

### Esku-liburua

Elizanbururen eskuz egina da. Alde batetik 15 kantu, bertze aldetik Piarres Adame hitz laxozko eleberri tipia.

**Kantuak** Nere etxea - Gazte hiltzera dohana - Maria - Apexa eta Lorea - Zapataina - Agur herriari - Lau andren besta - Biba Frantzia - Aingeru bati - Xori berriketaria - Lehen eta orai -Eskuara eta Eskualdunak - *Eskualduna* - *Xuriko* - Maite zaitut. Kantu bakotzak bere musika aintzinetik duelarik.

Esku-liburu hau dela-ta bada ainitz galde edo duda:

Noiz egina ote? Bada data bat Eskualduna kantua ondotik (1867) eta bertze bat azkenaren ondotik: 1er Octobre 1885, eta sinadura bezalako zerbait, menturaz Elizanbururena.

Kantutegi hau osoki eta aldi batez kopiatua izan ote zen? Kantuek duten ordena kronologiazkoa ordena ote? Ezin galde horiei erantzun zuzenik eman. Bada halere zerbait bitxi: azken kantuak osoki **K** hizkiz emanak dira. Bertze guzietan ba ziren **C** izkiak eta **K** izkiak (9), hastapenean bederen, bainan ondotik **C** gehienak gainerik zuzendurik **K** bilakatuak dira.

15 kantu horietarik biga ez dira Elizanbururenak:

- Eskualduna (egileak Joannateguy eta Louis Ithurbide saratarra), eta aipagarria sinadura gisa hau agertzen da “Saratat koplari bat 1867”.
- Xuriko (egilea Gratien Adema “Zaldubi”); hemen ere sinadura gisa: “Zaldubi”.

Ez da esku-liburu honetan bertze sinadurarik salbu liburuaren azkenan lehen aipatu duguna.

Bertze 13 kantuak Jean Baptiste Elizanbururenak dira. (Sail honetaz kanpo badakigu eritegian (Boltixurrak) kantua ere Saratarrarena dela eta menturaz, bertze batzu ere...

---

(9) Ortografiaz ari garelarik, CH (oraiko euskaraz X) delakoarekin ez huts egiteko naski beti ematen du ikhusten, ikhasten, golkho, lekhu, khausitu (baina causitzen!) ekharria, bilkhura, akhalarre... Bertzetan aldiz, nola gerta, C hala K.

Ortografiaz ere, orain TS idazten duguna Elizanburuk X izkiriartzen zuen orduko idazle gehienek bezala. Baina bi kantutan TS erabiltzen du: Maria eta eskuara eta eskualduna. Orain J ematen dena Elizanburuk Y ematen zuen salbu *Agur Herriari* kantuan eta nahasketaturik biak *Gazte hiltzea dohana* eta *Zapataina* kantuan. Bitxikeriak ere Erdalduna, adiskidea, ari (ari izan)...

***Piarres Adame***

Hitz laxozko eleberri ttipi baina obra xoragarria den Piarres Adame esku-liburuaren bertze aldetik izkiriaturia da. Ba du lan honek berezitasun bat: jakina denez Piarres Adame liburuttoaren barnean, bigarren atalean hain zuzen, Gizon zuhurra edo Zapataina kantua agertua izan dela eta hori ez bakarrik liburu horren azken argitaratzen baina ere zaharretan. Esku-liburuan aldiz ez da horrelakorik gertatzen, bigarren atalean ez da emana kantu hori! Dena den aldakuntza hori Elizanburuk berak egin zitekeen...

**Kronologia**

Elizanbururen kantuek noiz eginak izan ziren ez dakigun arren, denbora haietako lekukotasunak (kasetak, aldizkariak, sariketak) garrantzi handikoak dira eta bereziki Abadia jaunak antolatzen zituen bestak:

**ABADIAREN BESTAK**

Abbadie d'Arrast jaunak antolatu zituen Urruñan 1853an hasirik eta 1896 urte arte (Kanbo, Maule), hainbat eta hainbat sariketa. Diru-emaizta ederrez hornituak ziren primaka horiek eta bertsulariak eta poetaz bertalde saritzen zituzten ere, pilotariak, kabala feriak, laskerkari txapelketak etabar. Horra zein herritan eginak izan ziren joko horiek:

URRUÑA:	1853	1854	1855	1856	1857	1858	1859	1860
	1862	1863						
SARA:	1864	1865	1866	1867	1868	1869	1871	1872
	1873	1874	1875	1876	1878	1882	1884	1885
DONAPALEU:	1877							
ELIZONDO:	1879							
MAULE:	1880	1890	1896					
IRUN:	1881							
MARKINA:	1883							
URNIETA:	1886							
AZKAINE:	1887							
KANBO:	1888	1896						
DONEZTEBE:	1889							
IURRETA:	1891							

DONIBANE-		
- LOHIZUNE:	1892	1894
UZTARITZE:	1893	
AZPEITIA:	1893	
HAZPARNE:	1894	
BERA:	1895	
EZPELETA:	1896	

Besta horiez bertzalde 1879tik goiti bertze batzu ere ospatzen dira, hala nola Donostian 1879an, 1880, 1881... Begoñan 1880an, Beran 1880an, Donibane-Lohizunen 1881ean, Iruñea, Oihartzun, Bilbo.

\* \* \*

Beraz zoin kantu noiz eginak diren ez badakigu ere, kasu batzuetan gauza ageria da halako urtetako sariketan aurkeztua izan zen kantua edo halako kasetan argitaratua izan zena *Ordurako bederen* egina zela. Horrek ez du frogatzen haatik bertzeak berantago eginak izan direnik...

\* \* \*

*Gazte hiltzera dohana* (1860 JB. Elizanburu armadako “*Sous-lieutenant*”); Esku-liburuan bigarrena 4 eta 5 plametan emana.

Urruñako 1860ko jokoetan lehen saria bildu zuen kantu honek. Le Courrier kasetak 1860ko buruilarren 9an ean osoki argitaratu zuen, frantses itzulpena ondoan zuelarik.

Sariketa hau dela-ta gauza harrigarri bat gertatu zen. Le Courrier kasetak 1860ko buruilarren 2an ean lehen saria ukan zuen kantua “*Gazte hiltzera dohana*” zela eta haren egilea Harlouch jauna zela zioen, baina berehala (12.09.1860) zuzendu zuen berria eta horrela eman zuten Duvoisin kapitainaren sinaduraz: “Harlouch jaunaren lan bat eta saritua izan dena, biak elgarrekin izanez, uste izan genuen biak zirela Harlouch jaunarenak. Baina ez da horrela, irabazi duen kantua egilea J.B. Elizanburu da, armadako lotinenta, Léon Elizanbururen anaia...”.

Hau hala izanik ere Estornes Lasaren obra handian, *Gazte hiltzera dohana* kantua Harlouch jaunarena bezala emana da. Bertzalde Labaien jaunak, “Harlouch” J.B. Elizanbururen izenorde bat baizik ez dela dio...

Dena den, iduri luke Duvoisinek ez zuela ordu arte J.B. Elizanburu ezagutzen. Hau litzateke beraz, J.B. Elizanbururen (32 urte) euskal kulturara lehen agertzea eta lehen urratsa euskaltzaleen munduan.

**APEXA ETA LOREA**  
**AGUR HERRIARI**  
**NERE ETXEA**

Hiru kantu horiek JB Elizanburuk (34 urte eta beti armadan egoki) Urruñako bertsu gudura aurkeztu zituen 1862an, baina izenik eman gabe. Apexa eta Lorea kantuak lehen saria bildu zuen, bertze biak soilki aipatuak izan zirelarik.

Hiru lan horien aita bezala laster izan zen onartua JB Elizanburu, beraz, egileak berak erakutsi bide zuen bere burua.

*Apexa eta Lorea*, Esku-liburuan laugarren kantua 4/5/6/7/8/9 plametan emana. Estornes Lasak bere obran 10 bertsu ematen ditu, esku-liburuan 12 direlarik. *Revue des Basses Pyrénées et des Landes* delakoak 1883/84an argitaratua.

*Agur herriari*, Esku-liburuan seigarren lana, 12/13 plametan.

Biziki ezagutua den kantua, maiz beren lehen hitzetarik ezagutuagoa: Urrundik ikusten dut. *RBPL* aldizkariak 1883/84an argitaratua.

Manterolak bere *Euskal Erria* aldizkarian 1887an kantu eder hau eman zuen Piarres Adame sinaduraren pean; ondoan frantses itzulpena J.B. Elizanbururen izenean. Baina kantu honek oraikoan 13 ahapaldi ditu, esku-liburuan aldiz 11 baizik ez. Bertzalde ba ditu Manterolaren aldizkarian agertuak zenbait desberdintasun, bigarren bertsuak arrunt diferenta delarik.

Iduri luke aldaketa eta ahapaldiz gehitze horiek Elizanbururenak direla; Manterola eta Elizanburu adiskide ziren, Elizanburu Manterolaren laguntzailea baitzen, eta azkenik itzulpena Elizanburuk berak egin bait zuen.

*Nere etxea* (Esku-liburuan lehen kantua 1/2/3 plamak).

Hau da, dudarik gabe, Elizanbururen omena egin duen kantua, Nere etxea edo Laboraria (Elizanburuk hala zioen) baino Ikusten duzu goizean bezala ezagutuagoa. "Etxe zuria" izenez ere ezagutua.

Kantu honek Euskal Herriaren itzulia egin bide zuen berehala; hain zuzen, ainitz tokitan argitaratua izan bait da, berehala xuberotartua izan bait zen eta arrakastarik handiena bildu ondoren oraindik ere bizi bizirik bait dirau zazpi Euskal Herrietan.

Errotarena Jaunak Euskal Erakustokiko aldizkarian (1941) lan eder bat (10) egin zuen kantu hontaz. Lan horretan dio Elizanburuk bere

---

(10) Guk dakigunez lehen aldikoz aipatzen da hemen esku-liburua.

esku-liburuan aurkezten zuen musika, oraikoa baino zaharragoa, ainitzez ederragoa zela. Errotarenak lan hortan berean kantu osoa esku-liburutik zuzenean kopiaturik ematen du.

Aipagarria ere kantu horren sortzeaz aipatzen den ixtorio xarman bat: Ihizira joanak omen ziren Elizanburu eta zonbait lagun, Gustave Leremboire barne. Elizanburu bide-gurutze batean utzirik bertzeak han-hemenka barreaturik, horrela pasatu omen zuten eguna. Baina Elizanburuk ez zuen erbirik ikusi, alta bertzeak segur ziren bera egona zen tokitik pasatuak zirela.

Erbirik ikusi ez baina “Nere etxea” kantu eder hori ondu omen zuen gure Saratarrak. Ondoren, Etxegaraian, adiskide eta ihizi-lagun zen Gustave Leremboiren etxean abestu omen zuen delako *Ikusten duzu goizean*.

Gertatua, aldiz, ez bide izan zen horrela. Kantu hori 1862 urtean egina zen (edo lehenago), Elizanburu Euskal Herritik urrun, armadan, zelarik. Gustave Leremboire ez zen Etxegaraian bizi, eta gizon hori, 1847ko ekainaren 13an sortua izanik, ez zituen orduan 14 urte inguru baizik! Ez bide zen adin hortako mutikoa, 34 urtetako gizon baten adiskide eta ihizi-lagun, ez eta ere Etxegaraiaiko etxeko jauna!!

*Maria* (1866 - Elizanburu armadan, 38 urte) - Esku-liburuan hirugarren kantua 6/7/8.

Sarako 1866ko bertso gudian lehen saria ukan zuen poema honek. Kasu honetan ere, kantu-egileak ez zuen bere izena eman eta *Le Courier* kasetak (31.08.1866) egile ez ezagunari galde egiten zion bere burua ager zezan.

Berehala jakin zen Elizanburu zela kantuaren ontzailea.

I - zan nauk Ipa - rre-ra he - goal-de-tik

I - guz-ki-ko parte ra mende -ba-le-tik.

E - ta diat i-ku - si gu- zi-en gainetik

I - no-zentzi-a hai-nitz gi-zonen parte-tik

a - bi - la hargatik

duk e-gun-dai-no-tik

e - gin ga-be de-nik

e - der-ki-e-na bi zi bertzen la-ne-tik

## 9. Aingeru bati

Ez dakigu noiz idatzi zuen Elizanburuk kantu hau. Dakigun bakarra da *Euskal-Erria* aldizkariak eman zigula 1880an (59 eta hurrengo orr.) Euskal testutik aparte, Manterolak egin zuen gaztelaniazko itzulpena eta Elizanburuk berak egindako frantseskoa azaltzen zaizkigu Donostiako aldizkari honetan. Elizanbururen eskuliburuan agertzen den doinua ere ematen digu EE-k, Jose Maria Etxeberria musikagileak gehitutako piano laguntzarekin. Gero Labaienek, KAN eta KKK kantu bildumek ere ematen digute kantu hau.

Olerki honen laudoriak egiten ditu Jose Manterolak bere aldizkarian eransten dizkion irazkinetan. Gauza bera egiten du Karmelo Etxegaraiak "Escritores euskaros. Elizaburu" artikuluan (Ikus *De mi Pais. Miscelanea histórica y literaria*. San Sebastián, 1901, 238-240 orr.) Poema honetatik azken bertsoaren zati hau ematen digu eredutzat Etxegarai jaunak:

... Oi! behautzu  
lohirat eror, zuk, aingerua!  
Ez beha lurra, beha zazu  
lurra ihesi beha zerua!

Hugo Schuchardt-ek ere bertsoaren zati berau ematen digu "beha" hitzaren esanahia aztertzeko (Ikus: *Zur kenntnis des Baskischen von Sara (Labourd)*, Berlin, 1922) "Beha" hori "kontuz!" edo "begira!" izan daitekeela diosku Grazeko irakasleak. Eta Oihenarten beste adibide bat jartzen digu: "Beha lehenik, mintza azkenik" non argi dagoen "beha" horrek adierazi nahi duena. Sarako euskararen ikerketa hau prestatzeko 1887an egon zen herri honetan Schuchardt jauna, nahiz eta askoz beranduago ikerlana argitaratu.

Metrikaren aldetik arrotza dela esan dezakegu: 9A, 10B, 9A, 10B, 9C, 9C, 9D, 10E, 9D, 10E, 8E, 12E. Eta hala izan behar doinu arrotz bati lotua dagoelako poema. Adolphe Adam (1803-1856) musikari frantsesak musikatutako *Si j'étais roi* operatik hartua da poematxo honen doinua (Lehen ekitaldia, 2. erromantza). Parisen estreinatu zen opera hau 1852an eta zabalkunde handia izan zuenez, edozein tokitan entzun zezakeen Elizanburuk opera osoa edo erromantza bera. Edo, Parisen entzungo zuen 1870 urtean hiriburu honetan egon zenean? Ez dakit. Baina musikan aditua zela Elizaburu baiezia dezakegu. Hara hemen kantu hau:

Maite dut e - ta e - zin erran  
aingeru ba - ti maite du - ta - la

zeru garbi -ak a - rra - xe-an  
 i-za-rra mai-te duen beza - la.  
 Zer! Ez da ba - da zo - ri-gai -tza  
 Min-tza-tu na - hi e - zin min -tza.  
 Non nahi nai -zen go - go - an dut  
 gauaz e-gu - naz ain-ge-ru ho - ri.  
 U-rrundik fran-ko xe - de bat dut  
 Bainan hurbil - dik e-zin a -tre - bi  
 Hur - bil - dik e - zin a -tre - bi.  
 Hur -bildu e -ta ez nai -te -ke a -tre - bi

## 10. Eskuara eta eskualdunak (*Arbasoak*)

Poemaren hasieran ematen digu Elizanburuk berak idazlanaren data: “Mila bat zortzi ehun eta lauetan hogoiean” (1880). Aurreko urtean antolatu zituen D’Abbadiek Euskal Jaiak Elizondon, eta saria lortu zuen poema *Ama euskeriari azken agurra* izan zen, Felipe Arrese Beitia bizkaitarrarena. Euskal Herri oso baten kontzientzia sortu zitzaion orduan Elizanbururi: “Guziak bat, mendien bi aldetan” kantatzen du orain, euskaldun guziok herri bakar bat osotzen dugula kantatuz. Betidanik datorkigu batasun hau eta horregatik *Arbasoak* izenarekin ere ezagutzen da kantu hau.

Piarres Adamek sinatuta agertu zen poema hau *Euskal-Erria* aldizkarian, doinu eta guzti, 1882an (42-46 orr.) gaztelaniara eta frantsesera ere itzulita. Iruñeko *Revista Euskara*-k ere argitaratu zuen urte berean (V, 154-157 orr.). Bizkaierara moldatu zuen Azkuek *Euskalzale* aldizkarian (1897, I, 134-135 orr.). Gero. Atharratzeko Albert Constantin-en ahotik hartuta *Cancionero Popular Vasco* delakoan eman zigun Azkuek *Basoilarrak* titulupean (I Tomoa, 18. kantua). Aita Donostiak "Nehor" (Jean Barbier) —en bildumatik hartu zuen eta *Gure Herrian* argitaratu zuen (1923) gero Erriezuko Jorgek prestaturiko *Larre gorrian* era ematen zaigularik Aita Donostiaren harmonizazioa (21 orr.). Erriezuko Aita berak ematen digu kantu hau *Flor de canciones populares vascas* liburuan (Buenos Aires, 1948, 196-199 orr.). Labaienek ere ematen digu kantu hau, baita KAN eta KKK bildumak ere. Beraz, Elizanburuk eskuliburuan ematen digun kantu hau izan daiteke gehien geroztik argitaratua izan dena.

Bertso zaharren metrika du kantu honek: 9/7A, 9/7A, 9/7A, 9/7A. Eta doinua ere zaharra dela diosku Elizanburuk lehen bertsoan: "Bertso berri hauk eman dire aire zahar batean". Hau dugu doinu zahar hori eta Elizanbururen lehen bertsoa:

Mila bat zortzi e-hun e- ta lau-etan hogoie - an

bertsu berri hauk eman dire aire zahar bate - an

Gure ai-ta - so kantabre-ak lo baitaude lurpe - an

ez o-te di-re atzarri-ko aire hau aditze - an

### 11. Zapataina (Gizon zuhurra)

Kantu honen data ere ez da ezaguna. Dakiguna da *Euskal-Erriak* argitaratu zuela 1882 urtean (VI, 171-173 orr.) Manterolaren itzulpen batekin. Labaienek musikarekin argitaratzen du kantu hau eta KKK bildumak, doinu gabe, eta beste izenburu batekin: *Jakintsunen arabera*, hau bait da bertsoen hasiera.

Bertsoaren egitura zortziko zaharrarena da: 8/7A, 8/7A, 8/7A, 8/7A. Eta egitura horri dagokion doinua ere zaharra izan behar halabeharrez.

J. D. J. Sallaberry-k ematen digu kantu hau maiz aipatu dugun liburuan (157 orr.), baina Zuberoako testu batekin: *Chorittua nurat hua?*, oso ezaguna, bestalde, Euskal Herri osoan.

Doinu honen lehendabiziko berri Chahok eman zigun 1835ean (Paris, *France Littéraire*, XIX, 319 orr.) eta hurrengo urtean *Voyage en Navarre* liburuan (1836) argitaratu zuen bigarren aldiz (39 orr.) Doinu eder hau *Mendi Mendiyan* opera musikatu zuenean (1910) erabili zuen Jose Maria Usandizagak, eta gero Aita Donostiak (1952).

Esan dezagun, Elizanburuk etenekin eman zigula aspaldidanik eza-gutzen zen doinua eta melodia aldatuz. Ene ustez askoz ere ederragoa da Chahok eta Sallaberry-k bildu zutena. Baina hemen Elizanburuk idatzirik utzi ziguna emango dugu:

Ja-kintsu nen a - ra-be-ra nor-be-rak du be- re - a

mundu-ra sor -tu de-ne-an e -ka-rri den zorte - a

Jainko-ak na-hi be -za-la nik maite dut ne- re - a

na-hiz ez den jen-den us-tez zo-ri -o-nez be-te - a

## 12. Lau andren besta (*Amex bat*)

Kantu hau 1882 baino lehen egina zela badakigu, *Almanakak* argita-ratu bait zuen data horretan. Gero *Euskal-Erriak* eman zigun 1897an (19-21 orr.) Martin Guilbeauk Saran egin zuen hitzaldian (1897-9-13) Elizanbururena dela kantu hau diosku. Zein den kantu honen jatorrizko testua zalantzan jarri da, baina Elizanbururen eskuliburua ikusi ondoren ez dago inolako duda-mudarik. Hau da berak ematen digun testua:

Herriko besta bigarrenean (beraz: 5/5 silaba)

*Chansons Basques* delako eskuskribuan egitura berbera agertzen da hitz bat aldatuz:

Eliça phesta bigarrenian (beraz: 5/5 silaba)

Baina *Kantuz* bilduman silaba bat gehitu zaio, nota beltzarekin bi kortxea eginaz:

Irgan besta biharamunean (beraz: 5/6 silaba)

Bilduma horretatik harturik, hasiera hau ematen dio kantuari Aña-mendiren *Entziklopediak*, eta halaxe agertzen da *Boga Boga* bilduman ere. Baina ulertu ezinezkoa da Labaienek ematen digun testua:

Igan besta biharamunean (beraz: 4/6 silaba)

hamar silaba guztira izan arren erritmo guztia apurtzen duelako.

Egitura hau dauka bertso berezi honek: 10A, 10A, 20A, 11A, 11A. Elizanburuk ematen digun doinua hau da:

Herri-ko besta biga -rre-ne-an

berek da-ki-ten txoko ba- tean

lau andre bat a - lar-gu - na hirur mutxurdin jarri -ak itza-lean

harri zabal bat belauen gaine-an

a-ri dire,a-ri di-re tru-ke-an

### 13. Maite zaitut!

Elizanbururen azken kantua dugu hau, eskuliburuan ere azken tokian idatzirik agertzen delarik. Data hau jarri zion: "1.<sup>er</sup> Octobre 1885". Gainera Sarako Euskal Bestetara aurkeztu zuen 1885ean, Eyheraburu izenordearekin. Duvoisin-ek argitu zigunez, Elizanbururena zen izenorde hori. *Revue des Basses Pyrénées et Landes* argitaratu zuen poema hau 1886an eta *Euskal-Erriak* 1893an (402 orr.). Labaienen liburuan ere agertzen da argitaratua, doinurik gabe.

Zortziko zaharraren egitura dauka metrika aldetik, baina puntuak edo errimak ez dira lau, zortzi baizik: 8A, 7B, 8A, 7B, 8C, 7D, 8C, 7D. Zortziko zaharra kantatzeko doinua erabili zezakeen Elizanburuk, baina ez zuen halakorik egin, hemen ere doinu arrotzaz baliaturik. Egileak

berak esaten digu zein den erabili behar den airea: “La Rose de Martha”. Ikusi dugunez, *Aingeru bati* kantatzeko opera baten doinua erabili zuen eta hemen ere gauza berbera egiten du. Beraz lehen izan dugun susmoa baieztatzen da: Elizanburuk operak edo zatiak entzuten zituela (Parisen edo beste nonbaiten) eta musikan aditua zela, musika lirikoan behintzat.

*Maite zaitut!* kantatzeko darabilen doinua *Martha* operatik hartutakoa da, “Udako azken larrosa” izena daraman erromantza, hain zuzen. Opera honen musikagilea Friedrich Flotow (1812-1883) zen, Vienan 1847an musikalan hori estreinatu zuena eta Parisen 1858.eko azaroaren 25ean Adelina Patti sopranoak entzutetsua egin zuen doinu hau Irlandako herri doinua omen zen. Eta hala baieztatzen digu J.L. Hatton eta J.L. Molloy jaunek argitara emandako *The Songs of Ireland* liburuak (London, d.g. 22 orr.) non agertzen den *The last Rose of Summer* Thomas Moore-ren (1779-1852) olerkia, herriko *The Groves of Blarney* doinuari egokitua. Beraz Flotow musikagileak *Martha* operarako hartu zuen Irlandako herri doinua hala erabili zuen Elizanburuk euskal olerkia kantatzeko:

Zein den e-der a - rra- xe - an

izar ar te garbia- a

i- pa - rre- tik a - ger- tze- an

mari - ñe - len argi - a

Bai handiz - ki e- der da - go

ze- ru zo - la han- di - a

zu mi - le - tan e- de - rra- go

ne- re mai - te Ma- ri - a

### III. ZALANTZAZKO DOINUAK

Antonio Maria Labaien jaunaren lanak aipatu ditugu eta hauen ondorioz beste idazle batzuk Jean Batiste Elizanbururi egotzi dizkioten kantuak, dudarik gabe saratarrarenak ez direnak. Zortzi dira guztira bizi izan ziren beste egile batzuenak: hiru Leon Elizanburu anaiarenak, beste hiru Joannes Berjes-enak, bat Joannategi/Ithurbide bikotearena eta azken bat Darroupe-Harluzek Ameriketara egindakoa. Labaienek ematen dizkigun hogeita hiru kantuen errolda betetzeko bi falta zaizkigu, ikerketa sakonagoak egin arte zalantzan jartzen ditugunak.

#### 1. Tan tan tan tan rapetaplan

Urruñako bestetan aurkeztua izan zen kantu hau 1858an. Dantzarako kantu bat da, Azkuek kadera edo katadera dantza sailean sartzen duena. Bi doinu ezberdin ezagutzen ditugu bertso berezi hauek kantatzeko. Bata, *Chansons Basques* eskuskribuan titulu honekin agertzen dena: *Ran plan plan plan rapetaplan, arçain çaharra tabernan* (43 zenb.) Bigarrena Etxemendik eta Lafittek *Kantuz* bilduman ematen digutena (99 zenb.) Azken bilduma honetan Elizanbururena dela diote, baina bi anaie-tatik zeinena da? Kantuaren gaia ikusirik, ardoa noski, hiru urte lehenago *Emazte edalea* idatzi zuena esango nuke izan zela honen egilea. Dena den, zalantzan utzi behar dugu oraingoz dantzarako kantu honen egilearen izena.

#### 2. Solferinoko itsua

Italiako Solferino herrian 1859an izandako batailan itsu geratu omen zen kantu honen egilea. Eta Sarako bestetan, 1864ean, aurkeztu zuen poema A. Salaberry izeneko batek. Bertsoaren egitura hau da: 10, 8A, 10, 8A (bis). Manterolak, *Cancionero Basco* delakoan (II. tomo, 1878ko maiatza, 11-19 orr.) *Zolferinoko ixua!* tituluarekin ematen digu testua, euskaraz eta gaztelaniaz; bertso hauek kantatzeko *Bard arraxean arnaxetarik* airea zela erabili behar zena diosku Manterolak eta doinu hau ez zuela ezagutzen. Baina lehenagotik zegoen idatzia doinu hau, ikusiko dugunez. *Chansons Basques* delako eskuskribuan, 34. zenbakian, *Barda arraxian* doinua ematen zaigu, argibide gisa alboan zera irakurtzen delarik: "Gaiaz eder da argizaria (Sall. p. 269)" Eta J.D.J. Sallaberry-ren kantutegira jotzen badugu (1870) aipatu orrialdean aurkitzen da doinu zahar hori. Beraz, J.D.J. Sallaberry-k (beste testu batekin), *Chansons Basques* bildumak (testurik gabe) eta *Kantuz* bildumak (Solferinoko itsua kantatzeko) ematen dizkiguten doinuak antzerakoak dira.



Etxemendik eta Lafittek prestaturiko azken bilduma honetan, Labaie-  
nek baino lehenago, Elizanbururena dela kantu hau esaten zaigu. Eta  
beste batzuren iritzia ere berbera da. Baina J.S.M. (Juan San Martinek,  
noski) Elizanbururena ez dela dio (*BRSBAP*, 1970, IV, 522 orr.) argudioa  
honako hau delarik: doinua, aleman kutsukoa izanez gain, ez dela Eli-  
zanburuk erabilitakoen antzerakoa. Ez dakit non hartzen dion Juan San  
Martin adiskideak aleman usain hori kantu honi, eta hala balitz ere, ez  
da Elizanbururi egiletasuna kentzeko arrazoa, beste doinu arrotzak ere,  
ikusi dugunez, erabili zituen eta. Beste arrazoi sendoago bat emango  
nuke nik kantu hau Elizanbururena ez dela frogatzeko: laugarren ber-  
tsoan zera kantatzen du itsuak:

Ene amaren begi samurrak  
betiko zaizkit estali.

Beraz, itsutasunagatik ezin zuen egileak bizirik omen zen ama ikusi.  
Eta Jean Batiste Elizanbururen ama 29 urte lehenago hilda zegoen,  
1835ean, ikusi dugunez. Dena den, ez dut uste itxita geratzen denik  
ikerketa hau eta zalantzan uzten dut egiletasuna.

Amaitzeko esan behar dut idatzirik eman ditudala Elizanbururen  
zalantza gabeko hamairu doinuak. Baina entzun nahi dituenak diskoan  
aurkituko ditu 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 10, 11 eta 12 zenbakiekin pentagrametan  
eman ditudanak.



## ELIZAMBURU NEURTITZLARI

Sara, 1991-XII-20

J. B. Orpustan

### Sarrera. Hiztegi eta arotegi

Neurtitzlaritzaren, olerkaritzaren “teknikako” xehetasunetan sartzea gauza idor bezala ager daiteke gehienetan, eta hemen ere dudarik gabe; bietan, erran nezake, mugabide batzu behar direnean hastapenetik eman, orok gauza berak entzun ditzaten hemen aipatuko direnatan, ezti-relakotz oraino, euskal kritika literarioan (eta bertze zenbaitetan ere...), hitzak ez gauzak berdin entzuten. Hiztegiko azterketa labur zenbaiten ondotik, ezarriko dira Elizambururen hamalau kantu ezagutuak —baztertuz gaztaroan Adema-rekin izenpetu zuen bat edo bertze— aro zerrenda batean, uste baitut aro muga hauek ekar dezaketela argi zenbait, guti bada guti, olerkien egin moldeari.

1. Handienetik ttipienetarat jautsiz, erran nahi dut neurritz eta itxura ageriaz, huna hemen aipatzen diren hitzen erran-nahiak;

*ber(t)sua*: (Elizambururen esku-idazkietan: “**bersua**”, oraiko afrikatuarekin baino arinago, ene ustez) erdaraz “*la strophe*”, edo neurtitz multzoa, errimek egituratua;

*neurtitza*: Oihenartek lehenbizikorik erabili zuen hitza (eta menturaz moldatu, ezagutzen denaz), ezpadugu ere guk, hark bezala, hitz eta silaben luzetasuna “neurtzen”, baina bakarrik neurtitzarena, “*le vers*”; neurtitza, olerkaritza klasiko edozeinetan (eta XIX-garren mendea alde hortarik “klasiko” gelditzen da), *errimak* edo *asonanzak* du egiten eta mugatzen; eztitugu nahasiko *neurtitza* eta *lerroa*, neurtitzak moztuz lerrotatu baitira arrazoin ainitzen gatik lehenago (adibidez: *hirueko ezberdina* edo “*kopla zaharra*” ardura laueko “falsuetan”, baina ere, Bernat Etxeparek bezala, “bieko” edo “*diztiko*” berdin falsuetan...; egiazko lauekoak, lau errimadunak, ainitzetan “zortziko” berdin falsuetan...), eta berantago ere (baditugu Elizambururen eskutik beretik...); hitza hitz, lerroa lerro, naurtitza neurtitz, neurtitz-erdia edo “*hemiztikioa*” berdin...

lauekoa, seikoa, zortzikoa edo hamabikoa: izen hauek bertsua dute erraiten eta aldi berean neurtitz-errimen zenbakia;

**errima** eta **asonanza** berex ten dira ahots edo “fonema” neurtitz bate-tik bertzera berdinen zenbakitik, jakinez *bokal bat* bederen behar dela berdinek, eta hau neurtitzeko azkena: orduan da **asonanza** xoil a (guti baderabila ere Elizamburuk, ainitz aldiz haren aitzineko Etxahunek...); bokalaren ondotik edo aitzinetik aski da konsonante bakar bat *errimaren* egiteko, hobe bokala delarik, orduan errima bi silabetara hel baititake: ahots eta silaba berdinen zenbakiak emaiten du errimaren “aberastasuna”;

*silaba* gelditzen da, azkenik, neurtitzaren oinarria; silaba, zenbaitek izendatu dute “pikoa”, Elizamburuk “pontua”, batzuek ere, gaizkiago, “zangoa” edo “oina”, olerkietan egiazko zango edo oina silaba multzo batek egiten baitu; jakina da ezuela beti neurri bera atxikitzen neurtitze-tan bokalek elgar hunkitzen dutenean, hitz barnean (“*diptongoa*”) edo hitz azken-hastapenetan (“*hiatoa*”); barneko bokalek *bi* silaba egiten dituztenean da *dieresia*, bat egiten dutenean *sineresia*, eta bada hor “lizenzia” zenbaiten lekua, olerkari batzuek baliatzen badakitena, gutiago eta hobe bada ere; azken-hastapenekoetan, azken bokala ezaba daiteke, eginez **elisioa**, edo hastapenekoarekin silaba batean ahozkatuz, **sinalefa**; badakigu Oihenartek ziola elisio eta sinalefak beharrezkoak zirela euskal olerkaritzan; baina guti zazko hortan jarraiki eta Elizamburu, menturaz gutienik, eta ageri da zertako bazituzten biek, ene ustez, arrazoin onak: baten kantuan (berak zioen Sarako moduan “*kantau*” egituratzen bai-tzuen bertsua, eta bertzeak ez;

*neurkada* (Lafitte-Tournieren hiztegian hartzen dutan hitz hau “errit-mo” erdalduna baino hobea iduritzen zait) gauza ainitzek dute osatzen: duten euskalkietan, akzentoak, silaba eta hitzen multzoek (zortzi silaba lau eta lau gehienetan, bederatzi borts eta lau...); beharrena da, neurtitz luzetan (zortzi silabaz goiti), neurtitz-erdiko *hauste* edo *gelditzea*, uzten duela ardura bigarren zatia silaba batez laburrago (7 eta 6 hamahiruekoa, 8 eta 7 hamabortzekoa...), laburtasun hori ordaintzen baitu aireko edo aire zatiko azken notaren luzetasunak (musikan “*kadenzia*”): huntarik ageriko da neurtitzaren neurkada aireak duela egituratzen, eta hau bere-ziki egia da Elizambururentzat; aipa dezadan bakarrik, nahiz ez tzen gure olerkariak behin ere kasik erabili, Oihenartek hain ohi zuen neurtitz batetik bertzerako *lotura* edo *jauzia* (“*enjambement, rejet...*” erdaraz);

*apaindura* edo **estilo-irudiak** (edozein mailetan) sartzen dira oraino olerkaritzan, nahi den idaz-moldetan bezala; zenbait bizkitartean ageriago neurtitzetan: soinu errepika edo *aliterazio*, barneko errima, errima-oiharzun... eta bereziki “*kiasmoa*” edo hitzen *gurutzadura*: Elizamburuk baditu zen-bait aski ohargarriak.

2. Arotegiaren aldetik, eta hortaz jadanik ezagunak direner jarraikiz gehienez, erran nahi baita bederen agertu edo egin diren urteak, Elizambururen 14 olerkiak berex daitezke bi multzotan, 1870 urtearen bi aldetarik, azpimarratu gabe hemen gehiago zer haustea izan den urte hori Elizambururen bizian:

### 1870-a aitzin:

*Infirmieran* (14 laueko, 56 neurtitz): bada aski arrazoin kantu hunen jartzeko gaztetasunean, armadako lehenbiziko urtetan, Adhemaren aipatzeaz gaindi ere;

*Gazte hiltzera dohana* (10 laueko, 40 neurtitz: Antonio Maria Labayenek emaiten du 11-garren bertsu bat): 1860;

*Apecha eta Lorea* (12 laueko, 48 neurtitz): 1862;

*Agur Herriari!* (11 laueko, 44 neurtitz): 1862;

*Nere Etchea edo Laboraria* (10 zazpiko: 70 neurtitz): 1862;

*Maria* (8 seiko: 48 neurtitz): 1866-ko agorrilean egina ("Août 1866" dio esku-idazki batek);

*Chori berri-ketaria* (8 laueko, 32 neurtitz): 1869.

### 1870-aren ondotik:

*Biba Francia!* (zortziko bat, eta ez lauekoa, kantua bururatu-eta berriz egiten dena, egilearen nahiaz, eta 3 laueko, 20 neurtitz): 1875 urte ingurukoa, "urte guti du" dio bigarren bersuak 1870-eko gerlaz, eta kantua errepublikaren sortzeko eztabada politikoer lot daiteke;

*Lehen eta Orai* (10 zortziko, 80 neurtitz): 1879;

*Aingeru bati* (4 hamabiko, 48 neurtitz): 1880;

*Eskuara eta Eskualdunac* (10 laueko, 40 neurtitz): 1880;

*Zapataina (edo Gizon zuhurra)* (10 laueko, 40 neurtitz): 1882;

*Lau andren besta (Amets bat)* (14 bortzeko, 70 neurtitz): iduri luke, Elizamburuk egina baldin bada, itxura guzien araura, baduela zer ikus *Piarres Adame*-ren tematikarekin (herriko besta, omore ona eta irrigarritasuna, trufa ere...): 1882;

*Maite zaitut* (6 zortziko. 48 neurtitz): 1885.

Neurtziketa “xuhur” horrek, ez osoki sei ehun neurtitz orotara (585), erakusten badu lana eta artazko edergintza —horrelako zerbait agertu nahi bainuke bederen—, biziaren bi ixurkiek ekartzen daukute zazpirana olerki, “simetria” osoan.

Ikertuko ditugu orai bertsu-motak, errimak eta neurtitzaren neurria (edo silaben zenbakia), erran-aldiaren egitura gramatikazkoa (berezikiago hitzen jarraipena) neurtitzean, apaindura zenbait azkenik.

\* \* \*

## I. “Bertsularia” eta motak

Hamalau olerkietan, Elizamburuk erabili ditu, ezberdintasun handie-nean, hameka bertsu mota (hamabi konduan hartuz *Biba Francia*-ren lehen berttua, zortziko bakuna: ikus beherago): lauekoa zortzi aldiz (eta hetan lau aldiz molde bakar bat), zortziko bi aldiz, eta aldi bakar batez zazpikoa, seikoa, bortzekoa eta hamabikoa. Ikusiko den bezala xehekiago, hamalau kantuetan hamabiek errima bakuna dute, eta berehala ageri da eztela gure olerkaria egitura aldaketan behar baino gehiago —gutiago erran ginezake...!— ibili. Hizki nagusi bat emanez ezagugarri, holaxet ditugu:

*A1: laueko artekoa (13 sil.: 7+6), errima bakuna: Infirmierian, Gazte hiltzera dohana, Apexa eta Lorea, Agur herriari: bertsu ohitu hortan, ohituena haren aroan, eman ditu Elizamburuk lehenbiziko lau kantuak.*

*A1: laueko handi “lehena” (15 sil.: 8+7), bakuna: Zapataina, egileak Piarres Adame-n “aire zahar hamahiru pontuko” bezala emaiten badu ere, huts eginez; eta berdin, baina zuzen aldi huntan, Piarres-ek hirur “grazia” latsarier igortzen duen lauekoa (hirugarren kapituluan).*

*A2: laueko handi “bigarrena” (lehen hirur neurtitzek 16 sil.: 8+8; azkenak 17 sil.: 9+8), beraz ezberdina, eta bakuna: Chori berri-ketaria.*

*A3: laueko handi “hirugarrena” (16 sil.: 9+7), berdina eta bakuna: Eskuara eta Eskualdunac (“neurtitz-erdiak” bi silabek dituzte aldi bekar huntan ezberdintzen: erran gabe doa Elizamburuk hautatu airearen zatiek dituzten “noten” zenbakitik —nota bezenbat silaba, gehienetan gertatzen den bezala— datorrela egitura arraro hau).*

*A4: laueko luzea (20 sil.: 10+10, neurtitz erdia 5+5), bakuna: Biba Francia-ren hiru edo lau bertsuak; baina nahiz lauetan lerrokatua, lehen bertsuak baditu zortzi errima berdina, eta errepikatu behar da azkenean, bademala orduan olerkiari itxura simetrikoko bat. Erran behar dea *Andre adalen*-en aire ezin ezagunagoak duela bertsu hau egituratzen?*

[B1: zortziko berdina eta bakuna (10 sil.: 5+5): molde hortako bertsu bakarria aipatu den hori da, hortakotz emaiten da gakotxetan].

B: zortziko zuzena (8-7-8-7-8-7-8-7), aldizkatua (“rimes alternées”): Maite zaitut.

B2: zortziko ezberdina (12-12-12-12/6-6-6-12: 12ak 7+5), bakuna: Lehen eta Orai; zortziko ezberdina bertsu erabilienetarik da, bereziki Etxahunek (ez silaba kondu berean bizkitartean).

C: zazpiko “simetrikoa”, errima bakuna (8-8-8-18-8-8-8): Nere Etchea: lerrokatze ohituak eztu aski agertzen Elizabururen “kantu nazionala” bezalako zerbait bilakatu denaren egitura ohargarria. Nundik hunen airea?

D: seiko ezberdina (12-12-5-12-5-12: 12ak 7+5), bakuna: Maria, Elizaburuk erabili dituen airetarik arinenean (3/8 neurrian).

E: bortzeko “simetrikoa” (10-10-20-11-11: 20ak 3+5+5+7; 10ak 5+5), bakuna: Lau andren besta.

F: hamabiko ezberdina (azken neurtitzetan errepika labur eta aldakorarekin: 9-10-9-10/9-9/9-10-9-10/8-12), aldizkatu eta jarraikia (abab cc dede ee: errimen egiturak erakusten ditu laueko-biekoak aldizkatuak, bortz errimetan): badira Elizabururen aroko olerkarietan molde huntako bertsu batzunik erabili dituztenetarik (ikus, adibidez, Otxalde-ren *Bidarraitarra*), nehor, ezagutueta bederen, hoin urrun joan denik egituraren lantzean.

Ondorio labur zenbait atera nahi bada, ohar daiteke 1) “laueko arteko” ohitua (hamahiru silaba) utzi dela laugarren kantuarekin, beraz egitura aldatu dela gero-ta-gehiago; 2) biziko bigarren zatian direla egin errima bakuna bazterten duten bi olerki bakarrak, eta biak maitasunezkoak direla; 3) orotako arraroena, “preziosena”, sendimenduetan egituraren bezenbat, eta hortakotz bertsu gutienik duena (4), gelditzen dela *Aingeru bati*; 4) bertsuaren luzetasuna, neurtitzen zenbaki edo luzetasunaren ondorioz, ordaintzen duela bertzuen zenbakiak beiak: oraite zentut (6), *Biba Francia* (4, lehena errepikatuz bortz), *Aingeru bati* (4); 5) azkenik, eta horiek baztertuz, zortzi eta hamabi bertsuaren artean dela Elizabururen “neurri berezia”, berdintasun handian beraz.

Bainan, erregularik ezpaita berexkunderik gabe, hamalau bertsutaraino heldu zauku bietan: *Infirmarian* eta *Lau andren besta*, gaztean eta zaharrea beraz, eta ere utzi dituen bi kantu irrigarrietan, “zatirikoe-tan”; sendimendu serioak, izan dadin maitasuna, herrikoitasuna, mende-kioa ala zuhurtzia, eztu hatsa laburrago, bainan ba egituratzen den gauza eztekoa bilduago, eta hitz batez erraiteko, “neurtuago”.

## II. Errima eta silaben jokoia

Neurri beretik, “bien-artekotasun” filosofiko zahar hortarik, deliberratu iduri baitzait, ezkira urrunduko egitura xeheagoetan sartuz.

1. *Errimaren aldetik*, errima **bakuna** dela erran da hamalauetarik hama-bi aldiz, bersulari zaharren moldean (ikus Etxahun...). Bizkitartean ezagutu dituzke Larresoron bere aitzineko aphez “jakintsunen” ohidurak: edo Monho, edo, hurbilago, 1842-an, Elizamburu Larresoron zenean hil zen Camoussarry ziburutarrarenak, huni hartu dukeelarik alta *Gazte hiltzera dohana*-ren gai erromantikoa... Hunek, hogoi bat olerkietan, hamar bertsu moldetan bederen, errima aldizkatuak edo jarraikiak zerabiltzan; eztu bi aldiz baino gehiago emaiten errima bakuna (badituelarik zazpi laueko mota...). Hautuzkoa iduritzen zaukun xoiltasun guti baztertu horrek, baduke bere balioa, bereziki kantuarentzat, Elizamburu eta haren inguru-ko olerkarien baitan (Dibarrart, Otxalde, ala Iparraguirre...).

Aldiz, eta hortan Etxahun batetarik urrun dago, **asonanza** hutsa biziki guti aurkitzen da, gehiago gaztaroko olerkietan: hiru aldiz *Infirmerian* (-i -o eta -a: azken hau xixtukari ts- eta z-ren ondotik, Oihenartek berak onhartzten zuen lizenzia...; olerki hunek badu bertze “lizenzia” bat ere: bi errima lehen bertsuak, eta bigarrena ahozko fonetikan “*maitia/handia*”, berriz gertatuko ezten gauza), bi aldiz *Gazte hiltzera dohan-ean* (-e, eta -a jadanik aipatu den gainerateko bertsuak), bat *Apecha eta Lorea*-an: -i, -di/-ri silaba ohitu eta fonetikaz elgarretarik biziki hurbiletan. Hau bera aurki daiteke oraino *Aingeru bati*-etan (-ri/-bi: egitura aberatsak ezeztatzen du, azken neurtitz errepikatueta); eta berdin -i (“*atrebi*” hitz bera hemen ere: Elizambururen gostuko hitza, iduriz...), eta bigarrenik -u *Maite zaitut*-etan; -i ere *Lau andren bestan* (bigarren bertsuak).

Egiazko **errimek** badadukate nagusitasun osoa Elizambururen olerkietan, nahiz eztuen beldurrik gramatikaz mota bereko hitzen errimatze-ko, aditzetan edo deklinabidean: eztitu beraz Lafittek zion bezain “ahul” aurkitzen horrelako errimak (ikus *Koblariaren legea*).

Lerrokatzen ditugu hemen ahots aberastasunetik, eta errima multzoen edo errima bakoitzak egiten dituen **bertsuen** zenbaki orokorra (beraz gutienik bi errima batean, bainan beti kasik llau edo lauez goiti) ahal bezain zuzen emanez:

a) *Silaba bat edo gutiago* (Oihenartek ahulak eta eskasak zaduzkan horrelako euskal errimak):

.bi ahots:

10 -en, 8 -ik, 3 -an, 3 -in, 2 -ez, 2 -tu;

bakoitzak multzo edo bertsu bat: -ak, -au, -za, -ur, -tza, -(t)zu, -ko;



*.hirur ahots:*

multzo edo bertsu *bat*: *-tzen, -tan, -dut, -tzat, -tik.*

*b) Silaba batez goiti (Oihenarten euskal errima zuzenak):*

*.bi ahots:*

*16 -ia, 10 -ea, 5 -ua, 3 -oa;*

*.hirur ahots:*

*21 -ean (Elizabururen errima usuena), 4 -eak, 3 -uan, 3 -ena, 3 -ala, 2 -ura, 2 -era, 2 -iak, 2 -ila, 2 -ian, 2 -itu, 2 -oak;*

multzo edo bertsu *bat*: *-uko, -ola, -ina, -iez, -ago, -ari, -uen, -ela, -una, -rea, -urra;*

*.laur ahots:*

bi aldiz *-tzean*; aldi bat: *-etan, -aite, -urrak, -enak, -ikotz, -urda, -erua* (azken hunek hartzen ditu bi silabaz goiti eta gertatzen da, ezpadugu huts egiten, Elizabururen errimarik beharrira luzeena eta aberatsena).

Errima mota usuena, ezta huntan harritzekorik, azken bokalduna da, **-a** gehienetan: zenbakatu ditugu orotarat **57** (berrogei-ta-hamazazpi) bat multzo edo bertsu. Bigarrenik heldu dira sudurkaritik bururatu multzoak: **50** (berrogei-ta-hamar) hurbil. Bi zenbaki hauek, uste dut, erakusterat emaiten dute Elizabururen, eta ere euskal kantu gehienen argitasun ozena alde batetik, baina oraino, konsonante sudurkariak beharirats emaiten duen ez-titasuna. Sendimendu hau azkartzen da, ohartzuz herskari gogorrek (**-k** eta **-t**) ez-tutela orotara erdia egiten: **22** multzo edo bertsu.

*2.Silabetaz*, biziki gauza guti gelditzen da erraiteko, hain da Elizabururen silaba jokoa lizenzia edo ezberdintasun gutikoa, erran nahi baita, lehen lehenik, ohi gabeko sinesia edo dieresia, elisio eta sinalefari-etzuela erabili, edo ezin gutiago. Ezagutua da badela alde hortarik libe-rtate handia Etxahun baten neurtitzetan; baina bada ere Elizaburure-ntan baino biziki gehiago Iparraguirre edo Otxalderenetan.

Eztugu lizenzietan sartzen **haitz** silaba bakuna biekoaren (**haritz**) orde (*Agur Herriari, Nere Etchea...*): oraino Iparraldeko euskalki gehi-entan erabiltzen den forma "higatua" sortua zen jadanik; berdin agertzen da, adibidez, Zalduby (Adhema)-ren neurtitzetan eta bertze. Aldiz ezta deus uste-gabekorik, elisio eta silaba laburpenak lehenbiziko kantuan badaude abantzu denak:

*Infirmerian...*: "*mafrundi ta...; mement'hartan*": bi elisio, lehena zen-bait idatz-molde eta euskalkietan aski arrunta (nahiz berenaz lehenbiziko bokalaren ezeztatzea gauza arraroa den) bigarrena ausarta eta ez haizua, zuzenez, hatskatu baten aitzinean; "*eiten*" sinesian, *egiten*-en orde:

ahozko erran moldea, bainan berriz menturatuko ezteua; “*pasatu tut*”: ohar bera egin daiteke, nahiz Oihenartek erabiltzen duen zenbaitetan laguntzaile laburtu hori; “*goitikoan... beheitikoan...*”: bi sineresia, o “*W*” erdi-konsonanteratuz, ahozko molde ohituan. Gaztoroko bekatu, ala kantu horren estilo jostakinaren apaindura?

Berantagoko kantuetan, ez tute aurkitu sinalefa eta elisio bakar zenbait baizik: *Biba Francia*-n “*bere-ohatzean*” sinalefa, esku-idazkian emana da gainera marra ttipi batekin. Elisioa da aldiz *Maite zaitut*-etan: “*hal’eta hola*” (aitzinean aipatuaren araura, behar ginukeen “hala ta...”). Ez ote daiteke hemen sendi, gaian berean nola joko poetikoan, Oihenarten orroitzapen zenbait, Elizamburuk ezagutzen baitzukeen Francisque-Michel eta Archu-ren argitalpena? Elisioa ere *Zapataina*-ren lehen bertsuan: “*mundur’agertu*”.

\* \* \*

### III. Erranaldia eta neurtitza

Silaben zenbaki zuzenak, neurtitz mota bakoitzaren neurkada eta neurri-haustek, errimak, beti hertsatu dute olerkaria. Hortarik dator segurki “estilo poetikoa” deitzen denaren berezitasun agerienetarik bat: erranaldiaren egitura zuzenaren, edo hitzen jarraipenaren guti edo aski aldatzea. Eta euskararen egitura, hizkuntza deklinabidedun guziena bezala, frango libroa bada hitzen jarraipenean, ez ordea osoki. Oihenart batek du ereman urrunenik erranaldiaren egituraren libertate hori, urrunegi zenbait aldiz (badira urrunago ereman dutenak, frantsesean berean: Mallarmé lekuko...).

Elizambururen erranaldia, haren aroko bertze kantu egile ainitzena bezala, ausartzia gutikoa agertzen da gai hortan. Hemen, lehenagoko Bernat Etxepareren, eta “bertsularitza”-ren heinean dago:

1)alde batetik, neurtitzak badaduka beti batasun gramatikala (eta hortakotz etzen batere pondurik emaiten Etxepareren aroan, salbu bertsu buruan...), erranaldiak, erranaldi oso edo nagusi (“propositiron principale”) ala menperatu (“proposition subordonnée”), ala egituraren beheagoko edozein hitz multzok betetzen baitu, airearen haustek, neurtitzak eta errimak bat eginez orduan (eta hortakotz ezta Oihenarten estiloan hain usu ziren lotura eta jauzirik neurtitz batetik bertzera...): *Lehen eta Orai*-en neurtitz laburretan, ohi den bezala (bainan Elizambururen neurtitza ardura luzea da), ikus daiteke lotura zenbait, guti ohargarri bizkitartean:

...injuztizia

*Ikharagarria!* (izena eta izen-laguna)

...zituan

*Bizi...* (aditz laguntzaile eta partizipio);

2)bertzetik, hitzak eta hitz multzoak guti dira lekuz aldatzen.

Aldaketa horietaz eman daitezkeen adibidetan, huna zenbait:

aditz laguntzaile eta partizipioaren artekoa da usuenik:

*"Hainitz dut nik lurtean izan atsekabe...  
agian lorea du kausitu... (ezta "fokalizatzerik")  
yaten ez zituztela...  
othe duk huts eginen?  
dudan bezala hasia...";*

izen ala aditzaren osagailuen lekuz aldatze edo elgarretarik berexreak usuago dira:

*"...ametsen ez bainintzan lotsa...  
Hainitz (...) atsekabe (ikus gorago)...  
zer diren ez dut yakin etcheko gozoak...  
esnez hampatu ditiak...  
darozkitzut eskerrak bihurtzen...  
badu berea, /Udan eta neguan lorez bethea, /Errekarte...  
zertako den aberats horra Maria!  
non pausa erhia...  
aita baten ez ziren semeak...  
Yainkoak maitha dezagun erran baitu laguna...  
zer hegal pean dute..."*

Morfologian ere, gehienik mugatzailetan, eta hau menturaz egintza ausartagoa, idazlea bera baldinbada ere, aski on eta jakintsun denean, hizkuntzaren nagusi, gerta daiteke berezitasun zenbait, osagailuen lekuz aldatzearen edo urruntzearen ondorioz. Gramatikalarri modernoak ezagutu gabe, olerkariak bazakikeen zerbait euskararen "polimorfismoaz...":

*"...berea (...) errekarrea (bi aldiz mugatzailea: ikus gorago), zelaiera (= zelaira; eta aldiz: "biharamunan", Infirmerian), bera da pullitena hango lorea..."*

*egon leku berea (errimak duke aldatu behar laitekeen bera: ikus gorago "zelaiera"),*

*aitena/Duk obra lehena...*

*gathe zakharkena (erlatibo lotua azkenik eta mugaturik: "zakharken gathe: la chaîne qu'il devait porter"),*

*Oi mila debrua... Mila sorgina (mila-rekin behar ginuke sorgin edo sorginak).*

Aditzetan, salbu euskaraz hain ohi den laguntzailearen itzaltzea (ezti-tugu adibideak hortakotz emaiten), *Infirmerian*-etan \***edin**-en ahalezkoa

agertzen da: “*izan daikena*” (bederen A.M. Labayen-en bilduman), *daite*-ren orde. *Maite zaitut*-etan berriz “*zuk ni nauzun erradazu*” kompleti-boan, *-la*-ren orde. Gaztaroko lan ala estilo arin, hor dira Elizambururen gramatikako lizenzia handienak.

Bilboko kongresuan edo biltzarrean gauza jadanik erakutsia izan baita, ez tut hemen xehekiago erranen nola Elizambururen neurtitzetan agertzen den, *Piarres Adame* edo bertze idazki laxoetan baino gehiago, *aditz-izenaren osagailua nominatiboan*: ezberdintasun hori neurtitzlaritzaren ondorioa baita, eta aspaldidanik ezagutua Bernat Etxeparetik hasiz, egiazko *lizenzia poetikoetan* sartzen dugu, Elizambururen aroan eta beraren hitz-laxoan aurkitzen ez tiren egitura guzietan.

Orotarat, Elizambururen hizkuntza poetikoa guti eta laburzki bazterten da hizkuntza arruntetik, eta gehienetan aldaketa horiek ezeztatzen dira neurtitzaren soinu eta neurkada argi eta ozenetan, eta, beraz, neurtitz-bertsuetarik ezin berex daitekeen airean. Urrunago joan gaitzke: ainitzetan neurtitzaren eta bertsuaren apaindurer esku emaiten dute.

\* \* \*

#### IV. Apainduretz

Gai zabal huntan, muga hertsietan geldituko gira: neurtitzlaritza osoa berenaz erretorika hutsekoa delakotz, eta, ikuspegi orotarik, erretorikak hartzen duelakotz; eta beraz hemen aipatu diren gauzak oro edergintzako, ezetikako gauzak direlakotz azkenean. Bi gauza bakarrik aipatuz, bururatzeko, hitz errepika eta gurutzadura, nahi nuke erakutsi neurtitz egitea joko bat baldin bada egiazki, hitzen artean eta hitzekin egiten dena, ez tela joko hutsean gelditzen, entzun-arazten baititu, aldi berean, gogoia eta sendimendua.

1. *Gurutzadura* (edo “kiasmoa”) hitzetako estilo apaindura edo irudi ohienetarik izanez, eluke hemen azpimarratua izaiteko arrazoinik biziki. Alta badirudi Elizamburuk gustu edo ixuri zenbait ukan duela “sime-triazko” itxura hortarat. Jakina da baduela zer ikus, ondorioaz bederen, aitzinean aipatu den hitzen lekuz aldatzearekin alde batetik (beraz neurtitzetako gramatikarekin), eta, hortakotz, errimaren moldatzearekin zenbait aldiz. Jakina oraino hitz (edo hitz multzo, edo ere ahots eta soinu) gurutzatuak, kantuan entzuten diren baino hobeki, ikusten direla idazkian: nork uka, bizkitartean, begiak baduela, beharriak bezala, bere egitekoa literaturan eta olerkian? Ezpadira Elizambururen (eta bertze ainitzen) olerkiak delako *kaligrama* ezagutu hetarik, aski da behatzea zenbat gostuz, hitz eta hizki moldatzean, neurtitzen lerrokatzean bezenbat, egina den haren “eskulana”, esku-idazkia: begiek ikusteko, naski.

Horra hemen gurutzadura horietarik agerienak:

...*“Trixe du begia!*  
 ...*“Gaitza du handia!”*  
*Goiza pasatu eta ethorri eguerdi...(Infirmerian);*  
*Landako langilea, artzain mendikoa... (Agur Herriari);*  
*Golko bat aberatsa, lerden gerria... (Maria);*  
*Gizona gizonaren esklabo zuan,*  
 ...*Ba zuan bat errege...*  
 ...*batzu nagusi, esklabo bertzeak... (Lehen eta Orai);*  
*Mintzatu nahi, ezin mintza...*  
 ...*dautazu khendu(...)*khendu dautazu(...);  
*Lurra gizonen da lekhua:*  
*Aingeruena da zerua... (Aingeru bati);*  
 ...*Kantabreak mende zaharrenetan*  
*Gu orai gisa hedatuak...*  
*Erregerentzat on badire(...)*  
*Hobeago duk hiretako... (Eskuara eta Eskualdunak);*  
*Zilarrrik ez dutanean aski baitut kobrea... (Zapataina);*  
 ...*ni naiz mintzatu,*  
 ...*zu, mintza zaitte...*  
*Zuk ni nauzun erradazu*  
*Nik zu bezala maite (Maite zaitut: hemen paralelismo gramatikala*  
*josia da hitzen gurutzadurarekin);*  
 ...*horma xurgatuz biribildu muturra,*  
*Ez eta naski gorritu sudurra*  
*Milikatuz, milikatuz elhurra! (Lau andren besta).*

Azken hau hiru (eta ez bi) hitzen artean egiten da, paralelismo bati josia bada ere (*biribildu muturra/ gorritu sudurra*). Errima bera “paralelismo” hutsa da, beraz gurutzaduraren kontrako hitz irudia, eta paralelismo luzeagoak sortzen ditu. Ainitztazun arrunt horren gatik olerkietan, Elizambururenetan berdin, utziko da hemen gehiago aipatu gabe.

2.*Hitz-errepika* (ez bertsuena), gurutzaduren aurka, errextasun bat bezala har daiteke olerkietan. Elizamburu ezta hitz-errepikatzeaz xuhur izan: ahultzen ote du, horrek, neurtitzen balio edo edertasuna? Eztut uste, hitz-errepika horiek badutelakotz beti bere arrazoina.

Egin duen luzeena –hitz berak, bortz aldiz, neurtitz osoa betetzen du!– orok badakite: *“Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila!”*. Lau andren mokokaldian bere lekuan da segurki.

Kantu irigarriena horrela apaintzen badu, gaiari doakon moldean, egiten du ere, egiazko “hitz musika” bat emanez airearekin batean, *Aingeru bati*-ren bertsu bakotxaren “erortean” (edo “kadenzian”), bainan

hemen aldatzeak sartuz eta hiru neurtitz-errimetara hedatuz, eta ezta segurki kantu apaindu horren apaindura ttipiena:

- 1....“hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildu eta ez naiteke atrebi!
- 2.(...)Ordu berean maithatu nuen!  
Orduan maithatu nuen!  
Ondikotz! nik orduan maithatu nuen!!!
- 3.....dautazu khendu bakea?  
Zertako, nere maitea,  
Khendu dautazu bihotzetik bakea?
- 4.(...)Ez beha lurra! beha zazu  
Lurra ihesiz beha zerua!  
Ba! behautzu! aingerua!  
Ez beha lurra, beha zazu Zerua!!!

Kantu alai eta irrigarrienean alde batetik, erromantikoenean bertzetik, bainan oraino han edo hemen bertze gehienetan: *Maria* azken hitza errima egile *Maria*-ren bertsu orotan (badu zer ikus hortan ere *Aingeru bat*-ekin...); berdin oraino, bainan azken neurtitz osoan (*Nere maite Maria*), *Maite zaitut*-etan; eta *Biba Francia*-etan errepikatzen da lehen bertsu osoa, “errepika” (“refrain”) hitzaren erran nahi ezagutuenerat hurbiltzen girela orduan (bainan hurbiltzen bakarrik).

Hitz-errepika hutsaren ondorioa (eta helburua, olerkariaren gogoan, dudarik gabe), “patetismo”-aren emaita da gehienetan: gazteak hiltzera-koan “dramatikoki” dio jadanik: “*Ez, ez, ez nau izitzen ez herioak!*” Eta kantariak herriari: “*Agur! agur, herria! agur... agur...!*”; edo xori berriketariari: “*Mintza hakit... eta mintza... Mintza...!*”. Patetismoa “*ba(i)*” zenbaitak azkartzen duela oraino: “*...bortz aldiz..., Bai! bortz aldiz..., Atzar hadi, atzar bada..., orhoit hadi... Orhoit hadi ba zoria...*” Sendimendua azpimarraz, hitzerrepikak aberasten ditu neurkada eta soinua: “*Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia...*”.

Hitzak eztira orduan musikaren (airearen) osagailu xoilak, edo nahi bada bertze aldera, airea hitzena: “*prima la musica*” edo “*prime le parole*”; Italianoek XVIII-garreneko operan eztabadutzen zuten moldean... Airea hautatzen zen, eta gero haren egituran (aire zatien silaba zenbakian, erran den bezala: eta ardura airea *lau* zatiek, bere *lau* “erortegelditze” edo “kadenziakin”, zuten osatzen), neurtitz eta bertsua(k) moldatzen. Hitzek badakarte soinua, musika, ez bakarrik airearena, bainan, aldi berean berek egiten dutena, erran-nahiaren gainetik, edo (zertako ez?) hartaz bertzalde, bainan, gehienetan, hura agertuz. Batasun handi eta hertsu hori da, ororen buruan, olerki-kantua. Hunek erran nahi du bertze gauza bat: azterketa “alderdi” gelditzen dela azkenean, ezpada ere

aire eta bertsuaren lotura berezi bezain bertsi hori, hemen egin den baino xehekiago eta hurbilago, erakusten. Agian, norbait aitzinatuko da, ere, sail hortan.

\* \* \*

Ororen buruan, agertzen da Elizamburu olerkigintzarat ekarri duten, eta neurtitzak moldatuz entzun-arazi dituen sendimendu eta gogoeten heinean, izan duen xede zinez eztekoa. Xede hori bete duela iduritzen zauku orai, mende baten buruan, eta hortakotz eztute galdu, Saratarraren kantuek, ez hunkigarri edo, bekanago menturaz, alaitasuna, ez ere balio literaturazkoa.

Hortakotz, Elizamburu eztugu ezarriko bertsulari xoilan lerroan, ez batere lerro hori beheregia delakotz, bainan sobera ageri baita eztiela hemen “improbizazioneak”, bainan idazkian handizki artatu diren neurtitzak. Ezarriko ote da, bizkitartean, olerkari klasiko eta zinez jakintsunen artean? Hamaseigarren mendean balitz, eta Bernat Etxepare baten ondoan, menturaz... Bainan hemeretzigarrenean eta Oihenarten “edergintza poetikoa” ezagutuz geroz alde batetik, eta bertzetik Elizamburuk eztuelakotz bertsurik airerik gabe eta kantatzeko gabe (gauza ezina, segurki, Oihenarten olerkietan...) dakigunaz moldatu, beharko dugu ezarri ez kantari, bainan “kantulari erromantikoen” lerroan: Txomin Peillenek zioen bezala egun batez, erdaraz lehenago “chansonnier” deituko zen; Thibalt lehen, Nabarrako errege, eta XIII-garren mendean Frantziako olerkari handienetarik bati emaiten den izena, eloake gaizki, ere, Saratarrari.





## PIARRES ADAME: EUSKAL KONTAKETAREN ZAIN EPIKUREOA

Sara, 1991-XII-21

Ana M.<sup>a</sup> Toledo Lezeta

Mitxelena irakasleak Elizanburuk poesiaren alorrean lortu zituen emaitzak neurtzerakoan zioenez “hay en Elissamburu una vena epicúrea no menos real: su gozosa enumeración de los encantos de una figura de mujer, aunque mantenida dentro de los límites de la discreción, no es corriente entre unas gentes que —después de los tiempos de Dechepare y Oihenart, se entiendo— no se sienten inclinadas a mostrar en público esa debilidad” (1).

Zinez, aipatutako pasarte honetan poeziaz dihardu eta, gainera, zain epikureo horren azalratzea zehaztu egiten du, emakumearen irudiaren edertasunen zerrendapen bozkariotsu horretara eramanez.

Hitz-neurtutik hitz-laura, *Piarres Adamera* etorrita, zain epikureo horren emankortasuna ez dela agortu nabaria da.

Atsegina bilatzen du Piarresek etengabe, min eta penarik gabe, hauek baztertuz, olgeta eta atsegina bilatzen duen morala praktikatzen eta aldarrikatzen du. Gizakiaren zoriona plazerraren erabilera arrazional batez erdiesten da. Minaren deusezteak atsegina dakar eta hau da ongi izate primitibo eta naturala. Piarresen abiapuntua zera da: gizakiak behar natural batzuk badituela aitortzea eta hauek asetzen saiatzea. Ez da hedonista, ez bait du edozein atsegin-modu onartzen, ez bait du plazerra bizitza moralaren euskarri bakartzat. Piarresentzat plazerra ez da ongi izate posible bakarra, ez bizitzaren helburu bakarra; izan ere, azken finean daukanarekin gozaten du, daukanari etekina ateratzen aparta da eta ezer gutxi behar du ongi izatea lortzeko. Ez da hedonista, hedonismoaz mugarik gabeko atsegintasunaren bilaketa ulertzen den neurrian, araurik gabeko atsegintasunaren bilaketa, atsegintasuna atsegintasunagatik bilatzea. Atsegintasunean bizitzea du helburu, baina ez aseta daudenenean,

---

(1) MICHELENA, Luis, 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Edic. Minotauro, Madrid, 134. or.

ezta sentsualitatearenean ere, baizik eta min fisikoaren gabeziarenean eta izpirituaren lasaitasunarenean. Zain epikureoaren erakusle da bizitza zentzu positiboan hartzen duen neurrian, gertaera txikienen aurrean gertaera horietaz gozatzea bilatzen duen neurrian. Zuhurtasuna gordetzea da bizitzaz gozatzea zilegiztatzen dion birtutea.

Pello mutikoa bidelagun hartuaz bat, istorioak kontatzen hasi aurretik, bere moralaren berri ematen dio. Hamar ahapalditan barrena bizitzaren aurrean duen filosofia zehaztu aurretik “Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik” aditzera ematen dio eta jarrera hau hartzera gonbidatzen: “Izan hadi hi ere, Pello, ahal baduk, ni bezalako” (2).

Ahapaldiz ahapaldi, ahapaldi bakoitzean iteratuz, zuhurtzia gomentatzen dio, kanpoko munduaren eskarien aurrean asalatu gabe irautea.

Jainkoak egin bezala maite du bere zortea, trebes heldu diren gauzak zuzen ditu hartzen eta irriz hartuz zorigaitza zorion bilakatzen, zuhur gisa badaki labur dela bizia eta irriz nahi du iragan ahal badu guzia, zilarrik ez duenean aski du kobrea, gizonik aberatsena pobre bat da handia, berak ontzen ez badaki bizia... Zuhurra izan, zorigaitza zorion bilakatu, irri egin, alegera bizi, horra hor Piarresen jarrera bizitzaren aurrean, horra hor Pello bidai-lagunari erakutsi nahi diona Olhetarako joan-etorrian. Bere bizitzaren gidari diren oinarrizko printzipioen aldarrikapena egingo du eta printzipio hauekiko atxikimendua azalduko bidean eta Olhetan egindako egonaldian. Bertsoz azaltzen duen mundu-ulerkuntzari istorioek eskaintzen duten osagarri narratiboak froga eransten dio. Piarresek kontaturiko istorioek nahiz bidaiaren barrena suertatutako jazoerek eta Olhetan festa bizi izateko moduak bere mundu-ulerkuntzarekin gordetzen duen koherentzia, batasuna, erakusten dute. Bertsoz adierazitako ideiak zabaltzeko toki bihurtzen da kontaketa ekintza eta, aldiberean, ideia horien gauzatze-moduaren azalpen.

Piarresen bizitza gobernatzen duen filosofiaren entzule eta printzipio hauen burutze-moduaren entzule eta ikusle soila da Pello. Olhetarako bidea hartzera doala Pello hurbildu egiten zaio Piarresi elkarrekin joan-etorria egiteko asmoz, baina bidaiak “beteaz” doan hitz-jarioa ez du sortzen Pelloren jakin-minak, ez honen olgeta-eskaerak. Elizanburuk ez du jotzen literaturan erabilia izan den galdera-erantzunen jokora, alegia, gazte batek bere barnearen eskariz etengabe itaunduz eta zirikatuz adintsuago baten kontak-jarioa eragitera. Pellok ez du galdetzen, ez arazorik aurkezten, ez hizpiderik ematen. Piarresek ez dio erantzuten Pelloren behar batzuei, aitzitik, Piarresek bere kabuz hartzen du bidaiak modu

---

(2) ELISSAMBURU, Jean Baptiste, 1986, *Piarres Adame*, Klasikoak saila, Elkar, Donostia (I. Sarasolak prestatutako argitalpena), 39-40. or. Argitalpen hau erabiliko da *Piarres Adamen* testu-aipamen guztietarako.

zehatz batean antolatzeko erabakia: “eta nola iduri baituk, nahiz behar bada zerbait badakikan, badukala oraino gauza hainitz ikhasteko, bidean guazilarik erranen darozkiat nere haur denborako eta geroztikako zenbait hitztorio” (37. or.). Piarres beraren nahiei erantzuten dio “egitarauak” eta ez Pello ezartzen doan dinamikari.

### 1. *Piarres Adame*: olgetaren bilaketa

Edozein testutan izenburua da lehen elementu giltzarria, izenburua da egileak aurren-aurrenik igortzen duen gaztigu iradokitzailea, egileak azpimarkatu nahi duena azaltzen eta honen interes-gunerako norantza erakusten duena. Elizanburu ere, titulutik hasi da adierazten bere eleberraren erdigunea: Piarres Adame da kontaketa ardatza ikuspuntu desberdinetatik, bera da pertsonaia-protagonista, esakuntzaren subjeto, eta hainbat eta hainbat esakunerena, bera da aktante-subjektuaren papera betetzen duena, bera da maila desberdinetako subjektutza hauen bidez objektu bat eta bakarra bilatzen duena: olgeta.

Piarres esakuntzaren subjeto hutsak istorioak kontaktzen ditu, abagaduneak hartarako egokiera ematen dionean besteren lepotik barre egiteko modua aztertzen eta kontaktutako istorioen bidez, nahiz suertatutako egoerei ateratako etekin irrigarriaz, gozaraztea bilatzen du. Azken batez, bizi izandako historiak eskaini dizkion lehengaiak istorio autobiografikoak eratzeko altxorra sortu dio, pikareskara hurbiltzen diren ekintzen subjektutzak bere bizitzatik bertatik irria eragiteko elementuak, dakartzate: Piarres adar-jolea, irakurtzen ez badaki ere, otoitzak irakurriz, alargunari ziria sartuz txanpon batzuk atera nahi dituena, aranak ebasten dituena... Ikusitako historiak, edo zehazkiago, zenbait egoeren ikusle egokitzeak istorio bat eratu ez, baina bertso edo elkarrizketa satiriko-umoretsua asmatzeko lehengai eskaintzen dio: mandozaina edo zango-mamiak ezkututzen dituen emakumea adar-joletasun hori erakusteko, eta bereziki bere injeniosidadea azaltzeko, abagadune bihurtzen ditu. Bizi izandako historiak eta Olhetarako bidean suertatu zaizkion egoeren ikusle izateak ez ezik, irakurritako istorioek ere eskaintzen diote lehengairik: Sarako Erremundegibehere auzapezak erakutsitako abilezia herriko etxeko liburu handian dago. Mundu idatzira igarotako istorioa da.

Piarres esakuntzaren subjektuari esakunerena ere batzen dionean areagotu egiten du olgeta-bilaketa bere oinarrizko printzipio izatearen adierazpena; izan ere, bi subjektutzak bereganatzen dituenean ez da bakarrik istorioen kontaketa hutsaren eragile eta, bereziki, istorio-mota batzuen —ziri-sartzean oinarrituz irria sortu nahi dutenak— kontaketa bide gozatzen duen eta besteek goza dezatela helburu duen kontalaria, baizik eta ezaugarri horietan sustraitzen diren istorioen subjetoa: kontalaria eta pertsonaia-protagonista aldiberean. Horrela, Piarresen erraiei darien

jolaserako deia azpimarkatuago gelditzen da. Deiaaren indarra ez da mugatzen hitzaren erabilerara, sarritan, enuntziatuaren subjektua bereganatzen duenean, ekintzarena gehitzen du eta, modu honetan, hitzaren erabilerara ludiko soila gertaera ludikoen egilezarekin indartzen du. Hitzari gertaera gainezartzen zaio eta bien baterakuntzak, hitzez eta egitez bihurtzen du Piarres jolaskoi.

Piarres aktante-subjektuak istorioak kontatu nahi ditu eta kontatzen ditu gozarazteko, hori da bere funtzioa. *Piarres Adameren* azterketa aktantzialak kontaktaren hitz-jarioa bitarteko irria eta atsegina bilatzen duen subjektua aurkezten du. Bere bilaketaren objektua istorioak esanez jai-giroa sortzea da, istorio hauek Olhetako festetarako bidean lekutuz eta festaganean jai-giroa eratzen duen elementu oroz baliatuz. Filosofia epikureoa igorle eraikiz ekintzara bultzatzen du, irri egin eta bizitzaz gozatzea zilegiztatzen duten iharduera haiek eragitera: beste osagarri batzuk lagun, batipat kontaketa medio, kontaktuek sortzen duen ongi izatearen bidez burutuz filosofia horren eskakizunak. Aktante-subjektu honek gizakiak, larritasunak eta estuasunak uxatzeko, jolaserako duen beharrari erantzuten diola dirudi.

Pello mutikoa, Piarresen bidai-laguna, istorioen entzule arretatsua eta gogotsua besterik ez da, bizitzaren aurrean kokatzeko modu baten ikusle, printzipio batzuen gauzatzearen lekuko, lekuko egiteko luzatu zaion gonbita jasotzen eta onartzen duen hartzailea. Gerora Olhetarako joan-etorria kontaktzea erabakiko du eta, lekuko legez, Piarresi berari ahotsa emanez testuratu.

Piarres beti kontalari, hainbat istorioetako pertsonaia-protagonista da, bere iharduletasuna zenbait egoera umoretsuren sustatzaile gisa jokatzera zabalduz; ia ahots bakarra, Pello bidai-laguna aitzaki bihurtzeraino kontaktaren garapenerako. Piarresek istorioak konta ditzan ezinbesteko da honek entzule eta lekuko bat behar duelako, baina erabat mugatzen da pertsonaia betetzen duen paperera, estakuru huts izatera heltzen da, protagonistaren zerbitzurako tramankulu. Literaturan nahiz mundu honetatik at oso ezaguna den topiko batera joz —bizitzaren eskolan urteen igarotzean hartutako jakinduria azaldu nahia oraindik hainbesterako egokierarik izan ez duen mutiko bati— taxutzen da eleberria, eta ez mutikoaren ezagupen-goseak edo olgeta-gogoak sortutako beharrari erantzuteko. Pello egin zaion proposamena gogo onez jasotzen duen entzule soila besterik ez da, bere eginkizuna horretara murriztu zaio, izaera konplexu baten garapenak ez du tokirik, betetzen duen funtzioa etengabe azpimarkatzeak bestetarako ez tarterik, ez egokierarik eta ezta justifikaziorik ere utzi ez duelako.

Piarres funtzioaren ikuspegitik ez ezik, izanaren ikuspegitik ere olgeta bilatzen duen eta besteek ongi igaro dezaten egindako pertsonaia da.

Beraren karakterizazio fisikotik bertatik hasten da ezaugarritzeta-modu hau: sudur izugarria du, istorioak kontatzea gogoko du, adarra jotzea, ongi jan, edan eta dantza egitea biziki atsegin du. Ezaguna eta ospetsua da bere herritarren eta ingurukoen artean olgeta bilatzen duelako eta besteak bide honetan jartzen dituelako. Gorputza bera, Erdi Aroko Gorreetako bufoiak bezala, jendearen algara sortzeko markatua dauka. Hauen eginkizuna ere bereganatzen du. Dena den, hain urrutira joan gabe —ez lekuz, ez denboraz— aurki daiteke bertsolaririk festa prestatzeari eta festa egiteari abegi ona egin dionik, jaia sortzea bizitzako interes-gune bihurtu duenik. Txirritarentzat, esate baterako, aldaparik gabeko lantegia zen eta osasunak galerazi arte ez zuen bertan behera utzi bere eta besteen bizitza alaitu zezaketen bitarteko haietaz baliatzea, hitz neurtu eta zorrozaren erabilera tramankulu bikain bihurtuz aipatu eginkizunerako.

Pertsonaia prototipoa da, ziria nola sartu aztertzen duten horietakoa. Istorio autobiografikotan kontatzen diren gertaeren arrazoiak oso modu sinplean azaltzen dira: txanpon batzuk bildu edo bere gutizia eta abilezia erakutsi. Gertaeren arrazoiak ez daude guztiz banako eta konplexu den barne-prozesua mamitu ondoren beren erabakia hartzen duten pertsonaien jokabideetan. Garrantzizkoena ez da psikea, baizik eta gertaerak egotea. Berdin gertatzen da suertatutako egoerek hizpidea sortzen diotenean Piarresi: bere alderdi zirikatzailea da motorea. Eta kontalari huts denean aurkezten dituen istorioetako pertsonaiek ere motibo bakar batek eraginda jokatuko dute: ziri-sartzaileari ziria sartu. Piarres prototipoa da, irakurri edo ezagutzen dituen istorioetako pertsonaiaiek ere prototipoak dira. Ez dago lekurik azterketa psikologikoarentzat, ez lekurik, ez asmorik. Emaizak du garrantzia, giza-ahuleziak erakusteko presa dago. Abilezia izateak, injeniosidatea izateak, azkarra izateak, erne egoteak, azken batez, pertsonaia automata bihurtzen du egilearen eskutan. Kinada edo estimulu-mota batzuen aurrean erantzuten duen automata.

### 1.1. Olgetaren elementu eratzailak

Piarres eta Pello Olhetako festetara doaz, bidean, Piarresen egitaruari erantzunez, Azkainen hamaiketakoa, ardo eta pipari ohoreak egiten dizkiola dastatu aurretik, bazkari ederra Olhetan jakiei abegi ezin hobea luzatuz, bazkal ondoan Olhetako plaza nagusian ikusten duen bakoitzari bertso bana eskainiko dio, jarraian dantza lehertzearaino, jauzi askodun dantza, dantzan ari zirenak gelditzea lortzearaino berari begiratzeko eta ikusleak agurtuz bukatzeko. Hurrengo egunean Pello ohetik jeiki aurretik gosari txiki eta handiak eginak ditu, erreak zenbait pipa. Olhetarako joan-etorria jan-edanaren, bertsoaren eta dantzaren gorestekanta bihurtzen da Piarres pertsonaiarengan, istorioak kontatzeak sor-

tzen dion atseginari gehitzen dion jai-kanta. Hitz batean, zentzuei eskainitako kanta, dastamenari, entzumenari, ikusmenari eta baita adimenari ere kontaktetan barrena erakusten den injeniosidadea dela eta.

Ongi izatearen giro honetan garatzen dira istorioak. Ez da doktrina hedonista hutsa, bizitzaren azken helmuga ez dago gozatzean. Piarresek baditu beste balore batzuk ere: zenbait istoriotan, batez ere autobiografikotan, zuzentasunaren eta okerraren artean bereizten badakiela erakutsiko du, baita ezbeharraren aurrean konfidantza euskarri bakartzat hartzen ere, txikitari gurasoak hil eta zer janik gabe gelditu zela, zorigaitz honetatik onik irtetea Jaungoikoaren borondate eta ontasun handiari egotziko dio... eta orain Piarres adinean sartuta dagoela, zuhurra da, ongi izatea etengabe bilatzen du baina muga erreal batzuen barnean; bi baso-erdi ardo aski du ardoari ohore egiteko, tripakiak munduko jakirik onenak izan daitezke, dantza, istorioa eta bertsoa debalde jartzen du. Ez da ase ezin dena, baizik ezer gutxiarekin ase daitekeena eta konformidade honetatik sortzen da bere zorion eta amaierarik gabeko umore ona. Diru askorik ez, injenio ugari, haurtzaro behartsu eta zoritxarrekoaren ondorengo koformidade eta jarrera erakusten du.

Kontatzen dituen istorioek badute loturarik. Istorio bakoitza independente bada ere, istorio bakoitza batasun eta osotasun baten barnean taxutzen bada ere, elementu semantiko errekorren baten gain eraikitzen dira: ziri-sartzaileari ziria sartu. Hala gertatu zitzaion Piarresi, alargunari ziria sartzea lortu ez eta honek belarri batetik harturik elizatik atera zuenean, edo mandozainari, Piarres iraindu nahian esandakoaren ordaina jasotzen duenean, edo aranak ebasterakoan igarotako estualdien ondoren eskolaren erdian errientak izugarritzko astinaldia ematen dionean. Hala gertatu zitzaion Don Pachecori, gogor egurtzen bazuen emazte Doña Incarnacione, honek bilatu zuen modua Don Pacheco egur zezaten. Beste hainbeste gertatu zitzaion Zugarramurdiko fraideei: Erremundegi-behere Sarako auzapezaren berrehun ardi beren ahariekin ostu bazituzten lauhun itzulirik bukatzen dute.

*Piarres Adameko* istorioen morfologiak zera erakusten du: “krisi-une” moduan muga daitekeen puntuaren alde bakoitzera lauki narratibo bat lekutzen dela. Krisi-unearen alde batera ziria sartzea bilatzen duen pertsonaia dago, krisi-unearen beste aldera, pertsonaia bera, baina norbait ziria sartu diola. Berdinketa ematen da egiturari: ziri-sartzaileari, zeharo ez-ustekoa den ziri-sartzaileak ziria sartzen dio: alargunak, eskolako errientak... Ziri-sartzailearen abilezia berdinduta gelditzen da ziriaren jasotzailearengatik, lehen itxura batean ziria sartzeko erabakia hartu duenak trebeago izatearen itxura erakutsi arren. Edo bestela esanda: ziri-sartzailea trebea izanik, alderdiren batetik porrot egiten du bere eginkizunean.

## 1.2. *Piarres Adamaren zaina euskal eleberraren sorreraren testuinguruan*

Oso modu oparoan ez bada ere, euskal kontagintzak *Piarres Adame* argitaratu aurretik eta argitaratu ondorengo lehen hamarkadetan beraietan idoro du istorioak kontatzeari darion atsegina. Ez gara ari ahoz-ahozko herri-kontaerei buruz soil-soilik, noizbait ahoz-ahozkoak izan bazitezkeen ere, jadanik mundu idatzian murgildu direnei buruz baizik. Jatorrian negu parteko lanaldiren bat izan ala ez, artazuriketa, linarien lan edo beste eginkizunen bat, noizbait testuinguru horretan kontatutako istorioak izan ala ez, bada idazkerak ematen duen iraunkortasuna erdietsi duen kontaketa-entretenean helburu izan duenik. Baliapide erretorikoaren erabilera-mailan lekutu ala abiapuntu erreal bati erantzun, honela ematen dio hasiera Jean Duvoisinek bere *Baigorriko zazpi liliak* kontaketa-ari:

“Beihalako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zahar-  
rean ziren arto-xuritzeak. Badakizue arto-xuritzeetara biltzen ohi  
dela inguruetako gazteria, eta holako bilkuetan laket dutela kantu  
zaharren kantatzea eta noizbaiteko konderen errebertzea.

Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren; goan  
zen beraz arto-xuritzaleetara bere alaba andrearekin.

Han baziren zazpi neskatxa gazte deitzen zituztenak *Herriko  
Zazpi-Liliak*. Hekieri buruz hau erran zuen herjaunak:

Aurten, ene alaba andrearen ezkonarazteko gogotan naiz.  
Zuetarik zeinak-ere pollikienik erranen bait-u kondera xahar bat,  
hainari dote on bat emanen diot ene alabarekin batean ezkontze-  
ko bere hautuko gizon gazte batekin” (3).

Istorioen kontaketa-entretenean artazuriketarena dela esaten da kondaira zaharren azalpenari markoa jartzen dion ihardunean eta, honen bestez, besterik gabe, fikzio-mailan egiten den planteamendua *entzundako* istorioena da. Jakina, kontalariak baliapide erretoriko horren erabilera-  
ra jotzeko lizentzia osoa du entzundako istorioak ez izan arren eta, edozein modutan, Duvoisinek berak frantsesez eginiko hitzaurrean dion bezala, 1832. urtean bildutako ipuinez osatua bada ere (4), mundu idatzira igaro dira, honek dakartzan aldaketa kualitatiboekin (egiletasuna gorde, kodeketa finkatua etab.), azken batez, beste sistema-modu bateko partaide izatera heldu dira eta, ondorioz, aipatu markoan egiten den azalpenari so zera baieztatu daiteke: kontaketa-entretenean dastatzeak sortzen duen atsegina mundu idatzira ere heldu dela. Ahoz-ahozko igorpena zuten kontaketa-entretenean biltzaile hutsa izan Duvoisin, ala sorketarako jartzen duen mozorroa izan

(3) DUVOISIN, Jean, 1987, *Baigorriko zazpi liliak*, Elkar, Donostia, 17. or. (Edizio-  
prestaketa eta aintzinsolasa: Juan San Martin).

(4) DUVOISIN, Jean: op. cit., 6. or.

biltzailearena, istorioak testuratzean funtzionamendu-modu bat utzi eta beste batera igarotzen da. Urrutirago joan gabe, entzuleei zuzentzeko eratutako konbentzioetatik irakurleei zuzentzeko eratutakoetara. Jatorrian ahoz-ahozko kontaketak egonda ere, Duvoisinek eginerazi dien bidaiak beste harreman-modu bat eskatzen duen komunikazio-sistemara eraman ditu.

Liliek kontaturiko kondairei “herjaunak” bukaeran markoa jartzen dienean honela dio:

“Ez dut aspaldian horrenbertze atsegin hartu nola gaurko gauan” (5).

Ipuinak entzuteak sortzen duen atsegina ez zaio arrotza euskal kontaketa idatziari, kontaketak olgetari lotzea. *Baigorriko zazpi liliak* kontaketako herjaunaren zaletasunak aurkitu du jarraitzailerik beste zenbait eleberritako pertsonaiengan. Hark bezala, kontaketak dastatu nahiak eraginda, bilatu dute hauen garapenerako testuingurua eta kontalaria. Txomin Agirrerren hiru eleberrietan eguneko lanak bukatu ondorengo atsedendialdiari eta zenbait lan-moduri lotzen zaio istorioak entzutearen atsegina. *Auñemendiko lorean* “txiki-txikitatik olango gauzetarako guztiz gogotsua” izan den Pedro Mari morroiari eskatuko dio Arnaldo nagusiak ipuin bat konta dezala: “Asi bada, asi” (6) esango diote morroi gazteek beren entzun nahi goseak bultzatuta. *Garoan*, Manueltxok aitona Joanesi lapur-ipuina bat kontatzea erregutuko dio; gauero-gauero Zabaleta baserriko sukaldetan “*Testamentu zar ta berriko* egi ederrak eta azkenean, oera orduko, beti zerbait esan bear izaten zien aitonak, bere burutik” (7). *Kresalan* “aterpen” lan egiten dutenean “Iñoiz bein, gazteak eresian aspertuta gero, gizon zarrak, antxiñetako ipuiñen bat edo euren gaztegunetako gertaerak esan eroiazan” (8). Mikolek gertaera polit bat badakiela aurrerazten dienean “Esaiguzu ba, Mikol; *tira*, esaiguzu, -deadar egin eutsen mutikoak” (9). Resurrección M. Azkueren *Bein da betikon* bertan “Txanton burutik zorgiñak kendutearren okerreriaren bat egin bear ekiola esan eban Errokek” (10). “Okerreria” ipuin baten kontaketa gauzatuko da “Olgetan-Benetan” izenburua daraman kapitulua eratuz, aski izenburu esanguratsua dena, hain zuzen ere.

(5) DUVOISIN, Jean: op. cit., 73. or.

(6) AGIRRE, Domingo, 1966, *Auñemendi-ko Lorea*, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 2. argitalpena, 136. or.

(7) AGIRRE, Domingo, 1981, *Garoa*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 5. argitalpena, 178. or.

(8) AGIRRE, Domingo, 1976, *Kresala*, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, 5. argitalpena, 85. or.

(9) AGIRRE, Domingo, *Kresala*, 90. or.

(10) AZKUE, Resurrección, M., 1986, *Bein da betiko. Batxi Guzur*, Klasikoak saila, Erein, Donostia (Edizio-prestatzailea: Ines Pagola), 69. or.



Eleberritan ez ezik, leiendetan beraietan ere azaltzen da ipuinak entzuteko zaletasuna (11).

Ahoz-ahozko kontaketak kokatzen ziren testuingurura joaz, zenbait lanaldi (artazuriketa, aterpeko lana arrantzaleentzat...) edo lan ondorengo atsedenaldira (ilunabarreko sukaldeko batzar, atariko batzar...) egile jakin-neko euskal kontaketa idatziak, markodun kontaketa bidez, eskuratu du kontaketak dastatzeak sortzen duen atsegina. Ongi igarotzeko ordua da. *Auñemendi-ko Loreako* ipuin-entzuleak, edo *Kresalakoak*, edo *Garaokoak*, edo Baigorriko zazpi lilien kondairak entzuten daudenak *Piarres Adameko* Pelloren antzekoak dira funtzioaren ikuspegitik: istorioak gogoko dituztenak, istorio-aditzaile eskertsuak. Ahozko munduko mezu itxiek, beste zenbait alderdirekin batera, zeramaten alderdi ludikoa bereganatu dute, itxura batean behintzat, egile ezaguna duten kontaketek, baina bada alderik *Piarres Adame* eta aipatu eleberrien artean, nola egituratze-mailan eta, ondorioz, istorioek testuaren osotasunari begira betetzen doazen funtzioan, hala istori-kontalariaren nortasun eta zereginari begira.

Lehenik eta behin, egituratze-mailari so honako bereizkuntza hau bederen egin beharra somatzen da: Iparraldeko eleberri laburrak marko batean barneratzen diren istorio-multzo batez osaturik daude, ez horrela Hegoaldekoak. *Piarres Adame* bidaia batek taxutzen duen batasunean eta aitzakian pertsonaia batek kontatutako istorioen gain eraikitzen da. Artazuriketaren eginkizunak eratutako bilera eta herjaunaren alabaren ezkontza bihurtzen dira aitzaki eta marko, bildutako liliek istorioak konta ditzaten. Hegoaldekoetan, berriz, enmarkaturiko kontaketak historia nagusi eta luzeago baten ataltxo besterik ez dira. Aldea ez da hutsala. Iparraldeko etan, azkenean, istorio labur batzuen bildumak moldatzen dira, Hego-aldekotan, berriz, historia nagusi eta luzeago bat eteten duen akzidente da istorioa, nahiz eta ekarriren bat egin, handiagoa ala txikiagoa, eteten duen historia horretara, jakina. Honela bada, lehenbizikoetan independentzia eta batasuna duen istorioa, bigarrenetan egitura handiago bateko partaide bihurtzen da, egitura handiago bateko atal izatera igarotzen da, egitura handiago horri begira funtzio-modu desberdinak bidez: ohitura batzuen azalpen, bizitza-modu baten erakusle, egitura handiago horretako fikziozko pertsonai-kontalari hori karakterizatzeko bide, entzuleak modu atsegin batean heitzeko bitarteko... Besterik da *Baigorriko zazpi liliak* edo *Piarres Adame*: istorio bakoitzak bere nortasuna du eta, edozein kasutan, istorio-multzoaren gainezartzeak emango du istorio des-

(11) Karmelo Etxegarainen "Andeka" leiendan, esate baterako, baserri-etxe bateko sukaldean zeuden "gizon ta emakume danak, asi zitzaiozkan esaten, exeri zanean: 'Etxeko-jauna, gure antziñako asaba euskaldunen kondaira bat, esan zaguzu'". ETXEGARAI, Karmelo eta beste, 1990, *Leiendak (1879-1891)*, Euskal Klasikoak saila, Etor, Donostia (Edizio-prestatzailea: Ana M.<sup>a</sup> Toledo), 156. or.

berdinen kidetasunaren berri. Hau da, batzuen eta besteen artean dagoen alde koordinazio/menpekotasun mailakoa da. Koordinazio-mailako jantagailuak lotzen ditu markodun kontaketen gain eraikitako eleberrietako istorioak, menpekotasun-mailakoak, berriz, egitura handiagoko atal diren haiek. Barne-joskera desberdin hau bitarteko koordinazioz elkartzen direnetan istorioen gainezarketak azalduko ditu istorio-multzoari amankomun zaizkion ezaugarri morfologiko edo semantikoak, menpekoetan, aldiz, egitura handiagoa izango da istorioaren funtzio eta ekarri semantiko mugatuko duena. Gainezarketa bide, zenbait ezaugarri morfologiko eta semantiko istorio desberdinetan errepikatu egiten direla atzeman daiteke eta, honenbestez, azpimarkaturik gelditzen direla.

Istorioen gainezarketa hori da, hain zuzen ere, hainbat alde ezartzen dituen markodun kontaketen gain eraikita dauden bi eleberrien artean: *Baigorriko zazpi liliak* deritzanak aldatu egiten du enuntziatioaren subjektua istorio batetik bestera, enuntziatuarena, berriz, alegi eta mitologian dabil. Leizarazuko Gana, Urdozeko Madalena, Geraxane Iriberrikoa, Extebeni Mokozaingoa, Fermina Leizpaz-Jauregikoa, Martha Okhilenberrokoa eta Maria Etxauzekoa doaz esakuntzaren subjektua osatuz eta, zazpi liliak bukatzean, herjaunaren alaba, Baigorriko Terexa, batuko zaie, aitaren eskariz zortzigarren istorioa kontatzean. *Piarres Adameko* istori-kontalaria bat eta bakarra da, Piarres, eta kontaktzen doan istorioak pertsonaia-kontalariaren karakterizazioaren elementu eratzaile garrantzitsu bihurtzen dira, bai besteei buruz kontaktzen dituen haiek eta, zer-esanik ez, bere bizitzari lotuak daudenak. Honela, multzo osoaren gainezarketak erakusten duenez, istorio guztiak elementu errekorrente baten gainean eraikita daude, —ziri-sartzaileari ziria sartu—, elementu errekorrente horrek irria eragitea bilatzen du eta istorioen kontaketa bera beste elementu jolaskoi eta atsegin-sortzaileen ingurumarian kokatzen da (jan-edana, bertsoa, dantza). Ez dago gisa honetako batasunik, ez istori-kontalari mailan, ez honen karakterizazio-mailan, ez kontatutako istori-mailan, ez istori-kontakteten testuinguruan *Baigorriko zazpi liliak* izenburutzat daramanean, nahiz eta kontaktak entzuteak sortzen duen atsegina izan bietan testuen garapena zilegiztatzen duen motorea.

Azterketa aktantzial batek honako alde hau nabarmenduko luke: Piarres aktante subjektuak bilatzen duena olgeta da istorioen kontaketen bidez, lili bakoitzak bilatzen duena, berriz, istorioa ahalik eta politikien kontatzea dotea eta senarra aukeratzeko askatasuna erdiesteko. Beste modu batera esanda, objektu desberdin baten bilaketak bereizten ditu. *Piarres Adameko* aktante-subjektuaren bilaketa olgeta sortzea da, jai-giroa debalde jartzea, nola besteentzat hala norberarentzat. Festa-moldatzaile nagusia istorioen kontaktetari darion atsegina da. *Baigorriko zazpi liliak* deritzanean, elementu berbera da festa-moldatzailea, baina lehiaketa bat irabaztea akuilua.

“*Piarres Adame* euskal kontaketa zain epikureoa” izenburupean eraikitzen genuen ihardunaldi hau. Alderagaitzat hartu ditugun eleberrietan, markodun kontaketen gain eraikita ez dauden haietan, markodun kontaketa egitura handiago baten atal denean, zain epikureo honi ezartzen zaion iragazia hain da estua, bere azalpena alderdi formal edo kanpo-alderdi soilera mugatzera heltzen dela: kontaketa entzuteak sortzen duen atseginera. Baina istorio beraren taxuketa eta, zer-esanik ez, historia nagusiarekiko betetzen duen funtzioa zain estoiko baten azalpen handiago bihurtzen da. Izan ere, kontaketez gozatzearen ezaugarri horri historia nagusiaren harian ateratzen zaion probetxuak (ohitura batzuen azalpen, bizitza-modu baten erakusle, egitura handiago horretako historiaren morroi... eta bereziki kontaketa egiten den erabilera didaktikodun iruzkinak) asko makaltzen du istorioaren kontaketa eragin duen arrazoiak: kontaketa dastatzeak sortzen duen atsegina. Itxura batean ahoz-ahozko kontaketez zeramaten alderdi ludikoa bereganatu badute ere, alderdi ludiko honen ingurumaria arras bestelakotzen dute: iruzkin didaktikoz betetakoa, kontaketa malgutasunik ez darion historia nagusi bateko osagai, kontaketa-jarioa moteltzen duten komentario diskurtsibo-doktrinaren aldamenen. Jatorriz ahoz-ahozko kontaketa izan zitekeenak eleberritara igarotzean jasaten duen “egokitze-lanak”, bere alderdi ludikoa ikasgaiaren zerbitzuan jartzean jasaten duen egokitzapenak, ito egiten du markodun kontaketa testuratzeko oinarrian zuen motiboa: kontaketa dastatzeak sortzen duen atsegina. Eta azken buruan, kontaketa dastatzeak sortzen duen atseginari erantzuteko zen istorioa, zain epikureo baten azalpena zena, zain estoiko baten azalpenarako bitarteko bihurtzen da, ezbeharraren edo zoritxarraren aurrean etsipena gomendatzera eta aldarrikatzera iristen den neurrian markoa jartzen dion historia nagusia. Zer da, etsipena ez bada, *Auñemendiko Loreako* Riktrudisek erakusten duena maitemindurik dagoela maitearen berririk ez duenean? Edo *Kresalako* Mañasirena bere maiteak jaramonik egiten ez dionean? Edo *Garoako* Joanesena bi seme bide zuzenetik okertu zaizkionean? Besterik da Piarresen jarrera ezbeharrari edo zoritxarrari aurre egiteko: trebes heldu diren gauzak zuzen ditu hartzen eta, irriz hartuz, zorigaitza zorion bilakatzen.

*Piarres Adamen* zain epikureoaren azalpena ez da mugatzen gora go ipatu den alderdi formal horretara: istori-kontalariak entzulea dibertitzea bilatzen du, irria eragitea, hartarako aproposak diren istorioak kontatuz; filosofia epikureo baten erakusle da. *Piarres Adamen* istorioak kontatzea bera da “historia nagusia” eta, jai-giroa sortzen duten elementuz inguratuz istorioak kontatuz, giza-jokabide batzuk arautzea bilatzen duen morala baino askoz nabarmenago da bizitza-jarrera epikureo baten azalpena. Bizitza-jarrera honen adierazpenak gehiago erantzuten dio ahoz-ahozko istorioak kontatzearen giroari historia luzeek erakutsi zutenak baino. Izan ere, gakoak ez dago gaian bakarrik, baita gaia erabiltzeko moduan ere.

Ahoz-ahozko kontaktak hamaika modutakoak ziren eta horien artean ez dira guztiak ez irri-eragileak, ezta olgeta olgetatik bilatzen dutenak, bada etikarekin edo gizalegea erakustearekin lotura duenik ere. Baina, edozein kasutan, istorioak daude eta ez istorio-itxurak, kontaketa dago eta ez diskurtsibitatea konta-jarioa itoaz, filosofia baten azalpena dago, mundu-ikuskeraren batena, munduan kokatzeko modu batena, baina istorio-kontalari batek istorioak kontatuz emana, eta ez kontalari-filosofo baten pasarte doktrinalen ilustraziora eramanez kontaketa. Ahoz-ahozko mundu horretan atsedeen-ordua edo lanaldia jai-giroan igarotzeko kontatzen da istorioa, mundu idatziko historia luzeetan giza-jokabideak arautzeko, giza-jokabideak izan beharko luketenaren errainuan lekutuz eta direna deskribatzea arbuatuz. *Piarres Adamen* istorioak kontatze hutsak adierazten duen jarrera jolaskoi horri istorio-kontalariaren ezaugarritzeta-modua batzen zaio: festak Piarres pertsonaiarengan gorputz hartzen du, bera da eleberriaren izenburutik bertatik erdigune, istorio-kontalari moduan kontatzearen ekintza atsegin duena, berari nahiz besteri gertatuak izan istorio biziak jalgitzen dituen, ziztorlaria, bere ezaugarritzeta fisikotik alaitasuna sortzeko aproposa; hitz batean, bozkarioa darion bizitza-modua erreprezentatzeko egindako pertsonaia.

*Piarres Adamen* baserritar irri-eragilea aurkitzen dugu. Baserritar arlo-tearen irudia ez da izan ezezaguna Euskal Herrian, ezta falta izan, ezta ere, euskaldun baserritarrak bere baitan bildu beharko lituzkeen birtute guztien agerkaririk. Hauek aurrean baserritar "azkarra", erne dagoena dakar Elizanburuk, gerora damutu ala damutu gabe tranpa edo iruzurra bilatzen duena, tranpa edo iruzurra tentatzen duena. Pertsonaia honek, seguraski, folklorea eta ahoz-ahozko mezu itxietan ditu bere sustraiak.

Aurreko mendean hasten da herritartzen irakurketa-idazketen ikasketaren egintza. Euskaldunari, beste hizkuntza batean bada ere, heltzen zaizkio herritartze horren ondorioak. Ahoz-ahozko mezu itxien igorpenei ez zaie bukaera heltzen, begibistakoa denez, baina, bestek beste, aipatu gertaeraren herritartzeak euskal letren eta irakurleen ugalpena ekarriko du. Gai, maila, sortze-testuinguru etab. desberdinetako bertso-papera gehitzen da, kontaketa-mota desberdinak plazaratzen hasten dira herabeki... Euskal literaturaren zain epikureoak nonbait aurkitu badu arnasa, mende honetararte behintzat, mundu herritarrean izan da. Ahoz-ahozko igorpen hutsean edo testua euskarri zuela, bataren eta bestearen artean dagoen aldea gutxietsi gabe, geruza herritarrean aurkitu du bizitza iraunkorra. Herri-literaturan eta herri-literatura horren zenbait sortzailearengan sende gazte eta zaharragoak lagun izango ditu Piarresek: Fernando Amezketa-rra, Txirrita etab. Hauek bezain baserritar bizkorra, bizkortasun horrek ematen dion argia bizitzaren aurrean jarrera bozkariotsu bihurtuko du: jan-edana, dantza eta bereziki hitzaren erabilera zorrotza ongi igarotzearen euskarri.

## ELIZANBURU KONDATZAILEAREN EUSKARA

*Sara, 1991-XII-21*

*Beñat Oihartzabal*

Euskal literatura aipatzen duten liburuetan, laudorio ainitz bildu du Elizanbururen euskarak, mintzaira gozo eta malgua, *perekatzailea* zioen Lafittek, baitzerabilen, hala bere kobletan, nola bere hitz laxozko obran, harritzeko ez baita hizkuntza gaietan hain begi zorrotza zuen Mitxelenak, Lafon irakaslearen mirespena bereturik, Elizanburuk *euskararen gainean zuen nagusitasuna* deblauki aitortu baitzuen.

Beste hizlariak mintzatu zaizkizue jadanik, edo eginen aurki, Elizanbururen lanaren literaturazko balioaz, eta ez nuke orain haiek erran gauzarik errepikatu nahi. Hargatik haren euskararen aipatzea galdegina izan baitzait, mintzaira bera hartuko dut aztergai, estilistika eta literatur baliabideak hunki gabe, eta ene azterketa *Piarres Adame* elaberrian mugaturik.

Zergatik gorde behar nuke: nahiago ere dut gauzak horrela diren. Alabaina, Elizanbururen umore fresko eta sanoa, eta, halaber, haren liberaltasun eskeptikoa ere, gogokoak baditut, ez naduka *Piarres Adame* elaberriak —literatur obra gisa— hain miretsirik, nola baitauzka, nekez uka dezaket, gauza horietan ni baino fidagarriago diren gutiz gehienak. Irakurgai pullita dela, laketuz eta atseginez irakurtzen dena, aitor dut, baina —hori aski ez balitz— gehiagoko anitzik gabe, ene aburuz, non ez den obra birtuala gogoan hartzen; horrek, ordean, ni beldur, zuhurtziari bizkar emanaraz bailiezaguke, eta balizko literaturako eremu zabalegietan menturaz.

Horiek hola, lot gakizkion, orain, gure gaiari, eta has gaitezen elaberri horretako euskararen aztertzen.

Lehenbizikorik eginbidea dut gure artean gai hori jadanik landua izan dela gogoraraztea, bai I. Sarasola, *Piarres Adame*-z egina izan den azken argitaraldian egin zuen aitzin solasean, eta bai, bereziki, G. Garate, euskal nobelaz idatzi duen historian, biak, zein bere moldean, entseiatu baitira Saratar idazleak zerabilen euskararen ikertzera, eta mugatzera. Egiaren errateko, hego aldeko irakurtzaileak bereziki gogoan zituztela

egin dituzte biek beren azterketak, Sarasolak literatur tradizioa kontuan harturik, eta Garatek, berriz, euskararen jatortasunaren arabera, arbuioak eta goresmenak, noiz nola, hari nola iduri, batere beldur gabe, baina ez beti zuzen ene gustuko, ematen zituela (1).

Saran hitza dudalarik, doi bat desberdina izanen da ene ikuspegia. Alde batetik Elizanbururen euskararen ezaugarri batzuk agerian emanen ditut: hiztegiaren partetik, bereziki; bestetik, gaur egun euskara batuaren arauetan emateko eztabaidagai diren zenbait pondutan, Elizanburuk zer eredu eskaintzen digun ikusiko dugu: bai adizkera alokutiboen erabilere-tan, eta bai aditz morfologiari dagozkion beste zenbait pondutan ere. Joskera eta kasuen morfologiak ere balizateke zer erran naski, baina beldur bainaiz luze lihoakigukeela orduan mintzaldi hau, gai horiek hunki gabe utziko ditut hemen.

Hona beraz, ohar batzuk, *Piarres Adame* elaberriko hiztegiak eta aditz morfologiak.

## 1. HIZTEGIA

*Piarres Adame* elaberri herrikoa (hitz hori mugaz beste aldean ematen dioten edukin bereziarekin konpreni bedi) da arras, 1880.eko hamarkadan sortu ziren ipar aldeko kazeta zenbaitetan (*La Nivelle* eta *Le Réveil Basque* delakoetan) hostoka agertzeko gisan egina, irakurtzaileen azikartzeko helburu garbiarekin. Eta, hain zuzen, herrikoitasun hori hobekienik erakusten duena, beharbada, hiztegia bera da.

Bost pondutan bil daitezke *Piarres Adame*-ko hiztegiaren ezaugarri nagusiak:

1. Lapurteraren gainean finkatua da; 2. nahiz hitz kasik guztiak ipar aldeko eta bereziki baxenabartar gehienek konprenitzeko modukoak diren; 3. guti dira, beraz, liburuetarik ateraiak diren, eta eguneroko euskara mintzatuari ez dagozkion hitzak; 4. horrek ondorio baitu hitz mailegatu anitz agertzen dela elaberrian; 5. bestalde, irakurtzailearen konplizitatearen erdiesteko eta herrikoitasunaren indartzeko, euskarak eskaintzen dituen bide berezi batzuk; baliatuak dira, hala-nola errepikapenak, onomatopeiak, eta forma hipokoristikoak.

---

(1) Gehienetan euskalki kontuetako ponduak dira Garatek altxatzen dituen, eta dakigun bezala, irriskutsua da juje moduan kontu horietan ibiltzea. Zergatik datibo pluralaren aditz marka den *-ote* (*-o + te*) forma (*-e* formaren orde, erran nahi baitu *-o + e > e*) "akats" ote da? Zer funts du, duela ehun urte lapurteraz idatzi testu batez delarik solasa, *eragin* forma, *egin arazi* baino "hobe" dela errateak? Beste batzuetan, oharrak euskalkiaren berezitasunetik harago doaz: nork erran dezake *Sarako herria* sintagma "gaizki dago(ela)" euskaraz, eta *Sara herria* baizik ez dela "ongi"?

Bost pondu horiek nola obratzen diren hurbilagotik ikusiko dugu orain.

### 1.1. Lapurterazko hiztegia (2)

Lapurteraz idazten zuen Elizanburuk, eta ez zuen indar berezirik egiten beste euskalkietarik hitzak harturik bere hiztegiaren zabaltzeko. Badakigu, Manterolari idatzi zizkion gutunak lekuko ditugularik, Elizanburuk euskararen inguruko goiti-beheitiak hein batean segitzen zituela, hiztegiko kontuetan bereziki. Horren hatzik kasik batere ez da ageri, ordean, haren idazlanean, eta, irakurtzaile anitz baxenabartarrak izanen zituela jakinik ere, baxenabartar hiztegi berezitik arras guti hartu zuen. Ez dugu, konparazione, *biziki*, *ontsa*, *ukhan* edo *bortha* bezalako hitzik aurkitzen elaberrian (3). Hain segur, kondatu ixtorio ia guztiak, Lapurdin,

---

(2) **Klasikoak** sailean egin den azken argitaraldian badira ipar aldean erabiltzen diren lauzpabost hitz, erran nahia gaizki emana izan dutenak hiztegiari doazkion oharretan. Argitaralpen hori erreferentziazkoa denaz gero, hona hemen ene arabera zuzentzekoak direnak:

**Goitatu:** *Aditu duk, behinere, Pello, erraten goitatu ez dela frankotan deusik galtzen. Goitatu hitza erne ibili itzulia da oharretan, baina goaitatu, euskarak kaskoinari harturik moldatu duen hitzaren aldaki bat dukegu hor, igurikatu, beha egon edo zain egon erran nahi duelarik.*

**Desbistatu:** *atso madarizione hori, errienta ondotik, heldu duk gure aitzinera, haur guziak, bat bertzearen ondotik, bere begi ikaragarriekin desbistatzen dituelarik. Desbistatu hitza itxuratxartu itzulia da oharretan, hitzak batzuetan hartu izan duen adierarekin (ik. Lhande, honek Harriet aipatzen duelarik), baina ez bide da hori zuzen. Desbistatu hitzak, elaberrian, frantsesari darraikion erabilera du, bista hitzarekin gurutzatua izan bada ere: fr. *devisager* - desbistatu (*desbisaiatu* genueklarik kalko zuzena). Erran nahia, beraz, norbaiten begitarteari ongi-ongi behatzea da.*

**Gobernamenduko gizona:** *familiako aita prestu bat eta (...) gobernamenduko gizona. Gobernamenduko gizona* honela itzulia da oharretan: *ongi gobernatzen den gizona*. Teorian interpretapen hori ezinezkoa ez bada ere, ez du erran nahi hori elaberrian. **Gobernamenduko gizona**, alabaina, *goarda* da, erran nahi baitu gobernamenduaren kondu lan egiten duen gizona, Saran edo Azkainen, zehazki errateko, mugazain dena, hots.

**Parrapio:** *Zenbat mila xinhaurri sentitzen nituen bir-bir- bir zabiltzala nere parrapioetan. Parrapio hitza zango itzulia da oharretan (galdera marka batekin). Gero ikusiko dugunaz, hizkuntza mailak edo hizkuntza tabuak eta jendetasunari doazkion hesiak kontuan hartu gabe, gizonaren gorputz parterik berezkoena izendatzen du hitz horrek elaberrian; ikus beheraxeago hitz honetaz testuan dioguna.*

**Erlats:** *aditzen baitut halako boz herdoil eta erlats bat. Erlats hitza zakar itzulia da oharretan. Zuzen-zuzen erlats hitza, fr. *enroué*, eta esp. *ronco* erraten dena da.*

(3) Menturaz norbaitek *tuntitu* aditzaren kasua aipa dezake hemen diogunaren aurka. Aditz hori Azkuek (eta honen hatzetan jarraikiz Lhandek ere) baxenabarrerari lotzen du, Aldudeko eskualdekoa dela erranez. Ordean erabilera zabalago izan duela iduri luke, eta lapurteran ere ezaguna zela uste izateko da, *Piarres Adame* idazlanen agertzeak erakustera ematen duen bezala. Hona hitz hori agertzen den pasartea: *nola ez da harritzen Piarres, ikusten duenean nagusi hori, asaldatzeko ordean, ez dela den gutiena ere tuntitzen.*

saratar, azkaindar eta zugarramurdiarren artean gertatzen baitira, herritar-tasun berezi hori eman nahi ziokkeen bere testuari, lapurteraren usain eta kolore bereziak hitzetan ere agerian emanez.

Halaber, lapurteraren eremutik ez aterarik ere, nehola ere ez da entseiatzen, euskararen altxorraren aberastasuna erakutsi beharrez edo bere mintzaira hartaz joriago egin beharrez, hitz berri asmatzen ibili gabe ere, hitz zahar, erdi-galdu edo literaturan guti baliatuen biltzera, handik hogei eta hamar urteren buruan Etcheparek eginen zuen bezala, edo garai hartan berean jadanik, beste manera batean, Duvoisinek. Dudarik ez da, Lapurdiko mintzaira bizi, egun guztietakoari jarraiki zitzaiola gehien-gehienik elaberriko hitzen hautatzeko tenorean.

Horiek hola, Elizanburuk ez zituen xokokeriak nehola ere xerkatzen. Hiruzpalau hitz baizik ez daitezke atzeman, ipar aldeko irakurtzaile arruntak, mintzoz lapurtar ez izanik, konpreni-gaitzak kausi zitzakeenak, ipar aldean gaindi ere toki guztietan ez baitira erabiltzen, eta guti ezagunak direlaketz.

Alabaina *unhatu, nere, ethorri, guan*, ... bezalako hitzak, edo *gogorki* gradu adberbioa, lapurterazko formak badira ere, pentsa daiteke, ipar aldeko euskaldun gehienek ezagutzen zitzutela, gisa horretako hitzak erabiliz, Elizanburuk ez bide baitzituen lapurtar ez ziren irakurtzaileak deusetan bortxatzen.

Badira hala ere hitz bakar batzuk hain ezagunak ez direnak; hona zein:

**Parrapio.** Hitz hori ez da agertzen Azkue eta Lhanderen hiztegietan. Hona zer gisatan erabilia den: P. Adame aran ondo baten puntan da, aran biltzen ari, noiz eta ondoaren jabea den emazteki bat, hasarre gorrian heldu baitzaio eta oihuka hasten. Eta honela dio P. Adamek, bere lagun gazteari bere orduko izialdura kondatzen diolarik: *Zenbat mila xinhaurri sentitzen nituen bir-bir-bir zabiltzala nere parrapioetan*. Beste pasarte batean, metafora bera erabiltzen baitu Elizanburuk, bigarren aldi honela dio: ... *ikusi eta ezagutu dutanean emazteki hori, (...), iduritzen zaitak, muthikoa, ehun mila xinhaurri bedere aztaletan gora igaiten zaizkitala*. Bigarren aldi honetan, beraz, *aztal* hitza agertzen da *parrapio* hitzaren orde. *Zango* itzulia da *parrapio* hitza elaberriaren azken argitaraldian, itzultzaileak bere segurtamenik eza galdera marka baten bidez erakusten digularik. Galdatu diedan saratar adinean doi bat sartuek —iduriz gazteagokoek ez baitute ele hori gehiago ezagutzen— *parrapio* hitzak *ondasun* erran-nahi zuela erran

---

Bestalde, badakigu, gaur egun ere *tunt* polaritate negatiboa duen hitz gisa komunzki erabilia dela, partitiboaren marka dakarrelarik: *ez du tuntik aditzen*. Halare, formazko berdintasunagatik, galda daiteke ea egiazki bi hitzak errokide diren.



didate, hitz hori lurreko kontuetan bereziki erabilia zela gaineratuz. Ez da dudarik, haatik, zeharkako erabilera duela hitzak elaberrian, han gizonaren gorputzeko parterik intimoena izendatzen baitu. Hain zuzen saratar horiek berek ere, hitzak bigarren erran-nahi sexual hori ere bazuela erran didate, mutikoen arteko mintzairan erabiltzen baitzuten denboran. X. Videgainek ere, Euskal Herriko Atlas linguistikoarentzat egin dituen inkestetan, bigarren adiera horrekin bildu du *parrapio* hitza, hala Saran nola Azkainen.

Ez dakit ausartzia handiegia ez ote den, baina ideia banuke, Elizanburuk hitz hori isilka, kontrabandan bezaia, sartu zuela bere elaberrian, pentsatuz zenbait lapurtarrek baizik ez ziezaioketela eman bere erran-nahi zehatza hitzari, eta gisa horretan ele itsusien zentsura errazkiago iragan zezakeela. Alabaina, arradoa da holako hitza joan den mendeko euskarazko testu idatzietan aurkitzea, are gehiago ororen eskupean izan nahi zuen testu batean.

**Birunda** lapurtar hitza ere kausitzen da, inesiboan erabilia *itzulika* errateko: *bere makhila gorria buruaren gainetik birundan dabilkalarik*. Hitz hori agertzen da hiztegieta eta oraino ere erabiltzen da; J. M. Lekuonak dioenaren arabera, Oiartzunen ere ezaguna da.

**Bekhunde** hitza ere aipa daiteke molde bertsuan: ... *batek airos eta alegera bezain bertzeak ihun eta goibel zuela bekhunde*. Hiztegien arabera, *begitarte* edo *bekainarteko* errateko erabilia zen hitz hori (Azkue, Lhande, OEH,...). Gaur egun, Saran, *bekain* erran nahi omen du.

**Arrolaka**: ... *ahal nuen bezala altxaturik etzina nindagon lekhutik, guan ninduan etxera, arrolaka, ederki umatua*. *Andarka* hitzaren pareko den ele horrek ere bere tokia badu hiztegieta, Lhandek ekartzen baitu Hiribarren aipatuz. Hemezortzigarren mendearen hondarrea agertzen da zenbait bertsutan (4) eta Duvoisinek eta, mugaz haraindian, Urruzunok ere ezagutzen zuten (ikus OEH). Gaur egun, haatik, bakarrik *andarka* erraten omen da Saran, ez *arrolaka*.

## 1.2. Hiztegiaren garbitasuna eta maileguak

Lehenago erran dugunaren arabera herritartasunari lehenetasuna ematen baitzion Elizanburuk, hiztegiaren xahutasuna hein batean bakarrik zaintzen zuen, eta ez zuen indar berezirik egiten, maileguei ihes eginez eta orduko lapurtera oinarrizkotik aterarik, hitz berezi, garbi baina guti

(4) Ikus *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798), Patri urkizuk 1987.ean argitaratua.

ezagunen erabiltzeko. Kausitu ditudan adibide bakarrak bat edo biga dira bakarrik (5):

**eskutitz:** *letra edo eskutitza* dio Elizanburuk, hitzaren erran nahia argituz. Larramendiren hiztegian iturburu duen hitz bakarra dateke elaberri guztian, hain segur zeharkara heldu izan zitzaiona Elizanbururi (Larramendik **ezkutitz** baitzekarren bere hiztegian).

**xarlango** hitzari ere hiztegi usaina dariola iduritzen zait. Alabaina, hitzaren erran nahia frantsesez ematen baitu (*lévrier*) pentsa daiteke hitza zenbait hiztegitarik edo menturaz zenbait irakurgai berezitarik atera zuela Elizanburuk. Nahiz Lhandek ekartzen duen, Pouvreau eta Harrieten hiztegiei erreferentzia eginez, ez du iduri hitz hori egun erabiltzen dela Saran. Nola nahi ere den, banago ni, hitzaren itxura berdenboran kankail eta kiskilagatik bereziki hartu ez ote zuen Elizanburuk, arras dudazkoa den haren “garbiari” hainbat behatu gabe; hasteko, ezin hobeki heldu zaio hamabost urte zitueneko bere buruaren potretaren egiteko: *geldirik iduri zuen xirio bat, zabilanean, xarlango bat*. Hobeki itzul zitekeena gonbarantza?

Lapurterazko hiztegitik sobera hastandu gabe ibili nahiz, eta bere kondairari herritar zintasuna gorde beharrez, Elizanburu ez zen beldur maileguz sortu euskal hitzen erabiltzeko, zaharrak edo berriagoak ere izan zitezen: *sos, errient, bisaia, trebeska, mendre, murde, trukés, uros, fierkisko, mokanes, malefizio, traste, tribulazione, propi, propiki, organo, errepusta, membro, superki, axudant, salutantzia, printzipal*, etab... Luza daitekeen adibide zerrenda horrek erakustera ematen duen bezala, Elizanburu aski librokari ari zen hiztegi gauzetan (6).

Maileguez denaz bezainbatean, halere, ez gaudeke erran gabe, zenbait aldiz jostatzeko sartzen zituela hitz mailegatuak Elizanburuk. Adibidez, P. Adamek *Olhetako plaza printzipala* aipatzen duelarik, Olhetako plaza, elkarri gibel aldea erakusten duten hiruzpalau etxek osatzen dutela erran ondoan, *printzipal* horrek badu bere grazia berezia, mailegu izatetik beretik heldu zaiona.

Maite zuen, bestalde, Elizanburuk, hitz jokotan aritzea, maileguzko hitzei euskal itxura emanez bereziki. Batzuetan hitz mailegatuak nabari den gurutzaketak ez du helburu berezirik, hala nola *desbistatu* hitzean *bista* hitza sartzen delarik *bisaia* hitzaren orde (ik. 2. oharra). Beste zenbaitetan, ordean, euskaldunek etimologiaren aldera duten jauginaz

---

(5) **Xerrenda** hitza erabiltzen du Elizanburuk *gorbata* edo *ttattarra* errateko, baina hitz hori balio horretan ere erabilia zen beharbada (nahiz Lhandek erabilpen horren berri ez digun ematen).

(6) Librokari, baina hitz berririk asmatu gabe: herriko euskaratik ari da hitz maileguetan ere.

goxoki trufatu gogo duela iduri luke, hala nola *Escorial* Madrilo jauregiaren izena *ezkur jale* euskal hitz elkarketatik eratortzen duelarik, edo *ixtorio* hitza *hitztorio* idazten duelarik (7). Euskal hitzetan ere horrelako jokoak egiten ditu bakanka, adibidez, *aberats* hitzaren etimologia eginez, *aberatsu* idazten duelarik: *On duk orai yakin dezakan, Pello, murde Erremundegibehere, Sarako hauz'apheza, herriko aberetsuetarik bat zela; bazitian arthaldeak Larrunen, Ibantelin, Harxurian eta, hots, zokho guzietan.*

### 1.3. Hitz morfologiari dagozkion zenbait itzuli, Elizanburuk bereziki balia-tzen zituenak

Hiztegi mailako herrikoitasunaren adierazgarri dira halaber, Elizanbururi gustatzen bide zitzaizkion hitz erabide berezi, euskara biziak eskaintzen zizkionak, errepikapenez, onomatopeiaz, eta fonema eta atzizki hiporistikoez moldatuak. Ikus ditzagun adibideak.

Errepikapenak:

– *berri-berriak, xut-xuta, hori-horia, beltz-beltza, (aran) hori-hori eta onyu-onyu (batzuez), haia-haia, nirnir, dal-dal-dal, klask-klask-klask, dir-dir-dir, bir-bir-bir, ...*

– *emeki-emeki, bakhar-bakharrik, bide hegi-hegian, haur-haurrean, prest-presta, ixil-ixila, ...*

– *kheinu-meinu, ...*

– *bil eta bil, jo eta jo, urtheak eta urtheak, ...*

Onomatopeiak:

– *dir-dir-dir egin, nirnir egin;*

– *bir-bir-bir (mila xinhurri sentitzen nituen bir-bir-bir zabiltzala...)*

– *kask-kask-kask (atea joz);*

– *dal-dal-dal (ikharan zagoian, dal-dal-dal);*

– *kilimiliklik (nik iretsi nuen, lehen-bai-lehen, kimikiliklik);*

– *pinpi-panpa (hantxe hasten pinpi-panpa, jo eta jo);*

– *kar-kar-kar (hasten baita kar-kar-kar irriz);*

– *krik!, (krik!, hor heldu zaiok ahora gelditua zuen hezurra);*

---

(7) Uste dut horrela interpreta daitekeela usaiaz kanpoko idazkera berezi hori, hitz joko bat bezala, hots.

– *pil-pil-pil (izerdi hotz bat (...) xurrutan yausten zitzaientarik)*;

– Ez dakit *haia-haia* ere ez ote genukeen onomatopeien artean sartu behar.

Soinu eta atzizki hipokoristikoak:

– *gizon adinekotto bat, hexur xurizkoa, bottoin ttiki bat, bere pipa motx eta beltza, beheraxago, luxe, gibelaxago, beattar, xoko, esplikazionetto, etab...*

– Menturaz behin edo beste kontrako jokabidea baliatzen du Elizanburuk, soinu-joko anti-hipokoristikoak eginez, adibidez, *bitzi* forma, *bitxi* forma ez-markatuaren orde erabiltzen duelarik: *bere aita jaunak erran dionean oihu hoyek direla miriku handi baten deihadarrak, Andre Prinze-sak gauza hori hain bitzia kausitzen dik non hasten baita kar-kar-kar irriz,*

...

## 2. ADITZ MORFOLOGIA

### 2.1. Adizkera alokutiboak (8)

*Piarres Adame* partez toka idatzia baita, adizkera jokatuak maiz alokutiboak dira. Uste dut, Leizarragaren lanaren ondotik, lapurtera klasi-koari darraizkion obra modernoan artean, hoberenatarik dela alokutiboak lapurtar tradizioan nola erabiltzen zen ikusteko. Oraindik forma alokutiboak euskara batuan ez baitira araukatuak izan, balio du, menturaz, Elizanburuk pondu horretan zer jokabide zuen ikustea.

Bi puntu badira hemen ikertzeko. Lehenik ikusiko dugu adizkera alokutiboak noiz erabiltzen zituen Elizanburuk; bigarrenik, erabiltzen zituelarik nola egiten zuen.

#### 2.1.1. *Elizanburuk adizkera alokutiboak noiz zerabiltzan*

Lehen ponduaz denaz bezainbatean, eredu klasikoari jarraitzen zaio oso-osorik Elizanburu. Adizkera alokutiboen erabilpena ez da sekula librea: haizu direlarik, erabili behar dira. Testu osoan ez da kontrabide bihirik ere.

---

(8) Hemengo erabileraren arabera, adizkera alokutiboak, 2. pertsona, aditz partaide edo argumentu izan gabe, pertson indize gisa agertarazten dutenak dira. Mugapen honetan, *haiz* ez da adizkera alokutiboa (alokutarioa edo solaskidea aditz partaide delakotz), *gaitik*, erran nahi baitu *gaitu* eztabadaka, bai, ordean, (solaskidea ez delakotz aditz partaide); *duk*, berriz, ambiguo da.

Noiz haizu dira, beraz, adizkera alokutiboak *Piarres Adame*-n? Toka mintzatzen den perpaus adierazgarri guztietan, baldin aditzak atzizki edo aurrizki menperatzailerik ez badu, horrek erran nahi baitu ez direla agertzen ez galderetan, ez eta *ba-* baldintzazkoa, *bait-*, edo *-n / -la* atzizkiak (eta haien bidez sortu guztiak) adizkerari lotzen zaizkiolarik (zerrenda horri aginterazko *b(e)-* aurrizkia ere gainera geniezaiokie, baina *Piarres Adame*-n ez da holako formarik agertzen).

Hona zenbait adibide.

**Zati-galderetan** (ohart adibide bakarrak galdera erretorikazkoak izanagatik, halare alokutiboa baztertua dela):

*Zer! ez duk ezagutzen Piarres Adame?... Eta Saratarra haizela diok? Nork ez du ezagutzen Piarres Adame, Saran eta bertzetan famaz bedere?* (35)

*Ikhusten dukan bezala, Pello, ez zuan beraz haurride guztietan bat talo egiteko ere on zenik, eta halere non zen irina talo egiteko?...*

**Galdera osoetan (hemen ere erretorikazkoak):**

*Emazteki hori dudatu othe zen ez nakiela irakurtzen? ala nahi izan othe zuen bere bi-sosekoaren balioaz berehala segurtatu? Ez zakiat, Pello.*

**Ba- baldintzazkoa baldintza errealetan** (kontzesiboak barne):

*Orhoit hadi, muthikoa, mintzatzeak zilharra balio badu zenbait aldiz ixiltzeak maizago urhea balio duela* (52).

*Bi baso galdetu baditut, ez ditik biak batek hartuko* (54)

*Nere ile bakhar, luxe eta xuriek gorritu behar badute ere nere hitzari ohore egingen diat* (44)

**Ba- baldintzazkoa baldintza alegiazkoetan:**

*Saratarra ez banintz, Azkaindarra nahi nitek izan* (52)

*Egungo egunean ere ikhus baneza, Pello, bi-soseko madarika-tu hura, ezagut nezakek, oraino balitz ere bertze ehunen artean* (46)

**Bait-aurrizkiarekin:**

*Beraz gelditu gintuan haur multxo bat, zaharrenak ez baitzuen oraino hik orai dukan adina* (42)

**-(e)n atzizkiarekin:**

Perpaus erlatiboa: *Behin ikhusi nauenak ez naik ahanzten* (35)

Zeharkako zati galdera: *Aditu behar ditek ongi, zer ordena ematen dugun axudantak eta nik* (82).

(45) Queda dicho expresamente que *lake nezake* está por *laket nezake* (adaptando la consonante a la inicial); ni tampoco van Eys ha dado “por ahora” con una forma *lake*. Aunque él no ignoraba su procedencia del latín *placere* y a pesar de que supone dos verbos *laketu*, le produce justa extrañeza la forma *laket* porque hace papel ya de adjetivo ya de substantivo. Creo que las cosas son así. Si *lakatu* proviniera de \**placetum* por *placitum*, no sabría yo caso análogo alguno. Por eso parece más probable que *laketu* se derive de *laket* (por \**laket-tu* —Salaberry escribe *laketu*—; lo mismo *lekatu* por \**lekat-tu*) que al revés. *Laket* sería el latín *placet* en el sentido de “quod placet” grato, agradable (Leizarraga también lo usa por *placent*) luego = “cui placet” satisfecho complacido v.gr. 1) *laket zayela Juduei*, que les gustaba a los judíos Leiz. Act. Ap. 12, 3, 2) *zeinaren baithan ni bainaiz lakhet* en el cual me complazco Duvoisin, Mat III, 17. Azkue cita, por cierto, *laket placer*; pero ni *laket izan* ni el pasaje de Oihenart comprueban su aplicación como substantivo. Esta es paladina en *dut laket j'en suis content*, de van Eys tomado de Pouvreau; e igualmente en *lake nezake* de mi texto, codeándose este pasaje con aquel otro de van Eys: *laketzen zait hemen*. En vizc. *laketu* (también *lagetu*) es permitir, otorgar, vuelve pues el *placer* por *placet mihi*. Comp. en alemán “ich beliebe” por “es beliebt mir”.

(46) Por *nintzen* (vuelve otra vez) la *n* se ha suprimido por disimilación. No encuentro *nitzen* ni en la Gramática de Ithurry ni entre los ejemplos de los demás. Pero Bonaparte VB Obs XXIV apunta *nitzen* (y otras flexiones sin *-n-* derivadas de esta) por el bajo nav. occ. de Ustarits y el guip. de Cegama; y yo he hallado tales flexiones en no pocos textos de los diversos dialectos. Gavel 275 piensa en la posibilidad de que la falta de la *-n-* sea primitiva.

(47) *Biper* (*piper*) *egin*, también *joan ibilli* (segun Larramendi) tomado del castellano *hacer pimienta*. Los términos mas corrientes en castellano son: *hacer bolas*, *novillos* en

Bilbao se dice *hacer calva* según E. de Arriaga y según Azkue esta locución es española castiza. En provenzal se dice en esta acepción *faire de safran, faire de pebre* y sus sinónimos significan algo muy diferente.

(48) Por *jikotria* (así Azkue) pone Fabre (bajo “ruse”) *jokotria* (y en otras partes *jukutria*) en que se trasluce claramente el origen de esta palabra.

(49) “También ahora” es más que pleonástica; por lo que toca a *ere* véase nota 8.

(50) Otras veces *zure osasanari* etc.; no sé, cuál será el tipo románico o latino de *zure grazian*. Es verdad que encuentro en Man 1873, 19 y 1876, 327 al lado de *zure grazia onari* en francés *à votre bonne grâce*; pero ¿no es esto mas bien un vasquismo?

(51) Es idéntico a la frase española *buen provecho le haga*, en francés *grand bien vous fasse*; no se confunda, pues esta flexión *dagizula* con la de antes: *dizula*.

(52) Notése en esta palabra “melliza” que se repite algo después la supresión de la consonante inicial y la sufijación del artículo.

(53) Yo esperaba: *gogo nuen* “tenía ganas”; Agustín convino en que podía decirse también así, pero no obstante puso *gogoa nintzen* (= *ethortzekotan nintzen*); ¿es esto acaso = *gogoa nintzen*?

(54) Agustín traduce *nonbait* (Azkue: sin duda) con “hélas!” y aconseja se le sustituya por *ondikotz!*

(55) Propiamente debiera decirse: *besta bat, norat*.

(56) La *t* de (*d*)*udanaz* me choca.

(57) La radical *leko* de *lekora* no es otra cosa que *leku* sitio, lugar, en cast. antiguo *luego*, pero en la acepción de “lo exterior”, “lo de fuera”; como palabra independiente sólo lo cita Azkue del diccionario manuscrito de Duovisin. Con *leko-ra(t)* coinciden tocante al origen *lekat, lekot*, también con la significación de “además de”, “excepto”; pero no, que yo sepa en la acepción temporal, tal como este lugar la ofrece. En esta acepción el vascuence converge con el español; pero queda aun cierta distancia entre *luego* lit. en el lugar (lo que sería en vascuence *lekuan*) y *lekora* lit. a fuera (determinado por un “elativo” precedente). En cuanto a la forma obsérvese que el adverbio *lekora* ha llegado a ser substantivo, susceptible de sufijación, aún de sufijar la desinencia que ya posee; v.gr. *lekorerat* Leiz. Acta Apost. 5, 34; *lekorerano* loco cit. 21.5; *lekorean, lekoretik, lekoreko* loco cit. y en otras obras. Formándose *leko-ra* por *leko-a* llegó a ser declinado como *ur-a* el agua *ur-erat, ur-ean, ur-etik, ur-eko*. La forma ampliada empléase aún con la significación de la primitiva, así leemos en los proverbios guip. (\*) de 1596: *sua dan lekurean*, en el lugar donde hay fuego 372, pero *surik eztan lekuan*, en el lugar donde no hay fuego 368. Hay además en vascuence otras tres partículas locales procedentes del neolatino (o céltico), que por lo menos en parte, han sufrido la misma evolución del sentido: traslación del espacio absoluto al relativo, y de este por un lado a la relatividad temporal y por otro a la agrupación de ideas. Así *ondo* (en esp. *hondo* en el sentido de *fundó*) significa suelo, fondo, termino; *ondo-ra* (al final), *ondo-tik* (desde el fondo), *ondo-an* (en el fondo)=a lado y *ondoren* después se presenta a primera vista como genitivo y van Eys trata de explicarlo como tal; pero yo sospecho que es variante de *\*ondorean* consistiendo este en *ondo-ra* como *lekorean* en *leko-ra*. También tenemos *kampo*=campo, lo de fuera, *kanpo-an* afuera, *kanpora* hacia afuera, y en fin *landa* (vocablo céltico y luego bajo latino)=campo, *landa, landara, landan* fuera de, excepto. La palabra castiza que sirve para expresar “fuera” es *ate*

(\*) Estos proverbios, impresos en Pamplona en 1596, no son guipuzcoanos, sino vizcainos. (JAAM).



puerta, en *ate-tik*, *ato-ra*; pero según indica Azkue este uso es en parte anticuado. No es preciso suponer influencia de *foris-foras*.

(58) Agustín vacila entre las grafías con b- y p-, Azkue trae igualmente *ble(ka)* y *ple(ka)*, en castellano encuentro *ble* y *ple*, en francés *ble'*, *bled*, *blaid*. A pesar de esta última variante la etimología más verosímil se me figura la derivación del inglés *play*. Una investigación profunda sobre el juego de pelota en el País Vasco no dejaría de aclarar este punto.

(59) = *a la fê*, en bearnés *a la fee*. El vascuence tiene la forma más próxima a la latina *fede*; también *fede onez* de buena fé, *ene fedia* a fé mia, etc. (asi Chaho; Azkue no lo cita). Comp. algo mas abajo *libro* = libre; Chaho dice (450<sup>b</sup>): L'euskarien, 'selon le dialecte, et surtout par licence fonétique, dit *Libro*, aussi bien que *Libre*.

(60) *Cascarotes* llaman a la parte de la población de Ciboure que es de origen gitanesco. Son, en su mayoría, pescadores; las mujeres que dicen son muy regañonas, suben a menudo a Sara, donde se les oye ofrecer sus sardinas pregonando con voz aguda. No he encontrado verdadera etimología del nombre, el cual parece que se limita al sexo femenino. N. Larousse ill. sólo cita *cascarotte*). Azkue no le ha dado cabida, sin duda, porque no lo cree vasco. Seguramente forma parte de esa gran masa de vocablos románicos y vascos de que he dado un resumen en mi artículo *Baskisch und Romanisch 70 y ss.*, y en cuyo ápice pongo el vocablo *euscolium*; pero esto mismo puede ser de procedencia ibérica. Solo es dudoso, en qué punto ha de colocarse el tal nombre; si a lado del vasco *kazkař*, terco, del prov. *cascarelum* chimoso, del español *cascarrón* o del francés *cascaret* miserable, etc. - "wir haben die Wahl und die Qual".

(61) Se dice de un desvergonzado: *ahalkhea athe chokuan utzia du* (ha dejado la vergüenza en el rincón de la puerta).

(62) Zalduby era pseudónimo de un poeta muy estimado, a saber, del canónigo Sr. Adéma, deán de Tardets (1828-1907) oriundo de Saint-Pée-sur-Nivelle (Labort). Todas sus poesías religiosas y profanas se publicaron en los tomos segundo y tercero de la *R. Basque* (1908.1909) y en la misma obra (2, 121, etc.) un resumen de su vida y sus estudios por el abate Daranatz. Las mas conocidas serian el *Churiko* (nombre del perro; las últimas dos estrofas las publiqué yo en 1890 en una salutación festiva a R. Köhler) y sus *Pilotariak R.B. 2.90 y ss.* que toca nuestra materia (en *R.B.* en 33 estrofas; yo poseo además dos ediciones de hojas sueltas, una de Bayona, en 22 estrofas y otra de Tours en 28, que además tienen algunas diferencias). El me había hecho en su letra menuda y fina una traducción literal francesa de esas 28 estrofas añadiendo no pocos datos. Pero a pesar de estos y otros auxilios me creí demasiado poco documentado para tratar con la debida extensión sobre el juego de pelota o su terminología, según me había propuesto antes (véase arriba nota 21 y ss.), ni mucho menos para indagar los nexos que lo enlazan con el "Leich" turingio (con que estoy familiarizado desde mi niñez) o con el juego de pelota en Roma (que en 1868 me entusiasmó para redactar mi artículo) u otras variedades populares de ese juego. El distinguido etnólogo K. Rhamm, con el cual me carteeé sobre esa materia desde 1910, estaba dispuesto para tales estudios comparativos; desgraciadamente él ya murió en 1913 y sus apuntes dejados fueron quemados.

(63) La vieja palabra *baldernapez* por "alcalde" ya no era popular, por lo visto; Azkue la apuntó en Saint Pée y Sara, pero con la nota de "arc".

(64) Por *zituzten* se lee aquí dos veces *ziuzten*; la primera *t* ha sido eliminada por disimilación. No he encontrado nunca la forma exactamente idéntica; sólo en la *Guide* de 1876 de Dartayet está apuntado *ziezten* al lado de *zituzten* y la forma suletina *zitiien*. Por otra parte el b. nav. tiene *zuzten* y el alto nav. mer. *zuste* con la misma significación ("ellos los tenían"), pero no es del todo cierto que estas formas se derivan de *ziu-*; pues frente a *zute(n)* "ellos lo tenían" la segunda *z* de *zuzten* podía parecer suficiente para designar el

plural del pron. objetivo. Pero si está clara la supresión disimilatoria de la *t* en las formas baj. nav. *giuzte* “ellos nos tienen”, *ziuzte* “ellos os tienen” (pero *gitu, zitu*, “el nos... os tienen”); comp. lo que dice Bonaparte en las “Observations” IX de la introducción. Es verdad que Gavel (406) apunta como en parte b. nav. occ. al lado de *diuzte* también *diut, diuk, diun, diuzu*, que se basarán en la analogía, no en la disimilación. En Cambo (b. nav. occ.) he oído yo: *joten ziut*, “yo os pego”, *zenbat zor ziut?* (véase arriba, pág. 266).

(65) El *irrintzin* vasco me ha recordado nuestro “Jodeln”; no he podido averiguar en cuanto coinciden. El vocablo designa propiamente el relincho de los caballos; Azkue dice además: “grito estridente, sonoro y prolongado, que los pastores hacen resonar en los flancos de las montañas y que los vascos en general lanzan en señal de alegría”. Vinson dice (*Les Basques* 87 y s.) refiriéndose a las alegres tertulias de los que se ocupan en desgranar el maíz: “Ceux qui y ont pris part, après s'être séparés pour regagner leurs demeures s'interpellent de loin à grands cris sur les routes silencieuses. Les cris ou si l'on veut ce cri national, cet appel retentissant, porte le nom d'*irrintzin* qui désigne aussi le hennissement du cheval. On l'a graphiquement représenté par les syllabes *ia, ia, o, o, o!*, où l'imagination du basque Chaho voyait le mot Dieu et les trois voyelles primitives”. - Por lo que toca a los arriba mencionados *pertsulari* (Azkue escribe *bertsolar*; pero Chaho *persu, phertsu* al lado de *bersu*, verso) cierta noche yo convidé a dos *Anibar* (llamado así por su casa *Anibarea*) y *Muschet* (su casa: Muchketenea; su nombre verdadero era Echeverry) y apunté unas docenas de coplas, que si entrañaban algunas ideas muy laudables, alusivas sobre todo al anfitrión, pero sin ser dignas de conservarse para la posteridad.

(66) El vocablo vasco *bide* camino muestra en su evolución semántica gran semejanza con el latín y neolatín *via*; así *bide* medio, *bidez* por medio, *bide* por causa de-, *bidar bider*, vez (*hiru bide* tres veces, etc.; comp. en ital. *via*, catalán *viatge*, bearnés *biadje* [anticuado y dialectal], en alemán *Fahrt*, en sueco *gang*, danés *gang*). No es preciso pensar en la influencia románica; al revés, las palabras tomadas del romance *bialdu, bidaldu* enviar y *bidaje* viaje han sufrido transformaciones por la palabra vasca *bide*. Es improbable, aunque no imposible, que este mismo vocablo proceda del latín, pues se ha intercalado una *d* en *bide* al lado de *bia* y *biga* es decir *bi* dos (con artículo). Resta averiguar si *bide* = “parece que”, “probablemente” es la misma palabra, o si tiene que ver algo con el latín *videtur*. Renunciaremos a esta última suposición pues una transición gradual enlaza estos conceptos: medio, oportunidad, motivo, derecho, autorización, etc. *Bide*, igual que *ahal, behar* y otros pasó a ser de sustantivo a adverbio verbal. Primitivamente habrase dicho tanto *joan bide du* había ido, como *eman bide du* había dado (*bide du* = él tiene la probabilidad...); luego el primer ejemplo se asimiló a *joan da* él ha ido; comp. mi introducción a Leizarraga LXXXIII. El mismo fenómeno se ha realizado en los idiomas románicos y germánicos: “ich habe begonnen zu geben”, “ich bin begonnen zu geben”.

(67) Por decir: “es tiempo para...” el vasco dice: “yo tengo tiempo para”, pero aun en alemán se decía antes así, v.gr. “wir haben hohe Zeit zum Fortgehen (Jean Paul, del dicc. de Paul) y aun hoy día en la Alemania meridional. Hasta en el mismo Sachs se lee (aunque dice que está poco en uso): “wir hatten Zeit in die Stadt zu geben”, nous étions pressés de rentrer en ville. Aunque en el pasaje citado se emplea el infinitivo sufijado lo corriente es emplear el simple radical: *joan dembora dugu* Man 1873, *joan ordu dugu* Man 1876. *Tenore* ocasión, tiempo, hora (*tenorese, tenoretsu*, tiempo aproximado, *tenorez* a tiempo, a la hora justa) según Azkue es naturalmente de procedencia románica o castellana, pero el cambio de significación crea dificultades; el instante del tiempo (*bazkaitako tenore* hora de comer) y el transcurso del tiempo (*tenor vitae*, en viejo bearnés *la tenoo de ma vita*) son extremos opuestos.

# **EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK**



**EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIOAK  
ETA ERABAKIAK**

*Euskara Batuko batzordea*



## ZENBAKIEN DEKLINABIDEAZ

0. Zenbakiaren deklinabideak ez du aparteko arazorik plazaratzen, *hiru* eta *lau* zenbakiaren kasuan ez bada. Hori dela eta, hauekin zer gertatzen den aztertuko da ondoko lerroetan.

1. *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan: batetik, zenbakiak izendatzeko erabiltzen ditugu hitz horiek (metahizkuntzan): “hau *hirua* da, eta beste hori *bosta*”; “neskatxa horrek *zazpiak* beti handiak egiten ditu, baina *hiruak* eta *lauak*, aldiz, txiki-txikiak”, e.a. Kasu hauetan, ikusten denez, beste edozein izen sintagma bezala deklinatzen dira *hiru* eta *lau*, hain zuzen ere, izenak direlako. Hortaz, mugagabea, singularra eta plurala bereiziko dira, ondoko adibideotan bezala: “zein *hiruren* azpian pintatu behar da laukia?” (mugagabea); “*hiruaren* eta bostaren artean *laua* jarri behar duzu” (sing.) eta “*hiruen* kolorea ez da lauena bezain polita”. Izen honek *adiskide* edo *zuri* hitzen paradigma bera segituko du.

2. Hala ere, zenbakiari buruz zuzenean ari ez garenean, hots, “bi neska etorri dira eta *biak* txikiak” bezalako testuinguruetan gauzak bestela gertatzen dira, halakoetan, izenak ez direnean alegia, “hiru neska etorri dira eta *hirurak* txikiak” edo “lau zerri saldu ditu eta *laurak* gizenak” bezalako esaldiak oso erabiliak baitira Hegoaldean batez ere. Beste hiztun askok, ordea, ez du bereizketa hori egiten: “hiru neska etorri ziren eta *hiruak* txikiak” bezalako esaldiak oso arruntak dira.

Bereizketa egiten dutenen artean (*hiru* eta *hirurak* bereiziz esan nahi da) aukera bi ditugu, mugagabea eta plurala, kontzeptualki bederen, ondoko adibide honetan ikusten denez: “lan hau *hiruren* artean egin behar da”. Zer izan daiteke *hiruren* delako hori? Jakina, *hiru* lagun horiek ezezagunak baldin badira, orduan mugagabearen aurrean gaude (*askoren* artean esango bagenu bezala); aldiz, ezagunak baldin badira, orduan mugatua da (*adiskideen* artean bezala). Bereizketarik egin behar al dugu hemen formalki ere mugatu eta mugagabearen artean, *hiruen* (mugatua) eta *hiruren* (mugagabea), esaterako, proposatuz?

Emandako adibidean badirudi *hiruren* dela onartu behar den forma mugagabea (*adiskideren* esaten den moduan). Hortaz, forma mugatua *hiruen* izango da, *hiruren* bera onartu nahi ez baldin bada. Tradizio hau mantendu duten hiztunen arabera, ordea, badirudi *hiruren* bezalakoak direla erabiliak izan direnak aldaera mugatuan, kasu batzuetan bederen: *hirurak* dira, *hirurekin* egon naiz, e.a. Beraz, badirudi bat datozela hor mugatu plurala (*hiruren*) eta mugagabea (*hiruren*).

Gauzak leku-denborazko kasuetan eta datiboan aldatu suertatzen dira, idazleek bereizketak egin baitituzte: “*hirutan* egon naiz Mirenekin eta *hiruretan* ukatu dit kontu hori”. Badirudi kasu hauetan bereizketa gertatu dela. Mugagabea *hirutan* baita, ikusten den moduan. Kontua da, ordea, plurala *hiruretan* (jarri dugun bezala eta tradizioz handiena duena) nahiz *hiruetan* izan daitekeela (gaur egun ekialdean erabiltzen den moduan).

Datu hauek guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe proposatzen du:

1) *Hiru* izena denean (ikus goragoko 1. puntua), bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *hiru*, *hirua*, *hiruak* (abs); *hiruk*, *hiruak*, *hiruek* (erg), e.a.

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

## HIRU

<i>Mugagabea</i>	<i>Plurala</i>
Hiru	Hirurak
Hiruk	Hirurek
Hiruri	Hirurei
Hirurik	
Hirutan	Hiruretan
Hirutako	Hiruretako
Hirutatik	Hiruretatik
Hirutara	Hiruretara
Hiruren	Hiruren
Hirurekin	Hirurekin
Hirurentzat	Hirurentzat
Hirurez	Hirurez

(Kontuan hartuz jakina, aipatu ez diren bestelako xehetasunak ere: *hiruetatik* nahiz *hiruetarik*, *hirurengana*, *hirurengandik*, e.a., bertoko eske-ma hau segituz).



Hemen proposatzen den eskema oso sinplea da, azken batean: beste edozein izen bezala deklinatzen da, salbu “zenbatzaile plurala” denean, orduan “r” bat jartzen delako sistematikoki artikuluauren aurretik.

3. *Lau* zenbakiaren kasuan gauzak nahasiago suertatzen dira, halako hitzak, diptongoz bukatzen direnez, kontsonantetzat amaituak izango balira bezala edo hartuak izan baitira gure artean: orduan *loui* edo *lauik* idatzi beharko litzateke, *lurri* edo *lurrik* esaten den moduan. Ikusten denez, nahiko itxuragabekeria litzateke hori.

Datu hauek guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *lau* zenbatzailea (*hiru* zenbatzailearekin batera) salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe proposatzen du, kontuan izanik, hori bai, proposamen honek ez duela baldintzaten diptongoz bukatzen diren gainerako sintagmen deklinabidea:

1) *Lau* izena denean (ikus goragoko 1. puntua), bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau*, *laua*, *lauak* (abs); *lauk*, *lauak*, *lauk* (erg); e.a.

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak baka-rik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

### LAU

<i>Mugagabea</i>	<i>Plurala</i>
Lau	Laurak
Lauk	Laurek
Lauri	Laurei
Laurik	
Lautan	Lauretan
Lautako	Lauretako
Lautatik	Lauretatik
Lautara	Lauretara
Lauren	Lauren
Laurekin	Laurekin
Laurentzat	Laurentzat
Laurez	Laurez

(Kontuan hartuz jakina, aipatu ez diren bestelako xehetasunak ere: *lauetatik* nahiz *lauetarik*, *laurengana*, *laurengandik*, e.a., bertoko eskema hau segituz).

4) Analogiaz sortu diren *zazpirak*, *zortzirak* eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko lirateke euskara idatzian, hauek bokalez bukaturiko izenak bezala deklinatzen baitira: *seiak*, *seietan*, *seietatik*, e.a.

*Euskaltzaindiak 1992ko otsailaren 28an onartua*

## ZENBAKIEN IDAZKERAZ

Zenbakiak letraz idazteko orduan eredu desberdinak aurkitzen dira, ez bakarrik euskararen kasuan, baizik beste hizkuntza anitzetan ere. Euskaltzaindiaren ustez, puntu honetaz gomendioren bat proposatzeko orduan bi gauza hartu behar dira kontuan: batetik, idazleen usuarioa eta ohitura literatura tradizioan, bai mendebalean bai ekialdean; bestetik, azken urteotan, euskara bera ikastetxe, komunikabide, banketxe eta abarretan baliabide bezala sartu denetik, esparru berri horietan egin den aukera ere. Eta hona zergatik: Euskaltzaindiak, jakina denez, beti idazle klasikoen usuarioari ematen dio lehentasuna. Alabaina, zenbakiaren idazkerak, bide bat nahiz bestea aukeratu, ez dirudi euskaraz halako aparteko garrantzirik duen. Ez, behintzat, hitz hau edo bestea hautatzeak izan lezakeenaren adina. Horregatik izan du gogoko azken urteotako usuarioa ere. Hezkuntzan batez ere erabaki honen premia sentitzen denez, egoki da proposamen hau egitea.

Zenbakiaren kontua dela eta, zenbait zehaztapen egitea komeni da:

1. *Zero* eta *huts*, biak erabiltzen dira, nahiz ez diren gauza bera: *bost eta huts, huts eta huts, zero bider zero berdin zero*, e.a.

2. *Hiru* eta *lau* zenbakiak bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan.

3. *Bost* zenbakiaren aldaera *bortz* da, iparraldeko zenbait hizkeratan erabilia. Hala ere, Behenafarroako parterik handienean eta Zuberoan *bost* esaten da.

4. *Hogei* zenbakiaren eta *ehun* zenbakiaren artean dauden zenbakiaren idazkeraren tradizioa aski nahasia ageri da, ekialdea eta hegoaldea nor bere bidetik ibili baitira. Ekialdean *hogei* eta *zazpi* idatzi izan da XVIII. mendearen erdialderaino; gero, *hogei ta zazpi, hogei-ta zazpi, hogeita zazpi* eta *hogeitazazpi* bezalakoak aurki daitezke. Kontura gaitetzen, dena dela, *hogeitazazpi* bezalakoak ageri diren arren ez dela *hogeita-mar* bezalakorik idazten, halakoetan beti berex jartzen baita: *hogeita*

*hamar*. Mendebalean *hoge*i eta *zazpi* ereduak ere aurkitzen dira. XIX. mendearen erdialderaino *hoge*i ta *zazpi* zen nagusi eta hori da erabiliena 1950-1970. urteen artean ere. Tartean *hoge*ita *zazpi* bezalakoak ere ikusten dira. Azken urteotan *hoge*itazazpi da gehien zabaldutena (cf. *Maiztasun hiztegia*, EGLU, HABE, e.a.).

5. *Hoge*i eta *berroge*i zenbakien anizkoitzetan hegoaldean beti *oge*i erabili izan da; ekialdean *hoge*i, baina *hogoi* XVII. mendean geroztik, salbu Zuberoan, non *hoge*i erabiltzen baita egun ere.

6. 60 eta 80 adierazteko *hiruroge*i eta *lauroge*i ageri dira forma nagusi bezala. Ekialdean ere *hiruroge*i bezalakoak erabili izan dira historian, baina XVIII. mendetik *hiru*etan *hoge*i (*hiru*etan *hoge*i, berriagoa) eta *lau*etan *hoge*i (*lau*etan *hoge*i). Kontuan izan, jakina, *hogoi* horrek ere sortzen dituen aldareak.

7. *Mila* zenbakitik gorakoan artean ere ohiturak ez dira berdinak, eta juntagailua sartu ala ez: *mila*  $\emptyset$  *bortz* *ehun* eta *berroge*i eta *hamabortz* *zuan*; *milla*  $\emptyset$  *bost* *eun* *oge*i ta *bi* *toneladako*a; *milla*  $\emptyset$  *bost* *eun* *lauroge*i ta *emeretzigarren* *urtean*; *milla* eta *ehun* *gizon*; *milla* eta *bederatzireun* da *oge*i ta *bostgarren* *urtian*; *milla*  $\emptyset$  *sei* *ehun* eta *berroge*i eta *bigarrenean*; *milla*  $\emptyset$  *sei* *eun* *oge*i ta *amabigarren* *urtean*; *milla* ta *zazpieun*; *milla* ta *zortzi* *eun*, e.a.

Beraz, datu hauek guztiak kontuan izanik, hona hemen Euskaltzaindiaren proposamena:

0	zero, huts
1	bat
2	bi
3	hiru
4	lau
5	bost (bortz)
6	sei
7	zazpi
8	zortzi
9	bederatzi
10	hamar
11	hamaika
12	hamabi
13	hamahiru
14	hamalau
15	hamabost (hamabortz)
16	hamasei
17	hamazazpi
18	hemezortzi (hamazortzi)
19	hemeretzi

20	hoge
21	hogeita bat
22	hogeita bi
23	hogeita hiru
24	hogeita lau
25	hogeita bost (hogeita bortz)
26	hogeita sei
27	hogeita zazpi
28	hogeita zortzi
29	hogeita bederatzi
30	hogeita hamar
31	hogeita hamaika
32	hogeita hamabi
23	hogeita hamahiru
34	hogeita hamalau
35	hogeita hamabost (hogeita hamabortz)
36	hogeita hamasei
37	hogeita hamazazpi
38	hogeita hemezortzi (hogeita hamazortzi)
39	hogeita hemeretzi
40	berrogei
41	berrogeita bat
42	berrogeita bi
43	berrogeita hiru
44	berrogeita lau
45	berrogeita bost (berrogeita bortz)
46	berrogeita sei
47	berrogeita zazpi
48	berrogeita zortzi
49	berrogeita bederatzi
50	berrogeita hamar
51	berrogeita hamaika
52	berrogeita hamabi
53	berrogeita hamahiru
54	berrogeita hamalau
55	berrogeita hamabost (berrogeita hamabortz)
56	berrogeita hamasei
57	berrogeita hamazazpi
58	berrogeita hemezortzi (hamazortzi)
59	berrogeita hemeretzi
60	hirurogei (hiruretan hoge)
61	hirurogeita bat (hiruretan hogeita bat)
62	hirurogeita bi (hiruretan hogeita bi)
63	hirurogeita hiru (hiruretan hogeita hiru)
64	hirurogeitalau (hiruretan hogeita lau)

65	hirurogeita bost (hiruretan hogeita bortz)
66	hirurogeita sei (hiruretan hogeita sei)
67	hirurogeita zazpi (hiruretan hogeita zazpi)
68	hirurogeita zortzi (hiruretan hogeita zortzi)
69	hirurogeita bederatzi (hiruretan hogeita bederatzi)
70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
71	hirurogeita hamaika (hiruretan hogeita hamaika)
72	hirurogeita hamabi (hiruretan hogeita hamabi)
73	hirurogeita hamahiru (hiruretan hogeita hamahiru)
74	hirurogeita hamalau (hiruretan hogeita hamalau)
75	hirurogeita hamabost (hiruretan hogeita hamabortz)
76	hirurogeita hamasei (hiruretan hogeita hamasei)
77	hirurogeita hamazazpi (hiruretan hogeita hamazazpi)
78	hirurogeita hemezortzi (hiruretan hogeita hemezortzi)
79	hirurogeita hemeretzi (hiruretan hogeita hemeretzi)
80	laurogei (lauretan hoge)
81	laurogeita bat (lauretan hogeita bat)
82	laurogeita bi (lauretan hogeita bi)
83	laurogeita hiru (lauretan hogeita hiru)
84	laurogeita lau (lauretan hogeita lau)
85	laurogeita bost (lauretan hogeita bortz)
86	laurogeita sei (lauretan hogeita sei)
87	laurogeita zazpi (lauretan hogeita zazpi)
88	laurogeita zortzi (lauretan hogeita zortzi)
89	laurogeita bederatzi (lauretan hogeita bederatzi)
90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
91	laurogeita hamaika (lauretan hogeita hamaika)
92	laurogeita hamabi (lauretan hogeita hamabi)
93	laurogeita hamahiru (lauretan hogeita hamahiru)
94	laurogeita hamalau (lauretan hogeita hamalau)
95	laurogeita hamabost (lauretan hogeita hamabortz)
96	laurogeita hamasei (lauretan hogeita hamasei)
97	laurogeita hamazazpi (lauretan hogeita hamazazpi)
98	laurogeita hemezortzi (lauretan hogeita hamazortzi)
99	laurogeita hemeretzi (lauretan hogeita hemeretzi)
100	ehun
101	ehun eta bat
102	ehun eta bi
200	berrehun
300	hirurehun
400	laurehun
500	bostehun (bortzehun)
600	seiehun
700	zazpiehun
800	zortziehun

900	bederatziehun
1000	mila
1200	mila eta berrehun
1201	mila berrehun eta bat
1984	mila bederatziehun eta laurogeita lau
1.000.000	milioi bat
10.000.000	hamar milioi
1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)

Oharrak:

– *Hemezortzi* jartzen den leku bakoitzean *hamazortzi* ere jarri behar da, bigarren aukera gisan.

– *Ehun eta bat* zenbakian ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairen arabera *eta*, *ta*, edo *da* bezala ahoska daiteke.

– *Mila* zenbakitik gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekotan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*; *mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.

– *Milioi bat* edo *miliar bat* esaten da.

– 2 zenbakia adierazteko *bi* jarri den arren, puntu honetaz aurrerago mintzatuko da Euskaltzaindia, aukera bat baino gehiago baitago euskalkien artean (*biga*, *bida*, e.a.). Bestetik, noiz erabil daitezkeen forma hauek ere zehaztu beharra dago.

*Euskaltzaindiak 1992ko otsailaren 28an onartu*

**EUSKALTZAINDIAREN  
BATZAR-AGIRIAK**





1992-I-31

Gasteizko Kultur-etxean, 1992ko urtarrilaren 31an, goizeko hamarretan egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

Abenduko batzar-agiria onartu da.

### **Euskaltzain hutsunea**

J.M. Barandiaran euskaltzain ohiaren hutsunea iragarri du J. Haritschelhar jaunak. Iragarpen honekin irekirik gelditzen da aurkeztuak aurkezpenerako Araudiak agintzen duen hilabete biko epea martxoko batzarreraino. Apirilean egingo da legezko hautapena.

Bizkaiko euskaltzainen kopurua murrizturik dagoelako aipamena egin du A. Irigoien jaunak hautesleen gogorakizun.

### **Euskara Batuko batzordea**

Zenbakien deklinabidea aztertu beharra zen egungo batzarrean, baina X. Kintanak idatzitako gutun batean esaten da, ez zaiola testua bidali. Irigoienek ustez, boza duten urgazleek eskubidea dute fisikoki deituak izateko. Beste garai batzuetako eragozpenak aipatu ondoren, gaiak aurretik igorri eta erantzunak izkribuz jasotzea dela iritzia emateko modurik egokiena, esan da.

Arazoa ez da batzorde honi soilki dagokiona eta, izatekotan ere, Barne Erregelak berriztatuko direlarik zehaztu behar da. Oharrak bidaltzen dituen pertsona bileretara deitu ala ez, batzordearen esku uzten da.

Abenduraino hartutako erabakiekin argitalpen berezi bat egingo zela esana zenez, Euskara Batuko batzordeak proposaturik onartutako erabaki horiek gero

*Euskeran* argitaratuko badira ere, aurrez bereziki plazaratzeko adostasuna egon da. Batzordea zuzenean konponduko da Argitalpen arduradunarekin.

Disketen erabili beharra ere azpimarratu da berriro.

Zenbakien deklinabidea beste batzarre batean aztertuko da.

### **Bizkaitarren gutuna**

“Euskara batuaren aspaldiko egoeraz” izenburuarekin Bizkaiko multzo batek bidalitako gutuna dela eta, zenbait euskaltzainen izkribuak banatu dira eta gaia eztabaidatu ondoren, Euskaltzaindiak ikusi duela erantzungo zaie egileei, gero ere kontutan hartuko dituela kezka horiek, esanez.

### **Izendapenak**

Zuzendaritzan ikusi zen LEF batzordeak egindako bekadun baten eskaria. Abendurainoko hitzarmena izango du eta teknikoki egingo da deialdia. Epaimahairako izen hauek eman dira: P. Altuna buru, Andoni Sagarna idazkari, Miren Azkarate eta diruzaina, mahaikide.

Madrilgo Kultura Ministeritzatik, Biblioteca Nacional delakoaren Erret Era-kunderako ordezkaria berriztatzea eskatu dute. J.A. Arana Martija izendatu da.

Ministeritza beretik beste izendapen hauek ere eskatu dituzte:

“Letras Españolas” delako sari nazionalako epaimahairako ordezkari bat. E. Knörr joango da.

Olerkaritzako Literatura sari nazionalerako, J. Kortazar izendatu da.

‘Narrativa’ delako Literatura sarirako epaimahaikide, I. Sarasola.

Saiakera, maila bereko Literatura sarirako, P. Altuna.

Haur eta Gazteen Literatura sarirako, Pakita Arregi.

Itzulpen sari nazionallean, azkenik, X. Mendiguren egongo da.

Urtero bezala, “Príncipe de Asturias” izendapenaren deialdirako hautagairen bat aurkezteko gomita jaso da. Ez da inoren izenik aipatu.

### **Eskuartekoak**

*Nafarroako Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialetik* hartutako gutun bati erantzunez, euren harremanetarako euskal izena, hemen agertzen dena gomendatzen zaie.

Iragan urtean batzarreetara etorri ziren euskaltzain eta urgazleen zerrenda eta bakoitzaren agerpenen kopurua ezagutzera eman dira. A. Irigoienek, azalpen horren beharrik ez dela eta, kentzea proposatu du. Ez da onartu eskaria.

Eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren V.* liburukia aurkezteko ordua iritsi delarik, besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

Berezi bi batzarren egorriak:

## BATZAR OROKORRA

Gasteizen, Arabako Diputazioaren Kultur Etxean, 1992.eko urtarrilaren 31n, arratsaldeko 4etan, egiten du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Di-harce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peil-len, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak; R. Badiola, B. Gandiaga, P. Goenaga, X. Kintana, J.L. Lizundia, M.M. Ruiz Urrestarazu, I. Segurola eta J.J. Zearreta urgazleak.

Goizeko bilkuran tratatutako gaien berri ematen du J.M. Satrustegi idazka-riak, azpimarragarrienak hauek izanik: Jose Migel Barandiaran zenduaren hutsue-nea iragartzea; Euskara Batuko batzordearen gaia, izena eman zuten urgazleei oharrak egiteko txostenak bidaliko zaizkie eta abendurarte hartutako erabakien argitalpen bereziaz ere hitz egin da; “Euskara batuaren aspaldiko egoeraz” izen-burudun gutuna dela eta agertutako kezka kontutan hartuko direla; LEF azpiba-tzordearen eskariz egindako beka deialdia iragarriko da, epaimahaia izendatu delarik; Madrilgo Kultur Ministeritzatik eskatuta literatura sariketak epaitzeko Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu dira; “Biblioteca Nacional” delakoaren erakunderako ordezkari bezala, Jose Antonio Arana Martija izendatu da.

Goizeko euskaltzainen bilkuren ondoren, *Orotariko Euskal Hiztegiaren V.* libu-rukia aurkeztu da Alberto Ansola Arabako diputatu nagusia mahaipuruan zelarik. Lehendabizikoa, Bizkaiko Foru Diputazioan; bigarrena, Gipuzkoakoan; laugarre-na, Nafarroakoan egin zen bezalaxe —hirugarrena, Durangoko Liburu eta Disko Azokan egin bai zen— V.arrena Arabakoan eginez langintza honen babesleen hiriburuetan aurkezpena amaitutzat ematen da.

“Euskaltzaindiaren laguntzaileak, 1959-1962” izeneko txostena J.M. Satruste-gik irakurtzen du, euskaltzainen txandan dagokiona hain zuzen. Aipaturiko urtee-tan Euskaltzaindiaren inguruan arituriko laguntzaileen berri eskaini du txoste-nean. Bestalde garai hartako batzar-agirietan azaldutako gorabeherak agertu ditu txostengileak. Jarraian gure egunotan edo arestian Erakundearen inguruan sortu-riko zenbait tirabira eta ekintzaren berri eman du. Ondoren eztabaida gertatu da zenbait euskaltzain eta urgazleren artean.

Azkenik, E. Knörrek J.M. Barandiaran euskaltzain zenduaren hil berri txoste-na irakurtzen du, haren bizitza eta lanak gorai patuz, bereziki Gasteizen egin zituen urte oparoak azaltzen dituelarik.

Eta besterik gabe amaitzen da batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
euskaltzainburua

*J. M. Satrustegi*  
idazkaria

1992-II-28

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea 1992ko otsailaren 28an. Goizeko hamarretan bildu dira, J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oiarçabal, F. Ondarra, J. San Martin, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea, eta dagozkienetan M. Azkarate LEF azpibatzerdearen arduraduna eta M. Zalbide Hiztegiagintza batzordeko idazkaria.

Tx. Peillenek ezin etorria adierazi du.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da zenbait ohar jaso ondoren.

J.M. Zumalabe euskaltzain urgazlearen hilberria aipatu da eta J.M. Lekuonak eginen du datorren batzarrean haren biziaren eta lanen aipamena.

### **Euskara Batuko batzardea**

Aurrez ikusitako zenbakien idazkeraz azken puntu batzuk zehaztu ondoren, zenbakien deklinabidearen txostena ikusi da. Aurkeztutako proposamenak zenbakien bi atal ukitzen ditu: Izena eta zenbatzailea. *Hiru* eta *lau* zenbakiek agertzen dute konplexotasunik gehiena eta horiei buruz eman ditu batzordeak deklinabidearen taula osoak. Jasotako oharak aipatu dira. Proposatutako zenbatzaileen atala onartu da beraz, erabakiaren testua txostenean azalduko delarik.

### **Aditegia**

Euskaltzaindiaren antolamenduari buruz oraintxe egindako aditegiak emandako aholkuen berri eman da. Hemezortzi puntutan azaltzen dira ikusitako akatsak. Ondoko hilabeteetan eman beharreko urratsen gomendioa ere egiten da kronograman. Nola nahi ere, Euskaltzaindiaren egitekoa da dagozkion erabakiak hartzea, eta banatutako txostena lan luze baten laburpena denez, argibideak euskaltzain bakoitzari igortzea erabaki da, hurrengo batzarrean eztabaidatzen hasteko.

## **Kanpo-izendapenak**

Orioko Udalak bertako euskara aztertzeko egina duen beka-deialdi baten epaimahairako ordezkaria eskatzen du. P. Altuna joango da, eta agian ez dela Erretereriako Udalarekin bezala gertatuko, esan du; Mitxelena sarirako iaz euren eskariz Euskaltzaindiak izendatu eta ez zuela inoiz jakin epaimahaia noiz biltzekoa zen, egunkarietan besterik esan bada ere. Eta aurten berriro Udaletxera deitu arren ez diotela argitu arazoa.

## **Euskuartekoak**

Emakumearen Euskal Erakundeak bidalitako gutuna jaso da, euskaltzain hutsunea betetzeko emakume baten izena kontuan edukitzea eskatuz. Euskaltzainburuak urtarriaren 16an aditzera eman zion Emakundeko zuzendariari nola egiten diren euskaltzainen hautaketak, eta hiru euskaltzainek aurkeztua dute emakume bat kasu honetan, izenak emateko epeak irekirik dirauelarik datorren martxoko batzarrera arte.

Bilboko egoitzako garraioetarako furgoneta baten beharra agertu du diruzainak. Dagoen mugimendua kontuan harturik oraingo kostuen kopurua alde bate-tik, eta furgonetarekin legokeena, bestetik, parekatu ditu, banatutako orri baten bidez jakinaraziz. Eztabaida moduko elkarrizketa baten ondoren onartua izan da eskaria.

Nafarroako Kontuetako Ganbararen arduradunak erakunde horren izena euskaraz nola esan behar den galdetzen du. Orain arte nola erabilia izan den erantzun zaio, beste pare bat hitzen berri ere emanez. P. Salaburuk ez du parte hartu nahi izan arazo horretan.

Euskal Soziologi Elkarteko idazkariaren gutuna hartu da Bilbotik elkartearen izenburuko euskal itzulpena zuzen dagoen galdetzen. Bere egunean esandakoaren arabera, ongi itzulia dela erantzungo zaio.

Europako hizkuntza ttipienen alde orain arte hartuak izan diren erabakiak gogoraraziz J.M. Bandresen Frantziari bere babesa eskatzen dion izkribuaren berri eman da.

Seul-go Unibertsitateko irakasle den Noh jaunaren gutuna irakurri da, Euskal Herrian egon den denboran Euskaltzaindiak emandako erraztasunengatik esker-rrak ematen.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

## **BATZAR OROKORRA**

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 1992.eko otsailaren 28an, arratsaldeko 4etan egiten du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra. Bildu dira, goizeko euskaltzainez gain, salbu: J. San Martin eta I. Sarasola; M. Azkarate, R. Badiola,

F. Barrenengoa, A. Eguzkitza, J.G. Etxebarria, B. Gandiaga, X. Gereño, J.L. Goi-coetxea, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oleaga, K. Rotaetxe, A. Urrutia, M. Zalbide eta J.J. Zearreta urgazleak.

Goizeko bilkuran tratatutako gaien berri ematen du J.M. Satrustegi idazkariak, azpimarragarrienak hauek izanik: Euskara Batuko batzordeak proposaturiko *zenbakien idazkeraz* azken puntu batzuk zehaztu ondoren, *zenbakien deklinabi-dearen* txostena ikusi eta onartu da; Euskaltzaindiari egindako auditoriak eman-dako aholkuen berri eman da; Orioko Udalak bertako euskara aztertzeko egina duen beka deialdi epaimahaikide Patxi Altuna izendatu da; Nafarroako “Cámara de Comptos” erakundearen euskal ordaina *Kontuetako Ganbara* birretsi da.

Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa azpibatzearen azalpena ematen du A. Sagarna idazkariak 1987-1991 bitartean eginiko lanen berri ematen duen txosten bat aurkeztu du. Bertan, Hiztegitzintza Batzordearen barneko azpibatze hori nola sortu zen eta izan dituen helburuak zeintzuk izan diren eta nola bete dituen esaten da. XX. mendeko euskara idatzian erabilitako lexikoa era adierazgarrian errepresentatzen duen 2.000.000 testu-hitzeko corpus baten bilketa, hustuketa eta lematizazioa izan da xede nagusia. Lan hau bukatutzat ematen da eta lortutako emaitzez Hiztegi Batuko azpibatze berria baliatuko da. Euskaltzainburuak egindako lanengatik eskerrik beroenak ematen dizkie azpibatze kide guztiei.

“Ameriketara euskal testu zaharrak Arantzazuko Ama Birjinari buruz” izeneko bere txandako txostena Aita L. Villasantek irakurri du gero. Lima-n (Perú) Aita Juan de Ayllon-ek 1647. urtean inprimatutako liburuaz aritu da. Liburu hau bibliografietan ageri agertzen da, baina ez beti zuzen, eta gaur topa ezina da. Arantzazuko fraideek berriki lortu dute Lima-ko frantziskotarren komentuko bibliotekan gordetzen den alearen fotokopia. Bertan bada euskal hitz eta euskal pasarterik franko. Berorien azalpena egin du txostengileak. Aita Villasantek uste du Lima-n garai hartan zegoen euskal koloniar omenaldi eta estimu-aitorpena izan nahi duela liburuak.

Azkenik, “Ochoa de Arinen *Doctrina Christianaren* (1713) hizkeraren laburpena” izeneko txostena irakurtzen du P. Altuna jaunak. Autore honen zerbait berezitasun eskaini ditu txostengileak, hots, ‘mendebaldeko azken hiru mende hauetako hizkera ezagutu eta ikertu nahi duenarentzat Ochoa de Arin ordiziarra dugu nahitaezko ispilu eta iturburu’.

Txosten bakoitzaren ondoren elkarrizketa izan da, egile eta entzuleen artean, iritzi onuragarriak sortuz.

Eta besterik gabe, bukatzen da batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
euskaltzainburua

*J. M. Satrustegi*  
idazkaria

1992-III-27

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1992ko martxoaren 27an egin dute euskaltzainek hileroko euren batzarrea. Arratsaldeko 4 eta erdietan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, L. Villasante eta A. Zavala euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea eta J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, urgazleak.

P. Charritton jaunak ezin etorria adierazi du.

Otsaileko batzar-agiria onartu da.

X. Diharceek I. Baztarrika urgazlea hil delako berria eman du, atzo egin zirelarik Estibalitzen hileta elizkizunak. Diharceek berak egingo du datorren batzarrean zenduaren goratarrea.

### **Euskaltzain proposamena**

J.M. Barandiaran euskaltzain ohiaren hutsunea betetzeko deia iragarri zenetik arauzko bi hilabete iraganik, P. Altuna, J.M. Lekuona eta J. San Martin euskaltzainek izenpetutako Miren Azkarate anderearen proposamena bakarrik aurkeztu da. Datorren hileko batzarrean egingo da bozketa.

### **Euskara batuko batzordea**

A. Irigoienek izkribu baten bidez esan du, Euskaltzaindiak erabakitakoan agiriak hitzez-hitz agertu behar direla, eta Euskara Batuko batzordeak aldatu egin dituela argitaratu duen liburuskari. P. Salaburuk erantzun dio, delako liburuskari hori ez dela zabaldu eta orain arte eskuartearen erabilitako testuak zirriborroak direla eta, beraz, aldagarriak. Argitaratzekoak diren gomendioaren erabakiak aurkeztu ditu gero, eta Euskaltzainburuaren izenean eramango duen gutuna irakurri

du. Argitaratu ondoren bi hilabeteren epea egongo da oharrak egiteko, horrela kongresurako gaiak prestatzen joateko.

Zenbakien zerrendari egindako oharrak jaso ondoren banatutako testua onartu da.

LEF azpibatzordekoekin bildu direla, esan du P. Salaburuk, eta bere egunean aurkeztutako lanaren laburpen bat egingo dutela. Hurrengo batzarrean egingo da proposamena. Lan orokorrean agertzen diren gaiak izango dira noski.

## **Aditegia**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia den M. Karmen Garmendiaren gutuna ikusi da, aditegiko gomendioak inolako atzerapenik gabe aurrera eramateko, Euskaltzaindiari beharrezkoa den ahalegina egiteko eskatzen.

A. Irigoienek, bestalde, Oñatiko Hitzarmenari buruz edo jarraitutako prozedurari zegokionez bere kezka azaldu ditu izkribu batean, Arautegia ukitu beharra ere haren ondore kezka garria iduritzen zaiolarik.

Edozein modutan, Bilboko egoitzaren helbidea aldatu behar dela, erantzun dio euskaltzainburuak.

Aditegiko gomendioen sarreran, ahozko azalpenik ezak irakurketa zailtzen duela esaten bada, argibide horien berri eskatu da. Jarraipen batzordekideak ahalegindu dira entzundakoak errepikatzen.

Aurrez banatua zen aditegiko lanari buruz ez da inoren oharrak hartu. Eguneko gaia kronogramari lehen onarpena ematea da, hitzez-hitz beteko ezpada ere. Hori gabe ezin da lanean hasi. Gero, banan-banan aztertuko dira atal guztiak eta Euskaltzaindiak hartuko du azken erabakia. Aurkeztutako kronograma ikusi ondoren, jarrera irekia agertu du Euskaltzaindiak, egutegia estua dela uste badu ere. Barne Erregelen gaurkotzeari begira ponentziaren bat agindu beharko da agian, eta garbi esan da Euskaltzaindia ez dela inoren aldaska edo filiala.

Konfidantzako ahala eman zaio Zuzendaritzari arazoa aurrera eramateko, urrats guztiak batzarrera ekarriko direlarik.

## **Eskuarteak**

Nevadan, Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program sortu zeneko 25.urtemuga dela-eta, erakunde honi Euskaltzaindiak domina ematea proposatu du idatziz E. Knörr euskaltzainak. Onartu da.

Iruñeko Udalak urtero egin ohi duen euskarazko Literatur-lehiaketarako epaimahaikide bat izendatzea eskatu du. Patxi Zabaleta joango da, eta ezinean A. Iñigok ordezkaturko du.

Andoingo Udalak Manuel Larramendi zenaren hirugarren mendeurrenkari emandako hitzaldiak argitaratu direla adierazi du. Aurkezpena apirilaren 10ean



izango dela-eta, Euskaltzaindia gomitatzen du, nor joango den jakin nahian. J.M. Lekuona euskaltzainburuaren izenean eta P. Altuna joango dira.

P. Altunak aditzera eman du, Errenterian bildu zela Mitxelena sarirako epaimahaia eta P. Perurena izan zela saritua.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi*  
*idazkaria*

1992-IV-24

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan, 1992ko apirilaren 24ean egin dute euskaltzainek hileroko batzarrea. Goizeko hamarretan bildu direnak hauek dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante. P. Zabaleta beranduago iritsi da. J.L. Lizundia idazkariordea, J.J. Zearreta ekonomi eragilea, J.A. Aduriz, X. Kintana eta M. Zalbide urgazleak, dagozkien gaietan.

E. Erkiaga, F. Krutwig, A. Labaien eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute.

Batzar-agiria onartu da.

### **Euskaltzain berria**

J.M. Barandiaran euskaltzain ohiaren hutsartea betetzeko bozketa lehen puntuan iragarria da eguneko gaietan. Miren Azkarate anderearen aldeko proposamena da aurkeztutako bakarra. Bozketari buruz Araudiak dioena irakurri du euskaltzainburuak. Hemezortzi dira une hartan bildutako euskaltzainak. Idatziz euren ahala bidali dutenak, hauek dira: A. Zavalak, J.M. Lekuonari; A. Labaien eta E. Erkiagak, J. San Martini, eta F. Krutwig jaunak A. Irigoieni.

Hogeita bi dira, beraz, hautesleen txartelak; hauetatik, 20 bai eta bi zuri eman ditu bozketak.

Lehen itzulian lortu du horrela hautagaiak gehiengo nagusia, eta Miren Azkarate anderea da euskaltzain berria.

### **Jarraipen batzordea**

Herri aginteekin izandako bilkuraren berri eman du euskaltzainburuak. Aditegiko gomendioetan datorren organigrama ongi egiteko denbora behar da eta

datorren hileko batzarrera ekarriko du Zuzendaritzak bere proposamena eta hilabeteko epea izango dute euskaltzainek oharrak egiteko.

Banan-banan ikusi dira gomendioen 18 atalak dagozkien zehaztasun eta arazoak aipatuz.

Tresneria berriari buruz mintzatu da diruzaina. Informatizapen guztia LAN-TIK etxarekin egin dela orain arte, esan du. Hutsuneak omen ditu eta beste bide batzuek ikusi nahi dira. EUDEL-en programa hartuko dela uste du, eta IBM-k Bilbon duen zerbitzu ona aipatu da.

Ikastaroak antolatuko dira noski eta udazkenerako abian ezarri nahi da.

### **Biblioteka**

Jarraipen batzordeko azalpenetan Azkue Bibliotekaz mintzatu da arduraduna. Euskal Biblioteka Orokor baten sarea sortzeko asmorik noizbait egon bazen ere, oraingoz ez dela egingo esan du. Euskal Komunitate Autonomoko bost biblioteka nagusientzat programa bakarra edo konpatiblea egin nahi da. Horrela, euskal bibliotekatako altxor elkartuaren katalogoa egin daiteke.

Azkue Bibliotekari dagokionez, beharrentzat prestatutako programa baten bidez antolaketa egiten ari dira. Maiatzean burutuko da eta ekaineko batzarrea Bilbon balitz inaugurazioa egun berean egingo litzateke.

Gordailuko informatizapenak programa berezia izango du eta azarorako egin daiteke.

### ***Orotariko Euskal Hiztegia***

Zehatz aztertzen da Jarraipen Batzordean OEHaren abiada. Egitarau zehatza eta epeak dira gehienbat aipatzen. Bilera bat egin behar dela, esan du euskaltzainburuak, eta elkarrekin arazoak ikusi. Maiatzaren 29an da hileroko batzarrea eta bezperan, 28an alegia, biltzea proposatu du.

Garbi esateko, lana arintzea eta epea laburtzea eskatzen dute Herri Aginteek. Bekarioak hartuz?

Antzeko zerbait gertatzen da Hizkuntz Atlasarekin, eta maiatzaren 22an egingo da arduradunekin arratsaldean bilera.

### **Goizeko batzarrea dela-eta**

Arrueri, itzultzaile den neurrian, hala fabula nola fabula antolatze modua emanak datozkio. Badago alderik Schmidek bere gain hartzen duen eginkizunaren eta Arruerenaren artean, baina lehenak ere, maila apalagoan bada ere, askatasunaren hegalki moztuta dauzka, baldintza batzuk barnean behintzat. Nahiz eta abiaburutik bertatik onartu idazle orok idazlana sortzeko duen "testu-aurrea" lantegi horri helden dion unerarte gizakia osatzen joan den mintzairaren eta kulturaren hiztegia dela (5), Schmidek herri-kontsumorako izango den kontaketa eratu nahi duen neurrian, gehiengoei zuzentzea erabakitzen duen heinean, idazle landu deiturikoen baino askoz nabarmenago murriztu beharko du arestian aipatzen zen hiztegia: herritik hartu du gaia —Jenobebaren bizitza

(4) A. Lino Akesolok zenbait xehetasun eskaintzen du: "Azkeneko azterketek diotenez, Jenobeba onen bizitzak Frantzialdeko beste aoz aozko ipui zarrago batean omen du jatorria, *Frantziako Erregina eta Mariskal ezkontzauslea* izeneko ipuiari, alegia. Oso antziñakoa omen da ipui au. Or oiñarriturik, amairu-amalagarren mendean fraide asmatzaille batek egin zuen aldaketa: Erreginaren izenaren orde kondesa zelako Jenobebarena jarri (benetakoa Santa Jenobeba Parisek zaindari duenaren omenez, antza), senartzat Sijifredo konde ustezkoa eman berari, beste eraskin batzuk asmatu (Jenobeba eta bere semetxo sei zazpi urtez janaritu zuen basauntzarena eta abar)... Gaiñerakoa geroko idazleek egingo zuten. Idazleotako bat René de Cerisiers jesuita frantzesia izango da, 1638n Santa Jenobeba zelakoaren bizitza atera zuena. Arrezkero, jesuita orren liburuaren eragitez, sekulako arrera izango du ipuiak Europa guztian. Batez ere Alemanian. Alemanen literaturan bertan ere ildo sakona utziko du XVIII-XIX garren mendetan zear". AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 21-22. orr. Laffont-Bompianik honela aurkezten dute: "Personnage légendaire dont les aventures, après avoir fait l'objet de récits populaires dont certains remonteraient au VIII s., furent évoquées dans *la Légende dorée* (vers 1250) de Jacques de Voragine, puis plus longuement, dans un texte dû à un moine allemand du XV s., Matthias Emich, et inspirèrent à partir du XVIII s. de nombreuses oeuvres littéraires et musicales". LAFFONT-BOMPIANI, *Dictionnaire des personnages*, Ed. Robert Laffont, Paris, 1984, 413. or.

(5) R. Selden-ek honela jasotzen ditu Roland Barthes-en hitzak: "que los escritores sólo tienen el poder de mezclar textos ya existentes, de volverlos a juntar y a desplegar, y que los escritores no pueden usar sus textos para 'expresarse', sino sólo inspirarse en ese inmenso diccionario del lenguaje y la cultura que 'ya está escrito'". SELDEN, RAMAN, *La teoría literaria contemporánea*, Editorial Ariel, Barcelona, 1987, 67. or.

ezaguna zen aldaera desberdinekin— eta baldin eta herriari itzuli nahi badio honek ezagutzeko, “errekonoiztzeko” (6) eran itzuli beharko dio; ezin eman diezaioke guztiz berria den Jenobebaren irudia. Baldintza hauetan ez du askatasunik edozein motatako nahasketak eragiteko berak jaso duen mintzairaren eta kulturaren hiztegiaren; alegia, ez du askatasunik jaso duen Jenobebaren historia, beste tradizio batzuekin edo tradizioaren iraulketa dakarten elementuekin nahasteko. Izan ere, herritik jaso duen Brabanteko Jenobeba beste elementu batzuen bidez bortizki nahasten badu, herriak ezagutzen ez duen Jenobeba itzuliko dio, eta ezagutzen ez duen neurrian, herriarena ez da izango, Schmidena baizik. Edo eta jasotzen duen ondarea, sortu duen harena (herria) dena, honek ondare horretaz egina duen ohizko irudiaren barnean atzera ematen dio, edo eta, birsorketa bitarteko, ondare horren ikuskera berezia, Schmidek eta berak bakarrik elementu desberdinak konbinatuz asmatu duena itzultzen badio, ez da herri-kontsumorako gai izango. Schmidek, tradizioetik langaitzat hartu duen Jenobeba, lantze-prozesuak eragin dezakeen itxuraldaketan bide, beste Jenobeba baten irudi bihurtzen badu, langaiaren emaitza ziren haiek ez dira identifikatuko itxuraldatutako Jenobeba honekin eta ez dute bere egingo. Aldaketak eragin ditzake, baina sistema baten barnean, sistema horrek jarritako hesiak hautsi gabe. “Collage” partikularra, berezia, bitxia, pribatua, erabat banakoa dena debekuen zerrendan dago; hau da, Schmideren muga Jenobebaren bizitzaren ikuskera berezian, inoiz eman gabekoan dago. Schmidek, bere aurretik gai honi lotu zitzaizkion beste idazle batzuk bezala, hainbat osagai gorde egin zuen, ezagutu zitekeen Jenobeba kaleratuz. Tradizioak emaniko Jenobebaren irudiari lotu zitzaion: errugabe izanik adulterio-salaketa jasaten duena, heriotz zigorra jaso eta saihestu ondoren, basahuntzak emandako esne eta beroari esker basoan semea hazten doala senarrak aurkitu, ezagutu, barkamena eskatu eta ohore guztiarekin berriro gazteluratzen duena. Honela bada, itzultzaile soila den neurrian, Arrueren mugak handiagoak badira ere, hesi batzuen barnean atondu zuela Schmidek begi bistakoa da.

Euskal Herrian Arrueren itzulpena 1868.ean argitaratzen da eta, honen bestez, data zehatzari lot dakioko kontaketa honek mundu idatzian duen zabalpena. Baina, dirudienez, gauzatze konkretu hori heldu orduko “ehunka aldiz esana eta entzuna” (7) zegoen. Esaten eta entzuten hasten deneko une hori ezagutzen ez bada ere, zera gehi daiteke, gai honen

(6) Errusiar Formalistek zerabilten zentzuan. Ik. SHKLOVSKI, VICTOR, “El arte como artificio” in TODOROV, TZVETAN (Ed.), *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*, Siglo Veintiuno editores, México, 1980, 4. argitalpena.

(7) K. Mitxelenak jende arruntaren eskea piztu duten irakurgaiak mintzagai dituela, Brabanteko Jenobebaren bizitza horien artean, dioenez “Hauek, ordea, ehunka aldiz esanak eta entzunak ziren dagoeneko eta soinua lagun bizi zirenak ere iraunkor agertu dira behin eta berriz”. MITXELENA, KOLDO, “Liburu sorta zaharberritu baten atarian” in AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 11. or.

zirkloarekin bat datozen kontaketak zabalpen handia izatera heldu zirela gure artean (8).

Beraz, Santa Jenobebaren bizitza kontaktzen duen historiaren jatorria ahoz-ahozko igorpenean dago, hor ditu bere sustraiak eta erro horietan edanez, zenbait idazleren eskutik, mundu idatzira eramanda hainbat aldiz, berriro bizitzara ekarriz aldaera desberdinetan. Arruek aldaera horietako bat hautatu zuenean itzultzeko ahoz-aho zebilen historiari historia finkatu bat gehitu zion, idazkerak ematen duen finkotasuna zeramana.

*Santa Jenobebaren Bizitzak* mundu ezaguna zekarren, mundu miresgarria, handiki baten neke, pena eta pozak harrigarriki bizi izanak: heriotz zigorraren barkamena, mortua, basahuntz-laguntzailearen agerrera, heriotzaren atarian anagnorisia, ekintzen garapenean aldaketa ekarriko duena, Jenobebak zeraman higadura-prozesua irauli eta bizitza-baldintzen hobekuntza-prozesuari hasiera emango diona. Giza-itxura ere galtzear zeukan Jenobeba harengan Sijifredo kondeak bere emaztea ezagutu ondoan hasten duen hobekuntza-prozesuak kondesaren estatutua itzuliko dio eta bere bizileku den gaztelua peregrinazio-toki bihurtuko. Ez da zaila laburpen honetan V. Propp-ek, ipuin miresgarrien morfologia aztergai (9), deskribatu zituen zenbait funtzio atzematea, hala nola heroiaren laguntzailearen agerrera edo erabat itxuraldaturik dagoen heroia ezagutzea. Hamaika kontaketa bitarteko herri-tradizioan sustrai sendo eta sakonak botata dituzten elementu miresgarriek, gertaeren garapenean sartutako ez-usteko iraultetek, klimax-antiklimax egoeren arteko joko azkar eta azken muturreraino eramandakoek... jatorri jakina ematen diote *Santa Jenobebaren Bizitzari*.

Besterik da *Auñemendiko Lorearen* testu-aurrea. Eleberriari hasiera ematen dion lehen lerroan bertan esaten zaigunez "gertaera zarrak" dakartzeta eta gertaera zahar hauetaz jabetzeko erabilitako iturriak ez dira ezkutatuko. Agirrek zenbait liburutara jo du gertaera horien berri izateko eta, oin-oharrak bide, kontsultagai izandako bibliografia azalduko du (10).

(8) "No sabemos en qué fecha se introdujo en la literatura oral vasca la bella leyenda alemana de Genoveva de Bravante" dio M. Lekuonak. Eta eranstun du: "Son muy populares en nuestros caseríos cuentos cuyo ciclo temático corresponde perfectamente al de la referida leyenda". LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain*, III. or. Gaiaren zirkloarekin bat datozen kontaketak ejemplifikatzerakoan J. M. Barandiaranek 1904. urtean Ataunen jasotako bat aipatzen du, "Andre doakabea". BARANDIARAN, JOSÉ MIGUEL, *Obras Completas. Eusko Folklore*, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, 271-273. orr. Mende honen hasieran jaso izanagatik, bertan azaltzen diren osagai harrigarriek behintzat, Brabanteko Jenobebaren bizitzakoak baino harrigarriagoak, hau argitaratu baino lehenago esan eta entzungo zela iradokitzen dute.

(9) PROPP, VLADIMIR, *Morfología del cuento*, Editorial Fundamentos, Madrid, 1977, 3. argitalpena.

(10) Agirrek Historia du inspirazio-iturri eta jakintzaren alor honek eskaintako bibliografiaz egin duen erabilera azaltzen du; P. HARISTOY, *Recherches historiques sur le Pays*

Histori liburuetan ikasi duen hura hartzen du abiapuntu, irakurri duen hura, eta, gainera, bere idazlana taxutzeko erabiliko ez duen bi hizkuntzetan irakurri ditu dakartzan berriak.

*Santa Jenobebaren Bizitza eta Auñemendiko Lorea* testu-aurrean bertan hasten dira bereizten: ahoz-ahozko mundua/mundu idatzia aurkakotasuna dago jatorrian. Bata herrian entzundako historia oinarri eratu da, bestea liburuetan ikasitakoa abiapuntu zuela. Lehenak askoren ondarea du abiapuntu, bigarrenak gutxiengoena. Dena den, ondare horretaz idazleak egiten duen erabilerak erabakiko du itzulbidea. Erabilera hori izango da, hain zuzen ere, langaiek abiapuntu dituzten talde soziologiko berdinak dituzten helmuga ala, lantze-prozesua bide, harremana aldatzera doan ebatziko duena. Azken batez, lantze-prozesu horretan eraikitzen doan irakurle inplizitua izango da errealitate soziologikoan hartzaile-modu bat aukeratzen joango dena.

Dokumentazio historikoa erabili du Agirrek gertaera eta pertsonaia historiko batzu testuratzeko, ahoz-aho zebilen historia edo honen gain eraikitako testutan oinarritutakoa dakar Arruek. Kontaketan hasiera bera lekuko, lehenak 638. urtetik aurrera igarotako gertaerak dakartza, bigarrenak “Fede egiazkoaren argi ederra zabaltzen Alemanian abiatu zanetik laster” (35. or.) igarotakoak. Ez da lehen lerroetara soilik mugatzen den jarrera. Beste zenbait gertaera ere data zehatzari atxekirik emango ditu *Auñemendiko Loreak*: Adalbaldo 652. urteko otsailaren biau hil zuten, Riktrudisi 687. urtean heldu zitzaion heriotza. Denboraren ardatza hone-la zedarritzeak kontaketaen historizitatea bermatzen du. Ez dago hain mugarri finkorik *Santa Jenobebaren Bizitza*n. Bi kontaketek birtute handidun emakumeak dituzte protagonista, baina testu-aurreak eta berari ordaintzen zaion maileguak —data historikoak gorde, erreferentzi bibliografikoak azaldu...— modu desberdinez kualifikatzeko oinarriak jartzen ditu, bata kontaketa historikoa, bestea, kontaketa hagiografikoa edo elezaharra.

Dena den, kontaketa historikoa izateak historiarekiko zor batzuk sortzen badizkio ere, zor horiek ez diote eragozten historia fikzioarekin nahasiz, datuen mundutik hegalak altxa eta bere baitan izateko arrazoia duen tramankulua eratzea. Datu historikoari gorde beharreko leialtasuna fikzioaren egiaren menpe jartzen da eta ez aldrebes. Honenbestez, Agirrerren askatasuna Brabanteko Jenobebaren bizitza taxutu duten haiena baino handiagoa da. Hauek ezin zezaketen irauli ahoz-aho jasotako kontaketa baldin eta lehengaien emaile ziren haiek idazlearen irudimenak berregin edo birsortu duen historia ezagutzea nahi bazuten; Agirrek bere datu historikoak irauli ditzake eta, egia historiko nimiñoena gordeaz,

---

*Basque*, Bayonne-Paris, 1884; M. J. M. MENJOLET, *Sain Amand apotre des basques*, Auch, 1869; D. ESTANISLAO JAIME DE LABAYRU Y GOICOECHEA, *Historia General del Señorío de Bizcaya*, Bilbao, 1895.

beste elementu ugarirekin konbinatuz, historia berri bat asmatu. Agirrek bere hiztegi eta kultura osatzen duten elementu desberdinak nahasiz sortu duen historia da eta inork ez dio galdetuko altxor horretaz egin duen erabileraz: inork ez dio eskatuko datu historiko horiek ezagutzeko moduan egotea, inor ez da hurbilduko Historiaren alorrean bere burua jaztera. Langaiei emaielen aurrean ez du erantzunkizunik hartzen. *Santa Jenobebaren Bizitzaren* egileak herriarengandik kontaketa jasotzean, bazuen epailerik, bazuen kontaketa horretaz egindako erabileraz itaun zezakeenik eta erabilera horren arabera bere egin ala arbuia zezakeenik. Historiagi-leak ez dira *Auñemendiko Lorearen* epaile; izan ere, datu historikoa fikzioaren errainura igaro da.

Testu-aurrearen jatorri desberdin hau dela eta hasten dira bereizten, batak mundu herritarrean ditu sustraiak, besteak gutxiengoaren ondare den Historian, batak entzunaz eta esanaz funtzionatzen duen munduan, besteak irakurriz eta idatziz funtzionatzen duenean.

Agirrek liburuetara jo zuen gertaera historiko eta pertsonaia historiko-koen buruzko berriak jasotzera. Lehengai historikoari maitasunaren esparruko kinka gehitzen dio. Jazoeren urtealdia mugatuz, historia gatazka historikoa planteatzeko bitarteko da eta koordenada hauen barnean garrantuko da maitasun-gatazka. Bi gatazken arteko lotura hamaika modutan burutu zitekeen, folletoiarentzat (11), kontaketa herritarrarentzat, nahiz hain herritarra ez zenarentzat, bideak irekita zeuden, harik eta egileak osagai horien antolamendua *Auñemendiko Lorean* gauzatzen duen arte. Berez *Auñemendiko Lorea* eramandako lehengaiei atera zekiekeen beste era bateko etekinik. Gatazka historikoan kokatutako maitasun-gatazkaren abiapuntuak aberria maitasun baten hezurmamitzerako hesi bihurtzen zuen, menditar bat, itxaropen guztiak galduta gero, handiki batekin ezkontzea, gerra eta heriotza oreka bilaketarako bide... Bazegoen aski gertaera bihozbera, hunkigarri, gogor eta indartsu produktu zirrargarria taxutzeko. *Santa Jenobebaren Bizitzak* zirrara sortu zuen, *Auñemendiko Loreak* ez. Osagaiak bietan ziren zirrargarriak. Mundu landuan jasotako lehengaiak eta hauei erantsitakoa testuratzeko moduak urrutiratzen dute mundu herritarretik eta hala erakutsi zuen bere bizitza literarioak: *Auñemendiko Lorea* ez zen hauengana heldu.

Azken batez, testu-aurretik testu-ondora bereziko dira bi kontaktak. Kausa-efektuen harreman mekanikoaren atzaparretan erortzea saihestuz, honako baiezipen hau erantsiko genuke: testu-ondoak testu-aurrearen isla baitiltzan jokatzeko duela. *Santa Jenobebaren Bizitzak* ahoz-ahozko kontaketa zuen jatorrian. Arruek itzultzen duenean eta honela aldaera finkoa ezartzen dionean ahoz-ahozko mundutik erdi-ahozkora igarotzen da: ahots goraz irakurle batek aldarrikatzen duela jasotzen du entzuleak. Behin edo

---

(11) Ez igorpen-modu bezala ulertua, baizik eta genero edo testu-tipo moduan.

behin behintzat izan zen norbait testua euskarri zuen historia hori entzun eta berriro bizitzara ekarri zuena beste testu bat bide. Juan Kruz Zapirain bertsolariak Arrueren itzulpena entzun egin zuen, bertsoa adierazpen-forma bihurtu eta historiaren beste aldaera bat plazaratu zuen kantatua izan zedin (12). Testua ahoz-ahozko mundura igarotzeko tramankulu berri bihurtzen da; kontaketa gizaki ororen ondare balitz bezala behin eta berriz aldaera desberdinak eskaintzeko langai izatera heltzen da (13). *Auñemendiko Lorea* komunikazio-ekintzaren ibilera ahozko munduarekin nahasi gabe egiten da eta ez zen erne, ezta ere, berarengandik horrelako kimurik.

Lehengaiekin hasten diren aldeak komunikazio-ekintzaren garapean jarraipena aurkitzen dute: testuak modu desberdinean eratzen dira, igorpen eta jasotze-modu desberdina dute eta, azkenean, bizimodu literario desberdina izan zuten.

Historia testura eramatean, historia hitz-orez jaztean egindako auke-  
ra bereizketa-iturri da. Hala ere, testu-taxuketaren alderdi bereizlea ez da heltzen jokabide amankomun batzuk estaltzera.

Brabanteko Jenobebaren bizitzaren berrargitalpena dela eta, 1960. urtekoa hain zuzen ere, K. Mitxelenak iruzkin bat egiten dio. Honela hasten da:

“Liburu onek, irakurle, Proust, Joyce, edo Faulkner’en bideetatik urruti xamar eramango zaitu. Eztizu buruausterik emango eta etzaitu pekatu-malda limurietan beera amilduko.

Den bezalakoa da, ori bai, eta eztu arpegirik izkutatzen. Birtuterik birtutetsuena erakusten dute onek eta gaizto bakar bat besterik ezta agertzen liburu osoan, nai-ta-ezkoa delako gaiñera, onen ontasunak argiago distia dezan. Eugène Sue edo Xavier de Montepin’en munduan gaude; sugeak Paradisua pozoitu baiño leen ordea” (14).

Bete-betean onar daitezke Mitxelenaren hitzak, ez bakarrik Brabanteko Jenobebaren bizitzarentzat, baita *Auñemendiko Lorea*rentzat ere.

Protagonistaren izena, erreferentziala batean eta metaforikoa bestean, kontaketa izenburura eramatekin hasten diren antzekotasunak,

(12) “En el caserío de nuestros buenos Juan Cruz y Micaela existía la costumbre de leer vidas de santos durante las veladas de invierno (...).

Reunida toda la familia alrededor de la lumbre, la etxeokandre lee un capítulo del **Brabante-co Genovevaren bizitz arrigarri miragarria**”. LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Genoveva de Brabante por el “bertsolari” Juan Cruz de Zapirain*, III. or.

(13) Bada argumentu-mailako alderik Schmiden kontaketa eta Juan Kruz Zapirainek bertsoz eskaini zuenaren artean. Ik. LEKUONA, MANUEL (Ed.), *Op. cit.*, III. or. Zapirainek ez-ezik, Juan M.<sup>a</sup> Zubizarreta azkoitiar bertsolariak ere eman zuen argitara Santa Jenobebaren beste bizitza bat bertsoan.

(14) Ik. *Egan*, 1960, 230-231. orr.

zenbait deskripzio-mailatara heda daitezke: argumentua, gaia, joskera... Kanpo-itxuratik barne-itxurara, historia ataletan banatuz eta banaketa honen bidez erritmo-modu bat sortuz hasten den eraketatik, historien barne-joskerara kidetasun ugari soma daiteke.

Kapitulua hartzen dute kontaketa antolatzeko neurri eta honen izenburua bertan garatuko den fabula-atalaren laburpen (15).

Koordenada narratiboez egiten den erabilera oso antzerakoa da bietan; izan ere, singulartu gabe, banakotu gabe, oso modu orokorrean adierazten dira: gertaerak leku-denboren ardatzean kokatzerakoan zehazgabetasuna nagusitzen da, gizabanako moduan jokatzen ez duten pertsonaiak dituzte egile edo jasale... Azken batez, nahiz *Santa Jenobebaren Bizitzan*, nahiz *Auñemendiko Lorean* kontaketa-joskeran eta esanahi-mundua eraikitzerakoan kidetasuna nabarmena da. Prozesuak ezabatzen dituen joskeraz eratzen dira: protagonistek ez dute hobetu beharrik eta, pertsonaiaren batek hobetu beharra badu, ez da barne-prozesua bitarteko izango baizik eta batpatean. Azterketa aktantzial batean funtzio berbera beteaz deskribatu ahal izango lirateke protagonistak: Jenobebak eta Riktrudisek subjeto grifñatsu batek desiratutako objektuaren funtzioa betetzen dute.

Protagonista nahiz bigarren mailako izan, pertsonaia lau moduan itxuratzen dira, kontaketa hasieratik bertatik eginak dauden izaki gisa. Birtute edo bizio batzuen jabe, birtute edo bizio horietan mantentzeko toki bihurtuko dute berbaldia eta ez eginaz joateko lekugune; ez dago bizitza propio, banako, berezia bizi izateko aukerarik: pertsonaia nortasun zehatz batez jabeturik dator kontaketa, nortasun zehatza ezartzen zaio kontaketa hasieran eta aurrerantzean, gerta ahalak gerta, tinko eutsiko dio. Nortasuna ezaugarri gutxitara murrizten da eta hain orokorretara non pertsonaia bizio edo birtute batzuen ordezkari bihurtzen den eta lekugune testuala horien erakustoki; izan ere, birtutedun edo biziodun legez jokatzea mugatuko da, dikotomia eraikiz helburu didaktiko garde-nago baten euskarri egituratzailea. Mutur batean edo bestean kokatzen diren pertsonaiak datoz, bi muturren arteko tartea hutsik utziz.

Argumentua erraza eta tolesgabea da. "Errugabe salatua" du gaitzat. Riktrudis eta Jenobeba ez dira erasotzaileak, beraiek eraso dituzten erantzun gisa, baina halakotzat joko dituzte. Gizaki gaizto baten biktima, gizaki gaizto horren nahiei entzungor egitea da salaketaren arrazoia. Anekdot-mailan Portunek eta Golok irudikatuko dute gizaki gaizto hori, izen berezi horiek ordezkartuko eta ejenplifikatuko dute gaiztakeria.

---

(15) Xehetasunetan sartuz gero soma daiteke alderik bi kontaketen izenburutan. *Santa Jenobebaren Bizitzakoak Auñemendiko Loreakoak* baino luzeagoak eta zehatzagoak dira. Luzera eta zehaztasun hori bide, kapitulua garatzera doan kontaketa-atalak fabula-mailan dakarren aurrerapena esanda gelditzen da, ez horrela bestean, izenburua orokorra goa izanik ez da heltzen hainbeste konkretatzera.



Kualitate baten konkrezio besterik ez dira. Gaiztakeria subjeto konkretu batzuegan ez-ezik, ekintza konkretu batean gauzatuko da: porrot pertsonala eragin duen pertsonaiaren salaketa, porrot hori sortu duen arrazoia ezkutatu.

Riktrudisek eta Jenobebak ezezkoarekin erantzungo diete, Portunen ezkontz proposamenari eta Goloren adulterio-eskaerari. Ez dago besterik. Ezezko hauek estaliko dituzte erasotzaileek, beste jazkera batez jantzi eta indar bila hasiko dira mendeku-gosea asetzeko. Errugabe salatuko dituzte, baina errudun aurkeztuz zigorra ezartzeko indarra eta ahalmena duten haien aurrean. Portunek gerran dakusa eraso-bidea. Erasorako dituen arrazoi pertsonalak ezkutatu, bere mendeku-nahia añaemenditar ororen arrazoi bihurtu, eta eraso-indarra lortuko du. Golok Jenobebaren senarrarengan dakusa eraso-bidea eta honen aurrean salatuko du, bere adulterio-proposamena haren adulterio-eskaera bezala aurkeztuz. Errugabeari bere gogora, bere uste, nahi etab.en arabera bizitzeko eskubidea ebatsi ondoan zorigaitzean bizitzera behartzen dute. Batean, añaemenditar izaeraz desjabetzea, gerrak dakartzan artegatasun-negarrak eta heriotza dira zorigaitzaren iturriak. Bata bestearen ondotik datozen zigor moduan adierazita, mailaz-maila zorigaitza gehituz eta handituz doaz, harik eta Portunek bere maite Riktrudis lapurtu zuen gizona hiltzen duen arte, harik eta zigorra klimaxera heltzen den arte. Bestean, ziega, heriotz zigorra, eta mortuko bizitza bihurtuko dira zorigaitz-sortzaile. Azkenean birtuteak bizioa gaudituko du eta Ongia garaile oso aterako da: Riktrudisi Añaemendiko atea irekiko dizkiote eta Jenobebari gaztelukoak.

Leku-denborazko koordenada jakin batzutan garatutako jazoera hauek, kontaktaren denboratik at kokatzen den inimizazio-errituen oihartzuna dakarte. Riktrudis eta Jenobeba berezi egiten dituzte beren etxeetatik, añaemenditarrari Añaemendirako bidea itxiko diote, brabantearra, heriotz zigorra gainean duela, bere bizileku zen gaztelutik aterako dute. Eguneroko bizitza utzi eta abenturaren errainuan sartzeko ordua da, frogena, hain zuzen ere. Frogak gaudituz ondoan itzuli egingo dira. Jenobeba herritarren harridura eta lilura sortuz etxeratuko da, Riktrudisi etxera itzultzeko gonbita luzatuko dio debekatu zion hark, baina honek gogoakoago izango du beste etxe bat. Sinbolikoki aurreko bizitzara hil ondoan eta bizitza berrira jaito eta gero Brabanteko Jenobebaren “neke-penak erri guziari erakartzen dioten zoriona” izango du kontagai “emezortzigarren buruak”, Riktrudisek une horietan euskal buruzagirik entzutetsuena zen Portunen kristautzea ekarriko du Añaemendiko fede zaharraren gain garaipena lortuz.

Baina hainbeste antzekotasun ez da heltzen desberdintasuna estaltzera. Argumentu, gai, joskera-mota... berdintsu hauek berbaldiz jazterakoan egindako aukerak amildegia ezartzera heldu dira bi kontakteten artean. Sakoneko egituran eduki dezaketzen antza azaleratze-modu bereiz-

leak irentsi du. Berbaldia banatzeko egitasmoak urruntzen ditu. Oso estrategia desberdinen fruitu dira. Kontalari batek eta besteak zabaldutako planek ez dute kidetasunik. Hitzaren erabileraren baldintzetan dago aldea: nork, zer esateko, non...

Zeinuak eta hauek erabiltzen dituzten subjetuak harremana modu desberdinez eratzen da batean eta bestean. Hots, subjeteuek zeinuz egiten duten erabilerak bere luze-zabalean, subjeteuek erabilitako zeinuen izaerak edo ezaugarriak urruntzen ditu elkarrengandik bi kontaktetak. Ondorioz, zeinu eta hauen interpretatzaileen artean ezarritako harremanak desberdinak izan daitezke eta, zinez, harreman-moduak aldenketaren norabidea hartuko du.

Lehengaien jatorri eta izaerarekin hasten ziren aldeak testu-eraketaren alderdi pragmatikoak areagotu egiten ditu, igorpen-jasotze-moduek itxi arte komunikazio-ekintzaren garapen-prozesu desberdina. Faktore guzti hauek eratzen duten katea hartzaileak eskaini zien babesean dagoen amildegia sortzeko adinakoa da.

Maila pragmatiko honen eratze-moduari buruzko xehetasunak emarakoan zenbait atal bereziko ditugu. Behar metodologikoez bultzatu gaituzte horretara, argitasun handiagoz adieraztea helburu, baina berez elkarri hertsiki lotuak dauden alderdiak dira, elkar baldintzatuz daudenak, batak bestearengan eragiten bait du: historia berbaldi bihurtzerakoan egindako aukerak dira mintzagai, hitz-oreaz baliatzen diren subjeteuen artean hizkuntz zeinu horiek banatzeko modua eta bakoitzari atxekitzen zaizkion zeinuen nolakotasuna.

Fikzioak irauten duen denbora kontaktetara eramatean egindako auketan lekutzen da alderdi bereizle bat. Zein batak, zein besteak urteak irauten dituzten fabulak testuraten dituzte eta honek laburpenaren erabilera zabala gomendatzen eta eskatzen die. Laburtzerakoan kontaketa iteratibora jotzea azpimarkagarria bada, ez da gutxiago singulatiboa hartzean erakutsitako jokabidea; izan ere, bere eginkizuna ez da egunerokotasuna azaltzea baizik eta zerbait berezia gertatu deneko une hura. Kontaketa singulatiboak dakarren edo eszenak dakarren lehen planoan edo erliebea ez ohizko gertaera, egunerokotasun hertsitik ateratzen dena da: fabularen garapenean aurreratzea zilegiztatzen duen pasarte, une hunkigarri, estu edo arriskudunen bat, suspentsea sortzen duena.

Jokabide amankomun honen azpian bada, ordea, jesberdintasun nabarmenik: Jenobeba, errugabe izanik, salatzen duten unetik aurrera bere buruaren gain erortzen diren zorigaitzak ekarri egiten dira kontaktetara, zenbait aldiz ohizkotasun moduan, baina Jenobebaren ahotsa dakarren bakarrizketa harekin nahasiz. Gartzelako bizitzak edo mortukoak aurrerapenik ez dakarrenean fabulan edo Jenobebak leku horietakoren batean pasadizo hunkigarriren bat bizi ez duenean, kontaketa iteratiboa

fikzioaren denboran aurreratze handiak egiteko baliabide bihurtzen da. Lekugune horietan igarotzen duen denbora luzea xehe-xehe kontaktetara ekartzean hartzailea “aspertzeko” arriskua somatuko balitz bezala, ohiz-kotasuna adierazten duten aditz-formen erabilera denbora luze hori irensteko bide eraikitzen da eta fabularen garapenari aurrera egitea zilegiztatzeko dion pasarte edo lekugune horietan bizi izandako une hunkigarriren batzuk hautatzen dira, hitz-ore handiagoa emanez, zabaltzeko. Baina, *Auñemendiko Loreako* Riktrudisi ez zaio Jenobebari beste aukera ematen bere zorigaitzak erakusteko.

*Auñemendiko Lorean*, lehenik eta behin, mataza ehotzen joan da Riktrudis ezkondu aurretik eta ehotze “luze” horrek hitz-orea xahutu du (16). *Santa Jenobebaren Bizitzan*, aldiz, hirugarren kapituluan jadanik “Jenobeba errugabe salatua” izenburua aurkitzen da, zorigaitzen hastapena markatzen duena. Desberdintasuna ez dago lehenak hastapenetako oreka-giroari tarte luzea eskaintzean eta bigarrenak laburra, hastapenetako oreka-giroa oraindik elezaharrea baino, laburragoa baita *Auñemendiko Lorean* (17) baizik eta, bereziki, “errugabe salatua” gaiari eleberri historikoan ematen zaion errekkurentzian. Riktrudisen maitemintzea eta honek sortzen dizkion kontzientzi arazoak, hauei zuzenki lotzen ez zaie istoriotxo baten kontaketa eta batipat salaketen errekkurentzia hitz-orea xahutuz doaz Riktrudis salatu aurretik eta oso tarte txikia gelditzen zaio salaketa ondoren jasaten dituen erasoak berbaldiz jatzeko.

Riktrudis salatzen dutenerako salatuak dituzte bere aita Arnaldo eta gero senar izango duen Adalbaldo. Salatzaila eta salaketa zabaltzen duena berdina da, Portun, salatua da aldagaia. Riktrudisen zorigaitzak ez dira hasten ezkondu ondoko salaketarekin, gainontzekoak ere zorigaitz-iturri izango bait ditu (Adalbaldo salatzen dutenean euskaldun eta frankotarren arteko gerraren geriza zabaltzen da eta Arnaldo, Riktrudisen aita, gerrarien buru joango ote deneko bildurra; Arnaldo salatzean aitaren sufrimentuari hertsiki lotuko zaio Riktrudis), baina aurreko eraso hauek zeharkakoak ziren, aldiz, ezkondu ondorengo zuzena. Zeharkako eraso hitz-ore xahuketa ez da alferrikakoa, ez da funtzionaltasunik gabea; izan ere, batetik, “errugabe salatua” den bezalako gai hunkigarria, oso modu hunkigarrian ez bada ere, iteratzen doa eta bestetik, Riktrudisi eginiko salaketa prestatzen, salaketa honen larritasuna neurtzeko oina-

(16) Hogeita bat kapitulutan banaturik dagoen eleberriaren hamabostgarren kapituluan dator Riktrudisen ezkontza. Kapituluaren bi herenak ez-ezik hitz-ore osoaren ia bi herenak xahutu dira ordurako, ehun eta berrogeita zortzi orrialdeetatik ehun eta sei. Ik. ARANO, ROSA MARI (Ed.), *Txomin Agirre: Auñemendiko Lorea*, Sutondoan Saila, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986. Aurrerantzean jasoko diren testu-aipamenetarako argitalpen hau erabiliko da.

(17) Kontaketa “in medias res” hasten da eta lehen kapituluan bertan Riktrudisen esku gelditzen da hastapenetako egoeraren berri ematea, desoreka sortu duen gertaera adieraztea.

riak jartzen; salaketaren erraldoitasuna azpimarkatzeko bitarteko dira. Iteratzen den gaia oso da hunkigarria, baina Agirrek antzera kontatuko ditu salaketa guztiak eta kontatze-modu horretan ez du lortuko bat bera ere modu zirrargarrian kontatzerik. Gertaera hau eragiten duen faktorea beti berdina da: sufrimentuak ez dio sortzen narratibitaterik eta narrazio-gai bihurtzen zaionean hartzen duen kontaketa-moduak eragotzi egiten dio pertsonaiek bizi dituzten sentimenduak azaleratzea.

Riktrudisi egiten zaion salaketarekin batera datorkion gurutz-bideari eskaintzen zaion kontaketa-tartea askoz laburragoa da. Baina ez hori bakarrik. Salaketaren ondorengo eraso bi mailatan bereizten da Jenobebarenetik: ezarritako gurutz-bidearen desberdintasunean eta berau berbaldi bihurtzeko moduan.

Ezarritako gurutz-bidea bietan da latza eta hunkigarria, baina bere garapenean bada alderik: ezbeharrak bizitzeko eszenario desberdinei, ezbehar hauen dosifikazio eta testuratzeko-modu desberdina gehitzen zaizkie.

Riktrudisek ezkontza-etxea bera du frogan bizileku, Jenobebak gartzela eta mortua, bizileku erakaitzak eta nekagarriak igaroko ditu, sufrimentu moralari oinaze fisikoa batzen dion ibilbidea eratuz. Riktrudisena sufrimentu morala da, Jenobebak beste bat eransten dio honi: behar primarioak asetzeko eragozpenak ditu, jakia, jantzia eta aterpea arazo bihurtu zaizkio eta etengabeko gatazkan bizi da behar elemental hauei erantzun ahal izateko. Ezaugarri honek beronek bihotza ukitzeko aproposago bihurtzen du.

“Luzea” da Jenobebaren ibilbidea eta, gainera, ibilbide horretan estualdi-lasaialdien joko dosifikazio lortu batez bideratzen da. Frogan gogortasuna gehituz doa, goranzko aurreratzea markatuz: gartzela —semea jaiotzen da bertan— heriotz epaia —hiltzeko aginduekin daramate. Goranzko norabidea daraman bide honi distentsio-une batek jarraituko dio —heriotz zigorraren barkamenak— tentsioari berriro heldu aurretik —ez dauka mortuan bizirik irauterik— eta, azkenik, distentsiora igarotzeko basahuntz laguntzailearen agerrerarekin. Mortuko bizitza tristeari mortuko kontsueloak darraizkio, gaixotu eta gaitzean aurrerantza eginaz heriotzerako prestatuko da eta une larri honetan berriro distentsioa, distentsiorik handiena, harrigarriena, zoragarriena: Sijifredok Jenobeba aurkitzen eta ezagutzen du. Ez dago horrelako jokorik Riktrudisek bizi dituen frogan bidean: goranzko progresioa besterik ez dago: gerra oihartzunak —gerra—agurra— senarra hiltzen dute.

*Auñemendiko Lorea* eleberria bere osotasunean begiratzuz tentsio-distentsioen joko aberatsagoa soma daiteke, baina joko hau eramateko modu motelak ez du bata bestearen ondoan erpinak dituen diagrama eratzeko indarrik. Fabula osoaren argitan klimax-antiklimax joko zabalagoa da: Adalbaldori egindako salaketa dela eta euskaldungoak gerrarako

arrazoirik dagoen eztabaidatuko du. Ezezkoak dakarren lasaitasun-giroari Arnoldoren aurkako salaketak sortzen duen tentsioak jarraitzen dio...

Hala ere, arrisku-uneetan historiak hartuko duen norabidea aurrez iragartzeko adina zantzu emateak, suspentsea pedagogiari menperatzeak, jakin-nahia itotzen du. Jokabide zuzena zein den eta nork hartuko duen aurrez jakiteak ez dio tarterik uzten ez-ustekoari. Pertsonaiak urduriegion daitezke, baina urduritasun hau ez zaio helerazten hartzaileari, pertsonaiaren larrialdia zabaltzen ez delako kontaketan edo eta zabaltzerajotzen bada, luze ematen dituen beste hamaika berriren artean presentzia galtzen duelako, lehen mailako izateari utziz. Modu batera ala bestera kezka-iturria agortzea lortzen da. Honela, Portunek Adalbaldo salatzean sortzen duen tentsioaren harian, frankotarren aurkako gerrari ekingo ote zaion auzi, ekintza honek eragiten duen kezka eta urduritasuna zabaltzera jotzen da kontaketan, Riktrudis eta bere ama Andre Luziaren arteko elkarrizketan eta Ozinbeltzeko batzarrari eskaintzen zaizkion eszenetan. Baina ama-alaben arteko solasean, zenbait berriri eskaintzen zaion hitz-orearen barnean, kezka azalpenak indarra galtzen du, urduritasunaren adierazpena ez da bihurtzen hizpide obsesibo. Ama-alabak arduratan utzi eta Ozinbeltzeko batzarrera eszenarioa aldatzen duenerako ematen dituen zantzuak kezka-iturria agortzeko adinakoak dira: gerrarik baldin bada, auzia bide onetik ez datorrelako, Arnoldo ez da joango euskaldunen buru. Arnoldo gerrara joatea zen, hain zuzen ere, ama-alabengan artegasuna eragiten zuen faktorea eta, zinez, tentsio-gune honi ez zaio eusten luzaroan; aurretiaz iragartzen da Arnoldok hartuko duen jokabidea. Tentsioa, nekea, artegasuna, urduritasuna, kezka... dagoela esatearekin aski du *Auñemendiko Loreako* kontalariak, ez du jotzen erakustera. Penak eta nekeak ez dute konta-gairik sortzen eta, ondorioz, hunkigarritasuna igortzeko ahalmena galtzen dute. Azken batez, froga-bideak, zorigaitzak *Brabanteko Jenobebaren Bizitzan* konta-jarioa bultzatzen du, ez horrela *Auñemendiko Lorean*.

*Auñemendiko Loreak* errugabe salatua gaia errepikatuz eta guzti ez du ezabatzen protagonistaren sufrimentuan dagoen progresioa. Zorigaitzen hazkundera bat datoz bi kontaketak baina, batean mina kontagai bihurtzen den bitartean, bestean ia ausente dago narrazioan, historian egon badago ere, zekenkeriaz jokutzen da berbaldiratzerakoan. Dosifikazioa falta da historia hitz-orez jazerakoan.

Zorigaitzean erori ondoren Jenobebak egiten duen ibilbidea, Riktrudisena ez bezala, testura darama kontalariak. Riktrudis Ostrabenton sufritzen utzi eta kontalariak Amandoren artekaritza-lanak jarraituko ditu. Riktrudisek min duela esaten du, minaren oinarriak adierazi, justifikatu, eta prest dago nolako bizitza zeraman Erbesten azaltzeko. Zabalpen handiagorik gabe, senarraren agurra dator, iradokitzen den moduan, azken agurra izango dena, hain zuzen ere. Berrito laga Riktrudis atsekabeen eta

kontalariak honen senar Adalbaldoren urratsak jarraituko ditu. Aurrez iragarritako heriotza Adalbaldoren gain etorri beharra aski arrazoi izan daiteke horrelako jokabidea hartzeko, baina Adalbaldo hil duteneko albisteak jasotzen ere ez du eszenaritzen Riktrudis. Tristura handiak bere arima-egoera harrapatu zuela. Besterik ez. Froga-bidean unerik dramatikoenak ez du eszena bidezko tratamendurik jasotzen, aldiz, froga-bidearen amaiera markatzen duen mementuak bai, froga-bidearen bukaeran erdiesten duen garaipenak, Portunen kristautzeak, bai. Izan ere, Agirreren helburua ez da Riktrudisen penak eta nekeak kontatzea, honek dakarren garaipena baizik: sinekdokearen bidez adierazita kristautasunaren nagusitzea fede zaharraren gain.

Besterik da *Santa Jenobebaren Bizitza* kontatzen duen kontalariaren jarrera. Kontalariak ez du begirik apartatzen Jenobebarengandik. Urruti-ragotik (laburpenetan) edo hurbilagotik (eszenetan) Jenobeba egiten doan bidea jarraitzen du. Behin bakarrik uzten du, bertan Sijifredo kondearen penak azaltzeko da.

Bietan kontaketa singulatiboa eta iteratiboa konbinatuz bada ere, batean atsekabeak kontagai bihurtzen dira, bestean ez. Zinez, ez batean, ez bestean dator egunerokotasun soila, baina aldea penak eta nekeak hitz-orez jaztean ala bilutsik uztean dago. Berbaldi-banaketan ematen den urrunketak, testuaren bestaldean, sentimendu-sorketan eragiten du. Sufrimentua hartzaileari helerazteak ala egon daudela bakarrik esateak ezartzen du desberdintasuna. Gerrak eta senarra hiltzeak bazuten bere baitan aski indar hunkigarri bihurtzeko, baina ez dira testura eraman, ausente daude, fabulak gertaera horiek jazotzen ari direla eta jazo direla dio, erakutsi gabe. Kontalariak abandonatu egiten du protagonista *Auñemendiko Lorean*, ez horrela *Santa Jenobebaren Bizitzan*.

Arestian genionez *Auñemendiko Loreak* ez du erakusten Riktrudisen atsekaberik, ezta besterenik ere. Berbaldia beste zeregin batzutara bideratu da, zeregin horien artean giza-jokabideei buruzko gogoetak bere tarteak du. Elezaharrean ez, baina digresioak daude *Auñemendiko Lorean*. Hona hemen testu-eraketari dagokion beste alderdi bereizle bat.

Bi historiak kontalari orojakileak kontatzen ditu, guztia dakienak eta honek damaion eskubideaz baliatuz kontatzen dituen gertaerak komentatu ere egiten ditu. Jenobebarena ez bezala, komentarioz eta digresioz horniturik dator Riktrudisen historia (18). Jenobebaren historia kontatzen ari den kontalariak alor honetan hartzen duen lizentziarik handiena zorion edo zorigaitz-egoera bat indartzeko egin dezakeen eranskinean dago, kontaketa komentatzera heldu gabe. Fikzioan gertaturiko zerbaiti buruz bere aburua azaltzera ez da iristen, are gutxiago, kontaketa uztera modu orokor batez, modu diskurtsibo batez giza-jokabideei buruz aritzeko.

(18) Ik. adibide gisa *Auñemendiko Loreako* 44-45., 88., 90., 151. orr.

*Auñemendiko Loreako* digresioek, batetik, hitz-orea lapurtzen dute, bestetik, kontaketa eten eta moteltzen dute eta, azkenik, fabula bera aitzaki bihurtzera daramate, tesi batzuen ejenplifikazio izatearen papera betetzera. Historiaren kontaketa elipsira eramanaz, lehen planoan ematen zaie eta, azkenik, maila orokorrean adierazitako filosofiaren konkrezio eta anplifikazio-leku moduan eraikitzen da berbaldi narratiboa. Mundu-ikuskeraren edo filosofia baten azalpena ez da egiten kontaketa soila dela bide, kontaketa berbaldi diskurtsiboz adierazitako filosofiaren erakusle bihurtzen da, zorigaitzen testuratzeari lekua harrapatuz eta kontaktari malgutasuna eragotziz. Honen aurrean, *Santa Jenobebaren Bizitzan* historia bat kontatzea helburua da bere baitan.

Kontalari orojakile hau irakurle implizitu bati zuzentzen zaio, berak erabilitako zeinuen hartzaile implizituari. Bada maila honetan ere alderik bi kontaketen artean. *Auñemendiko Loreako* kontalariaren bidelagun esplizitua da irakurle implizitua. Kontalariak berarekin batera bidea egin dezala nahi du, sarbidea eman eta behin eta berriz berari zuzentzen zaio. Lehen lerroan bertan hartzaile honen onginahia irabazten ahalegintzen da (19), aurrerantzean eskutik eramateko. Adiskidetasun erretorikoa eskainiz berarekin bat etortzera gonbidatzen du, bien artean eginaz doazen bidea denaren ilusioa sortu eta gertaeretz ematen dion interpretazioa ontzat jo dezan gura du. Etengabe deituz, gogoan duela adieraziz, limurtzea bilatzen du (20). Erretorika klasikoaren aginduak jarraikiz konplize egitea eta berak nahi duen irakurketa ezartzea ageriko helburu du. Jenobebaren historia kontatzen duen kontalaria, aldiz, inoiz ez zaio zuzentzen esplizituki irakurleari, agian, inor limurtu beharrik ez duelako, historia bat dastatzeak sortzen duen atsegina aski izan daitekeelako hartzailea erakartzeko. Ez du horrelako beharrik somatzen *Santa Jenobebaren Bizitza* kontatzen duenak, ez du ezertaz konbentzitu beharrik, ez historiaren egiaz, ez berau ulertzeko moduz. Eta azkenean sortzen doan irakurle implizituaren irudia ere desberdina da, bata limurtzeko eskutik eramatea onartzen duena, bestea, hainbeste dei jasotzen ez badu ere, eta itxura batean aparteko duintasunez tratatzen ez badute ere, historiak sortzen dion lilura aski duena irakurtzeko.

Hizkuntz zeinuak banatzerakoan hartutako jokabide desberdinetan ezarri da bi kontaketen arteko alderik nabarmenena. Hitz-orea kontaketa-moduei atxekitzerakoan estilo zuzenari ezarritako eginkizunak markatzen du beste alderdi bereizle bat.

Zinez, estilo zuzenaren erabilerara ez jotzea behintzat ezin lepora dakioko *Auñemendiko Lorearen* egileari, ezta *Santa Jenobebaren Bizitzare-*

(19) "Gertaera zarren albistarik euki nai badozu, neure irakurle euskaldun biotzekoa (...) zatoz neugaz batera Franziaruntz" (*Auñemendiko Lorea*, 25. or.).

(20) Ik. *Auñemendiko Lorea*, 68., 88., 95., 105., 133. orr.

nari ere. Agirrek ez du oparotasun handiegirik erakutsi zentzu hertsian kontakteta dena adierazpide eraikitzerakoan; berbaldiaren osaketa nagusia bakarrizketa-elkarrizketei zor zaie. Jenobebaren bakarrizketak ere leku zabala hartzera helduko dira. Bi kontaktetean zuzenean transkribaturiko ahotsak presentzia nabarmena du. Halaber, estilo zuzenaren erabilera gomendatzen duen gertaera-moduak ere lotzen ditu: une larria, arrisku-unea. Ahots zuzenak arrisku-une hauek zabaldu eta hedatu egingo ditu. Baina berdintasun honen azpian desberdintasun nabarmen bat eraikitzen da: ahots zuzenak Jenobebaren neke, pena eta, maila askoz apalagoan, poz eta kotsueloak dakartza, Riktrudisenak, berriz, erabat difuminatuta gelditzen dira.

Aurrerago esaten zenez, kontakteta-estrategiak urruntzen ditu; hitz-oreaz baliatzen diren subjetei bitarteko honen erabilera ezartzen zaizkien arauak ez dira berdinak. Gorago aipatzen zen berbaldi diskurtsiboak tartea kentzen dio lekugune narratiboari, mintzagai den estilo zuzenak ere, laburpenak baino toki handiagoa eskatzen du. Elkarren kide dira estilo zuzenak dakarren pertsonaiaren ahotsa sarritan testuratzean, ez horrela ahots horri ipintzen zaion eginkizunean. Jenobebari bere zorigaitzak azal ditzan eskaintzen zaio, Riktrudisek oso noizbehinka bereganatuko du aukera hori.

*Auñemendiko Lorearen* kontalariarentzat elkarrizketa, sarri askotan, zenbait jakintza-alor lantzeko toki da: historia, kristau-doktrina, kristau-morala... Estilo zuzenak eragiten duen hitz-ore mailako zabalpena ez da hainbeste fabularen aurreratzean sortzen doazen arrisku-uneetan arreta berezia jartzeko nola eginkizun didaktikotarako. Ahots zuzena diskurtsi-bitatera irekirik dauden elkarrizketetan datorrenean, pertsonaiaren ihardun luzeak kontatze-modu honi darion bizitasun eta funtzioaz desjabetzen du, artifizial bihurtuz eta beste zeregin batzutura lerratuz: jokabideak justifikatu, lekzioak eman (21)... Estilo zuzena gisa honetako lanbideei lotuz, pertsonaien sentimentuen adierazpenari tartea kentzeaz gain, adierazpen hori moteltzea lortzen da. Ez da honela jokatzeko Jenobebarekin, ahots zuzena eskaintzen zaionean bere sentimentuen azalpena hedatzeko da, bizi duen arrisku-unearen zabalpen hutsa, bere negar eta itxaropenak erakusteko bidea.

Hizkuntz zeinuen banaketan, subjeto bakoitzari bere adierazpenetarako eskaintzen zaion zeinu-multzoan eta multzo hori bereganatzen doan funtzioan ez-ezik, zeinu horiek hizkuntzaren sisteman hartzen duten kokagunean ere badago alderik. *Auñemendiko Lorea* eta *Santa Jenobebaren Bizitza* elkarrengandik bereizten dituen beste alderdi baten aurrean gaude.

(21) Ikusi besterik ez dago lehen kapituluko ama-alaben arteko elkarrizketan, edo bogtagarreneko Arnoldo eta Adalbaldoen artekoan, edo hamalagarreneko Amando eta Riktrudisen artekoan... zein erraz lerratzen den pertsonaiaren ahotsa lekzioak ematera.



Mintzaira eskuragarri emanak datoz bi kontaktak, euskaldun orok aparteko ikasketarik gabe ulertzeko eran, baina lexiko-mailako aukeren jatorria ez da berbera. Agirrek Larramendiren hiztegiaren erabilerari ez zion muzin egin, aitzitik, gogo onez hartu zuen. Aita Lino Akesolok Arruek liburu hau baino lehenago argitaratutako batean irakurleari egiten zion aitormena abiapuntu hartuta —“Euskeraren aldetik ipiñi nezakean... itz euskeratuagokin eta gizon argituak zerbait obeto irudi zegikien eran”— gizon “argitu” horien azpian “orduko euskera ‘kultoa’ egin nai zutenak” ikusten ditu “euskeraz idaztekotan, Larramendi aitaren Iztegiara jo bear zutenak”. Eta aurreraxeago dioenez: “Eskerrak eman bear dizkiogu gure Arrueri bide orretara okertu ez zelako. Brabanteko Jenobebaren bitizta onetan itz bat du argi ta garbi Larramendiren labetik ateratako: *Erabezte edo kopia*. Eta bearbada, *Ezegoki* eta Gaitz egoki, eta *Eruendu*. Besterik ez” (22).

Agirrek, *Auñemendiko Lorean* bederen, Larramendi Aitaren hiztegiara jo zuen, baina euskara “kulto” hori ez zuen nahi izan “kultoen” dastagai izatea soil-soilik. Larramendiren hiztegia herritartzea helburu edo lantze-maila modu baten barnean gordeaz “gehiengoengana” ere hurbiltzea jomuga, hiztegiaren erabileran, hizperria edo ustez hartzaileak ulertzeko eragozpenak izango zituen hitz hura, oin-oharretan emandako erdal itzulpenaren bidez argitu zuen.

Iruditegia topikoa da, konparazioaren erabilera nagusitzen zaio metaforarenari; mintzaira eskuragarria da bi kontaktetan, baina testu-aurrean nabarmentzen ziren aldeak jarraipena aurkitzen dute testu-eraketan, erabilitako mintzaira bera harrapatzeraino eta, azkenean, igorpen-jasotze-moduetara ez-ezik hartzailegoak hartutako jarrerara helduko dira desberdintasunak. Esalditik esaldiaz harantza kokatzen den egiturara eramanda kodetze-mailako aldentzea eta hartzailearen deskodeketan eragin du. *Auñemendiko Lorean* egindako lexiko-mailako aukerek, *Santa Jenobebaren Bizitzan* ez bezala, testutik oin-oharrera eta hemendik testura doan begi-mugimendua eskatzen dute eta, honenbestez, ariketa horri muzin egin gabe, joko-erregela hori onartuz irakurtzeko prest dagoen irakurleari zuzentzen zaio, irakurketa isilaren bidez jasoko duen hatzaileari, hain zuzen ere.

Azkenik, igorpen eta jasotze-moduari lotuz, lehen-lehenik esan, argia ikusteko erabili zituzten bitartekoetan hasten direla bi kontakteten arteko aldeak. *Auñemendiko Lorea* lehiaketa literario baten irabazle gisa atalka-atalka argitaratu zen Euskalzale aldizkarian (23), *Santa Jenobebaren Bizitza* liburu gisa kaleratuko da hasiera-hasieratik.

(22) Egindako aipamen multzo honetarako, ik. AKESOLO, LINO (Ed.), *Gregorio Arrue: Santa Jenobebaren Bizitza*, 24-25. orr.

(23) *Euskalzale*, II, 1898.

Eleberri herritarraren sinonimo moduan erabili izanda folletoa, argitalpen-modu bat genero edo testu-tipo batekin identifikatuz. Izan ere, aurreko mendean behintzat, argitalpen-modu hau jarraikiz argitaratu ziren kontaketak herritarrak ziren, ez osagai harrigarri edo miresgarri moldatu zirelako —beste lehengai batzutaz hornitzen bait dira— baina bai beste zenbait ezaugarri gizarte-geruza zabalaren gogoko irakurgai bihurtu zituelako. *Auñemendiko Lorea* argitalpen-modu honen baldintzen barnean plazaratzen bada ere, genero horren zenbait eskakizunetatik urrundu egiten da (suspentsea pedagogiari menperatzean, digresioetan, elkarrizketetara eramaten diren berrietan...).

Kultura-gai desberdinak jorratzen zituen aldizkari batean argitaratu zen eta maila batean ezagunak ziren herri desberdinetako euskalzaileek eratzen zuten sarea zuen harpidetza eta banaketa-sare. Euskalzaile militanteen gain eraikia bereziki, eta ez hainbeste aldizkaria irakurtzeko zaletasun eta irrikian, ez zuen lortu Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkuek amestutako zabalkunde handi eta oparoa. Behin liburu gisa argitaratu ondoan liburu-denda izango du salmenta-leku.

*Santa Jenobebaren Bizitza*, berriz, beste sare batek banatzen du. Dirudenez bertso-saltzaileen sarea du banaketa-modu (24). Carmelo Echegarayk literatura landua egiteko deian luma zuela, literatura landu horrek hartu beharko zukeen norabidea mintzagai, eraso zituen bertso-paperekin batera zegoen salgai. Jakina, Echegarayk ez zuen gaitzetsi *Santa Jenobebaren Bizitza* (25), ezta bertso-paper guztiak ere, nahiz eta bertso erraz edo prosaiko mezprezatu zuen. Echegarayk gertaera labain edo lizun samarrak kontatzeaz gainera “con crudeza que hoy llamáramos naturalista” egiten duten haiek arbuatzen ditu bereziki.

*Santa Jenobebaren Bizitza*, herri-kontsumorako sortutako literaturarekin batera saltzen da, salmentarik handiena izan zuen harekin batera,

---

(24) Antonio Zabalaren usteak alderdi honetara jotzen du. Zubizarretak Brabanteko Jenobebaren gainean egindako bertsoak mintzagai dituela honela dio:

“Onela esaten da 27<sup>garren</sup> bertsoan:

pekatariak, ikasitzera  
orain egin alegiña,  
liburu oiek kostatzen dira  
errial bi ta erdiña.

Gau batean herria bildu zen eta inork ez zuen mendira joan nahi aurpegia ematera. Baina artzain haien lagun batek, bera ere artzaina, zerbait mozkorturik aurkitzen zena, bere lankideei horrela esan zien: “Inor ez al zarete ausartzen hara joaten?; ni joango naiz”. Esan eta egin. Joan zen mendira eta, beti bezala, gaueko hamabietan taloburnia airean azaldu zen. Hau ikusirik, artzainak honela esan zion: “Zer behar duk? Onez baldin bahator, mintza hadi; eta txarrez bahator, alde egin ezak”. Orduan, izkutuko gizonak deia egin eta honela esan zuen:

“Hau karga, hau karga!”

“Uztak ba” —artzainak erantzun.

“Egidak mesede bat” —izkutukoak.

“Egingo diat ba” —artzainak.

“Har ezak aitzurra” —izkutukoak.

Artzainak aitzurra txabolatik hartu eta taloburnia sutan agirian zera-  
man izkutuko gizonarekin Intzako Joangoneko sorora joan ziren. Bertan artzainak hau entzun ahal izan zuen: “Atera ezak mugari hori”, eta

aldiberean gizon bat kapa jantzita eta taloburnia sutan zeramala agertu zitzaion. Gizon honek zazpi oin neurtu zituen aipatutako sorotik hasita Zamarginen sorora, eta artzainari esan zion: “Mugarri hori sar ezak hemen”. Hau egin ondoren, artzainari honela eraso zion kapadunak: “Lehen ez nintzen ez zerurako eta ez infernurako, orain ordea, infernurako naiz. Aitzur horrekin kendu iezadak kapa hau”.

Kapa eskuz ikutu gabe, sutan airez joan zen eta gehiago ez zen ezer entzun eta ez taloburnirik ikusi. Hau uztegin jasoa dut.

Nafarroako Gaintza eta Uztegi urixkak eztabaidetan zebiltzan. Uztegi Gaintzari Malloak inguruko lurrak kendu nahirik, eta baita kendu ere.

Hil zen eztabaida honetan buru ibili zen letradua eta bere elizkizunak egiterakoan, apaiza mezerdira heldu zenean, non azaltzen den sutan aldare aurrean denen bistan eta apaizari esan: “Niri eliz-funtziorik ez egin. Infernuan aurkitzen naiz eta zuen errezoek ez dute egiten sua indartu besterik”. Hau entzunik, apaizari nahigabea egin eta lurrera erori zen.

Infernuan zegoen gizon hark Azkarateko apaiza laguna zuen, eta lekukoa izan zen Uztegi eta Gaintzako alkateak Malloara joan zirenean mugarriak aldatzera.

*Astun-alde* izena daraman lekura heldu arte ez zuten bere lanean oztoporik izan. Hemen aurkitu zuten mugarri kurutzeatua eta lainoa honela mintza zitzaien:

“Astun-alde, Astun-alde, Gaintzakoa dela, Gaintzakoa dela, beste mugak aldatu dituzue baina hau aldatzeko ez duzue abildaderik. Sasile-traduaren etxean ez da suerte onik izango.”

Mugarri gurutzetuari kasorik egin gabe, lurrak Uztegiarentzat gelditu ziren eta aldaketa honetan ardura izan zuen gizonak infernuan jarraitzen du.

Uztegin esan zidatenez *Joantagabriel* apaizak artaldea zuen eta artalde honentzat zaintzailea zeukan.

Zaintzaile honen ohituretako bat besteren sailetan sartzea zen, eta horrelakoetan okasio-biderik edo eztabaidarik ez izatearren, mugarri bat bere lekutik atera eta leize zulora bota zuen. Gero apaizari honela esan zion: “Ez zaituzte gehiago salatuko, ez bahituko”.

Orduan apaizak galdetu zion: “Zer egin duk, ba?”. “Mugarria atera eta leizean behera bota”, erantzun zuen artaldezinak.

Apaizak hau jakin zuenean, ardi-zainari adierazi zion mugarria bere lekuan ezartzen ez bazuen ez zela salbatuko, zerura ez zela joango.

Gaizkileak esan zion orduan harria ezin zuela berriz eskuratu, eta apaizak esan makila emango ziola.

Makila honekin leizearen goiko ertza jo behar zuela eta berehala bide ederra zabalduko zitzaiola mugarría zegoen tokiraino.

Mugarria dagoen toki horretan gauza eder asko ikusiko dituk, adierazi zion apaizak, baina mugarría bakarrik ukitu, bestela ihartuta geratuko haiz eta.

Artalde-zaiak mugarría bizkarreratu zuenean, ezin geldi egonik, bere behatz txikienarekin aukia ukitu zuen eta baita berehala behatz txikia iharturik gelditu ere.

Aurrekoak gogorarazten dit Amezketako *Jauregi Soroa* izeneko etxean entzuna.

Bost lagun laian ari ziren eta taldea *bost zoia* izenez ezagutzen zen.

Bost-zioek txarro bat edari sagarrondoaren adarretik zintzilik zeukaten, eta bertan ahaztuta utzi zuten.

Etxeratu ziren eta haietako bat ohartu zen txarroa falta zuela, eta lapurtu egin ziotela pentsatuz, ondorengo biraoa bota zuen: “Txarroa daukanari beso bat ihartuko al ziok”.

Gero, ikustea izan zuten sagar arbolaren adarra ihartu egin zela, txarroa bertan zintzilik zeukalarik.

Mugarrien garrantzia ikusi ondoren, mugi gaitezen zerbait, nekazari-artzain urixka baten inguruan.

Baserrian, su bajuak berotzen duen giro maitekor hartan biltzen ziren ardatzera, linugintzara, artotxuriketara, etab.

Artotxuriketa aipatu dut, eta Igantziko herrian honela esan zidaten.

Ostegun Santu eguna zen artozuritzen ari zirenean, lantaldea osatuta. Gauerdia heldu zitzairen eta egarritu egin ziren, ur freskoaren beharra somatuz.

Bostehunen bat metrotara iturria aurkitzen zen, eta neska gazte ederra ausartu zen ur bila. Suila hartu eta egin beharrekoa egitera abiatu zen.

Baina denbora aurrera zihoan eta neska ez zen itzuli.

Honelako batean artozuritzen ari zirenen etxean soinua iritsi zitzairen teilatutik eta bai berehala ikusi ere tximinitik behera suila urik gabe erortzen, ahots batek esandakoa entzuten zen bitartean: “Suila zuentzat eta neska ederra guretzat”.

Sorginen kontua zen, Igantzin gertatua, eta nire berriemaileak bere gurasoei entzuna.

Ostegun Santu gauez eta Ostiral Santu egunean ez bait da lanik egin behar.

Utz dezagun etxea.

Mendietako bakardadean, artzaina han-hemenka.

Artzainek, goiko belardietan dauden bitartean, txabola izaten dute bere bizi-lekua. Hemen edo honen inguruan egiten dituzte beren lanak eta beren otorduak. Orma estu horien artean igarotzen dituzte beren beharrezko atsedeenaldiak. Bonifazio Etxegaraiek idazten duen bezala, antzinako artzaiek ez zuten ezagutzen lur jabetzarik. Artzainak bere mundua batetik bestera igaroz, ez zuen izaten jabetasun honen beharrik.

Ia gure egunetarako, artzain munduan teiltatua —teiliz egindakoa— jabetasunaren adierazgarri zen, eta txabolari jartzea debekatuta zegoen.

Txabolaren eskubidea ez galtzeko, artzainak edo bere familiako batek, gutxieneko urtean behin azaldu behar izaten zuen bertara.

Egun, lege bihurtuta dagoen ohituraz, artzainak artaldea saltzen ez duen bitartean txabolaren eskubidedun jarraitzen du.

Betelun bizi zen Errazkingo artzain batek kontatu zidan, berari ere bere aitak kontatua, eta hark bere lagun bati entzuna, hau zioena:

Artzain batek Aralarko San Migel Santutegira arkumea zeraman ofrendarako, bere artean aldi hartan ohitura zenez. Baina bidean zihola tentazioa sortu zitzaion aukera-aukeran. Zazpi pezetatan saldu zuen arkumetxoa.

Artzain hori hil zen eta handik urte batzutara bidegurutze batetan kontakizun honen lehenengoari azaldu, bere izenean bildots eskaintza Aralarko Santutegian egin zezan eskatuz, horrela han zuen zorra kitatu eta betiko atseginera sartu ahal izateko.

Martxoan gaude, artzain munduaren inguruan. Egun, martxoak 26, *zozomikoteen* bezperetan aurkitzen gara.

Zozomikoteen kontakizuna zenbait kulturatan agertzen da, adibidez, Grezian, eta ondorengo berriek balio dute bere sorkuntza, euskal alorrean, martxo-apirilean kokatzeko.

Erderak agintzen duen tokietan, kontraeraren funtsezko muina aldatzeko, gertakizuna gehienbat otsailean jartzen da.

Honela, *Legardan* jakin nuen artzainak esan ziola otsailaren hogeita seian amaitzera zihoanari: “Ai, otsail, otsail, gaurtik nere axuriak ez dik



hire beldurrik”, negua menderatuta zelakoan. Otsailak, honela erantzun omen zion: “Falta diren bi egunekin eta martxoa nere lagunak ematen didan batekin, utziko haut artzaina makila bakarrik besapean dualarik”. Hori esatearekin batera elurra hasi omen zuen. Hiru egunetako elurrak artaldea goseak hil zuen.

*Aietxun, Urralgoiko Haranean*, kontatzen zidaten artzainak otsaila gutxiesten zuela esanez: “Otsail, otsailtxo, ez duk hire beldur nire axurixo”. Horren erantzuna jaso behar izan zuen ordea, otsailaren zigor-mehatxu bezala: “Oraindik dauzkadan bi egunak, eta martxoak emango dizkidan beste birekin, akabo hire artalde denak”.

Otsail bukaeran, *Zendeako Izan*, Sarasateko artzaina pozez zorutzen omen zegoen, neguaren gaiztoena aise gainditu zuela eta; beraz, ez zuela asmorik, hala zion berak, agindutako ardi-eskaintza otsailari egiteko.

Jokabide kaxkar hau ikusirik, otsailak honela dio artzainari, elurra hastearekin batera: “Bi azken egun hoiekin, eta martxoa nere lagunak emango dizkidan beste lauekin, utziko haut hi besapean ardi-goilara hutsarekin”.

Artzain bat Amezketako Udaletxeko bilera batera joan omen zen, eta biharamunean bere aitak batzarrean hartutako erabakiaz galdetzean, semeak erantzuten dio martxoa kentzea erabaki zutela.

Hau entzutean, honela zion aitak: “Nahikoa egin duzue, gure ardi txarrenak horretxek galtzen dizkik”.

Orexan ere maiz aditzen zen: “Orain zozomikoteak dituk”, artaldea eta bizkarrean zeraman ahariak adar-kolpez begia atera zion artzainaz oroiturik.

San Bizente haranako artziak martxoari agindu zion, bigun-bigun igarotzen bazen, arkume bat emango ziola. Iritsi zen hilaren hogeitabederatzia eta artzainak esaten dio honez gero ez ziola beldurrik eta agindua ahaztutzeko.

Orduan martxoak erantzun: “Oraindik dauzkadan bi egunekin eta apiril lagunak utziko dizkidan beste hainbesterekin, utziko haur-artzaina ezerezekin”.

Aiako Laurgain auzoan zozomikoteek badute zerbait berria.

Auzo honetan jakin nuen martxoko giroa ona izaten zela, arantza baten azpian zezena marru eginez gero.

Hori entzutean, martxoak bi egun t'erdiko eguraldia txartu egin zuen eta apirilari beste bi eskatu “arantza azpiko xexen horri marruak egiteko gogoia kentzeko”.

Diotenez, orduan zezenak esan omen zuen, egun horiek igaro arte, zentzuzko jokabidea zela zintzarri bat bete belarrondo bada ez bada ere gordetzea.

Leku batzutan, adibidez, Beasaingo auzo diren Astigarreta eta Garin-en, *Zozomikote* egun hauek *Artzaitxoaren egunak* bezala ezagutuak izan dira.

*Zozomikote* edo *Artzaitxoaren egunen* kontakizunak, intentzio garbia azaltzen digu. Artzainaren berekoikeria eta esker txarra salatzen ditu, eta ondoren, martxoak eta apirilak ezartzen dioten zigorra, hitzemanaz ez betetzeagatik, ondo merezia.

Eguraldi txarra gora eta eguraldi txarra behera. Beizamako *Urki* baserrian esan zidaten *Murumendiko Damia* airez izar baten antzera itsaso aldera pasatzen bazen eta uretan sartu, trumoi soinua sortzen zela. Honela gertatzen bazen, egun batzutan zehar denbora txarra izango zela.

Murumendiko *Damiaren* bizilekura, hau da, leize atarira joan eta konjurua egin ohi zen. Orduan, *Damia* barruan harrapatuz gero, ekaitza ekartzeko ahalmena kentzen zitzaion.

Hau Matximentako *Igartzola* baserrian kontatu zidaten.

*Murumendiko Damie* sugarretan eta txinparta boteaz Murumenditik Anbotora eta hemendik Murumendira airean ibiltzen zen.

Murumenditik Anbotorako bidean zihoanean eguraldi ona zetorrela adierazten zuen, eta Anbototik Murumendiruntz ikusten zenean, ekaitza zetorren.

Nire berriemailearen adiskide bat eguraldi onarekin ehizera joan zen batean, *Murumendiko Damie*, Anbototik bere Murumendiko egonlekura joaten ikusi zuen, eta handik bi ordutara eguraldia benetan txartu zitzaion.

Aiako Laurgain auzoa Landarbide baserrian jakin nuen nola hargina bat karobia borobiltzen edo giltzatzen ari zen, baina erori egiten zitzaion behin eta berriz.

Herriko apaizari gertakizunaren berri eman zioten; baina bere esku-hartzea alferrikakoa izan zen.

Hori ikusirik azti batengana jo zuten, eta honek esan zien *Anbotoko Damiarekin* hitzegiteko, eta haren aurrera zihoanak beti aurea eman behar ziola, bizkarra erakutsi gabe.

*Damia* bere koban zegoen, betiko bere lan jakinean, iruten alegia, kontseju bila zetorkiona bertaratzean, eta arretaz entzun ondoren, honela esan zion: “Zuk harriak atera eta karobia garbitu, eta ondoan zapoa

aurkituko duzu ezpainetan ogi puska duela; ogi puska kendu eta karobi ondoan zapoa utzi zirian sartuta, harriaren erretzea zeharo burutu arte”.

Hau entzun orduko, karobilaria aguro asko ezkutatu zen laisterka *Damiaren* leizetik.

Aurrez ikasia zuten bete zuen, eta hori ikusirik *Anbotoko Damiak* zera bota zion: “Ah madarikatua! Norbaitek ondo erakutsi dik”.

Koba aipatu dugu behin eta berriz.

Amezketan, nire berriemaileak bere aitonari entzuna du *Latosa, Zotaleta, Astarteta, Zabalegi*, etab. haizpeetan jentilek bizitzen zirela.

Ernaizko mendi gailurrean labea zuten ogia egiteko, Nafarroako Barrankatik irina ekarrita.

Jentil batek hamasei zezen-larruz egindako zakua irinez betea karreetzen zuen, eta haundiagoa ekartzea izango zuen bidean itxarotea jakin izan balu. Jentilek ez bait zuten atsedena zer zen ezagutzen.

Burniaren berririk ez zuten, eta burniaren orde egurra erabiltzen zuten. Egurrarekin zulatzen zuten arrokako harri librea, harri bizia harripatu arte. Arrokan lortzen zuten haizpea, beraien bizilekua izango zen.

Sua sortu zuten, bi egur hartu eta bataz bestea berotuz. Lan hau neketsua zenez, sailak sutan jartzen zituzten.

Behiak jeizten ez zekiten; esnea edateko, indarraren poderioz ganadua hanka batetik altxa eta errapetik edaten zuten.

Ikus dezagun orain sorginen bizimodua.

Sorgin batzu, beren bizilekutik irten, eta Intzako herrira jeitsi ziren —hau Betelun jakin nuen—. Emagin baten bila etorri ziren, eraman eta berriro ekarriko zutela esanez.

Emakumea, ordea, beldur zen eta ez zen ausartzen beraiekin joatera; baina azkenik, baiezkoa eman zion eskatzen ziotenari.

Kobara iristean, sorginek aitortu zioten bertan bizi zirela. Eta emaginak erantzun ea nola bizi zitezkeen toki hartan jatekorik ezer gabe. “Gu besteen ezezkotik bizi gara, zuek asko erein eta gutxi biltzen duzuenean, orduan guk asko biltzen dugu, eta zuek asko biltzen duzuenean berriz, guretzat gutxi geratzen da”, erantzun zioten sorginek.

Anderea ohartu zen bahia ederra zeukatela, eta sorginek esan zioten: “Gu gauzez bildu eta egunez jaten dugunak bait gara”.

Emaginak bere lana bete zuenean, ogi erdia eskaini zioten, eta berak ixilka-mixilka, beste erdia ere beretzakotu zuen.

Baina etxe aldera abiatzean, emakumea pausorik eman ezinda gerta zen. Hori ikusirik, sorginek galde egin zioten ea berea ez zen zerbait bereganatu zuen.

“Orain bada, beste ogi erdi hori ere zurea da; baina ez ezazula inoiz ezer zeureganatu eskatu gabe”, esan zioten sorginek.

Emaginaren etxera itzultzeko bidea itxita zegoen; baina haren bide-laguntzaile sorginentzat ez zen batere eragozpenik izan.

(Kontakizun honek gogorarazten dit Azkuek jasotako beste bat, *Una lamia y su partera* izenburukoa).

Baina sorginek bazituzten beren joku eta jolasaldiak.

Nafarroan, Larraun Ibarreko Alli herrian, *Lezeta* izeneko kobetako batean sorginak bizi ziren.

Larunbat gaua zen sorgin horiek, betiko ohiturari jarraituz, leizeari kanpotik bira batzu ematen ari zirenean, honela kantatuz behin eta berriz: *Astelehena, bat; asteartea, bi; asteazkena, hiru; osteguna, lau; ostirala, bost; eta larunbata, sei*”.

Larunbat haietako batetan, sorginen jolasaldian egokitu zen Lekunberriko zapataria, aipatutako bailara bereko Astiz herrira zihoala. Oinetakogilea konpondutako zapatak entregatzera zihoan, eta sorginen kantuari hau erantsi zion: *Igandea, zazpi*.

Zapatari delakoa txalkorra edo korkoxa zen, eta erantzun pozgarri hau jaso zuen sorginengandik:

*Ekar ezan konkorra eta hoa hortik.*

Bere egitekoa bete ondoren, Lekunberrira itzultzean, konkordun izandako zapatariak bere auzoko beste txalkorrenekin topo egin eta jakin erazi zion berari gertatua. Hori entzunda, txalkorrek berehala esan zion: *Ni ere banoa*.

Esan eta egin. Eguna iristean, konkorduna hurbildu zen sorgintegira, zapatariaren lelo bera errepikatuz. *Igandea zazpi*, baina sorginen erantzun garratza entzun behar izan zuen gizarajoak: *Hartu konkorra eta hoa hortik*. Horrela gure gizontxoak konkorr-bidun geratu zen.

(Hau Allin kontatu zidaten. Hemen agertzen da sorginek igandeari zioten ezinikusia. Funtsean, kontakizun hau bat dator Xosé Ramon Mariño Ferro-ri irakurtzen diogun korkoxa eta sorginen ipuinarekin. Badu antzik ere Vinson-ek jasotako *Los dos gibosos* delakoarekin).

Ikus dezagun orain —eta honekin amaituko dut— sorginak etxean ez sartzeko zer egin behar den.

Otsagin jaso dut.

Herri honetako sendi bat bere ganaduekin beti zoritxarrez bizi zen.

Hau honela, nire berriemaileak etxe hartako sarreran ate atzean erratza buruz gora ikusten zuen beti.

Etxekoandreari galdetu zion ohitura haren zergatiaz, eta etxeko emakumeak erantzun zion erratza honela jartzen zuela sorginak uxatzeko, etxetik urruntzeko, ganaduari kalte egin gabe uzteko.

Eta sorginak urrun ditugula, amaituko ditut nire hitzak.



## GIPUZKOAKO HERRI-IPUIN IDATZIAK

*Donostia, 1992-III-26*

*Juan Mari Lekuona*

Herri-narratibaren adarrak, egiaz, adarska eta xardanga asko ditu berekin. Eta gaia gaur nahiko zehazturik ematen bazaigu ere —ipuin idatziak eta Gipuzkoako eremura mugatuak—, ukaezinezkoa da alderdi ugari dituela berekin txosten honi dagokion arloak.

Probintziako ipuin munduari begiratuta, bere txikian ere, aniztasuna da lehenik hartzen zaion susmoa. Ipuinak sortaka datoz, kultur mugimendu eta joera desberdinei atzekiak; eta hauen eraginez irakurgai multzoak sortzen dira, eta zabaltzen eta dastatzen; produktu honek, bestalde, azpiegitura bat darama berekin, sortzaileak lanean jartzen direlarik, eta berdin biltzaileak, eta suztatzen ere bai ipuinoz zabalkunderako erretanak eta behar diren bideak.

Historian zehar dauden mugimendu, bilduma, autore-biltzaile eta literatur helburuak bereizi eta sailkatzeko, ikuspegi diakronikoa erabiliko dugu, aldian-aldikoa gaingiroki jasoz, eta hari nagusi batzuren barruan emankizunak kokatuz. Eta kultur joerek markatzen dizkiguten esparruetan aipatuko ditugu herri-ipuin hauen ahozko eta idatzizko alderdiak, folklore nahiz autoredun mailakoa den produkzioa, sail bakoitzaren helburu kulturala eta mugimendu bakoitzari dagozkion sostengu eta egitura bistakoenak.

Horrelako egituratze batek, eta ohizkoak zaizkigun eskemetara lan-gaia bilduz, erraztuko zaizkigulakoan nago aipatzen ditugun ipuin eredu-izateko arrazoiak, eta aipatu gabe nahitaez utziko ditugun beste batzuren berezko lekuak. Horrelako ordenulana ezinbestekotzat jotzen dugu, txosten baten mugabarruan gaurko gaia aurkeztuko bada.

### 1. MITOEN ERNALKUNTZA XVI. MENDEAZ GEROZTIK

Bere *Historiografía de Vizcaya* liburuan Andres E. Mañarikuak esaten diguna nahiko argigarri da gai honi buruz. Izan ere euskaldunak

beren lurraren eta jatorriaren ederraz harro zeudelako edo, bai herri-mailako elezaharretan, bai histori esparruko autoreetan, mitoen sorrera eta garapen bat hasten da XVI. mendean.

Herriaren eta kronisten irudipenean pentsatu beharra dago horrelako eleketen ernalkuntzan. "Herri-irudipena bazterterik ez dago, berau denez leienden berezko iturria. Baina ezin da ahaztu ere, mito asko, nahiz eta geure ikerketez hala dela ezin baieztatu, kronisten orrialdeetan jaiok direla, Bizkaia goratu eta aldezkatzeko afanaz; edota genealogista baten orrialdeetan sortuak direla, leinu bati bere ospea emateko asmoz" (1).

Hiru gai nagusiren inguru biltzen ditu euskal mito horiek: 1) Arrigoriagako guduketa eta Bizkaiko lehen jaunak; 2) Bizkaiko kantabrismoa; 3) aitzinako monoteismoa eta lehen orduko ebanjelizatzaileak Bizkaian. Hiru ardatz hauen inguru gorpuzten da mito eta leienden kopuru esanahitsu eta unibertsala (2).

Biblia oinarritzat duten ipuin-leiendek hizkuntza sendotzeko balio izan dute, Tubalek, Babeleko nahaspilaz geroztik, euskara ekarri zuelarik, eta berau gertatuz Espainiako lehen hizkuntza, dohainez betea. Baina hizkuntza ezezik, egiazko erlijioan, naturako legeetan, zientzia eta arteetan utzi zuen euskaldunen artean Ebanjelioa etorri aurretiko bizibide hauta eta 'egokia' ezin-gehiago.

Erromatarren munduan nolerebaiteko apioa duten kontaera-moduak, euskaldunak kantabroak direla ustearekin jokutzen du, hirurehun kantabresek beste hainbeste erromatarren aurka izaniko borroka aipatzen delarik, Garibaik diogenearen arabera. Erromatarren aurreko askatasuna eta burujabetza adierazten da, bertako gudarien gotortasuna, eta kausaren zuzentasuna.

Eta Erromarekin loturik, bada beste alderdi bat ere, ipuin-mota asko sortzen dituen, genealogiarekin zerikusia duena hain zuzen. Etxe euskaldun batek odolaz eta historiaz erromatar familiekin duen lotura adieraztera datozen hainbat leienda. Genealogistek handizkien familiez jasotako elezaharrak dira, herri-mailan eta kultur mailan bizi direnak, eta guri dagokigunez, herriaren ahotan, dabiltzanak bereziki, batez ere familia bakoitzak etxea eta zainak dituen esparruan, belaunaldiz-belaunaldi konstatzen diren ipuin goresleak (3).

(1) A. E. MAÑARICUA, *Historiografía de Vizcaya*, "La Gran Enciclopedia Vasca", Bilbao, 1973, 143 or.

(2) Id., ibid., 148 eta hur. or. A. IRIGOYEN, *La época de Astarloa, Moguel y Humbolt*, in "Actes du colloque international d'Etudes Basques" (Bordeaux 3-5 mai 1973), "Société des Amis du Musée Basque", Bayonne, 1978, 149 or.

(3) Adibide modura ikus, J. MORET, *Anales del Reino de Navarra*, "Eusebio López", Tolosa, 1881, 7 t. (XXXVI lib., VII kap., 26 z.), 496 or. M. LEKUONA, *Del Oyarzun antiguo*, "Diputación de Guipúzcoa", 1959, 25 or.



Ipuin eta leienda hauek kroniketan eta erdaraz emanik badatoz ere asko, horiek berak herri-mailan, eta euskaraz, kontatzen dira, oraindik-orain ere entzun daitezkeelarik kontalari herrikoien ahotik. Eta ez hori bakarrik: kondairak ezezik, tradiziozko adierazpenak, esaldiak, eta hitz formulak entzuten dira, ahozko estiloaren adibide landuenez jantziak. Eta mito nahiz leienda hauei buruzko bilduma kritikorik ez badaukagu ere, hauek lirateke Gipuzkoako ipuingintzan lehenik eta behin aipatu beharrezko herri-narratiba ereduak.

## 2. EUSKAL LEIENDAK XIX. MENDEAN

Tradizio erromantikoaz ari gaituzu. Erdaraz idatzitakoak dira ia denak, eta lituraturgileen sorkuntza eta idazkeratik ia dena duten narrazioak dira (4). Hala ere, erdara-euskara bi hizkuntzen tradizioek beren artean duten sinbiosiari amore emanez, eta berdin ahozko-idatzizko bi munduek duten elkar-eraginari, hemen aipatu behartzat jotzen dugu erlatu kultu hauen altxor berezia.

Ez dira tradiziozko leiendak bere horretan hartuak, usariozko erlatua beste era batera ematen dutelarik; ez dira ere asmatutako narrazio bati osagai folklorikoak eransten zaizkion leienda modukoak; baizik eta dira tradizioan agertzen diren gaien imitazioz eginiko erlatuak, baina tradiziozko kontaeraren birsorketa bat egin gabe (5).

Euskal leiendisten zerrendan Jon Juaristik bere hitzaurre mamitsuan aipatzen digu Truebak "nolerebaiteko eragina izan zuen euskal leiendisten artean, mendearen azkenetan "Truebaren eskolaz" hitzegiten hastearaino. Eskola honetakoak lirateke Arakistain, Bizente Arana, Campion, Iturralde eta abar" (6). Eta eragin hori handia zen edo ez alde batera utziz, Gipuzkoari dagokionez, bi izen lirateke bereziki aipatu beharrak: José María Goizueta bere *Leyendas vascongadas* (Madrid, 1851) liburuarekin eta Juan Benantzio Arakistain bere *Tradiciones vasco-cántabras* (Tolosa, 1866) liburuarekin, eta *El Baso-Jaun de Etumeta* (Tolosa, 1882) bere nobela historikoarekin, Hauek lirateke aipagarrienak guri dagokigun arlorako.

Bakoitzaren ekarria azpimarratzeko, esan dezagun, José María Goizueta gipuzkoarra izanik ere, Madrilen bizi izan zela. Karlistateaz idatziriko liburuez gain, *Leyendas vascongadas* izango zen osperik handiena eman ziona, birrargaratua izan zelarik Madrilen, 1851, 1854, 1856, 1866an, eta Bilbon 1901an. Honela dio sarreran: "Nire herrian gutxi-asko sustrai-

(4) J. JUARISTI, *La tradición romántica. Leyendas vascas del siglo XIX*, "Pamiela", 1986, Introducción, 11 eta hur. or.

(5) Id., *ibid.*, 23-24 or.

(6) Id., *ibid.*, 35 or.

turik dauden sinesteak aterako ditut plazara” (7). Eta gure herri hau topografiaz Eskozia, Irlanda, Alemania eta Hebridasen antzekoa den bezala, fantasiako enteak sortzeko joeran ere antzekoa da. Ente horien izenak ezagunak dira, hala nola *Lamiak* kostalde ekaiztsuan, *Bassa-jaon edo jauna* azken gabeko basoetan, *Maitagarriak* oihan itzaltsuetan, *Sorginak* zabaldegi bakartietan eta ur-azkarrek idekitako ubide sakonetan (8).

Mitologiako hitz hauek berak dira ia, liburuko bost leiendei beren izenburua damaietenak: “Aquelarre”, “Lamia” (Leyenda marítima), “Baso jauna”, “La bocina de Roldán”, eta “Maitagarri”. Gaiei buruz esaten da “Chahorengandik datozela Goizuetaren leiendetako osagai ez gutxi, baina beste osagai ugari badaudela tradizio folklorikotik hartuak direnak (9). Eta Goizuetaren estiloa biderdi dagoela dio Juaristik erromantizismoa eta errealismoaren artean.

Beste alderdi bat azpimarratuz egingo digu Juan Benantzio Arakistain-ek bere tradizioen aurkezpena: “nolako garrantzi historiko eta kulturala duten herri mailako kantu, leienda eta ipuinek, berauek sinesteen isladapen bat direnez, eta joandaneke belaunaldiek zituzten sentipenen oihartzun leial” (10). Eta esango digu, pentsalari sonatuek arretaz ikertu dituztela, eta bakarrik horiei esker barrendu direla aintzinako gizarteen ilunbeetan, nahiz eta gizarteok mundutik ezkutatu diren, beren pentsamoldearen, zibilizazioaren eta bizitzaren segetua berekin eramanez (11).

J.B. Arakistain debatarra genuen jaiotzez, eta jaioterriari aski lotua ere bai bere leiendetan, berauek Deba inguruko parajeetan kokatzen ditu, herrialde honi dion atxekimentua agertuz. Nahiko argigarri dira bere “euskal tradizioen” aurkibideko izenburu-zerrendak: “Gau-illa”, “Hurcamenti”, “La emparedada de Irrazabal”, “Los Cántabros: Primera parte: Hirnio; segunda parte: Roma”, “Las tres olas”, “Beotibar-co-celaya”, “La hilandera de la capilla” eta “La Dama de Murumendi”. Eragina izan zuen, ez bakarrik idazleengan (Katalina Elizegi, Jon Etxaide, Nemesio Etxanizengan) (12), baita euskarazko herri-literaturan eta bertsolaritzan ere. Poemak ere euskaraz idatzi zituen eta ahalegin bat egin ere bai bere idazlanak egiazko tradizio folklorikoan errotzen” (13), beste leiendistek ez bezala egin ere.

(7) J. M. GOIZUETA, *Leyendas vascongadas*, “D. F. García Padrós”, Madrid, 1851, VIII or.

(8) Id., *ibid.*, IX or.

(9) Id., *ibid.*, 11-39; 41-81; 83-103; 105-135; 137-179 or.

(10) J. V. ARAQUISTAIN, *Tradiciones vasco-cántabras*, “Imprenta de la Provincia”, Tolosa, 1866, 3 or.

(11) Id., *ibid.*, 3-4 or.

(12) L. MITXELENA, *Historia de la literatura vasca*, “Minotauro”, Madrid, 1960, 137 or.

(13) J. JUARISTI, *ibid.*, 37 or.

Tradizio erromantikoak jaioarazitako euskal leienda hauek urruntasun bat bazuten herri-narratibari buruz, erdaraz idatziak zeudenez eta kulturdunei zuzenduak. Baina, bestalde, mende erdi batez gora iraun zuen eleberrigintza izan zen, Euskal Herri osoan zehar bere lekukoak utzi zituena, eta ospe bat zuten erdal idazleek landuriko alorra. Baina era berean esdan daiteke leku bat duela euskal prosa narratiboaren sorreran eta garapenean, eta bereziki prosa horren oinarri izango ziran “irakurgaietan”.

### 3. IRAKURGAIK ETA IPUIN BERRIAK

Bigarren karlistatea bukatu ondoren, Donostian sorturiko literatur mugimenduak zerikusi handia du hemen aipatzera goazenarekin. Kontaera laburreko herri-narratiba bat indartzen da, emaitza ugaria eta barreiatua eman zuena. Bi zutabe hauen apioan tinkatzen dira eskuarki: “itz-jostaldietako” irakurgaiak eta zenbait aldizkaritako ipuinak.

#### 3.1. Irakurgaiak

Narratibagintza honen garrantzia azpimarratu digu Ana Toledok bere tesilan bikainean. “Leiendagileak ezagutuko ditu euskal literaturak, eta badirudi leiendagintza honen sorrera Donostiako ‘Itz-jostaldietan jarri behar dela’, ‘Donostiako Euskal izkribatzalleen indar neurtzeak 1879. urtean egitaraeuan egindako deialdian eta deialdi honek izandako erantzunean’” (14).

“Irakorgai” hitzarekin izendatzen dutena gazteleraz “tradición o leyenda”-rekin ematen da. Eta edukinari bagagozkio, deialdietan aipatzen da “kondairen baten ezagualde labur bat, edo gure oitura oroitgarriren baten gañean”, edota “gure aurrekoai aditutako kondairen bat”: horrela adierazten da lehiaketaren gaia.

Urterik urte ematen digu Ana Toledok irabazleen eta saritutako izenburuen zerrenda. Laburpen batek aski garbi utziko duelakoan gaude altxorraren jitea eta autoreen nortasun eta berezitasuna.

1879 Lehen Saria: “Zer nitzan? Zer naiz?”.

“Aldeera”: “Antiguako Ama Virjiña”.

Lehen aipamena: “Liburu bateko pasarte bat”.

Bigarren aipamena: “Jesus-en lagundiko Aita Manuel Larra-mendiren bizkontaera” (15).

(14) A. TOLEDO, *Domingo Aguirre: euskal eleberraren sorrera*, “Bizkaiko Foru Aldundia”, Bilbo, 1989, 69 eta hur. or.

(15) Id., *ibid.*, 70 or.

- 1880 Lehen Saria: Jabegabe.  
Aipamen onragarria: M. GILBEAU, "Orruel arpeko zuhurra".
- 1881 Lehen Saria: A. CAMPION, "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak".  
Aipamenak: G. ARRUE, "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala"; eta J. LARRETA "Irakurgaya".
- 1882 Lehen Saria: G. ARRUE, "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste".  
Aipamena: K. ETXEGARAY, "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera".
- 1883 Lehen Saria: A. CAMPION, "Okendoren eriotza".  
Aldeera: K. ETXEGARAY, "Andeka".  
Aipamena: A. ARZAC, "Pachi ta Konchesi".
- 1884 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Gurasoaren zigorra".  
Aldeera: G. ARRUE, "Zarauzko ondekidatzea".
- 1885 eta 1886: "Jabegabetuak", irabazlerik gabe.
- 1887 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Malko bedeinkatuak".  
Deskripziorik onenarentzat: A. M. ZABALA, "Gabon gau bat Euskal-erriko baserri batean".
- 1888 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Antziñako gertaerak".  
Deskripziorik onenarentzat: F. LOPEZ ALEN, "Donostia".
- 1889 Lehen Saria: F. LOPEN ALEN, "Lezoko Santo Kristoren eleizachoa".  
Aldeera: T. ALZAGA, "Itziar".
- 1890 Lehen Saria: F. LOPEZ ALEN, "Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat".  
Aldeera: K. ERXEGARAY, "Euskaldun bikaiñ bat".
- 1891 Lehen Saria: K. ETXEGARAY, "Kontu zarrak".  
Deskripziorik onenarentzat: T. ALZAGA, "Okendo".  
Aldeera: R. MURGA, "Arrechinaga".

Hauek dira Donostiako Euskal Festen inguruan, "itz-jostaldi" lehiaketan sorturiko azkenengo leiendak (16). Azpimarra dezakegu, euskal prosa narratibaren sorrera ikertzerakoan aipagarri gertatu direla testuok,

---

(16) Id., *ibid.*, 70-76 or.

prosa horren sorrera eta garapena markatuz. Eta gero eta nabariago dela dirudi euskal narratibaren barruan ahozko mailatik idatzizkora ematen den urrats jakingarria, erdaraz mamituriko leienden loratze bat finkatzen eta indartzen dela.

### 3.2. Ipuinak

Beste narratiba multzo bat bada aldizkarietan sortu eta garatu zena. Hango eta hemengo kontuak dira, eguneroko bizitzan gertatu eta norbaitek jasotako gertaerak direlarik eskuarki. Hala nola, pertsonaia herrikoiien pasadizuak, zelebrequeriak, ofizio eta izaera bereziko jendeak, berritxuke-riak, ipuin zarrak, herri jakinetako kontakizunak eta izen propioa dutenen esan-eginak.

Aldizkarietan entretenigarri zetozen irakurgaiak ditugu. Eta Gipuzkoari dagokionez, hauek lirateke ipuingintza hori bildu duten aldizkari jakingarrienak: “Euskal-erria”, “Baserritarra”, “Euskal Esnalea” eta “Argia”. Ipuin trukea egin ohi da errebista batetik bestera, eta bateko ipuinak bestean errepikatzen dira, berorien garrantzia eta nolerebaiteko beharra aitortzen zaiela errepikatzeaz.

Kontaera hauen aurkezpenik beteena *Baserritarra* aldizkarian dauka. Honela du izenburua: BASERRITARRA/ Probintziako ganaduen terramako albistaria/ Ateratzen dá amabostean bein”/ Eta ohar aipagarri hau azkenean: “Imprenta y Litografía de V. Iraola”. Hasieran ganadutza-ko kofradia deitzen zena, gero, bostgarren urtetik aurrera, “nekazarien albistaria” deitzen da.

Denetik dago lau orrialdeko izpar hauetan: albiste teknikoak, berriak, olerkiak, izkirimiriak, kontuak eta abar. Baina neurri eder batean ipuinak eta kontaerak. Eta autoreen zerrenda nahiko oparoa dugun arren, hauek dira sorta ederrenak eskaintzen dituztenak: V. Iraola, P. M. (Pedro Migel Urruzuno), “Gatz-errota” ezizenez agertzen zaigun beste bat, Juan Jose deritzan bat, Albisturtik bere kontakizunak bidaltzen dituen, eta beste hainbat izen lan berean ari direnak, nahiz neurri desberdinean.

Ildo beretik doaz *Euskal-erria*, *Euskal Esnalea* eta *Argia*-n agertzen diren kontuei buruz: “Ipui auek, beti edo geyenetan beintzat, eguneroko bizitzan gertatu ta norbaitek jasoak izaten dira. Euskeraz izen bat baño geyago dute: gertaera, gertakizuna, pasadizoa, ateraldia, aterakaya...itz oyek danak gauza ber-bera adierazten ez badute ere” (17). Hemen zehaztu beharra legoke, V. Iraolak bere etxean ateratzen zuen “Baserritarra”-n

---

(17) A. ZAVALA, *Itzaurrea*, in “Aizkolariak eta beste ipui asko”, “Auspoa”, 23 z., Zarauz, 1963, 10 or.

idazten duela batez ere, Urruzunok lehen aldian “Euskal-erria”-n idazten duela, eta geroago *Baserritarra*-n, eta A. M. Zabalak, bestalde, gehiago agertzen zaigula *Euskal-erria*-n gero aipatuko dugunez.

#### 4. AHOZKOTASUNAREN BILKETA ETA SISTEMATZEA

Bi ikertzaile erraldoi ditugu herri-narratiba biltzen eta sistematzen arituak: R. M. Azkue eta J. M. Barandiaran. Asko izanik ere eremu hori bera landu dutenak gure artean, bi izen hauek markaturiko mugabarruan dabilta eskuarki bilketa eta sistematze zereginetan jardun dutenak. Horregatik bi ereduok aipatzearekin egintzat ematen dugu antzeko beste lanen aipamena.

##### 4.1. R. M. Azkue

Azkueren helburuetako bat da, euskaraz bizi den herri-literatura aurkeztea. Disziplina honen kapitulu nagusienen berri ematea. Ordenu eta sailkapen lanetik gehiago nabari zaio azterketatetik baino, nahiz eta beti agertzen duen autoreak hainbat notizia eta ezaguera eskuartean duen gaiari buruzkoetan.

Hain zuzen, bere *Euskalerraren Yakintza*-ko lau tomoetan, bigarrena “Cuentos y leyendas” deritza, erdal izen buru hau “Ipuin eta irakurgaiak” izenburuz itzultzen digularik. Eta liburuki hau Azkuek herri-literaturaren kapitulu berezizat jotzen du.

Ahozko literaturaren ikuspegi osoa eman nahi digu lekeitiarrak, lehenago Vinson-ek egin izan zuen antzera (18). Baina oro har, folklorista ikuspegitik gehiago sakatzen du bere ikerkuntzak, literaturaren aldetik baino. Campus-lana da, batez ere azpimarragarria Don Resurrekzionen lana ahotan hartzen dugunean. Baina horrelako bilketa bat argitaratzeak dituen arazo nagusiak arakatzen eta erabakitzen ditu: sailkapenak, herri-kiko konparaketak, lankideen jatorria eta izenak, folklorista ikasi baten kultur ikuspegi estimagarriak.

Gipuzkoari dagokionez, hona Ipuin eta irakurgaien zerrenda:

- 6. Alostorrea (Elgoibar)
- 12. Amen (Hernani)
- 44. Erregeren aurpegia (Ataun)
- 47. Erroketxo ta ama (Arrona)

---

(18) J. VINSON, *Le folk-lore du Pays Basque*, in “Les littératures de toutes les nations”, 15 t., “Maisonneuve”, Paris, 1863.

- 58. Jesukristo ta San Pedro (Ataun)
- 84. Loidiko neskatxa (Amezketeta)
- 103. Peru ta Mariya (Arrona)
- 114. San Martin ta Basajauna (Ataun)
- 120. Tartalo (Ataun)
- 130. Zegamako bilindrinak (ahuntz-gorotza) (Elgoibar)
- 137. Antoxin garbia ta zikina (Ataun)
- 140. Arrastangi jentil-arria (Ataun)
- 145. Artzain izukaitza (Ursuaran)
- 149. Azelaingo zubia (Hernani)
- 177. Ilargia (Matxinbenta, Antzuola)
- 184. Juan Migel (Amezketeta)
- 186. Kazkinak ta kazkindunak (Amezketeta)
- 187. Kito (pastor guipuzcoano)
- 200. Maisu guztien maisua (Ataun)
- 205. Mateo Txistu (Amezketeta)
- 216. Peru Amundarain (Ataun)
- 224. San Pedroren urdalla (Ataun)
- 235. Txindokiko Maria (Amezketeta)
- 236. Urrezko izara (Ataun) (19)

Benetan estimagarria da *Euskalerrien Yakintzako* bigarren tomoa irakurtzeak uzten duen atze-arrastua. Egia da, bai, zenbaitzutan galtzen dela ahozkotetasunak hain berea duen leuntasuna eta egitasuna, zuzenketak direla medio. Baina altxor bikaina dela esan behar Azkuek utzi digun ondarea. Akatsak akats, monumentu bat da Azkueren ekarria euskal literaturzaleentzat.

#### 4.2. J. M. Barandiaran

Argi eta garbi adierazirik dago “Eusko-folkore”-k duen lehen eta zuzeneko helburua: “Euskal izpirituak bere baitatik sorturiko emaitzak hor dira, iraganaldi baten ondore ez-materialak, leienda, tradizio, sineste, ohitura eta erlijio nahiz magiako ekintzen itxurapean guganaino iritsi direnak; eta osagai guzti hauek beren artean dituzten harremanak, eta berauek sistemapean sailkatzea da euskal folkloreaken helburu lehen eta hurbilekoena” (20).

---

(19) R. M. AZKUE, *Euskalerraren Yakintza*, 2 t., “Espasa-Calpe”, Madrid, 1966. Ipuin eta irakurgiak liburuko zenbakiaz emanik.

(20) J. M. BARANDIARAN, *Eusko Folklore*, “Obras Completas”, 2 t., “La Gran Enciclopedia Vasca”, Bilbao, 1973. Ipuinak eta leiendak liburuko zenbakien arabera emanik, 240 eta hur. or.

Bigarren tomoa hartzen dugu gogoan, "Cuentos y leyendas" izenburupean emaniko kapituluak. Autoreak berezi egiten ditu ipuinak eta leiendak. Herri-narratiba ipuina denean, orduan pertsonaiak, lekua, denbora eta ekintza zehaztu gabeak dira. Hauek dira formulak: antziñan, etxe batean, aita bat bi semekin bizi omen zen, eta abar. Eta leiendan, bestalde, pertsonaiak, lekuak, denborak eta ekintzak mugatuak eta zehaztuak dira.

Ipuinak eta leiendak, Gipuzkoari dagokion zerrenda aukeraturaz:

1. Artzaia ta sugea (Ataun, Mutriku, Andoain)
3. Jentil indartsua (Ataun)
6. Zozoa, usoa eta azeria (Azkoitia)
7. Axerko, otsoko eta beleko (Amasa)
8. Axeria, eta errotako txakurra (Azkoitia)
12. Otso zauritua eta axeri zalduna (Ataun, Azkoitia)
16. Astoa eta otsoa (Ataun, Baliarrain)
22. Otsoko ta mandoko
24. Otso jaunaren nagusitasuna (Usurbil)
27. Pixtiyun gerra (Oiartzun)
28. El hombre, la culebra y la zorra (Gregorio Mujika)
29. Makillakiski (Ataun)
30. Andre doakabea (Ataun)
31. Kastillanoprango (Ataun)
32. Dar-dar (Ataun)
33. Gizon arrigarria (Bidania, Azkoitia)
34. Patxi Errementarie (Ataun)
35. Gatza ala erregea (Ataun, Oñati)
36. "Errauskiñe" (Oñati)
37. Kanillo arrantzalea ta Kanillo-txiki (Ataun)
38. Zapataitxikin ipuie (Ataun)
40. Zapataitxiki errukitsun ipuie (Ataun)
41. Beñardo (Erretereria, Oñati)
42. Kukubiltxo (Azkoitia, Andoain, Oiartzun, Donostia. Hau bera bertsotan Serafin Barojak moldatua)
43. Ire gogamena neretzat, nere dirua iretzat (Ataun)
44. Bi zintzo, ero bat (Ataun)
45. Sorgin gaizton ipuie (Ataun)
46. Labasue, egursortak eta sarie (Ataun, Oñati)
47. Lau indartsuen ipoia (Zegama)
50. Biantxaren ordaiña (Zegama)
51. Estudiante Tonto (Oiartzun)

Barandiaranek, jakina denez, euskal hitzaren baitan bizi den euskal kultura mamitu nahi izan du, munduari buruz, harandikoari buruz eta kosmosari buruz duen ulerkuntza sistematuraz. Baina oraindik erabilgarri-



tasun handiagoa eduki dezake literatur alorrean, batez ere ahozko estiloa mamitu eta erabili ahal izateko orduan. Literatura nazionalaren helburupean ezin estimagarriagoa zen mundu hau, bere horretan bildua, herriari ahotik darion moduan, inolako zuzenketarik gabe. Euskal estiloak narratibarako eskaintzen duen erredua eta l psiko-dinamika berezia.

## 5. HERRI-IPUINEN BIRZIKLAKETAK ETA KONTSUMOKO BILDUMAK

Espainiako gerrondoan, herrikoitasunaren eta euskara biziaren amorez, eta liburuak gure artean hartu zuen gorakada eta lehentasuna gogoan, sortu eta indartu zen inoiz ez bezala irakurgai liburu errazak eta erakarriak argitaratzeko joera.

Egokiera hau oso gogoan edukiz, eta ipuin liburuen bildumari begira, bi argitaletxe genituzke Gipuzkoan langintza berezia aurkeztu dutenak: “Kulista Sorta” bata, eta “Auspoa” bestea. Lehenengoa aspaldi suntsitua, eta bigarrena oraindik bizirik dirauena, sortzaile izaten ere jakin duelako hasierako koordenaden barruan.

### 5.1. Kulistas Sorta

“Itxaropena” argitaldaria zuzentzen du bilduma hau, 1952an hasiz eta 1973an bukatuz. Gure arloari begira, hauek dira arretaz hartzeoak:

— L. JAUREGI, *Ipuiak* (1953), 4 zenb.

— A. SORRARAIN, J. GALARRAGA, J. GARAIALDE, *Elezarrak. Arraun eta amets* (1955), 7-8 zenb.

— A. IRIGARAY, *Euskalerriko ipuinak* (1957), 17-18 zenb.

— J. SAN MARTIN, *Zirikadak* (1959), 35-36 zenb.

— J. AZPEITIA, *Amandriaren altzoan* (1961), 45-46 zenb.

— L. VILLASANTE, *Aitonaren uzta* (1961), 47-48 zenb.

— J. SAN MARTIN, *Eztenkadak* (1965), 57 zenb.

— R. ZULAIKA, *Ipui jatorrak* (1967), 66 zenb.

— R. M. AZKUE, *Antziñako ipuiñak* (1968), 68 zenb.

— I. LINAZASORO, *H gabeko umorea* (1970), 72 zenb.

## 5.2. Auspoa

Ibilpide luzea da “Auspoa”-k egin diguna: aldizkaritako ipuin eta kontuak biltzen hastetik, nobelak idatzarazi eta argitaratzeraino, aldian-aldiko eskakizunei erantzun bat emanez. Eta desberdintasun nabariak egonik ere liburuon artean, garbi erakusten digute ipuin-liburuek hartzen duten hedadura eta nola indarberritzen den herri-narratibaren usariozko altxorra. Aipa ditzagun eredurik jakingarrienak:

– F. APALATEGUI, *Euskal mutillak armetan* (1961), 3 zenb. Karlis-ten gerrateko oroipenak.

– P. M. URUZZUNO, *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk* (1961), 5 zenb.

– B. IRAOLA, *Oroitzak eta beste ipui asko* (1962), 9 zenb.

– A. M. ZABALA, *Gabon gau bat ta beste ipui asko* (1962), 16 zenb.

– A. ZAVALA, *Txirrita (Bizitza ta bat bateko bertsoak)* (1962), 18-19 zenb.

– ASKORENAK, *Aizkolariak ta beste ipui asko* (1963), 23 zenb.

– M. ELICEGUI-A. ZAVALA, *Pello Errotaren bizitza, bere alabak kontatuta* (1963), 32 zenb.

– S. SALABERRIA, *Neronek tirako nizkin* (1964), 38 zenb.

– P. M. URRUZUNO, *Iru ziri (Ipui ta bertso)* (1965), 47 zenb.

– Id., *Ur-zale baten ipuiak* (1965), 51 zenb.

– Id., *Sasiletrau baten ziria ta abar* (1973), 113 zenb.

Ipuin bilduma hauetaz aparte, neurri zabalagoko eta arnasa zabalago-ko liburugintza garatu digu “Auspoa”-k: eleberriak, oroitzapenak, irakur-gai luzeak. Idazleen izen andana ere ekarri digu, langintza hauetan jantzia: Ataño, Salaberria, Irazusta, Alkain, Mari Treku, Txomin Garmendia, Azpiroz eta abar. Ekarki bikaina euskal prosagintzan. Baina gai honetaz bada mintzaldi bat A. Zavalak berak emango diguna, hara igortzen dugularik gaiaren agerpena.

## AZKENA

Gipuzkoako herri-ipuin idatzien arloa zabala zela bagenekien, eta nahaspilatua zela ere bai. Ordenulanean aritu gaituzu, diakronia abiapuntuz hartuz, eta sail bakoitzeko zenbait ezaugarri markatuz: autoreak, mugimenduak, literaturgintza eta honen azalpena eta erabilkera. Ez zen

gure asmoa —ezin izan zitekeen—, den aipatzea, hari nagusiak ezartzea baizik. Eta aipatu gabe geratzen diren autore, aldizkari, mugimentu eta abarrak, aurki dezakete beren kokalekua honelatsuko sailkapen baten barruan.

Bestalde, bilakabide bat nabari daiteke Gipuzkoako ipuingintzaren kondairan, eta sinbiosis bat haztatu daiteke azpisail horien artean, batez ere loraldi kultoen eta herrikoien artean. Eta gero, nahiko tajuz usmatu daiteke herri-ipuinen balioztatzean baldintza sozio-kulturalek eduki duten eragin ukaezina. Ipuingintza kultoa eta herrikoia historiaren argumentu izatetik, eta leiendak gure intrahistoriaren lekuko argi zatetik, eta gure herri-kontaerei tratamendu zientifiko bat ematetik, iragon gara beroriek entretengarri bizi eta gogozkoenak izatera, kulturak herrian eta herriak kulturaren beren eragina dutela.

Horrelako sailkapen batek lagunduko al-digu hobeto ulertzen, lehenik Gipuzkoako ipuingintzaren historia eta gero gertakaria hauek euskal eleberrigintzan izan duten zerikusi erabakiorra. Hurbilketa hauek behar dute izan abiapuntu, euskal narratibagintza sakon dezagun eta baliozta berari dagokion neurri zuzenean.



## IPARRALDEKO HERRI-IPUIN IDATZIAK

Donostia, 1992-III-26

Emile Larre

Ezin mugatua dela herri ipuinen zerrenda: horixe, denok dakigun egia. Herria herri denetik eta herria herri denekotz.

Konda errexagoa, herri ipuin *idatziena*. Hauk berak ere haatik konda ahala baino gehiagokoak direla nork ez daki. Uste dut asko eta asko aurkituko ditudala bihar eta etzi, zerrenda hontan hutsegín ditudanak, bai-eta hemen zareten nor-nahik ezagutzen ditutzuen asko ere.

Nihauk ere, ez izanez bakarrik bulego gizona edo erakasle ere, baizik beste lan askotan nabilana, nere apaiz lanetarik eta kasetalaritzara, beste batzuetan barna, nahiago izan dut norbaiten laguntza eskatu, zerrenda honen osatzeko, Belokeko komentu iturri onean, egiaren salatzeke. Eskerrik beroenak hain zuzen etxe horretako Iratzeder adixkide euskaltzainari bere laguntza haundia gatik.

Ondotik dauzkadan, Mayi Ariztia, Jean Barbier, Xalbat Arotçarena eta hainbesteren ipuin eta denetan sakabanatuez bestalde hor daude, besteak beste.

– *Baigorriko zazpi liliak* (Jean Duvoisin).

– *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak* (Cerquand, Txertoa argitaldaria).

– *Ixtorio mixterio* (P. Lafitte), Orpustanek argitaratuak.

– Beste asko, *Herria* eta denetan biltzekoak.

– J.H.U.ren bat ere, egun hauetan ateratzen den, haren seigarren eta azken liburuan (Mattinen Eguberriak).

Bildu ditugunen zerrenda luzea izana gatik, hor daude ere beste guziak.

### ALMANAKA

Iragan mendean Etcheverry apaizak hasi zuen aldizkari hau ditake eskupean izan ditugunetarik xaharrena, duela hamar urte doi-doia Piarres

Lafitten azken xahartasunean gelditua. Beharko ditu norbaitek aurkitu lehen hamarkadetakoak. 1927tik goitikoak ditugu Belokeko fraidetxean bilatu. Huna aldizkari horretan begiztatu herri ipuinen zerrenda bat.

- 1927 (39-44 orr.) Martin-Ttipiren  
 “Etsai eta... ongi egile”
- 1928 (69-70) “Jondone Phetiri” (P.P.)
- 1929 (76-79) “Hiru aneak”
- 1929 (74-75) “Johane” (P.P.)
- 1929 (51-53) “Astoaren maltzurkeria”
- 1929 (34-35) “Jeiki, jeiki” (P.P.)
- 1932 (84-86) “Gaixo Pierraño”
- 1932 (67-68) “Apez arraintzalea” (Lapurtarra)
- 1932 (57-61) “Betti azkar” (D. Etchegoyen)
- 1932 (53-55) “Pierrañi Ourdaiñen Arrosarioa” (Pette Zibero)
- 1933 (27-29) “Oihal xuriarekilako gizona” (Arnaud Idiartegaray)
- 1933 (49) “Ogi azala”
- 1933 (70-72) “Jakintsun perttoli” (Yomingo)
- 1933 (73-74) “Kadeten Abornak” (Pette Zibero)
- 1933 (84-87) “Frntses Mendi-handi” (Menditarra)
- 1934 (55-56) “Aita kaputxinaren kartak”
- 1934 (138-139) “Igandea Jaunaren Eguna” (Arbelbide)
- 1935 (35-36) “Batita zeruan” (Zerbitzari)
- 1935 (39-40) “Ihiztari ixtorio bat” (Zerbitzari)
- 1935 (92-93) “Pello” (Zerbitzari)
- 1936 (30-32) “Zeruko itzulia” Pierre Harignordoquy
- 1936 (55-56) “Bi eliza xoriak” (S.C.)
- 1936 (57-58) “Jelosia gauza itsusia”
- 1936 (85-86) “Debruaren ipuina” (Th. Lartigue)
- 1936 (90-91) “Ostalu” (P. Zibero)
- 1936 (91-92) “Pinta bat” (P. Zibero)
- 1937 (39-40) “Larrat sorgina”
- 1937 (47-50) “Barkatu!... Uste nuen” (Ostopetarra)
- 1937 (49-50) “Manez ohoina” (Zerbitzari)
- 1937 (55-56) “Oskigiliaren Adixkidea” (P. Zibero)
- 1937 (109) “Karlosen bihotz ona” (Zerbitzari)
- 1938 (54-55) “Joku bat”
- 1938 (65-66) “Xoane Mitrero”
- 1938 (69-70) “Alki prestuz emanaren ordaina”
- 1939 (77-78) “Gizon hiltzaileak” (J.B.)
- 1939 (81-83) “Orobil muslaria”
- 1939 (117-118) “Zilarrezko ezkila” (Pilale)
- 1939 (120-121) “Pette Ziberotarra zelian” (Kukullero)
- 1950 (21-22) “Azken zortaraino” (X.G.)
- 1951 (13-15) “Ahate basak” (L. Leon)

- 1951 (20-21) "Alargunaren bi alabak" (X.X.)  
 1951 (25-26) "Auzi bat"  
 1951 (33-34) "Sagu baten lana" (Baxenabartarra)  
 1951 (47-48) "Kattalin eta Pello" (Nehor)  
 1952 (29-30) "Trukaria"  
 1952 (49-51) "Errekaxilo" (Pette Zibero)  
 1953 (25-27) "Joanesen begi gorriak" (L. Leon)  
 1953 (34-36) "Espos berri" (P.L.)  
 1953 (50-51) "Ezkilaren errana"  
 1953 (51-52) "Largo"  
 1954 (14-15) "Aitaxoren ixtorioak"  
 1954 (17-19) "Hiru apailuen parioa" (P.G.)  
 1954 (23-25) "Errekaziloko meza" (Nehor)  
 1954 (26-27) "Jesus Jauna eta Jondoni Petri" (P.G.)  
 1954 (39-41) "Haurkeria, sineskeria eta sorginkeria" (X.Z.)  
 1954 (42-43) "Merkena" (Zentzudoi)  
 1954 (45-47) "Merkatu ondo" (Garazi)  
 1955 (19-20) "Chintchimariak" (J.B.)  
 1955 (43-45) "Fraidearen purgatorioa"  
 1955 (46) "Titulika papaver"  
 1955 (51) "Tanta Grachi" (Kaiet)  
 1956 (15-16) "Jendetasuna" (Piarres)  
 1956 (52-54) "Ezin orroit" (Kondari xaharra)  
 1956 (59-60) "Etxexoriak" (Parabolaria)  
 1956 (61-63) "Argia ezin ufa" (Madarialde)  
 1956 (15-17) "Orobil muslaria" (L. Leon)  
 1956 (22) "Bi erbi tiro batez" (Garaztarra)  
 1956 (47-48) "Otoitzean" (F.T.)  
 1957 (59-60) "Neskato baliosa" (Rip)  
 1957 (63) "Emakoxu gizen" (J.H.)  
 1957 (64) "Pelot Hendaiarra" (Kostatarra)  
 1957 (65-66) "Ampallatzerat" (E.D.)  
 1958 (19-20) "Antonio Gezur" (Oxobi)  
 1958 (29-32) "Besta Berriz jaun Merak bazkari" (J.E.)  
 1958 (39-40) "Antonio zuhur" (Oxobi)  
 1958 (53-54) "Antoni Zokogorri eta Manex Burupelat"  
 (J. Berriondo)  
 1959 (14-15) "Donibaneke merkatian" (Manezaundi)  
 1959 (38-39) "Tresna tzar bat" (Manezaundi)  
Begiak itxi gabe ere, jarri pentsatzen eta segituan etortzen zaizkit garai hartan ikasitakoak. Esate baterako, Arestik argitaratu zen Txirritaren bertso hura: “Etxe maiorazkoa nintzen tokamentuz, baldin serbitu banu aita pulamentuz. Nere bizimodua beti dabil kantuz, despatxatuko naute, ez banabil kontuz”. Eta Indautxoko ostatu batean bertako ugazaba andreaki ikasi nion Enbeitarena: “Euskotarrak eleizen arerio jarri direla esan dabe askok eta sarri. Baina zer egin dabe eleizaren kaltez, egiari jarraitu besterikan batez”. Eta Deustuko apopilo etxe batean, lagun batek erosi berria zuen magnetofonia probatzen ari ginela, auzoko andre karamelu-saltzaileak kantatu zidan sehaska kanta hura, niretzat hain garrantzi haundikoa: “Obabatxue, Obabatxue, obabatxue beilegi, zein honek aite diruri. Ikisiko dau yantzan ondotxu, aitegana emon baledi... Joxe Manuel, Joxe Manuel —hau bere semea zen—, Joxe Manuel doien orduen, zaldi urdinan gaiñean, beste hainbeste mile gehixago, yoango dira atzean”.

Nire iritzirako, Txirrita zen gure belaunaldiko jendearen gustu eta ideietara ongienik egokitzen zen herri-poeta. Izan ere —hala pentsatzen genuen guk orduan—, Txirritak aurre egiten zien Euskal Herriak zituen bi arazo nagusiei: arazo nazionalari eta arazo sozialari, hain zuen. Nola? —ba, honoko bi bertsookin, adibidez.

Lehenengoa, arazo nazionala zuzen deklaratzeko zuena: “Kolka txararren azpian dauden txito urrikgarriak, hamarretatik bost hiltzen dira, beste bostak elbarriak. Indar gutxiko gorputzak eta suspirioak larriak; pisti gaiztoen ikaraz beti, gora begira jarriak: kastigu honen menpean bizi gera gaur euskal herriak”.

Bigarrena, arazo soziala salatzen zuena: “Itxasoan zer gertatzen den ez al dezute ikusi, sardin berria eta antxua, izurdiaren ihesi. Azpian ezin agoantatuta, kanpora irten arazi; han ere arrantzaleak pronto, bere sare eta guzi: anima salbo jende pobrea, gaur holaxe gera bizi”.

Badira hogeitun urte ikasi nituenetik, eta oraindik buruz dakizkit. Eta ez dut esaten hau nire memoria ona goratzeagatik —horregatik bakarrik ez behintzat—, baizik eta herri-literaturak gure formazioan izan zuen eraginarekin probatzen.

Guztiarekin, herri-literaturaren aldeko mugimendua hartan gelditu izan balitz, hots, garai eta egoera jakin bati lotutako fenomeno bezala, zenbait jende gazteren premia ideologiko eta sentimentalaren erantzule huts bezala, ez ziratekeen bere ondorioak oso urrutira joan izango. Lehen amodioekin gehienetan gertatzen den bezala, bere hamalauak lauean gelditu izango ziren, eta lau horiek ere literatura serioetik aparte. Azken batean, guri hain ederrak iruditzen zitzaizkigun bertso eta ipuin asko, hain ederrak ere ez ziren; eta Schillerrek baieztatzen zuen hura ere, amandre ipuinen egiarena, nahiko dudakoa zen, zeren Pascalek zioen bezala —eta ondo zioela dirudi—, egia esfera bat da, eta bere zentroa ez dago inon; eta are eta duda gehiagokoa zen, oraindik, bai garai hartako eta bai oraingo askoren buruan kabia egindako ideia bat: euskal arimarena, alegia; herri-literaturak gure herriaren arima edo esentzia adierazten zuelakoa. Izan ere, Euskal Herriak —Pascalen esferak bezala—, ez du zentrorik, hemen ere, beste lekuetan bezala, zenbat buru, hainbat izpiritu. Gainera, literatura edo artearen arloan esan daiteke hau gurea da, baina sekula ez hau gurea bakarrik da. Programan ikusten dudanez, Martin Etxeberririk hitzaldi bat emana du: garbi geratuko zen, beraz, ipuin harrigarrien unibertsaltasuna. Nire aldetik —ideia hau ahalik eta gehiena azpimarratu beharra dagoelakoan— *Trésor de la poésie populaire* bildumatik hartutako esenplu bat aipatuko dut pasaeran, honoko randonné hau: “Mon merle a perdu son bec - Comment pourra-t-il chanter? - Mon merle - Comment pourra-t-il chanter? - Mon merle a perdu sa langue, sa langue, son bec - Comment pourra-t-il chanter? Mon merle, Comment pourra-t-il chanter?...” eta abar eta abar. Bistakoa denez, euskaldunon *Xoxoak galdu du mokoa* delakoaren bikia da kanta frantziar hau. Eta bide batez esanda: zergatik ibili bereizgarrien bila daukagun hizkuntza edukita? Ez ote da ba, nahikoa hizkuntzarekin?

Beraz, eta arestian arrazoinatutakoa laburtuz, herri-literaturaren aldeko mugimenduan teoria kaxkar asko zebilen gure belaunaldikoen forma-

zio garai hartan, eta horrek etorkizun ahula auguratzen zion. Baina —eta hau da baibainakaren bainarik garrantzitsuena—, uztarpen edo batuketa bitxien garaia ere ba zen hura, eta herri-literatura abangoardiako teoria eta praktikekin uztartu zen. Begiak hirugarren aldiz itxi eta oroimenak Bilboko Santiago Apostol ikastetxera eramaten nau, eta neure burua eszenario bati begira ikusten dut, eta eszenarioan Laboa, Hartzabal, Lertxundi, Irigaray, Lete eta beste batzuk ingurutxo bat dantzatzen ari dira mikrofonoz beteta dagoen taulatuan. Norbaitek esaten dit jende hura *Ez dok amairu* taldea dela, eta daukaten izen arrazoa Oteiza eskultoreak jarritakoa dela, Azkuek bildutako erdi kanta batetik hartutako izena, hain zuzen ere, eta kartela Zumetak egin diela...

Etz naiz luzatuko jende guztiarentzat bistakoak diren xehetasunak aletzen, are eta gutxiago protagonistek lehengoan dirautelarik, Laboa gernikak eta bentaranoak nahasten ari dela, eta Hartzabal bere errizitalekin, Oteiza bere proiektuekin, Lete poemekin, Zumeta behin ere baino gogorrago; zerbait gaineratzekotan, joera hark zuen zabaltasuna gaineratuko nuke. Zeren hala baitzen, oso joera zabaldua. Txillidak ere bere iturrietako bat herri-errementaritzaz zela aitortzen zuen, eta euskaraz bataiatzen zituen bere obra batzuk. Ruiz Balerdi Andoaingo eskoletara joaten zen umeei pintatzen erakustera, eta euskararen soinua euskaldunek baino hobeto imitatzen zuen, eta hori euskararik jakin gabe. Bilbao aldean, Gabriel Arestik *Gabonetako ikuskizunaren* modernotasuna probatzen zuen Bertold Brechten teoriekin; guk geuk ere, gazteagoak, Azkuek Tristan Tzarara, eta Tristan Tzaratik Azkuera ibiltzen ginen konposturirik galdu gabe... berriro ezdakidaka hasiz, ez dakit, agian joera hura beste joera zabalago baten ondorioa besterik ez zen, iraultza eta euskaltasuna politikoki lotu nahi zituenarena. Edozein modutara, zeinnahi arrazoiengatik gertatu zela ere, abangoardiarekin nahasteak eman zion bizitza herri-literaturari, beharrezkoa bihurtu zuen, esannahi berriak hartzeko gai bihurtu zuen.

Altxa ditzadan orain gure hurbileko kontuetan jarrita edukitako begiak, eta eman diezaiodan begiratu bat, hitzaldi honi azken puntua jarri baino lehen, literaturaren ibai bizkor, zabal eta arriskutsuari: jadanik izkutatu dira erretenak, eta korronteak dagokien moduan dihoaz, elkarrekin nahasturik, bere konplexitate trinkoan.

Denbora apur bat uraren joanari begira, eta zera etortzen zait burura: liburu bakoitza kasu bat dela, autore serio bakoitza ere bai, eta orain arte adierazi ditudan jeneraltasunak, nahiz ondo oinarrituak egon, ezin dutela berez kasu horietako bakar bat esplikatatu. Izan ere, idazle serio guztiak xistima bat osatuz joaten dira —bere sentsibilitate, talentu eta esperientziaren arabera—, eta xistima horrek, denborarekin, begi bat ematen die, eta begi horrek ikusi egiten du... Zer ikusten duen? Ba, zerbait: zerako zeraren zera, Toribio Alzagaren estiloan esateko.



Herri-literaturaz ari garela, eta hizlaria neu naizela *Pello Errotaren bizitza* liburuan ikusitako zenbait gauza esan beharko nituzke. Hiltzera doan neska gazteak “ardoa eranda moskortzen naiz” kantatzen duen pasartearen dramatikotasuna, esate baterako. Edo hil ondorenean “barruan daraman sugea ateratzeko” eskatzen duen gizonaren kasua, niretzat hain esanguratsua. Baina neure idazle xistimaz hitzegiteko, hitzaldiaren hasieran egon beharko genuke, eta ez bukaeran. Izan ere, hitzaldi bukaeran gaude, edo, zehatzago, hitzaldi hau bukatu egin da.



## JARDUNALDION AZKEN ONDORIOAK

1. Herri-literaturako adar garrantzitsua, eta agian gaur, ez ikerketan eta ez herri-erabileran, behar adinbateko oihartzunik ez duena, harrotu nahi genuen. Eta egunotako ekarria ikusirik, emaitza oparoak jaso ditugu, ertzak eta ikuspegi zabalak eman zaizkigu, ideia eraginkorrek geureganatu ditugu. Oso baikorra izan da jaso dugun ondarea.

2. Hemen hasitako langintzak jarraipen bat behar du. Ikertzaileek jarraituko dute berean, eta behar bada, taldeak elkarlanean egindako ikerketa legoke jarraitu beharra.

3. Herri-literaturako batzordea dugu horrelako zereginean ari dena, eta talde honek azterketa egin beharra dauka jardunaldi hauei buruz, egunotako lana balioztatzeko, eta gerora begira etor litezkeen lanak bate-ratzeko. Eta hau bi alorretan:

3.1. Normalizazioan: gaiak mugatu beharra dago, eta hiztegia finkatu beharra.

3.2. Ikerketan: ekintza hau aurrera eramatearen beharra ikusi da. Garbiago daukagu zer egin behar dugun. Ibiltzen hasteko, elkarlanean hasi ere, bidea badugu.

4. Jardunaldioi esker, iadanik zehatzago badakigu gaiak merezi duela, eta beraz, pozik lotuko gatzazkio eginkizun honi.

5. Lan hauek aurreratzen goazen eran, euskaldunok orain garbiago dakigu, geure herri-narratibatik izango dugula zer eskaini beste herrialde-tan lan beretan ari diren ikertzaileei.

6. Hauek dira ekitaldiok bukatzeko une honetan ikusten ditugun alderdiak. Eta besterik gabe, jardunaldiok bukatutzat ematen ditugu.

*Donostian, 1992ko martxoaren 27a.*



**BATZAR-TXOSTENAK**



## FR. MIGELEK DARABILTZAN ZENBAIT HITZEZ

*Donostia, 1991-VI-28*

*Frantzisko Ondarra*

Fr. Migelen 19 testu ezagutzen ditugu, 1778. eta 1792. urteen bitartean idatziak izan zirenak. Horietako zaharrena Aita Villasanteren omenaldi libururako prestatzen ari ginela, irakurri genituen berriz ere testu guztiak. Eta txosten bat paratu behar genuela ta, hautatu genituen horietan aurkitzen genituen zenbait hitz, euskal lexikorako jakingarri gerta litezkeela uste genituenak. Hautaketa egitean, puntu hauek izan genituen kontutan: 1. Larramendirekin zer ikustekorik bazuten; 2. Aldaera edo adiera berriren bat eskaintzen ote zuten; 3. Antzinasuna; 4. Etab. Alfabetoz antolaturik ematen ditugu.

Baina, nor da Fr. Migel (de S. Francisco)? Munitibarren jaio zen karmeldar fraide bat: Munitibarren 1745. urtean jaio eta Corellan 1765.ean fraide bilakatu. Markinan ageri da 1778. urtean eta bertan bizi eta egiten du lan 1808. arte, data horretan komentutik jaurtikia izan zela. Mendatan hil zen, baina ez dakigu zein urtetan: bakarrik dakiguna da 1815.ean ez zegoela bizien artean. Beraren berri labur bat eman genuen gure Sarrera hitzaldian (Ik. *Euskera*, XXVI (1981-2), 635. or).

### ZENBAIT HITZ

**ainzat.** Otxoa de Arinek erabiltzen du, baina XVIII. mendeko beste idazleetan ez omen da ageri hitz hau (*Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v.). Behin aurkitu dugu gure testuetan, eta 'halakotzat' esan nahi du:

- (1) Motibo onececaiti esatendeuscu San Pablo Apostolubac; Jesu Christoren Pasiñoē, ta eriyotza Prediquetia zala Judegubenzat escandaluba, eta Gentilenzat disparatia; *ainzat* arceebelaco: *Judaeis quidem scandalum; gentibus autem stultitiam* (4. testua, 2. orrialdea, 1. paragrafoa, 1787. urtea).

- andiki.** Sarasolak *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, s.v. Larramendiren hiztegiara bidaltzen gaitu. Fr. Migelek badaki erabiltzen *andiki* eta *andikidi*:
- (2) baso sagraduoneetan edateeben Erreguiac, *andiquiac*, eta *emacumiac* (1,4,1, 1778).
  - (3) Principe, edo *Andiquidi* Poderosobaten (12,5, 1788).
- antxina.** Sarasolak Larramendiren hiztegiara eramaten gaitu, *antxina* hitzaz ari dela. Aurkitu dugu hemen, *antxina* bezala:
- (4) *anchinaco* Filosofoen ustian (2,1,2, 1781).
- atzerabide.** Sarasolak 1803. urtean kokatzen du hitz honen lehen agerraldia. Hemen 1801.ean ageri da:
- (5) vsoaren egoacaz leguez Jangoicoagana ega eguitemo difficultade bagaric, edo *atzerabide* bagaric (6,2,2, 1801).
- duin.** Sarasolak 1802.ean kokatzen du lehen agerraldia. 1788.ean ageri da hemen:
- (6) O Ama guztiz gozoa erregutueiguizu (sic) gugaiti izangaitian *duin* Jesuchristoren aguin sariyen (11,4,3 1788).
- egipide.** Azkue, Dicionario Retana etabarrek diotenez, ‘obligación’ esan nahi du hitz honek, besteak beste. Fr. Migelek ‘egite, egintza’ adierazteko erabiltzen du, behin ‘egiteko’, gazt, ‘empleo, función’ esan nahi duelarik. Adibidez:
- (7) (Trinidadeco bigarren persona) aric etorricodala mundubaren amaiyan viciyac, eta illac juzgуетara, emoteco bacochari sariya, edo castiguba, celan dirian bacocharen obra, edo *eguidiac* (6,1,1, 1801).
  - (8) Filosofo gentil(ac)... dacuscuz cizpuru, ta negarrez egònciriala..., icusiyagaz bacarric, pecatariyen *eguide* deunga, eta errazoién contracoac, eta consideraciño bagaric eguitencitueenac (19,1,1, 1792).
  - (9) celan gorpuzeco parte guztiiyac lagundutendeutsen alcarri vici-tza, eta izaiete naturala emoteco, bacochar bere empleo edo *eguidia* daucala; alan... (begi, belarri, oin eta eskuez ari da) (8,1,1, 1787).
- eraitu.** ‘Eragin’ —berak *erain* idazten du— edo ‘erazi’ esan nahi du. Baina uste dugu okerra dela, eta *eraiteco* idatzi nahi zuela, horren partez *eraitu eraiteco* jarri duelarik. Hurrengo orrialdean “sinistu *eraiteco*” dio (4,3,1).
- (11) Jangoico ta guizon eguiyazco onec padecidu eta crucebaten ilzala sinistueraitu eraiteco (4,2,1, 1787).



**erautsi.** Aditz hau ematen du Euskaltzaindiak (*Euskal Gramatika, Lehen Urratsak-II*, 224. or.) *diraustazu*, *dirautsut*, *dirauskue*, *zirautsela*, eta horien antzeko adizkien partizipioztat. Esanahia, berriz, ez du ematen, baina jartzen dituen adibideetatik ikusten da ‘esan’ dela. Pedro Pujanak ere (*Euskal-aditza (Bizkaiera)*, 126) *erautsi* eta ‘esan’ ematen dizkigu. Baina *Bizkaieraren Idatzizko Arauak, Deklinabidea eta Aditza* deritzan liburuan *irausti* ‘replicar, reponer’ irakurtzen dugu (121. or.). Azkuek bere *Morfología Vasca-n* (706-707) *\*irausti* ‘hablar a alguien’ (eta ez omen dauka “infinitivo”rik) proposatzen du, horrela zuzentzen edo aldatzen duela hiztegian ipini zuena: *erautsi* ‘insistir, hablar, ocuparse’ (*Diccionario Vasco-Español-Francés*, I, s. v.) eta *irauntsi* ‘hablar’ (*Ib.*, s. v.). *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca-n* ere biak ematen dira: *erautsi* ‘hablar, insistir, ocuparse’ eta *irauntsi* ‘hablar’, eta *irausti* hitzaren laugarren adieran erasten da *irauntsi-aren* aldaera dela; beraz, *erautsi*, *irauntsi* eta *irausti*.

Guzti hori irakurri ondoren eta gure testuek dakartena ikusirik eta iritzi horiekin erkaturik, bi arazo sortzen zaizkigu eta bi galdera egiten ditugu: 1. zein da gure testuen arabera *diraustazu* eta horren antzeko adizkien esangura? eta 2. zein da adizki horien partizipioa?

1. Euskaltzaindiak eta Pujanak *erautsi* ‘esan’ dela diote, *Bizkaieraren Idatzizko Arauak* liburuaen egileek *irausti* ‘replicar, reponer’ dela dirauskue, eta Azkue ta *Diccionario Retana-k* diotenez *irausti* eta *irauntsi* ‘hitz egin’ dira, *erautsi* berriz ‘insistir, hablar, ocuparse’. Fr. Migelek aditz honen sei adizki erabiltzen ditu, gehienak sarri agertzen direla, eta beti ‘esan’ adierazten dute, gure ustez. Hona hemen zenbait adibide:

- (12) Jesuchristo ilzala bacarric salvau, eta ceruco gloriya logretandaveenacaiti; Doctrina deunguia da, eta gure Salvadore onaren injuriya andicoa: S[a]n Pablo Apostolubac *dirauscu* guztiyocaiti ilzala (4,4,2, 1787).
- (13) Ain birrecua da fedeco articulu onen ezaueria, ce S[a]n Pablo Apostolubac *dirautse* Corintiotarrai: Sinisqueraric ezpadago... (9,1,1, 1787).

Azkue eta *Diccionario Retana-k* auzi honetan *irauntsi* plazaratzeko, *Peru Abarca* aipatzen dute. Liburu hori zabaltzen badugu, ikusiko dugu *irauntsi* ‘asestar de palabra’, *dirauntsat* ‘asesto de (palabra)’ eta *nirauntzan* (sic -tz-) ‘yo asestaba de (palabra)’ (38,1). Azkuek eta biak goiko *dirauntsat* honela itzultzen dute: ‘se lo digo, le hablo’. Ikusten denez, *Peru Abarkan* NOR-NORK zena NOR-NORI-NORK bilakatu da: ‘asestar de palabra’, berriz, ‘decir’. Mogelek dakarren erdal itzulpen horri buruz Real Academia Española-k argitaratu zuen *Diccionario de Autoridades-en* hau leitzen dugu:

- (14) “Assestar. Metaphoricamente *enderezar* (guk azpimarratua) contra uno y en su daño, de obra, ú de *palabra* (guk azpim.), lo

que discurrere, intenta y previéne, la enemistád, ò la dañada intencion: en fuerza de lo qual se dice, Todos los tiros de la envidia se assestaron contra Fulano. Lat. Alicui perniciem machinari. In aliquem machinas dirigere” (Ik. s.v.).

Beraz, beharbada esan liteke Mogelen *irauntsi* ‘asestar de palabra’ *erauntsi* aditzaren aldaera bat izan litekeela, honek, ‘jo’, gazt. ‘golpear’ esan nahi duelarik, besteak beste.

Bestalde, *irauntsi* izen bezala ere ageri da, eta Azkuek dioenez, ‘discurso, conversación’ esan gura du. Adibidea, berriz ere, *Peru Abarkatik* hartzen du, Mogelek Salustioren *De coniuratione Catilinae*-tik itzultitako pasarte honela ematen duela gaztelaniaz Azkuek: “con todos los discursos, conversaciones y reconvenções”. Salustiok idatzi zuena hau da:

- (15) “Compertum ego habeo, milites, uerba uirtutem non addere, neque ex ignauo strenuum, neque fortem ex timido exercitum oratione imperatorios fieri” (*De Coniuratione Catilinae*, LVIII).

Pasarte hori honela itzultzen du erdarara 1804. urteko liburu batek (D. Gabriel, *Obras de Cayo Salustio Crispo*. Madrid, 1804):

- (16) “Sé bien, ó soldados, que las palabras á nadie infuden valor; y que ningun ejército se hizo esforzado de cobarde, ni de tímido animoso por las *arengas* de los Generales” (178-179).

Frantsesez dagoen 1964. urteko itzulpen batek (Alfred Ernout. *Saluste. Catilina, Jugurta, Fragments des Histoires*. Texte établi eta traduit par ... Paris, 1964) honela dio:

- (17) “Je sais bien, soldats, que les paroles ne donnent pas de courage, et que le *discours* du général ne suffit pas à faire une bonne armée d’une mauuaise, ni à transformer les lâches en braves” (119).

Mogelek ez du pasarte hori hitzez-hitz bihurtu, honela bait dio:

- (18) “Ezagaturic daucat neure soldadubac, ez diriala verba soil ta utsacaz azcortu ta vizcortuten guizonen biotz jausitu ta macaldubac. Soldauteguija nagui, buruguiñ ta lepozalia bada, *irauntsi*, *jardun ta equin* guztiacaz leena gueratuco da, ta iguituco ez da ecertara” (*Peru Abarka*, 203-204).

Bukatzeko, Salustioren pasarte horretan ez dago oinarririk *irauntsi* hitzak ‘conversación’ esan nahi duela baieztatzeko, bai ordea ‘discurso, arenga’ (1).

---

(1) J. A. Mogelen *Cristaubaren Icasbidea*-n, Villasantek prestatuan, “milla *irauntsi*, ta siñugaz” leitzen da eta paratzaileak ‘discurso, conversación’ itzuli du *irauntsi* (*Vocabulario*, s.v.). Baina *siñu* ‘mueca, burla’ baldin bada (*Vocabulario*, s.v.), eta benetan hola da, *irauntsi* ere antzekoren bat da esapide horretan, eta ez ‘discurso, conversación’.

2. Adizki horien partizipioa gure autorean ez da *erautsi*, *irautsi* edo *irauntsi*. Gero esaten dugu zein edo nola den, 13. testuan aurkitzen den esaldi baten arabera. Besterik gabe, aldatzen dugu esaldi hori:

- (19) Gordebiardeutsee criyau, criyadac fidelidadia euren vgzabai gauza guztijetan; gorde, eta gueitutendavela echecho ondasuna eureena propijoa baliz leguez veguiratutendutseela: euquibiar-dave fidelidadia miñian; verba guichi, eta biardanian bacarric eguitendavela; dalaco erremedyobat pecatu ascotaric aparteta-co: *Qui odit loquacitatem extinguit malitiam: diño* Espiritu Santubac; eta beste lecubaten *dirau*; verba asco eguitendan lecuban faltaco ezuala pecatuba: *In multiloquio peccatum non deerit* (13,2,4, 1789).

Ez dugu dudarik egiten testu horretan *diño* eta *dirau* esanahi-kideak edo sinonimoak direla, eta *dirau* adizkiak ez duela esan nahi 'jarraitzen du' edo holakoren bat, ez bait du jarraitzen edo erasten Espiritu Santuak, bigarren lekuan aipatzen den liburua, hots, *Liber Proverbiorum*, bestea, *Liber Ecclesiastici*, baino lehenago dagoelarik *Biblian*. Beste bi aldiz aurkitu dugu *beste leku baten* esapidea, eta hemen ipintzen ditugu biak:

- (20) Espiritu Santubac...: Jeremias Profeta Santubaren aoti dirauscu: Ventanabazuc diriala veguiyac, ceinzubetati sartu oidan arimara eriyotzia: *ascendit mors per fenestras: beste lecubatem*: ez eguizu veguiratu emacumien edertasunera...: *ne respicias mulieris speciem*" (16,1,2, 1789).
- (21) Au da viciyen lurra, David Erregue Santubac adietan emotendeuscuna; ceñetan (*diño*) Jaunaren ondasunac icustia sinistutendavela: *Credo videre bona Domini in terra viventium: beste lecubaten diño*: zu zara neure esperanza guztiya...: *tu es spes-mea...*" (18,4, 2, 1792).

Bi adibide hauetako lehenengoan, beraren bigarren zatian, ez dago adizkirik, lehenbizikoan *dirauscu* ipintzen duela. Aipatzen diren liburuak *Prophetia Jeremiae* eta *Liber Ecclesiastici* dira, bigarren lekuan aitatzen den liburua, hemen ere, goiago dagoela *Biblian* bestea baino. Bigarren adibidea *Liber Psalmorum* izenekotik dago hartua, lehenengo aipamena 26. salmuari dagokiola, eta bestea 141.ari, bertan lehenbiziko zatiko adizkia eta bigarrenekoa *diño* dela.

Zergatik darabil *dirau* predikariak lehen aipatu dugun pasartean? Gure ustez, *diño* ez errepikatzeagatik, ez ipintzeagatik bi aldiz bata bestetik hain hurbil: estilo arazo eta borondatea. Badaki horrelakorik egiten, eta, hain zuzen *uerba dicendi* direlakoetan hori gertatzea ez da gauza arraroa. Hona zenbait adibide:

- (22) elduzan Centurio soldaduba aren Divina Magestadiagàna erre-gutu, eta *esateutsala* gaurco Evengeliyoac *dirauscum* leguez (3,1,2-3,2,1. lerroa, 1786).
- (23) Escritura Sagradubac *dei eguitendeutso* Espiritu Santubari Izen ascogaz: *Deitutendeutso Paraclito... Deitutendeutso Iturri vici... Esatendeutso Espiritu zuzen... Dei eguitenyaco*; Pobre guztien Aita (6,4,2, 1801).
- (24) San Juan Damasceno gloriosoac, eta Santo Thomas neure Maesubac *esatendeuscube*, oraciñoia dala gueure entendimintuba Jangoicoa gana jasotia...: Aita San Basilio, San Gregorio, eta Santa Theresa neure Amac *diñue...*: Aita San Agustin gloriosoac *diño...*: Azquenic santu guztiyac *datoz esatera...* (10,1,2, 1787).

Badago bestelako hitz alternantziarik, esaterako *gura* ta *nahi*, *eroan* ta *ohi* pareekin.

Ondorio bezala, esan dezagun *diraustazu* eta antzekoen partizipioa, pasarte horren arabera eta bertan oinarriturik, *\*iraun* dela. Ezaguna da aditz hau beste esanahi batekin: egoera berean jarraitu, egoera jakin bati eutsi. *Hauta-Lanerako* hiztegitik hartu dugu azalpen hori, eta Sarasola berak bertan dirauskunez, laguntzailerik gabe ere jokutzen da, “hirugarren pertsonako nork-dunak izan ezik, gutxi erabiltzen” direla besteak. Ezaguna da baita ere, multzo txiki bat osatzen duten beste zenbait aditzekin, NOR-NORK egitura jarraitzen duela (Ik. EGLU-II, 340-343; P. Lafitte. *Grammaire Basque*, 411. z.).

Baina, eta hemen dugu goian esan dena baieztatzeko ikusten dugun bigarren oinarria, NOR-NORI-NORK darabil behin Juan Antonio Mogelek. Eta, hain zuzen, lehen plazaratu dugun *diraustazu* eta abarren senidea ta aurridea da aurpegiz: *dirautsa(n)* ‘irauten dio’ da adizki hori. Irakur dezagun Mogelen testua:

- (25) Adigarri bat. Euscaldun guzti guztiac..., dauquee Aita Palaciosen enzutia. Gure zori chaarrez, zaartu da gaisua; jausi jaco z gorputzeco indarrac, ta bacarric dauca zoli zolija, Jangoicuac emon eutsan min garbi ta verba eder asco atera dituzana. Uste dot, orain dino icusico dabeela, ez oñez, ez zaldiz ibili danian, guizonen batzuben besuetan daruela Eleissara San Juan Evangelistia erauten ebeen leguez, arnasiac *dirautsan* artian iracasteco Ceruco vidia. (*Confesino Ona*, 1803, 293).

Adizki hori bera, hots, *dirautsa*, aurkitzen dugu Mogelen *Peru Abarakan* behin baino gehiagotan, ‘esaten dio, diotso’ adierazteko:

- (26) Sagu bi celai baten / Egozan gauzac esaten; / Bata zan basocua, / Bestia ehecua. / *Dirautsa* ác oni; / Gurozu neugaz etorri? (96,4. parag.).

- (27) *igura dozu, Democles, dirautsa* Erreguec, onembeste atseguin emoten badeutsu nere vicitza dontsubac, icusi ceure buruban, nasan edo ez benetan zorijonecua? (215.3. paragr.).

Autore berberak aditz-joko berbera darabil, liburu batean —*Peru Abarka*— ‘esaten dio, diotso’ adierazteko, eta beste batean —*Confesino Ona*— ‘irauten dio’ adierazteko. Bigarrenaren partizipioa *iraun* dela ez du inork zalantzan ipiniko. Bada lehenbizikoarena ere, Fr. Migelen testuan irakurtzen den *dirau* ‘dio, esaten du’ adizkia kontutan hartzen dugula, *iraun* dela esan daitekeela uste dugu. Baina ez Mogelek bakarrik, Pedro de Astarloak ere erabiltzen du *dirautza* ‘irauten dio’ adierazteko; eta *dirautze* ‘irauten die’:

- (28) pagadu beguit bacotzac deuztan zor gustija lau, bost, edo sei urte barru, au da, vicitziac *dirautzan* artian (*Urteco Domeca Gustijetaraco Verbaldi Icasbidecuac*, I, 225, 15. lerroa).
- (29) ain sendo batu, eta lotuten dituz Sacramentu onec senar emastiac, ce ecin inundic bere urratu, ez soltadu leiteque locarri au, vicitziac *dirautzen* artian, edo bata, edo bestia il artian (*Ib.*, I, 246, 1. paragr., 17. lerroa).

Bukatzeko, baldin *deutsa/deutso* eta bere senideek \*EDUN badute errotzat, baldin *dio* eta bere aurrideek \*IO —Azkuek bere *Morfologia Vasca*-n (707, 2. paragr.) \*ION aurkezten du— badute oinarritzat, zergatik *dirautsa* ‘esaten dio, diotso’ eta bereek ezin dute izan IRAUN beren partizipiotzat jatorriz edo analogiaz?

**erbestetu.** Sarasolak Larramendiren hiztegiara bidaltzen gaitu. *Desterradu* hitzaren sinonimo bezala ageri da hemen:

- (30) Evaren Hume desterraduboc, edo *erbestetuboc* (11,3,1, 1788).

**erexi/eritxi.** Behin ageri da *eresten*, beste guztietan *derichat*, *erichan* etab.:

- (31) neque andizat dauco seme, eta alaba deungaro azijac, bere guraso, eta nagosijagoari eranzunbagaric egotia: gatch *eresten*-deutso paciencyaric eztaucanari, deungaro eguitendeutsanari parcatutia (17,2,1, 1789).
- (32) edozein diligencia *derichat* izango dala laburra aurquituteco ain gauza pare gavecoa (1,1,2, 1778).

**eroan/joan/ohi.** Ohizkotasuna adierazteko *ohi* erabiltzen du gehien-gehienetan, bost bat aldiz aurkitu dugularik *eroan* eta bi aldiz *joan*.

- (33) Lelengo veguiratutebat(ec)... ez *oidau* eguin calteric (16,3, 1789).
- (34) guizon gazte, eta emacume libertade larreguicoac... *esandaroez* barre eraitearren lagunai onelaco verba nasaiyac (15,2, 1789).
- (35) enzuten dagoz lagunac gustoz, eta aoti ura dariyoela (*esandoiyan* leguez) (15,4, 2, 1789).

**eskubide.** Gure testuetan beti (2) ‘ahalmen, potestas’ esan nahi du, eta ez ‘dretxo, ius’. Aizkibelek bere hiztegian (*Diccionario Basco-Español*, 1186 or.) dakarrena, Astarloan oinarritzen dela (*Urteco*, I, 121), oso ongi dagokio Fr. Migelen *eskubide* hitzari, honela bait dio: “facultad, poder, potencia o virtud para hacer alguna cosa”. Orain ipintzen ditugu karmeldarraren zenbait pasarte:

- (36) Jangoicoac bere *escubide* neurribagacoagaz mirari andibat eguittebala... jazozan au (4,2,2, 1787).
- (37) Elessiac daucala potestade, edo *escubidia* Jesuchristo gure Redentoriar emonic parcatuteco pecatubac (8,3,1, 1787).
- (38) Celebretanditubenac... conversaciño deshonesto deungaac, especialmente... galarazoteco *escubidia* dauqueenac, eguitendave pecatu mortala (15,4,1, 1789).

**goimen.** Ez dugu aurkitu hiztegiatan, eta bere esanahia ‘triumfo’ da.

- (39) Alexandro Macedonio Emperadore andiya(c)... icusieban vertan cein ondo esplicauric largacituban guizon onen excelencia, victoria, triunfo, edo *goymenac* Homero erichan Predicadore andiyac (2,1,1, 1781).

---

(2) *Eskubide* hitza asko erabiltzen da gaur egun ‘deretxo’, lat. ‘ius’ adierazteko. Baina, uste dugunez, ‘ahalmen’, lat. ‘potestas’ adierazteko erabiltzen zen ia beti bizkaierazko testuetan behinik behin 18. mendeko amaieran eta 19.aren hasieran. Guk ezagutzen ditugun J.A. Mogelen bi ez beste pasarte guztietan nahikoa da ‘potestas’ bihurtzea eta ez dago ‘ius’ itzuli beharrik. Esaterako, Angel Zelaietak (*ASJU*, 1978-79, 135) ematen digu ‘derecho, facultad’ eta bidaltzen gaitu *Peru Abarkara*, 107: orrialde horretan bi aldiz ageri da *eskubide* eta nahikoa da ‘potestas’ itzultzea. *Peru Abarkan* bertan, latinezko testuak euskararitzen direla, aurkezten da berriz ere behin da berrito. Tacitus-en testua bihurtzen delarik eta 108. orrialdean *escuvide* idazten da, latinez ‘auctoritas’ dagoelarik eta frantseseko itzulpen batek (lehen aipatu duguna, hots, A. Ernout, *Saluste...*, 33) ‘autorité’ dioelarik. Cicero-ren pasarteetan eta 213. orrialdean ‘*escuvide* andi bagaric’ irakurtzen da, latinez ‘privatus’ dagoelarik eta frantseseko itzulpenak ‘simple particulier’ dioelarik. Titus Livius-en esaldian eta 217. orrialdean “muga, *eskubide* ta leguic” ipintzen da, latinez guzti horrendako ‘iura’ dagoelarik eta frantsesez ‘droit’. Mogel beraren *Confesino Ona*-n eta 18 or.an (1897.urteko agerpenean) *eskubidea* ‘potestas’ dago, eta 56-58. or.etan bost aldiz ageri da *eskubidea* ‘ius’, baina behin bakarrik balitz bezala, denek gauza bera ukitzen baitute. Villasantek paratutako egile beraren *Cristaubaren Icasbidea*-n eta 66.atalean (*Vocabulario*, s.v.) nahikoa litzateke ‘potestas’ itzultzea. Añibarroren *Escu-Librua*-n (121,1 eta 125,8 orrialde eta paragrafoetan) *escu-bidea* eta *escu-vide* leitzen dira eta biak ‘potestas’ dira. Diccionario Retana-n esaten da *eskubide* ‘derecho, poder, facultad’ dela, baina bertan aipatzen den Astarloaren pasarteetan ez da ‘derecho’, bai ordea ‘poder, facultad’, lat. ‘potestas’, Aizkibelek bihurtu duen bezala, pasarte bera hartu duela oinarritzat. Bermeon 1822. urtean predikatutako sermoi batean, Alfonso Irigoienek argitaratutakoan (*Euskera* (1960), 354. or.) “*eskubide* edo poderiyo andijagaz” dugu, beraz ‘potestas’. Gaur egun ere ez dago ahaztua ‘potestas’ adierarekin, eta hor dugu adibide bat Liturgi Euskaratzaile Taldea-ren *Itun Berria*-n: “bekatuak barkatzeko *eskubidea*” (Lucae, 5,24).

**gura/nahi.** Erruz ageri dira biak, baina *gura* sarriago *nahi* baino. Esaldi batean biak azaltzea gerta daitekeen gauza da, estilo arazoa, eta hitza ez errepikatzeagatik.

- (40) daucazuzan falta, edo imperfección biyetic, cein *naidozu* quendudaizudan, gorputzecoa, ala arimacoa? Cein *guradozu*, gorputza osatu, ala entendimentuba arguitu? (11,1,1, 1788).
- (41) Adanen Seme, Alabaac mudetandirian leguez egunian egunian,... egunbaten *naieztavena*, urrengoan *guradau* (4,4,1, 1787).

**itxi/larga/zarratu.** 'Utzi' adierazteko *itxi* erabili ohi du, behin bakarrik aurkitu dugularik *larga* 'utzi'. Behin *itxi* 'hertsi, hetsi' esan nahi du, *zarratu* bakanen bat ere ageri dela horretarako. Bestalde, *zarratuk* bi bat aldiz 'eduki', lat. 'contineo', gazt. 'encerrar' esan gura du.

- (42) ordibatec nequez *ichicodeutso edate larreguijari* (17,2,1, 1789).
- (43) icusieban cein ondo esplicauric *largacituban* guizon onen (Alexandro Mazedonio Enperadorearen)... triunfo, edo goymenac Homero erichan Predicadore andiyac (2,1,1, 1781).
- (44) *zarraturic*, edo veguiyac ichiric ezin ibiliguinaitez (16,1,2, 1789).
- (45) amar mandamentu santu oneec (esatendogu) *zarratutendiriala*, edo aurquietendiriala mandamentu bitan (17,1,1, 1789).

**izaite.** Izen bezala 'Izaite' erabiltzen du eta 'izaera', lat. 'natura' adierazten du, 'existencia' ere adieraz dezakeelarik, gure ustez.

- (46) ezlizatequez (Demoniñoez ari da) viurtuco Jangoicoagana euren naturaleza, edo *izaitia* mudaubagaric (4,4,1, 1787).
- (47) Dalaco (eguzkiaz ari da) arguibat bere lelengo instanteric eta *izaiteric* inos iluntasunic euqui eztavena (2,2,2, 1781).

**jaiakera.** Bere esanahia 'jaiotza' da eta Nikolas de Zubiak ere baradabil (ASJU, XVII (1983), 150,1. paragr.).

- (48) Maria Santissima Ama maite ori, izanzala Doncella, ta Virginia garbiya, resplandore, eta graciayaz betia jaiyo baño leen Seme eguiyazcoa, *jaiyaqueran*, jaiyo ezquero, ta beti Virginia dala (4,1,1, 1787).

**luzabide.** Azkuek Astarloaren *Urteco*-tik hartu du, eta 'demora, dilación' dela dio. Gure testuetan 'continuación, prolongación, prosecución' edo holakoren bat.

- (49) Eguitendave pecatu mortala araco personaac, ceinzuc verba loiyac, edo conversación deshonestoac enzuten egonic, emotendeutsen *luzabidia* euren itaune, eta eranzutiaquin jarraitu-deiyon bere conversación deunguiari, eta esandaizan beste verba deunga gueiyago (15,4,1, 1789).

**milliño.** ‘Milioi’-ren aldaera da.

- (50) O eta celaco graciaaac... emonbiardeutsagun Jangoicoari, guri eguindeuscun mesede andi miragarriyagaiti...: Aimbeste milla *milliño* arima ixtenditubala... bere Eletxara ecarribagaric (7,4,3, 1801).

**ogipee.** ‘Eskupe, morrontza’ esan gura du.

- (51) Ugazabaac, eta gurasoac examinauco dave, nola iracatsideu-  
tsen euren *oguipean* (sic *-ie-*) dagozanai (1,2,2, 1778).

**patari.** ‘Abere, animalia’ hitzen esanahi-kide izan daiteke, gramatika estu-estu hartzen bada; bestela, ‘basapiztia’ edo.

- (52) Aurquietandira animaliya, edo *Pataribazuc* gogorrac, crubelac beti mendi, ta Basuetan vici, ta davilzanac...: Leo, Tygre, Otso, ta beste onelacoac; beste bazuc dagoz chiquitaric echian azi, erraz escura ecandutendirianac...: dirian leguez Chacurrac, Idiyac, Beyyac (sic *-yy-*), eta beste onelacoac (18,2,1, 1792).
- (53) Baña celan izanleiteque au (Adanen seme-alaben viztutzeaz ari da); valdin gorpuz bazuc *Patariyac*, beste bazuc arrainac, eta arrac janbaditubez...? (9,1,2, 1787).

**pixtiya.** Testuetan beti *-bi* aldiz aurkitu dugu eta biak testu berean-  
‘har’, lat. ‘vermis’ deritzon animaliaz dihardu.

- (54) Azartuten da christinau galduba Demoninuac opadeutsan gozo-  
tasuna artutera, eta gueratutenda concienciyaan *pixtiya* crubel-  
bat, beti vildurtutendavena: *dulzedo* (sic *-z-*) *illius vermes* (1,4,2, 1778).
- (55) Vein jaiyo ezquero eztala ilten pecatuben *pixtiya* galdubau diño S[an] Bernardino gloriosoac, veti daguala viyotzari oraturic: *Hic est vermis, qui non moritur; haesit firmiter, nequaquam evellendus* (1,5,1, 1778).

**prestaera.** Azkuek *prestamen*-era bidaltzen gaitu, eta han ‘disposición, preparativo’ dio. Testuetan ‘preparación, disposición’ bihurtuko genuke guk.

- (56) arima justu, edo graciazco estaduban dagozanen artian jazotenda ondoen Santuben comuniñoia, *prestaera* obia dauqueelaco progimuen obra onac, eta Jangoicoen doe miragarriyac artu, edo errecivietaco (8,21, 1787).
- (57) Eta parcatuten eztirian pecatubac, edo parcatu ezin leizanac... ezta potestaderic Elessa Santan eztagoalaco; ezpada eurac *prestaerabagaric* datozalaco (8,3,2, 1787).



**sarzera.** Ez dugu aurkitu hiztegiatan, eta '(eguzkiare) sartzea edo itzal-tzea' esan nahi du.

- (58) Eguzquiyaren *sarceran* icusicodozu sarritan daguala odei balz ilumbat (5,4,2, 1787).

**terziyo.** Ezin dugu asmatu hitz honen esanahia. Azkuek, *Peru Abarkan* (151, 27. lerroa) oinarriturik, bere hiztegian dioenez, *terzio* 'término medio, cantidad regular' da. Villasantek (J.A. Mogel. *Cristaubaren Icasbidea* (3). Ik. *Vocabulario*, s.v.) hori bera dio, eta 'medida' erasten du. Pr. Bartolomek (*Icasiquizuna*, I, zatia, 271-274) erabiltzen du 'estado, situación' edo holakoren bat adierazteko, eta baita 'medida (?)', raya (?), punto (?)' adierazteko ere. Juan Ajuriak, c. 1824. urteko prediku batean *tercijo-tercijoacoac* dio, eta 'antzekoak, modu batekoak, berdintsuak' esan nahi du beharbada. Fr. Migelek behin darabil eta 'modu, egoera', gazt. 'estado, modo, situación' edo holakoren bat adieraz lezake. Hona Fr. Migel eta Ajuriaren testuak.

- (59) (viztu ondoren) guztiyac (izango dira) edadebatecoac, ogueta amairu urtecoac, Jesuchristoren irudicuac...; ... guztiyac izango dira ogueta amairu urte *terciyocoac*; ain modutaco gorputza euquicodau bacoachac, celacoa euquicoeban, eldubaliz ogueta amairu urteetara naturalezaren falta..., edo beste nequebagaric (9,4,1, 1787).

- (60) lurrecoen artean (animaliez ari da) daode chimio casta batzuc, gure *tercijo tercijoacoac* (Juan Ajuria, 3. testua, 6,5).

**ulertu.** Ez da ageri testuetan, bere orde *aditu* erabiltzen delarik.

- (61) Irudibategaz *adituco* dozu obeto (3,4,2, 1786).

**zelan/nola.** Lehenbiziko testuan (1778. urtekoa) *nola* ageri da beti, bigarrenean (1781) behin ikusi dugu *nola* eta bi aldiz *zelan*, hurrengoetan (1786-1792) *zelan* ematen da bakarrik.

- (62) icasicitubaneco (S. Ramon Nonatoz ari da) escolaco lelengo letraac, *nola* eracutsieban ain devociño andiya Eleizaco gauzeetara...; galarazo naietsan bere guraso jaquituriyabagueac ceruco vide zuzenau (2,3,1, 1781).

- (63) *celam* zan (S. Ramon Nonato) guraso noble, eta aberatsen semia... Eta alam cuidado andiyagaz acieban bere Aytac (2,3,1, 1781).

(3) Liburu honetan, 69. atalean, "tercio, edo ereduban" leitzen dugu, eta 'arau, era, modu' izan liteke; 87. atalean, berriz, "tercio, edo eredura", esapide hori 'arabera' itzul litekeelarik, beraz *tercio* 'arau, era, modu' hor ere. Behin baino gehiagotan ageri da *ereduban* (Ik. 33, 101, 164. ataletan) eta ez letorke gaizki horren orde *arabera* ipintzea. Esan dezakegu, bada, *terzio*, *eredu* eta *arau* adiera antzekoak direla.



## EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILLEAK (1959-1963)

*Gasteiz, 1992.I.31*

*J.M. Satrustegi*

Egoera politiko oso larrien ildotik sortutako itzalgune nabarmenak daude Euskaltzaindiaren historian. Espainiako gertakizun latzen denboran eta hurrengo urteetako beldur-ikaren zulo gaiztotik bizirik ateratzea da, hain zuzen, bere merezimendu nagusia. Ezin luke gure arteko edozein elkargok beste horrenbeste esan.

Iraupen estimagarria aintzat harturik, halere, Euskaltzaindiaren bizian itzalgune beltza egon dela aitortu behar da. Pertsona baten lekukotasunari, Azkueri alegia, zor zaio gauean legezko zuzia pizturik eduki izana. Edozein elkargoren ardatza aniztasuna izanik, une horretan ez zegoen kideen arteko loturarik, ez batzarrerik. Adibidez, ez dut ezagutzen 1936tik 1948ra bitarteko batzar-agiririk. Hor dago, besteak beste, hamabi urteko isilunea.

1949an hasten da Euskaltzaindia berriro biltzen. Nazario Oleagak izenpeturiko bospasei batzar-agiri atera ohi zen urtean, Azkueren istripu tamalgarria 1951an gertatu aurretik. Hurrengo urteko bi batzar-agiri bakarrik ezagutzen ditugu. Apalki abiatutako Euskaltzaindiaren birreraiketak ez zuen etenik izan eta urrats garrantzitsuak eman ziren ondoko urteetan euskaltzainen kopurua gehituz eta ekintza berriak bere gain hartuz. Zoritarrez, itzalgunez beterik jarraitzen du agiri ofizialen iturriak. Adibidez, 1956/1957 urte bietako batzar-agiri bana, soil-soilik, aurkitu dugu.

Oso zaila da, beraz, urte garrantzitsu haietako ekintzen jarraipena ganoraz egitea eta hutsune horien betetzen ahaleginak egitea beharrezkoa du Euskaltzaindiak.

## I. Laguntzaileak

Berri solte horien artean Euskaltzaindiaren laguntzaileak behin eta berriz aipu dira. Arabako gutun batzuetatik atera berri du J.M. Lekuonak 1933an ere bazela antzeko asmorik (1).

Haste-hastetik datorkio Euskaltzaindiari zaletuen atxikimendua. Jean Etchepare medikuak "Eskualzainburu" izeneko lantxo batean honela zioen 1920an: "Eskuara hizkuntzaren begiratzeaz, joritzeaz, edertzeaz eta ahal bada berdintzeaz bezenbatean, ez bide da eskualdun egiazkorik nehor lagundu nahi ez duenik", eta dei esanguratsu honekin amaitzen du Euskaltzaindi sortu berriari egindako ongietorria: "Ditzagun bederen begi onez ikus eta lagunt gure ahalaren arabera" (2).

Joera hau nabarmena da Gerra ondoreko izkribuetan ere. Jaso ditugun batzar-agirietan aipamen hauek azaltzen dira: (3)

1952.XI.27

"Azkenez irakurri da Bilbon Euskaltzaindiaren laguntzalleak izentzat arturik Euskaltzale batzuk egiten dabezan eskari ta eskiñiak.

Oleaga jaunak itz egin begi eurokaz eta urrengo batzarrean erabagiko da".

1953.V.29

"Gorostiaga jaunak diño, euskaltzale batzuk adierazi dautsela "Euskaltzaindiaren adiskideak" izentzat arturik, gertu dagozala Euskaltzaindiari zelanbaiten lagunduteko. Pozik artzen da barri au eta Gorostiagaren ardurapean izten da asmo ori aurrera eroateko bear leitekena egitea".

1953.VI.26

"Oleaga jaunak adierazoten dau Bizkaiko Jakintza-Batzordeak, Euskaltzaindiaren etxea txukundu ta edertzeko asmoa aurrera daroala ta gai onezazko gertakizunetan daragoiola. Pozik entzuten dira barri oneik".

1957.III.29

"Oleaga jaunak diño egoki litzakela, "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" izenegaz lenago inarduan Batzordea barriz atondutea eta beronen lana, sail bitan ebagitea: bata Jakintza gaiari buruz, ta bestea Txindi batzearen arduraz. Olan onetsi daka Oleaga berak ekin beio lan oneri".

(1) J.M. Lekuona. "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak (1933)". Donostian 1991ko marxoaren 27ko Euskaltzaindiaren batzarrean irakurritako txostena. *Euskera* 1991, 2, 491 orr.

(2) Dr. Jean ETCHEPARE. "Eskualzainburu". *Eskualduna* astekarian 1920ko irailaren 10etik abenduaren 17ra argitaratutako lanak. P. Lafittek, *Herria* 1965, liburuska batean bilduak.

(3) *Euskera* 1937-1953. Sendoa 1982. Batzar-agiriak liburuaren bigarren partean.

1959.IV.30

“Karta bat artu da Bizkaian euskeraz irakasten ari direan jaun batzuengandik, esanik gura leukiezala euren izenak R.M. Azkue katedrari erantsi eta Bilbo eta inguruetak irakasle guztien artean alkartasun bat egin Euskaltzaindiaren laguntzailleak legez. Dira: Mikel Arruza, Jose Gimenez, Joseba Arrieta, Alejandro Echevarria, Kepa Zubia, Gregorio Larrinaga, Julian Irigoyen eta Sabin Berasaluze jaunak. Erantzun bekie esanik Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauela asmoa, eta agertzen dabezan gurari guztiak ontzat artzen dituela, eta emendik aurrera Euskaltzaindiaren laguntzaille legez batu leitekezala R.M. Azkue katedran. Bide batez, eskerrak emon bekiez euskerearen aldeko euren borondate onagaitik”.

1959.VI.25

“Mitxelenak diño zelan Juan San Martin eta beste jaun batzukaz berbaldi bat izan dauen eta zelan batasun bat sortu gura daben euskerearen alde lan egiteko eta orretarako Euskaltzaindiaren babesa eta zuzenbidea gura leukiela. Ain zuzen be Euskaltzaindiak baeukan leenago *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* izeneko batasun bat. Estudiau bedi datorren batzarrearako arazo au”.

1959.VII.30

“Aurreko batzarrean illabete onetarako itxi zan gaia artu da. Biztu bedi Euskaltzaindiak leenagoko denpora batean eukan “Euskaltzaindiaren laguntzailleak” taldea. Epe luze bat emoten da eratuteko eta denpora luze orretan egiten dana ikusirik finkatuko da azkenik Euskaltzaindiaren aurrean daukan nortasuna eta artu emonak zelangoak izan bear daben. Jakinerazo bekio au Juan San Martin jaunari”.

1959.XI.27

“Arruza urgazleak bialduriko idazki bat irakurri da “Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue Mintegia” izenaz dabillan euskaltzale aldra baten asmoak azaltzen ditu bertan, euskerea jauspidetik atara ta Euskalerrian zear euskerearenganako zaletasuna zabalteko gogoz. Poz pozik entzun dira asmoak. Baiña gai astuna dan ezker astiro-astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko”.

1959ko abenduaren 18an urrats garrantzitsua eman zela dirudi euskaltzainen barneko eztabaida kanporatzean. Hitzez-hitz honela dio erabakiak: “Euskalerriko jenteari diru-eske zuzendutako idazki bat irakurri eta ontzat artu da”.

Erdaraz idatzia zen eta biztanle nahiz erakunde guztiei zuzendurik zegoen. Ikerlanak eta bereziki Mitxelenaren hiztegia aipatzen ditu, baina zuzenean Jagon sailaren ekintzak bultzatzeko xedea agertzen du.

Laguntzaile bakoitzak betetzeko txartel moduko laukia dakar orriak atzeko aldean, eta bertan ipini behar da diru laguntzaren kopurua, *Euskera* aldizkariaren truke. Urteko harpidetza 70 pta. zen, baina 150 pta., 300 edo gehiago eman nahi zutenentzat kokagunerik bazegoen beste lerrotan.

Halere, 1959. urte amaierako dirueskea baldintzaturik zegoen aurretik. Epe luze bat ezartzen zaio baimenari lanak ikusita elkarte berriaren nortasuna eta Euskaltzaindiarekiko lotura zehazteko.

Oso garrantzi haundikoa da joera aldaketa hau hurrengo urtetan ikusiko den bezala.

## II. Laguntzailleekiko tirabirak

Hirurogeiko hamarkada laguntzaileen sukarrarekin hasi zuen Euskaltzaindiak. Bi berri jasotzen ditu urtarrileko batzar-agiriak susmo txarra sortzen dutenak. J. San Martinen ikuspegi alde batetik, hitz hauekin:

“Euskaltzaindiaren Laguntzailleez ekin deutso gero eta diño bananduteko joera andiak dagozala jentearen artean eta domeka arratsaldeko lauretan batuko direala Donostia-n, ikusteko ia alde batera itxi leitekezan bananduteko joerok eta bat egin aal dala”.

Eta agiri berean honako beste hitzok:

“Arruza jaunak idazki bat irakurri dau. Bertan esaten da euskerearen aldeko batasun bat sortu gura dabela. Baiña gai astuna dan ezkerok astiro astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko” (4).

Lehen begiratuan iduri luke otsaileko batzarrean itzuliak zirela urak euren bidera. Ezkongai zorionsuen hitzarmena dirudi batzar-agiriak.

Oleagaren hitzetan. E.L. elkarte eraturik zegoen Bilbon, bera zelarik buru, Gorostiaga bigarren buru eta Arruza idazkari. Batzar batean zortzi sail sortu ziren.

San Martinen aldetik Eibarko berriak ezin ziren pozgarriagoak izan; dirua jasotzen hasiak ziren eta hamar jaunek mila bana peseta eman zuten. J.L. Alvarez Emparanza izendatu zuten idazkari. Iruñean elkarte eratzten hasiak ziren (5). Loidi eta Larrañaga apezpikua gelditu ziren Irun eta Hondarribian sortzeko.

(4) Arruzak Euskaltzaindiko batzarrei buruz emandako iritziak, berak 1961ko martxoaren 20an egindako deskargutik jasorik daude. Izkribuaren izenburua, “Euskaltzaindiaren Laguntzailleak”, Bizkaiko batzordearen batzar-agiria”. *Euskera*, 1937-1953, 122-123. or.

(5) Pedro Díez de Ulzurrun eta José Aguerre izan ziren Nafarroako laguntzaile nagusiak. Mariano Izeta elizondorak honela dio: Los Amigos de la Academia de la Lengua Vasca izeneko elkarteak antolatutako lehiaketarako egin nuen *Dirua galgarri* liburua 1960an. Garai haietako euskaltzainburu zen Etxaidek erran zuen talde horrek gisa bereko aferetan sarturik ez zuela, eta Gipuzkoako Aldundian zokoraturik gelditu ziren aurkeztutako bederatzi lanak.”

Arrue jaunaren ustez Euskaltzaindiak berak zuzendu behar zukeen diru-eskea Euskalerrri osoari, gero diru hori beharizen haundienetarako nahiz Laguntzaileen zereginetarako bana zezan. Dei hori behar den moduan prestatu eta zabaltzea, erabaki zuen Euskaltzaindiak.

“Arruza jaunak diño ia Euskaltzaindiaren ezkutua —ikurra— erabili leitekean *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* izenagaz paperak egiteko”, esaten da batzar-agirian. Eta erantzuna: “Erabili daiteke”.

Azken batean nork daki Arrueren proposamena, ala Laguntzaileena onartu duen batzarreak?

Arruzaren ustez garbi zegoen arazoa:

“Euskaltzaiñak orduan ezeben aurkako zerik erakutsi, eta guk, ori ikusita, gure elkargoa Euskaltzaindiaren barrukoa zan ezker, ia bazkun orren ezaugarria guk gure elkargoan erabili geinkean, eta baiezkoa emon yakun. Beraz, ezaugarria itaundu genduan erabiltzeko baimena izan ezker, gure elkargoa bazkun orren barruan egoala uste bete-betea geunkan, eta gure bazkideei dirua eskatzeko orri batzuk zabaldu genduzan”.

Euskaltzaindiaren orduko diru egoeraz jabetzeko, sarreraren kopurua ikustea komeni da. Urtean:

Nafarroako Diputazioak . . . . .	5.000 pta.
Gipuzkoako Diputazioak . . . . .	5.000 pta.
Gipuzkoako Aurrezki Kutxak . . . . .	5.000 pta.
Donostiako Udalak . . . . .	6.000 pta.
Donostiako Kutxa Munizipalak . . . . .	2.000 pta.
Bizkaiko “Junta de Cultura”-k. . . . .	<u>10.000 pta.</u>
Orohar . . . . .	33.000 pta.

1960ko martxoan emandako kontuak dira, eta urteko gasturik behar-beharrezkoenak ordaintzeko beste hamar bat mila peseta beharko direla, esaten da. “*Euskaltzaindiak egingo duen deitik ere etorri diteke dirua*”, dio hitzez-hitz batzar-agiriak.

Ez da oso trebea izan beharrik bi hizkuntza desberdin badirela agerpen horietan sumatzeko. Dirueskeak bi bidetatik doaz.

Apirileko batzarrean Mitxelenak bere burua zuritzen du Euskaltzaindiaren dirueskerako izkribuari oharririk egin ez diolako eta gipuzkeraz idatzi ez duelako, Laguntzaileen elkarteak bere aldetik antzeko zerbait egina zuenez. Testu hura M.A. Astizek erdaraz egina zen.

Laguntzaileen taldeak kaleratutako izkribua irakurri zen gero eta “Información y Turismo” izeneko ministeritzatik Arruzari egindako espedienteaz azaldu zen.

Bazen Arruzak agintariei egindako erantzun bat ere Oleagak babes-tua. Mitxelenak dio ez daukala ezer Arruzari laguntzearen aurka, baina idazkiarekin ez dagoela ados. Erantzunaren zirriborroa eztabaidatu ondoren, euskaltzainburuari Mitxelenaren laguntzarekin, ematen zaio ministertitzari azken erantzuna egiteko baimena.

Arruzak, bitartean, hau dio arazoaz:

“Apirilleko batzarrean oster, guk dirua eskatze orreri buruz, eztabaida gogorra sortu zan Euskaltzaindia’n, eta batzuen eta besteen iritzia berezitu egin zirean. Guk, ezkenduala dirua Euskaltzaindia’rez izenean eskatu, bazkun oneri gure lanekin laguntzeko egin bear genduzan lanetarako baiño, eta besteak, Euskaltzaindiaren izenean eskatu genduala, ta bazkun orren kutxara yoan bearko zireala diruok”.

Biharamonean, apirilak 25, Irigoienek gutun labur bat idatzi zion Mitxelenari, Laguntzaileen dei bat jaso zuela apirilaren 28ko batzarrera joateko esanez. “Ikusten denez, ‘Ministerio de Información y Turismo’-k orria zabaldu dauelako egin deutsan expedientea izanagaitik be batzarretara deituten jarraitzeko asmotan da”, komentatzen dio. Eta eskuz idatzita, beste hau: “Don Nazario Oleaga-ren txistea (iedo benetako oarra!?) *Arpide-agiria* barik *emopide-agiria* bear leike izan”.

Irigoienek berak maiatzaren 3an Mitxelenari egindako gutun batean batzarreko beste zenbait ikuspegi argitzen dira. Oleaga bat zetorren Mitxelenarekin “batu dan dirua barriro emoilleari biurtutea oba izango dala”, esatean. Lojendioen ustez Euskaltzaindiaren kaxan sartu behar zen. Arruzarekin domekan topo egin zuela zinean eta Euskaltzaindiari gutun bat zuzendu nahi ziola aditzera eman zion Irigoieni. “Gaiñera esan eustan dirua Euskaltzaindiarentzat eskatu dabela, baiña gauza jakin batzuk egiteko. Lenago Astiz-eri esan eutsan bear-bada euneko zati bat emongo eutsiela Euskaltzaindiari eta orain alangorik eztiño. Euskaltzaindiko kaxan sartzekorik ezeustan aipatu, ezta Don Nazario-k ezer esan deutsanik be. Gaur goxean emakume bat etorri ba bialdu deutsien orria beterik dakarrela eta bosteun peseta urtean emon gura dituala eta orduantxe emon gura eustazan lenengo bosteun pesetak, baiña ez teutsadaz artu eta esan deutsat Arruzaga-zuzendu daitela”.

Ez dut aurkitu maiatzeko Batzar-agiria. Bi dira, bestalde, Arruzak une honetan idatzitako agerpenetatik ezagutzen ditudanak. Euskaltzainei zuzenean bidaliak maiatzeko data darama egunik gabe. Makinaz egindako azken-kopia iluna da eta izenburu hau darama: “Euskaltzaindia’rez Laguntzaileak Alkargoaren zadorlariagandik”.

Euskaltzaindiaren apirileko batzarrean Laguntzaileen elkargoari egindako salaketei erantzuten die. Dirueskea dela eta, honako deskargua egiten du: “Ez da eskea Euskaltzaindiaren izenean egin, Laguntzaileen lanetarako baizik. Ez dago beraz Euskaltzaindiaren Kutxan sartu beha-



rrik, euron beharrentzat berriz itzultzen ibiltzeko. Euskaltzaindiak bere aldetik egin nahi duen eskeak ez du inola ere berorien laguntasunen eremua ukitzen”.

Bigarren izkribua 1960ko maiatzaren 27an “Euskaltzaindi guztiz agur-garriari” zuzendu zion, “au zelanbait atondu egin bear degu”, esanez. Bizkaiko herri osoa zegoela eurei begira, dio hasieran.

Euskarak nozitzen dituen gaitzak ikusita, heriotzean dagoen gure hizkuntzaren egoera negargarria ezin dela beste batzuen ibilbide erosoarekin berdindu.

“Au da, dio gutunak, gure prisearen zio bakar-bakarra. Iraduz ibilli bearra degu, gure izkuntza galtzen ari da, eriotzaren atzapar artean dabil eta beraz, erriak berak eskatzen digu prisaka ibiltzeko...”

Betoz osakiak lenbait-len, beranduegi izan baiño leenago. Negarrak eta erostak alde batera utzirik, lanari lotu gaitezen, Euskalherri osoak auxe eskatzen digu.

Beraz, guk Euskaltzaindia'ren babesa bear-bearra degu, ta baita ere berean Euskaltzaindia'k ere, gure laguntzaren bearra du. Bata besteagandik aldentzen baldin bagera, alperrikakoak izango dira gure lanak eta ekiñak, eta gero, erriaren aurrerako, zer erantzun estu-estua izango degu guziok. Au da Bilbo'ko euskaltzaleen iritzi garbi-garbia, eta au dala ta, ona, gure ustez, arazo oneri buruz gaurko batzar onetan artu bear liraken erabakiak:

Leenbizikoa. Erki bakoitzean, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaia'n “Euskaltzaindia'ren Laguntzailleak” izenarekin alkargo bereziak sortzen dira eta guziak Euskaltzaindia'ren beraren babesean igituko dira, euren buru, erki bakitzean, euskaltzaiñen bat dutela. Beronek erantzungo dio Euskaltzaindia'ren aurrean, edonoiz sortuko litzateken edozein korapillori.

Bigarrena. Batzorde bakoitzak bere bazkintza artezkaria izango luke eta bertan zadorlari eta diruzain bat Lendakari eta bigarren Lendakariz gaiñera. Azkenengo bi oneik euskaltzaiñak izan bitez alegiñez.

Iruugarrena. Erki bakoitzean biltzen dan dirua bertoko lanetarako izan bite, baiña eunetik onenbesteko bat edo, eman bear liteke urtean Euskaltzaindia'ren kutxarako.

Laugarrena. “Euskaltzaindia'ren Laguntzailleak” ondo neurtuak dituzte beren zeregiñak: “euskerearen zabalkundea”, “erria euskaltzaletu” onetarako guztitariko bideak (naziñoko lege barrukoak esan nai degu), arturik. Euskaltzaindia'k beraz, ardura bi ditu: data izkuntzea aztertu, (au astiro egin lezaketen lana da) eta bestea euskerea bere eriotza-arriskutik zaindu, errian zabalduz. Azkenengo lan au “Euskaltzaindia'ren Laguntzailleak” egingo dute gure ustez egokien”.

Oso baliotsua izango litzateke maiatzeko batzar-agiri hori eskuratzea hango giroa sumatzeko. Azurzak bere deskarguan esandakoa, hau da: "Izugarrizko eztabaidea sortu zan batzar aretan eta gure lan guztiak bertan bera itxirik, eten egin genduzan gertakizun guztiak".

Arazoa ez zen gutxiagotzat. Euskaltzaindiari eskatzen zitzaiona zera zen, bere izenaz eta nortasunaz baliatzea bigarren Euskaltzaindi bat sortzeko. Zaharra ikerlanaz arduratuko zen, eta berria Jagon ekintzez. Hark astiro egin zezakeen izkutuko lan isila, eta Arruzarenak aterako zuen presaka eta tarrapataka ekintza zaratatsuen burrunba hori aurrera. Eta dena herriaren izenean, noski, geroko "asanblada" guztien aurrelari salbatzaile bezala.

Ekaineko batzarrean, J.L. Alvarez Emparantzaren araugaiak aurkeztu ziren erdaraz idatzitako izkribu baten bidez. Izenburua *Propuesta de Reglamento para "Euskaltzaindi" y "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak"*. Hamai-ka artikulutan banatzen zituen helburuak, Euskaltzaindiaren Arautegi-koak noski, eta elkarte bien arteko hartuemanak.

Laguntzalleen elkarte, alde batetik, Euskaltzaindiaren azpibatzerde bezala ikusten zuen Alvarez Emparantzak: "... ez una sub-sección de la Academia, carece de personalidad y fines propios distintos de los de la Academia, y no es sino la prolongación de la Sección Tutelar para euskaltzales no académicos..." (art. 5).

Baina 12 artikulua, atal asko dira eta bada bestelakorik han esandako-etan. Laugarren puntuan, adibidez, honako hau dio:

"La Sección Tutelar, consciente de la gran envergadura de la misión que la Academia le tiene asignada, y de la imposibilidad real de cumplirla por sí sola con eficacia, solicitará apoyo a la filial "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak", constituida recientemente por acuerdo de la Junta; y cuyos fines no son otros que todos y cada uno de los que enumera el punto 5 del Reglamento de la Academia" (art. 4).

Funtsean izkribu honetan eskatzen zena ez da Laguntzaileak Jagon sailean txertatzea, Euskaltzaindiaren Jagon Saila bereganatzea baizik. Hone-la agertzeraz ematen du 6. proposamenak:

La Sección Tutelar, apoyada por su filial "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak" por sus mayores posibilidades de recaudación de fondos, espera poder administrarse a sí misma con *plena autonomía*, sin convertirse en una carga para la Academia; e incluso ayudar poderosamente a la Sección Filológica para sus trabajos específicos" (art. 6).

Elkargoaren askatasuna behin eta berriz aldarrikatzen da. Adibidez 8.garren arauaian:

“La Sección Tutelar *actuará con plena autonomía*, lo mismo que la Sección Filológica, sin más limitaciones que las que establece el Reglamento de 1954” (art. 8).

Euskaltzaindiaren erantzuna Etxaide euskaltzainburuak hiru puntutan ematen du:

1. Badagoz or gauza oso astunak direanak, Euskaltzaindiaren arautegia aldatu bear litzakealako. Ori astiro pentsau bear dan gauzea da.
2. Euskaltzaindiak eztitu zetan izan bear diruzaintza bi, bat baiño.
3. Izen kontua ezan or aipatu bear ontzat artu barik egin gura direan aldaketak. Alvarez Emparanza jaunak diño berak egin dauen proposiziño orreri bear direan aldaketa guztiak egin leiozala. Bialdu bekie kopia bana euskaltzaiñei arakatu daien”.

J. San Martinek dio, “berak gurago dauala Euskaltzaindiaren izenean lan egin, eta beste batasun bat sortzeko modua balego be eztauela uste Euskaltzaindiaren gandik berezi bear litzakeanik. Bereizkuntza sortzea elitzakeala mesedegarri izango”.

Alvarez Emparantzaren proposamena Arruzaren gogokoa zen, “gure ustez oso egokia, dio berak; baiña Euskaltzaindiak ezaban berari buruz ezer erabagi, eta bai euskaltzain letraduen eskuetan arazoa itxi”.

Legegizon horiek Lojendio eta Arrue jaunak ziren noski. Lojendiok batzar horretan bertan egina zuen bere agerpena, bestearen aurretik, “au be, oso egokia gure ustez, dio Arruzak; baiña Euskaltzaindiak ezaban beroneri buruz be, ezertariko erabagirik artu”.

Lojendioren txostena laburra, orekatua eta bakezalea denez, Euskaltzaindiak egiten dituen lan baliotsuak aipu ditu eta gazteen indar berrien laguntzaz egiten dituela, aitortzen.

Azkeneko lerroetan dago arazoari emandako erantzuna:

“Euskaltzaindiaren laguntzalleak, Euskaltzaindiaren yagon sallean lan egin nai badute, betoz ordu onean. Ez dute orretarako, batere alkartasun berririk asmatu bear. Euskaltzaindia izango litzake beren alkartasuna ta Euskaltzaindiak berak, bideak antolatu, eginkizuneko lanak banatu ta bearreko erabakiak artuko lituke. Laguntzalleen iritziak aintzartat artuta ta beren bidezko egiñalak eragotzi gabe.

Beren buruen jabe egin naita, beste Bazkun berri bat sortuko balute berriz, ez giñake orrengatik bananduko. Batzuek batera, besteak bestera jokatu arren, danok elburua bera izango genuke ta elburu orrek bat eginda, alkarri lagunduko genioke buruz ta biotzez, gure euskeraren aldeko lanetan”.

Uztaileko batzarrean A. Arrue euskaltzainak aurkeztu zuen proposamena, A. Empanzak egindakoaren ildotik eginik zegoen, desbiderape-nak jorratuz. Bederatzi artikulatu ditu araugida berriak.

Laguntzaileen elkarteak izango zukeen nortasunari buruz, hau dio:

4. "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak", constituida recientemente con el carácter de filial de la Academia, colaborará con la Sección Tutelar a la que queda incorporada".

5. "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" constituye una sub-sección de la Academia, carece de personalidad y de fines propios distintos de los de la Academia misma, y no es sino la prolongación de la Sección Tutelar para euskalzaletas no académicos, que así pueden colaborar en las labores de Euskaltzaindi. "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" trabajará, por lo tanto, bajo las órdenes inmediatas de la Sección Tutelar de la Academia".

A. Arrueren proposamena aho batez ontzat hartu zuen Euskaltzaindiak uztailearen 29ko batzarrean, eta Arruzaren gogokoa ere izan zen, bestalde. Honela dio berak hitzez-hitz:

"Dagonille'ko batzarrean azkenez, Arrue jaunak, Alvarez Enparanza'renari ukutu batzuek egiñaz, beste osoago bat eta guztien iritziz oso egokia, aurkeztu eban, eta au bai, au ontzat artu eban Euskaltzaindiak, eta bertan, gure alkargoari Euskaltzaindiaren barruan tokia emoten yakon. Azkenean ba, artu zan gure alkargo au Euskaltzaindiaren barruan, 1960'gko. Dagonilla'n".

Diru konturik ez du aipatzen, noski, Arrue jaunaren araugaiak, eta elkarte berriaren burujabetza eta autonomia bazterturik, Jagon saileko lankide postua eskaintzen dio.

1960.VIII.26 Laguntzaileekiko arau berriek itxuraz gauzak bideratu arren, izandako tirabirek gaizkondurik utzi zituzten zauriak. Horrela, Bilboko elkarteak bere ekintzen artean, euskal egutegia, ipui liburuak, euskal kantuen diskak, kantu bilduma eta TBO bat argitaratzeko baimena eskatzean, erantzun epela jaso zuen. "Lenengo aurrera eroan bediz aurreko batzarrean ontzat artu zirean oinarriak eta orduan ikusiko da zelan argitaratu leitekezan gauza guzti orreik", batzar-agiriaren hitzetan.

### III. Egoitzako eztabaida (1960)

Labur bada ere, ezin da aipamenik gabe utzi Bilboko egoitzan handik laster izandako behaztopa. Bizkaiko euskaltzain eta urgazleei Euskaltzaindiaren azken erabaki horren berri emateko, abenduaren 13rako batzar dei bat zabaldu zuten Laguntzaileen elkarteko arduradunek, Euskaltzaindiaren baimenik gabe.

Batzarraren hasieran A. Irigoyenek Etxaide euskaltzainburuaren gutun bat irakurri zien bera izendatuz batzarraren lekuko edo ikusmiran bertan egoteko zereginarekin.

Nazario Oleaga, Juan Gorostiaga eta Mikel Arruzak izenpeturiko gutuna zuzendu zitzaion abenduaren 30ean Euskaltzaindiari gertakizuna salatuz.

1961eko otsailaren 24ean eman zen gutunaren berri euskaltzainei. Euskaltzainburuak astiroago irakurri behar zuela karta hori erantzuna eman aurretik, eta beste batzarrerako utzi zuen. Irigoyenek esan zuen Arruzak bere izenean egin zuela deia, “eta bera ez tala Euskaltzaindiaren laguntzaillea, Euskaltzaindiko ‘urgazle’ baizik”. Nahasteak amaitzeko Euskaltzaindiak hartutako erabakiak ez zirela jarraitzen eta Etxaidek bidalitako gutuna elkarren arteko karta bat besterik ez zela”.

Arruzak bere aldetik zioen, “aurretiaz Euskaltzaindiari baimena eskatu barik, eta batzarrean erabiliko zirean gaiak berari aurrez agertu barik, ezin geinkean batzarrik egin. Beraz, batzarrik egin barik alde egin genduan guztiok egun aretan”.

Odola ez zen, noski, errekara iritsi. Apirileko batzarrean Arruzak galdetu zuen “ia batzar-buruzagiaren kontua erabagi bitartean Euskaltzaindiaren etxean bildu leitekezan beñipeiñeko”. Baietz erantzun zitzaion, eta horrela bideratu zen arazoa.

#### IV. **Elizkizunak** (1961)

Aitzaki gutxi aski da istiluak sortzeko, fidakaiztasun asko dagoelarik alderdien artean. Elizkoitasunak sortu zuen hurrengo arazoa, apaizik sartu gabe tartean.

1961ko uztailean Arruzaren gutun batek zioen: “maiatzaren 29an Begoña’ko Amaren oiñetan emon eutsiela asiera lanari *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* alkargokoak”.

Hitzak hizbide emanik edo ura elizan bedekintzen delako, hitzetik hortzera hau lotzen dio batzar-agiriak Arruzaren berriari:

“Arrue jaunak diño *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak*-en izenez orri bat zabaldu dala eta baita Bilboko eguneroko batean argitaratu be Jesusen Biotzaren Gorazarrez Bilboko ‘Santos Juanes’ elexan egin dan eleizkizun bat aipatzen dala. Eta ori Euskaltzaindiak eztakiela eta gaiñera bere ustez ez tala Euskaltzaindiaren zeregiña alako eleizkizunak egitea. Orretarako badagozala alkartasun bereziak kristiñauak bete aal izan daiezan euren erlejiñozko eginbearrak. Diño gaiñera, eta alan erabagi da, datorren illeko batzarraren aurretik bildu bear leukeala”.

Hiru gabeko bikorik izan ez dadin, abuztuan honako hau jaso zuen batzar-agiriak:

*“Euskaltzaindiaren Laguntzailleak-en izenez Bilbon zabaldu dan orri baten gañean berba egin da. Irurogetaamabost urte direala Arantzazuko Ama koroatua izan zala eta ara joatea gura dabenari dei egiten jako eta Euskaltzaindiaren etxean izena emoteko eskatu”.*

Begoñako Ama, Jesusen Bihotzaren ospakizuna eta gero Arantzazuko beila, ez zen besterik falta saltsa berria sortzeko.

1961ko urrian Arruzak izkribu luze bat zuzendu zion Euskaltzaindiari elizkizun hauetaz. Arrueren lehen salaketa eztabaida luze-luze batekin, gutuna zabaldu den moduari dagokio: Euskaltzaindiari egindako “karta idigia” aurrez zabaldu izana ez da onargarria. Arruzak bere errua aitortu zuen.

Arruek berak mahairatutako bigarren kezka oinarrizkoa zen. Honela jasotzen du batzar-agiriak:

*“La Gaceta del Norte-n Arruzak argitaratu dauen artikulua batean beste gauza batzuen artean diñoala: sería muy conveniente que, antes de poner un nombre en vascuence a una Entidad, Grupo o establecimiento, se consultara siempre, previamente, o bien a la Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, entresuelo, o bien al grupo denominado Euskaltzaindiaren Laguntzailleak, ‘colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca’, apartado número 1226, Bilbao, eta alkartade bi balira legez, bakoitza bere zuzenbide bereziagaz, jentearen aurrean jokatu daue-la, eta ontzat artu zirean oiñarrietan, argi eta garbi diñoala Euskaltzaindiaren Laguntzailleak eztaukala nortasunik eta Euskaltzaindiaren Jagon-sailleko eginbearretan lagundu gura daben Euskaltzaindikoak ez tirean euskaltzaleai bidea emoten jakiela aren bidez. Diño, gaiñera, jentearen artean zabaldu dan ezkerro, alako gauza bateri bide bardiñetik jentearen artean ukatzea jagokola berez, baiña ori egitea eztauela berak eskatzen”.*

Mitxelena zorrotzago mintzatu zen. Arantzazuko ibilaldiaz erabaki bat hartu zela eta ez zela bete, hartu ez balitz bezala jokatu. Aurrerantzean ekintza kontsumatuen bidetik ezin dela ibili, eta behingoan moztu behar zirela hainbeste luzatzen ari ziren esames guziak. Euskaltzaindia bat dela Euskalerrri osoan eta ez dagoela Bizkaiko Euskaltzaindirik, ez Gipuzkoakorik.

Bozkatu zen proposamena eta Arruzari jakinerazi zitzaion “Euskaltzaindiak txarto ikusi dituzala bere ibillerak, eta gura badau, egiten jakozan karguen deskargu bat egin leiela izkribu baten bidez”.

Garbi ikusten da Euskaltzaindiak ez ziola bizkaitarren arazoari beste luzapenik eman nahi, eta erantzunaren zai zegoen. 1961eko azaroan isilunea bera jasotzen da batzar-agirian: “Ezta oraindiño artu Arruza jaunaren deskargurik”, esaten du.

## V. Deskargua

1961.XII.21. Urteko azken batzarrean ezagutu zuen Euskaltzaindiak Arruzaren dokumentua. Gorostiaga, Ibargutxi, Manterola, Peña, Onaindia eta Erkiagak ere izenpetua zuten egilearekin adostasuna agertuz.

Ez dut ezagutzen Arruzari bidalitako karguen izkribu hura baina bere deskarguan zatika jasotako ataletatik ikusten da batzar-agirian esandako puntuak helarazten zizkiola.

Lau foliotan letra estuarekin idatzitako karta-*agiria* —ez *idigia* bertan emandako arrazoiengatik— semantika, gramatika eta hizkuntza lege guzien aldetik nola irakurri behar zuen Euskaltzaindiak itxuraz gaizki ulertutako bere aurreko gutuna, argitzen ahalegintzen da.

Adibidez, “nik egiñiriko karta batekin nai detana egin neikeala uste det, iñogaitik bear eztan gauzarik esaten ezpaldin badot beintzat”, esaten da zabalkundea ontzat emanez.

“Umorez dio honako hau: “Enaiz ni jakituri aundiko gizona, baiña bai, Joanes artzaia bezala asko ikusia... Arek, irurogeta amabi aldiz ikusi zuan, Aloña mendiko ariztietan, ostro berdea berriz jaiotzen, eta nik berriz, irurogeta amaika bider ikusi izan det gauza ber-bera Artxanda eta Pagasarri’ko zugaitzetan. Eta laister, illabete gutxi barru (datorren epaillean) Jaungoikoak ala nai baldin badu beintzat, Joanes artza-iaren pare-  
ra elduko naiz ortan ere”.

Eta hori guztia berak erabilitako aditz-forma bat ulergarri egiteko.

Arantzazuko beilari buruz, irailaren 24eko erabakia urriaren 8an iritsi zitzaion eta berandu zen izena emana zutenen bidaia eta hitzartutako ostatuak bertan behera uzteko. Inoiz ez zuela izan, bestalde, elkargo berezi bat sortzeko asmorik, aitortzen du.

Azken zatiak, errudun setatsuaren zertzelada ez baino, agure zin eta fin jokatu duen baten aitortza kupigarria dirudi. Honela dio:

“*Azken erantzuna*: Nere kaltean artu dezuten erabagi gogor ori artzeko ziorik ez tet iñundik-iñora ikusten; gaiñera, edozein errudunari epaia emon aurretik entzun egin bear zaio, eta ez epaia emon da gero “*karguen deskargu bat egin leiela izkribu baten bidez*”, esan. Ori ezta bidezkoa nere ustez... Eta zuen artean egoteko duin ezpanerizkizute, jaurti nazazute bein Euskaltzaindi’tik. Baiña euskaltzain eta urgazle guztiguztiak jakin dezatela zergaitik izan dan”.

Deskarguaren kopiarekin batera Mitxelenari bidalitako karta batean azalpen hau egiten dio:

“Parkatu, jauna, baiña guk emen, Bilbo’n, eleizkizun arazo-ortan, eztegu besterik egin auxe baiño: *Eleiz agintariei eleizkizunak egitea eskatu eta eragin*, eta zuek ere, Euskaltzaindiaren zeregintzat eman zenuten au; batzar-agiriak ori diño beintzat. Gaiñera guk eztegu iñun esan Euskaltzaindi bat baiño geiago diranik”.

Euskaltzaindiaren ustetan ez ditu Arruzak karguak indargabetzen eta jaun honi fidantza kentzea proposatu zen. Mitxelenak ekarriko zuen testua hurrengo batzarrean auzia amaitutzat emateko. Bildutako guztiak bat zetozen horretan.

1962.I.26. “*Ago batez urrengo au artu da: Euskaltzaindiak artutako erabagi bat aintzat artu eztauelako oker jokatu dau Arruza jaunak auzi onetan eta aurrerantzean gauzak zuzen joan daitezen ezin egin dau ezer bere gisa Euskaltzaindiaren izenean*”.

Ondoren Arruzak idatzitako gutunen bat gora-behera, bukatutzat jo daiteke. “Euskaltzaindiaren Laguntzailleak” izeneko bizkaitar elkartearen istilu luzea.

## VI. Txillardegiren adierazpena

Bilboko arazoa baztertzeak ez du esan nahi, halere, istilua bideratua zegoenik. Gau beltzean etxaju eta suzirien jokua besterik ez zen hura, berehala zetorkion lehergailu zaratatsuaren ondoan. Txillardegik 1963ko abuztuan sinaturiko adierazpen gogor bat egin zuen bere urgazletasunari uko eginez.

Zortzi puntu nagusi proposatzen zizkion Euskaltzaindiari, eta ez dut uste horien aurkako euskaltzalerik egongo zen Euskalerrian: Ortografia bideratzea, euskera osotuaren beharra, euskal eskolak, irakaskintzako liburuak, Elizari dei bat egitea eta Batzar Nagusiaren antolaketa.

Baina, azpi-azpian zegoena 3. eta 4. puntuetako Jagon Sailaren antolakizun berria zen. Une batean honako salaketa hau egiten zuen.

“Nori egin zizaiokean kalterik *“Euskaltzaindiaren Laguntzailleak”* delakoak, esate baterako: euskerari, ala debekatu zutenai; Askotan agertu da Euskaltzaindia koldar eta Franco-ren morroi, baiña gutxitan ausarta eta euskararen zerbitzari. Errazago zaio Euskaltzaindiari euskeraren *bitxitasunaz* ari izatea, euskararen *bizitasunaz* baiño (Jagon sailaren oihartzuna). Bitxitasunari so egiñik, ordea, bere xedea nahasten du eta lana lardaskatzen.

Sei urte huntan ongi ikusi dut, eta hau borondate onez ari den nornahik ikus dezake, Euskaltzaindia legun-legun eta koskarik gabe moldatzen dela Madrille’ko gobernu etsaiarekin. Zergatik? Euskaltzaindiak, oro har, gehiago begiratzen diolako Gobernuaren aginduari, euskerari baiño”.



P. Charrittonen gutun batekin banatu zen adierazpena. Hiru hilabete lehenago hartu nuen nik euskaltzain oso nintzelakoaren azken erabakia. Batzar-agirietan ez da aipatzen Angelutik sortutako ekaitzaren berririk. Gutunen bidez erantzun genien, pertsonalki, egin zitzaizkigun galderei. Charrittonen bidez izenak biltzen ari zirelako zetozen Nafarroako euskaltzaleak aholku bila niregana.

Egia da normalizapen usairik gabeko une hartan Jagon sailaren eginkizunak premia larriagoa zuela Iker sailak baino: “*Primum vivere deinde filosofare*”. Eta horrela egin zuen Euskaltzaindiak azken urteok arte.

Izendapen berri eta berreraiketa sakonaren ildotik abiatua zen Euskaltzaindi hura, isilune luzearen ondoren, honela ikusten zuen adierazpenaren egileak Iparraldeko bere babeslekutik:

“Baiña zentzuak berak erakasten duenez, sasi-Akademia bat baizik ez litzake izango *hizkuntzaren biziaz* okupatuko ez litzakean Akademia. Beharbada, Euskaltzaindia, Araudiak besterik oihukatu arren, hauetako bat dugu, eta euskeraren bizia bera etzaio sobera axolarik”.

Erasoan abiatu ginen gu Euskaltzaindian, euskararen alde ari ginelako hitzez eta adierazpenez ez baino, aurpegia emanez lanean aurretik.

Erasoan sortu zen bezala geroxeago Alfabetatze taldea Euskaltzaindiak Baionan egindako batzarre zaratatsuan.

Bertsolaritza indarberritzeari ekin zitzaion bere egunean eta euskararen milaka titulu eman zuen horretarako sortu zen taldeak, besteak beste, Iker saileko lanei onoiz uko egin gabe. Bazter guztitatik sortzen ziren eskariak itzultzaile eskola ez bazen, teatro ikasketak antolatzeko. Gauza asko, gehiegi behar bada, hain pertsona gutxiren erantzunkizunarentzat.

Ekintza horiek guztiek badute euren historia eta balegoke lan, denen oinarriko dokumentuak biltzen, gaur Laguntzaileen taldeari buruz egindako saioaren antzera. Bestela Euskaltzaindiaren berreraiketako une latza, baina emankor eta aberatsa, historiatik kanpo gera daiteke egoera antzuarren ikuspegi eta izen txarrarekin.



**OCHOA DE ARIN-EN**  
**DOCTRINA CHRISTIANA-REN (1713)**  
**HIZKERAREN LABURPENA**

*Bilbo, 1992-II-28*

*Patxi Altuna*

Ikerlanean ari denari maiz gertatzen zaio honelako edo halako idazlek honako hitz hau edo harako adizki edo esanmolde hura erabili zuen ala ez jakin nahi izatea —edota, hura bera ez bada, haren zein aldakiz baliatu zen—, eta behin baino gehiagotan gelditzea jakin nahia ezin aserik, non ez duen berak idazlearen obra osoa goitik behera miatzen.

Edozein idazleri buruz izan dezakegu geure baitan horrelako jakin-gura, puntu batean ez bada bestean. Ezin uka, halere, badela gure ar<sup>an</sup> isilikako jerarkia bat, zeinen arabera maizago jakin nahi izaten baitugu halako adizkia —norengan esango dut?— Axularrengan edo Leizarragarengan, esate baterako, agertzen den ala ez, Kirikiñorengan edo Nemesio Etxanizengan baino; eta, jakina, ez dut deus ere idazle hauen kontra. Soil soilik gertatzen da, batzuek besteak baino idazle zaharragoak direla eta euskara-molde baten eredu hobeak, momentu hartan ikerlariak bilatu nahi duenerako.

Duela berrogei urte, 1951ean, Lafonek bere “La langue de Bernard Dechepare” izeneko artikulu baliosoa argitaratu zuen, urte batzuk lehenago Bordeleko Unibertsitatean defendatu zuen tesiaren bihi-gaina eta ondoko urteetan Garaziko poetaz onduko zituen ikerlan berrien aitzin-mezua.

Tituluak berak adierazten duenez, gure lehen poetak bere obra gatzatu zuen hizkera xeheki deskribatzen digu Bordeleko irakasle trebeak. Ez du haren hizkeraren punturik xeheenik azterkatu gabe uzten: grafia, fonetika aldakuntzak, batez ere bokal arteko kontsonanteen mututzeak, morfologia —hasi izenarenetik eta erakusle, pertsona izenordain eta predeterminanteeneraino—, aditzondo, juntagailu, menderagailu, aditza, sintaxia eta azkenik “perpaua Etxeparegan”, dena ikertzen du.

Laburkiro esateko, idazle baten hizkeraren radiografia dugu orrialde urri baina trinko haietan eta askok jo izan dugu sarritan haietara Etxepareren hizkerari buruzko galderen baten erantzuna jakin nahirik.

Mendebaldeko azken hiru mende hauetako hizkera ezagutu eta ikeru nahi duenarentzat Ochoa de Arin ordiziarraren *Doctrina Christiana* (1713) nahitaezko ispilu eta iturburua da. Garai berri baten mugarrizateaz gainera, ordu arte gure artean ezagutzen ez zen hizkera zailu eta aberatsaren, hitz-lauzko idaztankera berri baten, zimenduak hor aurkitzen ditugu Larramendigan baino lehen.

Azken berrogei orrialdeek batez ere, Dotrinek bere-bere izan ohi dituzten txandakako galde-erantzunik gabe albainduek, ez diote ezer zor, gaztelerazko hitz parrastadak gorabehera, Larramendiren ondoko idazle garbizaleen orrialderik ederrenei, sintaxiari gagozkiola.

Hori bakarrik ez, geroko —Sabino Aranaganainoko bederen— mugaz honaindiko liburu ia guztien —baita bizkaierazkoen ere neurri handi batean— hizkera han islatzen da, geroko esanmolde eta adizki askoren forma zaharra han agertzen da eta zenbait perpaus, Iparraldekoak bakarrik zirela iruditzen zitzaizkigunak, han bizirik daude.

Bestela esan, antzinako bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko berdintasun-desberdintasunak —haiek hauek baino handiagoak— zeintzu ziren eta nolakoak ziren jakiteko eta geroko liburu askotako hizkerak ezagutze-ko giltza Ochoa de Arinen Dotrinan dago.

Arrazoi hauegatik eta batikpat handik urte batzuetara Larramendik taxutuko eta ondorengo idazleek ia salbuespenik gabe asko edo gutxi imitatuko duten prosa zenbatetaraino den aurrekoen zordun ikasten lagunduko zizulakoan egin nahi izan dut Ochoa de Arinen hizkerarekin Lafonek Etxeparerenarekin egin zuena. Eta hori, nahiz Larramendik Mendi-bururen Dotrinari egin zion zensuran aipatzen ez duen —ez eta ezagutzen, jakina— Ochoa de Arinena; bai aldiz Beriain, Elizalde eta Irazustarenak.

Nik lan xotilagoa egingo dut, noski, zeren Eihalarreko erretore jaunaren obraren eta Ordiziako bikarioarenaren harri pitxiak ez baitira alderatzekoak eta, batez ere, ni ez bainaiz hura. Lafonek ez bezala, gainera, nik ia batere iruzkinik gabe, taxonomia biluzi batean, emango ditut bildurik ene ustez haren hizkeraren bereizgarriak direnak.

Arrazoi xoil bategatik: horrelako lanak gogoko ez dituenak ez da lehiatuko hau irakurtzera eta, aitzitik, axola zaizkionak eta aditua denak ez du iruzkin beharrik; ikusi orduko jabetuko da hori nolako pitxia den, esate baterako, honako hau: “Christo Jaungoicoa dan partearren”, nik oraino ezein hizkuntzalarik aipatua ikusi ez dudana, ez hau eta ez antzerkorik, eta agian euskal literatura osoan *hapax* datekeena horko balio horrekin.

Ez nator bat, izan ere, OEHrekin puntu honetan. Honek “indica también causalidad, motivo...”-pean sartzen du, bizkaierazko “atsa arren”, “damu arren” eta abarren artean. Baina ez da gauza bera. Hauen balioa kausazkoa da, bai, “atsa” eta “damu” zerbaiten “kausa” izatea logikoa baita, baina “parte” beste bi kontzeptu horietatik oso desberdina da, ezeren “kausa” izan ahal izateko. Gainera “partearren”-ek kide juxtua ondoko lerroko *partetic* du. Beraz ablatiboaren parekoa da (30).

Ez dira harri pitxi guziak hori bezain ederrak, baina ez dagoke gaizki hemen agerian jartzea honako hauek: *-ti* bizkaieraz bezalako ablatibo; *aintzat* formaz destinatiboa (< *harentzat*) eta balioz prolatibo dena; *daguicoan* adizki laguntzaile iragangaitza (“guelditu ez daguicoan”) *-leique* iragankorraren eta iragangaitzaren ondoan—; XVI. mendeko idazleen *nor-nori-nork* motako *derautazu*, *deraut* eta gainerako adizkien hain antz handia duten *dirauztan*, *dirauzcu*, *cirauzcan*, *cirauzcun* eta abar, beti objeto plurala dutenak; orain arte nik behintzat neure ezjakinean ekialdekoztzat neukan eta Etxeparegan eta Tartasengan bakarrik aurkitua nuen “lehen partizipioa+partitiboa” (“confessaturic oroitzen ez dan persona”, 131) konpletibo baliozkoa (egun hauetanxe entzuna diot Haritschelhar jaunari honako hau: “Biziki ongi orhitzen niz erranik...”); hori bezala ekialdekoztzat jotzen nuen “ecen ez” konparaziozkoa; Leizarragagan bezala *-(t)zat* atzizkia duen helburuzko subjuntiboa (“seguiençat”, 148), eta abar. Darabilen hitz altxorretik bat bakarrik aipatuko dut, bere baitan dituen zenbaiten uestez batera ezin (edo nekez) ager daitezkeen bi atzizki: *peccataritasuna* (131).

Azkenik hor aurkitzen ditugu garai hartako bertsolaritzaren eta bertso paperen biziaren bi lekukotasun eder. Seigarren aginduaz ari delarik, lehendabizi, eta inoren hitzak, ez bereak, balira bezala honako hauek azpimarratu ondoren, “Aimbeste aditcen da canta deshonestoac esanz eta dantza torpeac eguinaz”, honela dio:

“Escrivitu ote deban versoric, edo paperic aficio torpea aditcera ematen debanic, eta iracurri ote deban onelako moetaco libururic eta paperic” (160).

Beheraxeago zortzigarren mandamentuan penitenteak bere buruari egin behar omen dizkion galderen artean hau sartzen du bat:

“Escribitu ote deban edo publicatu versoric edo beste paperic inoren contra, eutcitcen debala modu orretan bere proximoa deslucituric, eta onela eguin ote deban Religiosoren baten contra edo Apez Jaunan contra” (167).

Bego horretan ene solasa. Gainerakoa ondoko lerroetan aurkituko du horrelakoen irrika duenak.

1. **GRAFIA: Hona *u* > *b*-ren adibide batzuk:**

ab	(= hau);	baleb	(= baleu, balu)
beraub	(= berau);	nabela	(= nauela)
lab	(= lau);	auban	(= ahoan)
amalaub	(= hamalau);	gabaren	(= gauaren)
deb	(= deu = du);	christauvari	(= kristauari)
deban	(= duan = duen);	escrivavac	(= eskribauak)

2. **DEKLINABIDEA**

A. Euskara batuan ez bezalako zenbait forma:

Partit.:	“caburic edo acabeerarican batere” (20)
Genit.:	“guizonan artetic” (pl.) (28)
Dat.:	array, guziai, onay (pl.)
Ines.:	Jaunan (167); garbiaetan (16), entrañaetan (157)
Komit.:	beguiaquin (23), ilceaquin (33) (pl.)
Instr.:	criatureaz, -az ostean (24)
Ablat.:	- <i>tic(an)</i> : gaitcetic (1), becoquitican (16), erditican (72)
	- <i>ti</i> : “bere sustanciati edo naturalezati bertati” (29)
	- <i>arren</i> : “Christo Jaungoicoa dan partearren” (= partetic) (30)
	- <i>gandic</i> : corputçagandic (34), pecatuagandic (130)

B. *-a* itsatsia duten hitz batzuk:

eleizeac (154),	fortalezea
napurretea (162),	templantcea
gauzea	pobrecea

3. **ERAKUSLEAK: Pluralean bi maila bakarrik, noski:**

au, ab, aub (10)	ori (54)	artara bertara (24)
au beraub (13)		
oniri (16 = honi)	orri (143)	aintzat (= harentzat)
onetaco		(< nortzat?, 11)
onetan		artan bertan (27)
onez ostean (72)	orrez ostean	
onez gañera	orrez gañera	
	<i>orreenen</i> batez (156)	

oec	aec (16)
oec bioc (17)	aey (23)
oetan (16)	aetan (25)
oetatic cein (25)	aetatican batac (48)
oen (168)	aen
pecatu mota <i>oenic</i> (160)	<i>aenen</i> batean (150)
	<i>aenic</i> (138)
au guciau (27)	ori bera (25)
oec guciac (27)	Jaungoico bat bera (27)
	batean bertan (27)

#### 4. ADITZA: Ia adizki guziak bildu ditugu, ustez:

##### A. Ikus lehen partizipio batzuk:

ajustadu (165)	distinguidu (161)
aprobadu (162)	executadu (158)
contadu (167)	escusadu (152)
conseguidu (148)	exercitadu (132)
consentidu (158)	ezcutadu (132)
cumplidu (147)	ofendidu (162)
deleitadu (158)	restituidu (167)
descubridu (168)	socorridu (162)

##### B. Ikus bigarren partizipio eta aditz izen batzuk:

ausitcen	sinistutcea	eutcitceco (73)
eutcitcen (= uzten)	artutcea	acitceco
asitcen	galdutcea	saldutceco
	ifentea	

##### C. \*-ZA- errotikako adizkiak:

##### (NOR):

naiz (10); da (2) (dan); cerade (2); dira, dirade (4); zan (2)

baliz

(“arquitcen baliz, dan chiquiena lizalarican ere...”, 170)

(“cumplitcen baliz”, 149)

balira (139), balirade

dirate (“cembat ote *diratean*, 70)

liçate (170)

ciratean (“cembat pecatu içan *alciratean*”, 133)

(NOR-NORI):

naitzaco (172)

zat(an); zayo, zaion (164); zacuna; zate, zatena

zaizca (4), zaiozca (75), zaizco; zaizcun (55); zaizte (98)

citzaion (57), citzaican (150), citzacon (164); citzaten (164)

citzaizcan (75), citzaizcon (154)

“convenico litzaio” (98)

D. *\*-DI- errotikako adizkiak:*a. *SUBJUNTIBOA*

(NOR):

dadin (52), didin (71, 162), dirin (160), derin (70)  
 (“Oroitu al baderi”, 70)

gaitecen (8), gaitean (58)

guindecen (33)

(NOR-NORI):

daquion (74)

cequion (148, 161)

b. *AHAL IZATEKO MODUA*

(NOR)

dite (24, 139), diite (41, 142)

ditezque (78)

leite- 130), lite- (138), liite (140, 145)

litezque (23) (“ediro litezque..., ceñetan arquitean...”: 138)

ceitean (29, 33), citean (151)

c. *AGINTEKERA*

(NOR):

bidi (= bedi) (1, 162)

Ikus *\*-GI-* errotikako adizki irangaitz bi: daguicoan (132), leique (159):*OHAR 1:* Adizki hau, *daguicoan* *\*-gi-* errokoa da, eta irangaitza. Hala uste dugu. Ikus pasarte osoa:

“...escatcen diagola Jaungoicoari... socorru divinoac..., aen medioz ecarri ditzan memoriara... pecatuen numeroa, ...batere ezcutaduric guel-ditu ezdaguicoan moduan” (132).



## E. \*-DU- errotikako adizkiak:

## (NOR-NORK):

det (3), dodan (170)  
 deu (18), deb (10), deban (18), debean (50), debana  
 dezu (10)  
 debe (170), debea (21), deban (?), debeanac, dabe, dabeala  
 ditut, dituan, ditugu, dituzte  
 nabela (52), nabean (= nauten) (145)  
 çaitudan, zaitugu (14)  
 neban  
 ceban (3), cebala, cebanean (26)  
 guenduan (64)  
 cenduan (15)  
 cebean (31)  
 cituan  
 cituen, cituzten  
 guinduzan (33)  
 baleu (24) (“cumplitcen lebanac eguingo leuque”, 149)  
 balitu (166)

## (NOR-NORI-NORK):

didazu  
 diot; dio, digo, diagola (132); diogu; digoe (138)  
 digu (4); digue (59)  
 dizut (10)  
 diet; die (25); diegu (1)

*OHAR 2:* Adizki honek *-dizaten-* formaren aldetik bestelakoa dirudien arren, testu inguruak eta esanahiak berak indikatibotzat (= dieten) harrerazten digute. Ikus:

“(bear deb examinatu) Gurasoac euren semeay... debecatu ez ote *dizaten* hoostutcea, edo consentitu eta disimulatu ote *dizaten* napurreta-ric eguitea” (165). Ehun urte geroago Otaegi beizamarrak *dize* dio hori bera argitara gabeko izkribu batzuetan.

dirauztan (52), dirauztala (53); dirauztazu (145)  
 diozca, dirautza (65); dirauzcagu (58)  
 dirauzcu (28, 58)  
 dirauztut (145), diutzudan (145)

ciran (= zidan)  
 cigon (27), cigoten (73), cigoen  
 cigun (55)  
 cien (23)

ciozcan (19), cirauzcan (52)  
 cirauzcun (6)

F. *\*-ZA- errotikako adizkiak*  
 a. *SUBJUNTIBOA*

(NOR-NORK):

dezagula (4)  
 dezaten

ditzan (58)  
 ditzagula (4)

gaizatzula (1)  
 zaitçatan (146)

(NOR-NORI-NORK):

diozagula (4)

b. *AHAL IZATEKO MODUA*

(NOR-NORK):

dezaque (54)  
 ditçaque (23)  
 cezaqueten (165)  
 cizaquela (155)

(NOR-NORI-NORK):

dizoco (= diezaioke)  
 (“biurtu *dizocoalic* ere”, 130) (= diezaiokeelarik)

c. *AGINTEKERA*

(NOR-NORK):

beza  
 bece (= bezate) (133)

bitça (134)  
 gaitzatzu (1)

G. *\*-GI- errotikako adizkiak*

a. *SUBJUNTIBOA*

(NOR-NORK):

daguian (131)  
 daguigun (135), daguigula (129), daigula (4)  
 daguiçula (172)  
 ceguian (11, 26)  
 seguiençat (= zezantzat) (148)

(NOR-NORI-NORK)

deigun (58)

b. *AHAL IZATEKO MODUA*

(NOR-NORK):

daguique (“eguin aldaguiquealaric”, 166), daique (22)  
 daiquegu (42)  
 eiquezu (14); leique (71)  
 ceiquean (147, 151, 162)

(NOR-NORI-NORK):

deiqueon (= diezaiokeen) (79)  
 neiqueo (171), leiqueo (49)

c. *AGINTEKERA*

(NOR-NORK):

eguizu (2)  
 eguiztu (63), eguiztatu (8)

(NOR-NORI-NORK):

eguidazu (20)  
 eguiztazu (62), eguiztatu (63)  
 eguiguzu (1), eiguzu (8)  
 eguizcutzu (1)  
 beguio (168)

## H. ADITZ SINTETIKOAK

## JOAN:

dijoa (dixoan (129), digean (100), dijean)  
digeacen  
cigeacen (160)  
dijoacan (= hari) (134)

-----

## EDUKI:

daduzca (69)  
naducaçu- (146)  
daducagu (61)  
leducaque (166)

-----

## EGIN:

daguiian (74)  
daguien (72)

-----

## EKARRI:

dacardean (= dakarten) (165)  
dacacen (153) (= dakartzan)

-----

## EROAN:

daroagu (139)

-----

## IRITZI:

deritza (2), deritzon (16)  
deritzoe

-----

## JAKIN:

daquitzat (20)  
diaquit (?) (“proximoac ez *badiaquit* niri cer juicio... eguin dodan  
beraren contra, zoratasun andia izango lizate...”, 170)  
ciaquian(a) (167)

## PERPAUSEN EGITURAK

### 1. GALDERAK:

- “Aurra, cerade zu Christauva?” (10)  
 “..., ote da persona bat bacarra?” (20)  
 “Ote gaude... obligaturic?” (55)

### 2. AURKARIAK:

*baicic:*

“...berez debanic, Jaungoicoa bera baicic” (24)

*baicican:*

- “Ceren..., ez debeat essencia bat baicican” (21)  
 “ez dirade iru Jaungoico, baicican... bacar bat” (21)  
 “..., baicican libra gaitzatzu gaitcetic” (1)  
 “Ez, jauna, baicican iru Persona” (20)  
 “fama ez da beneric, baicican opinio on bat” (171)  
 “...ez da beneric, baicican... guelditcea” (169)  
 “...ez deu aitaric, baicican Ama bacarric” (28)  
 “...ezda asco... eguitea, baicican... bear deu...” (29)

*baicen:*

- “aentzat baicen eztago salbaciorean” (41)  
 “...cerren guchitan baicen ez diraden...” (130)  
 “ez... bere honran, baicen solamente faman” (171)  
 “...ez diradela... mortalac, baicen venialac” (170)  
 “...ez debanean beste peccaturic, venialac baicen” (140)  
 “Christo bat... baicen ez da beste Christoric” (48)  
 “Iñor ere salbatu ote diite,... semerican baicen beneric?” (41)  
 “...ecin beregandic quendu dezaquean,... acto oec eguinaz baicen bestela” (54)

*baice:*

“arquitcen ez dalaric... bietatic batean baice” (78)

### 3. KONPLETIBOAK:

A. *ecen... -la:*

- “entzutera eman, ecen... izango dala” (08)  
 “iracasten zacuna da, ecen... debala” (36)

- “ezagutu daique..., ecen... bear debala” (137)
- “essan degu, ecen... eztagoala” (138)
- “bear da advertidu, ecen... eztebala” (141)
- “juzio eguinaz, ecen... mercei debeala” (165)
- “defenditcen debe, ecen... ez diradela” (170)

B. *-ala* dutenen ondoan *-ana* dutenak ere bai:

- “sinistea... dana...” (6)
- “badaquit... naizana” (19)
- “da gauza aguiria... daiqueana” (22)
- “aditcera eman... debana” (54)
- “ezaguturic... gaiztoa dana” (61)
- “eguia da... jaiotcen dirana” (143)
- “entcuera icanic... cegoana” (147)

C. Ezezko perpausetan *-anic*:

- “ezagutu bague pecatu zanic” (140)
- “ez... sinisten eguiten danic” (158)

D. Ekialdekoa (ikus Etxepare, Tartas) bakarrik zela uste genuen hau: hots, lehen partizipioa forma partitiboan:

“Iñoiz gazqui confessaturic oroitcen ez dan persona...” (131)

E. Izenlagun bihurturiko konpletiboak:

- “dalaco ustean” (141)
- “datorrelaco ustean” (168)
- “gueiago eman daquion obligacioarequin” (164)

4. KAUSALAK:

A. *azquero*:

“... deseatcen dezun azquero jaquitea...” (20)

B. *cerren*:

- “cerren badaquit... ecin salvatuco naizana” (19)
- “Ez, cerren ecin izan dite...” (24)
- “..., cerren irurac debe...” (25)
- “Cerren sospecha ez da besteric, baicican...” (169)
- “Cerren dan Crutzea...” (11)
- “Cerren personac diraden distintac” (22)
- “Cerren berac deban berez poderioa” (23)
- “..., cerren pecatu eguin dudan” (172)

C. *bada*:

- “Bay, jauna, bada ematen digu...” (24)  
 “..., bada... dirade gauza bi diferenteac” (30)  
 “...eztegu..., bada eurac daquie...” (152)  
 “...izango lizate..., bada eman neiqueo” (170)  
 “..., bada orrembestez eman neiqueo” (170)

D. *nola*:

- “nola ez dan... nequeric..., sortu cituan” (23)  
 “nola concebitu ez ceban..., guelditu zan” (28)  
 “nola... ez ceban eguin..., ez deritza...” (29)  
 “nola eritcen debean ura..., emendic gatoz...” (171)

E. *-tzeagatic*:

- “...razoe bigatican:... ez sartceagatic” (130)  
 “...fiatuan emateagatic beragatic” (164)

5. **KONPARAZIOZKOAK:**A. *ain...*, *nola...*:

- “ain erraz nola criatu cituan, deseguin ditçaque” (23)

B. *aimbeste...*, *nola...*:

- “da aimbeste nola vere culpa nai içatea” (135)  
 “izanic... aimbeste nola... poderioa, da...” (22)

C. *nola...*, *ala...*:

- “Nola diraden Jaungoico bat, ala dirade...” (25)  
 “nola dan pecatu mortal..., ala da pecatu” (159)  
 “nola ceruan, ala lurrean” (1)

D. *-ago ecen ez + χ (=≠|| baino -ago)*:

- “nayago izanaz galdutcea, ecen ez ofenditu” (53)

6. **KONTSEKUTIBOAK:**A. *ain...*, *nola...*:

- “ain cobru gaitcean, nola ez cituan...” (154)  
 “ain andia, nola ecin quendu dezaquean” (54)

“ain modu maravillosoan, nola ecin leiquean” (71)  
 “ain moduz, nola... izango lizatean gaitza” (139)

B. *alaco moduan, nola...*:

“izango dala alaco moduan, nola ezagun zayon” (08)

7. **KONTZESIBOAK:**

A. *arren:*

“juicio temerarioa eguitarren, ez zaiola” (170)  
 “ustearren pecatariac... baceducala” (144)

B. *-tuagatic(an) (ere):*

“Gauza gravean murmuratuagatican ere” (170)  
 “Bañan ab onela izanagatican ere...” (138)

c. *-turic ere:*

“Eguia izanican ere...” (139)

C. *(naiz) -laric(an) (ere):*

“naiz murmuracioac eguin diralarican ere” (171)  
 “...consentitcea,... pasatcen ez dalaric ere” (159)  
 “publicoa çalarican ere, essan ote ceban... (167)  
 “bat, dan chiquiena lizalarican ere, ez da...” (170)  
 “ceruan dagoelaric eta an guelditcen dalaric ere, guelditcen  
 da...” (45)  
 “ala dalarican ere, asco convenico litzaio...” (98)  
 “...trabajatcen ditualarican ere” (150)

8. **ERLATIBOZKOAK:**

A. *Zein- dutenak:*

“...animaren vicitza, ceña dan gracia” (39)  
 “parte ura, ceñean agraviatu cituan” (165)  
 “opinio on bat, ceñean daducagun...” (171)  
 “...damu onec, ceñari deitcen diogun...” (142)  
 “..., ceñaz guelditcen diraden beatz biac” (12)  
 “..., ceñac arquitcen diraden cartilla onen...” (08)  
 “...motivo beracgatic, ceñacgatican izan ceban” (144)  
 “...casoren batzuec, ceñetan arquitu litean...” (138)



B. *Nun* dutenak:

“...crutce batean..., nun ijuri izan ceban...” (33)

“...lecura, nun arquitcen ciraden...” (34)

“...lecu bat, nun... guciac dauden...” (40)

C. Egunoroko *-(e)n* dutenak:

“gaitza eguin nay digun edoceiñereco criatura” (14)

“aurra ingendratcen dan lecura” (16)

9. **HELBURUZKOAK:**A. *-raco*:

“cerren, aita izateraco ez da asco...” (29)

“cerren... recebitceraco (?) jaquin bear dan...” (153)

B. *-tzearren*:

“ignorantciatic ateratcearren” (168)

D. *-nzat* (Leizarragak bezala):

“...favorecitceagatic, eta... etorri etcequion edo ondasunen bat conseguidu seguiençat...” (148)

10. **MODUZKOAK:** Maiz erabiltzen du *-laric(an)*, zenbait zentzu desberdinez, Hegoaldeko idazle batengan uste zitekeen baino maizago:

“...mediante diralarican, salvatuco nabela” (52)

“...eguiten badeb... receloan arquitcen dalaric” (141)

“Vicarioac publicaturic daduzcalaric ere” (161)

11. **ADITZONDO BIHURTURIKO PARTIZIPIOAK:** Berebat askoz maizago aurkitzen da *jarriric, obligaturic* (egon) forma, gero Gipuzkoako idazleetan ia erabat nagusitu zen *-ta* edota *-a* (*etzanda, eserita, galdua* egon) forma baino.

*Egon, joan, eduqui, guelditu, utzi* eta beste bakarren baten osagarri gisa agertzen dira.

Ikus multzo bat:

ofrecituric dagoana (11)	esturic eutci (76)
dago obligaturic (17)	eutci ventzuturic (73)
guelditu sorturic (23)	eguinic daduzcan (69)
iduiqui ezagaturic (08)	escrituric digean (08)
digeaz- eguinican (08)	daude enzerraturic (5)
ezconduric arqitu (161)	eramanican daducanac (166)
	ediro engañaturic (158)

Baina horien ondoan, esan bezala, hauek ere bai bakanka:

daude engañatuac (170)      guelditu engañatuac (159)

12. **NOMINALIZAZIOAK:** Hona gaurko gipuzkeraz hain ezagunak ez diren batzuk:

“jaquiteraco obligaciara etorri” (146)  
 “ez daduca... entçuteraco obligacioric” (151)  
 “Comunio Santua recibitceraco jaquin” (153)  
 “barcaciao escatceraco obligacioa” (170)  
 “agravio principala satisfacitceraco obligacio” (166)  
 “guelditcen da restituitceraco obligacioa” (165)  
 “pecatu eguiteraco ocasioan” (161)  
 “pecatu eguiteraco ocasioa” (130)  
 “obra onac eguiteraco cuidadoa paratu” (99)

## HIZTEGIA

Hain ezagun ez direla iruditu zaigun hitz batzuk metatuko ditugu azken sail honetan, edota ezagunak izan arren egun ez bezalako itxura dutenak. Batzuk sekula giputzak izan zirela sinesten ere kostako zaigu:

adimbat  
 (asco dan adimbat)  
 adina  
 (asco adina)  
 (asco dan adina)  
 aditu  
 (viciac aditu = entender por vivos)  
 aintzat (= harentzat <nortzat?)  
 albait (= ahal bada, ahalik)  
 arraizquero (= harrez gero)

atortu (= aitortu)  
 auba (= ahoa)  
 aurra botaeraguin (= abortarazi)  
 badarican ere (= halere)  
 baguaric (= gabe)  
 bague (= gabe)  
 cabu (= bukaera)  
 clarecia (= argitasun)  
 doe (= dohain)  
 ediro (= idoro, aurkitu)  
 edoceanereco (= nolanahiko)  
 edolaere (= bederen)  
 eraguin (= erazi)  
 eraqui (= jaso)  
 eri (= gaixo, mintxo)  
 eroan (= eraman)  
 erroidu (= auzi, barikutza)  
 etorquizun (= geroko)  
 (ondasun etorquizun: bienes futuros) (102)  
 eutzi (= utzi)  
 gaitz artu (= dolutu, mindu)  
 gaitzerizte (= gorroto)  
 gazqui (= gaizki)  
 guchi asco (= gutxi gorabehera)  
 guchien guchienaz  
 gueroenean (= azkenik)  
 icheden (= itxaro)  
 ifeni (= ipini)  
 ijuri (= isuri)  
 iguy (= higuin)  
 itaundu (= galdetu)  
 jauchi (= eratxi)  
 llaneza (= lañeza)  
 moeta (= mota)  
 napur (= lapur)  
 paquoso (= paketsu)  
 paratu (= ipini, jarri)  
 (cuidadoa paratu = arreta hartu)  
 pecataritasun  
 razoe (= arrazoi)  
 regu (= erregu)  
 reinua (= erreinua)  
 soin  
 (soiñean eguin = jantzi) (100)  
 urtegui (= urrundu, bereizi)



## AMERIKETAN EUSKAL TESTU ZAHARRAK ARANTZAZUKO AMA BIRJINARI BURUZ

Bilbo, 1992-II-28

Fr. Luis Villasante

Aurten betetzen dira bostehun urte Amerikak aurkituak izan zirela. Txosten hau, bada, alde horretatik behintzat, garai egokian datorrela esango nuke, hango gauzez ari denez geroztik.

Mitxelenak, bere *Textos Arcaicos Vascos* delakoan badakar testu zahar bat Arantzazurekin zer ikusi duena. Aita Luzuriagaren *Paraninfo Celeste*, Mexicon XVII. mendean agertutako liburutik hartua (1).

Nik gaur hemen aurkeztu nahi ditudanak ere XVII. mende horretakoak dira eta Luzuriagak dakarrena baino 40 urte lehenago Liman inprimatuak.

Oraingo hauek Ibon Sarasola jaunak ere ez ditu aipatzen bere bilduman (2).

Jaun hauek desenkusatzeko, esan dezadan gaur aipatuko dudan liburua pratikan ezezaguna eta topaezina dela. Aita Adrián Lizarralde, Arantzazuko Santutegiaren historia idatzi zuenak, aipatu aipatzen du, bai, bere liburuaren hasieran, baina bistan da ez duela ikusi. Egiten duen aipamena bibliografietatik hartua izan da (3).

Arestian izendatu dugun *Paraninfo Celeste* delakoan, orrialde-bazterrean, hots, "in margine", egiten da gaur honera dakardan liburuaren aipamena (4). Hori konprenitzeko, jakin behar da *Paraninfo Celeste* Mexicon agertu zela 1686. urtean eta oraingo hau Liman (Perú) 1647. urtean.

---

(1) LUIS MICHELENA, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, p. 165.—3.2.13 Predicación de los franciscanos contra la brujería.

(2) IBON SARASOLA, *Contribución al estudio y edición de los textos antiguos vascos*; Donostia-San Sebastián, 1990.

(3) ADRIÁN DE LIZARRALDE, *Historia de la Virgen y del Santuario de Arantzazu*, 1950; ikus XXIX. orr.

(4) LUZURIAGA, o. cit., libro I, cap. VI, folio XVII.

Vinson-ek bere euskal bibliografian ez du egiten gure liburuaren aipurik. Jon Bilbaok, berriz, bai (5), baina agerian dago honek ere ez duela liburua bera ikusi. Bibliografi katalogoetarik ari da, seguraski.

\* \* \*

Baina hemen, dagoeneko, bitxia den gauza batekin egiten dugu topo. Hartu Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*, eta hara zer dakarren: "Historia de Nuestra Señora de Aránzazu", Lima 1646. Egilea, berriz, *Juan de Ayllón*.

Jon Bilbaok, esan dudan bezala, ez du, seguraski, liburua ikusi eta bibliographi katalogoetatik ari da.

Aita Adrián Lizarralde 1950ean agertutako bere *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu* liburuan, badakar lehen orrietan Bibliografía orokor bat Arantzazuri buruz eta han ere liburu hau agertzen da Jon Bilbaok dakarren titulu eta data berberaz. Baina Lizarralde badakar jarraian baita Aita Luzuriagak *Paraninfo Celeste* delakoan dakarren aipamena ere, eta esan behar da honek beste titulu eta data bat dakarrela. Lizarralde, bada, bata bestearen ondoren dakartza biak, bi liburu balira bezala. Berak ez du esaten bi liburu direnik, ez daki eta, baina hala du itxura. Ageri da Lizarralde ere ez zuela liburua bera eskutan izan, eta hala uzten du gauza (6).

Zer gertatu da hemen? Bi liburu dira, ala bat? Neretzat ez dago duda-izpirik: ez da izan liburu bat baizik.

Nondik eta nola sortu da orduan nahaspila? Uste dudana esango dut: gure Ordenako bibliografo zaharrek latinez egiten zuten beren lana. Liburuen tituluak ere latinera aldatuak ematen zituzten. Eta, jakina, batzutan ez zen erraza izango tituluok latinera zehazki itzuliak ematea. Esate baterako gure liburuak orria beteko titulua du (7). Orduan XVIII. mendeko frantziskotar bibliografo Juan de San Antoniok zer egin zuen (nere ustez)?. Hartu liburua, Arantzazuri buruz mintzo dela ikusi eta era

(5) JON BILBAO, *Eusko Bibliographia*, Vol. I, p. 399.

(6) LIZARRALDE, o. cit., p. XXIX.

(7) Hona hemen liburuaren titulu osoa: *Relacion / de la grandiosa / fiesta, que se hizo en / este convento de N.P / San Francisco de / Jesús de Lima. / A la colocacion de la mi- / lagrosa imagen de N. Señora / de Aransazu, que a expensas / de Juan de Urrutia, pode- / roso amante de la Virgen se truxo / de España. / Compuesta por el Padre / fray Juan de Ayllon, Predicador mayor del mismo / Convento de N.P.S. Francisco de Iesus de Lima, y / oy Procurador General de Corte de todas las / Provincias del Perú, natural de / la misma ciudad. / Dedicada / a N.M.R.P. Fr. Juan / de Durana Padre de la San- / ta Provincia de Cantabria, / Lector iubilado, Calificador / del Santo Oficio y Comis- / sario General de todas / las del Perú, etc. / Con licencia; impresso en Lima, / por Pedro de Cabrera. Año de 1647.*

honetara jarri zuen latinez: *Historia Dominae nostrae de Aranzazu*, Limae 1646. Baina horrela ez da ematen zehazki ez liburuaren gaia eta ez titulua; eta urtea ere ez. Liburuak berak portadan 1647 jartzen du. Egia da, ordea, lehen orrietan datozen iritzi, baimen eta dedikatorian 1646 jartzen dela eta agian hortik hartu zuen bibliografoak liburuaren data.

Guzti hau esplikatzeko hipotesi hau ere egin daiteke. Bibliografoak eskutan zuen aleak gaineko orria edo portada falta zuela, eta orduan liburuaren data jakiteko aurreko orriak agurtu behar izan zituela, eta horietan, bai, 1646.urtea ageri da.

Gero, XX. mende-hasieran, Sbaralea frantziskotar bibliografoak ere jokalege berbera segitzen du, Juan de San Antonio horri segituz, seguraski.

Dudatatik irteteko, Arantzazuko bigarren bibliotekari den Jose M.<sup>a</sup> Beristainek idatzi zion karta bat Peru-n mixiolari dagoen gure Probintzi-ko Aita Ignacio Urretavizcayari, eta baita honek errantzun ere 1990eko urtarrilaren 21ean. Esaten du, bada, egon dela Limako frantziskotarren komentuko bibliotekaren kargudun den emakumearekin. Eta honen erantzuna hauxe izan zen: berak ez duela ezagutzen liburu bakar bat baizik, garai horretan Arantzazuri buruz mintzo dena, eta ez duela uste besterik dagoenik ere.

Gainera, bibliografo zaharren artean ez du —nik dakidala— inork ere esaten bi liburu direnik. Batak ekarriko du titulua eta urtea era batera eta besteak bestera, hori bai, baina denak ari dira liburu bat baizik ez delako ustetan.

Eta bibliografi istilu honi buruz ez noa deus gehiago esatera.

\* \* \*

Arantzazuri buruz Aita Ayllon-ek inprimatu zuen liburu bakarra eta guk ezagutzen dugun liburu horren ale bakarra Limako frantziskotarren komentuan dago (8), eta horren fotokopia berriki Arantzazura ekarri izan da, eta hori erabili dut nik lan hau prestatzeko. Beste alerik beste inon ba ote den nik ez dakit, baina posible da.

Noiz eta nola lortu genuen fotokopia hori? 1989an izan zen. Aita Lizarralde eta Juan de San Antoniok egiten duten aipamena kontutan harturik, Arantzazuko bibliotekariak (Aita K. Zubizarreta eta Aita J.M. Beristain) pentsatu zuten Limako frantziskotarren komentuan egon zitekeela zerbait. Orduan Arantzazuko bibliotekari-ordeak (J.M. Beristain)

---

(8) Lima-n bi frantziskotar komentu daude, bi Probintzi desberdinetakoak. Batari deritzo Hamabi Apostoluena, eta besteari San Francisco Solanorena. Gure liburua gordezen duena lehenbizikoa da.

eskutitz bat egin zion gure Probintziko fraide den eta Santo Domingon bizi den Aita Victorio Beain-i. Honi idatzi zion oso ezaguna duelako eta bereziki Liman mixioak predikatzen ibilia zelako. Aita horrek, berriz, Jon Kepa Guarrotxenari idatzi zion. Hau ere fraide izana, gero irtena, eta gaur Limako Euskal Etxean lan egiten duena da. Eta berau izan zen komentu horretako bibliotekara joan eta liburu horren fotokopia lortu zuena.

Limatik 20ren bat kilometrotara, Naña izeneko herrian, Konzezioko monjen komentu bat dago eta bertako Abadesa Arantxa Sorazu, Zestoako alaba eta Ama Sorazuren tarterikoa denak, fotokopia hori maitekiro enkuadernatu zuen. Eta azkenik Aita Martin Lopetegik ekarri zuen Santo Domingotik Arantzazura.

Jon Kepa Guarrotxenak karta batean dio Limako ale horrek orri bat eskas duela. Egia esan, nik fotokopia aztertu dut eta huts hori non egon daitekeen ez dut asmatzen.

Liburuaren orrialdeak 102 dira.

Liburuaren neurriak, berriz, luzean 195 mm.; zabalean 130 mm.

Bidezkoa zen liburu aurkiberri honen lehen albistea *Arantzazu* aldizkariak eman zezan, eta hala izan da. Gure idazkari J.M. Satrustegi jaunak idatzi du artikulu bat joan den urtean (9). Aitortu behar dut liburuaren kopia neronek eman nionarren, galdua bezala sentitzen nuela neure burua, liburu horren nondik norakoaz ezin jabetuz, eta Satrustegiren artikulu koskorak asko lagundu zidala. Eskerrak eman nahi dizkiot, bada.

\* \* \*

Delako liburuaren azalean —portadan— hiru pertsonen izenak aipatzen dira: Juan de Urrutia, P. Fr. Juan de Ayllón eta M.R.P. Fr. Juan de Durana.

Esan dezagun zerbait bakoitzari buruz:

1. *Juan de Urrutia*. Pertsona hau, liburuan bertan esaten denez, tolosarra zen, baina Liman bizi zena. Jaun honi bururatu zitzaion Espainian Arantzazuko Ama Birjinaren antza zuen irudi bat eginaraztea, artzain, ardi eta guzti, eta dena kutxa batean sartuz, itsasontziz Ameriketara ekartzea. Callaoko portuan lur hartu zuen kutxa horrek. Handik Limara eramana izan zen, gertu baitago. Bi hilabete eta erdi egin zituen kutxak

(9) J.M. SATRUSTEGUI, "Retazos de la historia menuda de Arantzazu", *Arantzazu*, agosto-septiembre 1991, 29-30.



Juan de Urrutiaren etxean. Bitartean Limako frantziskotarren komentuko elizan obrak egin ziren Ama Birjinaren irudi berri honi tokia prestatzeko.

Dena gertu zegoenean, izugarrizko festa antolatu zen Liman Ama Birjinaren irudia Juan de Urrutiaren etxetik komentuko elizara eraman eta han kokatzeko. Prozesioa hirian barna, meza, predikua etab. egin ziren. Zezenketa ere egon zen. Askotan entzun dugu euskaldunak zezenketen etsaiak izan direla eta izan behar dutela, baina lehenagoko mendeetan ez dut uste beti hala izan denik. Loiolako San Inazio kanonizatua izan zenean, efemeride hori ospatzeko, Azpeitian zezenak kurrutu zirela uste dut, etab. Dena dela, Juan de Urrutiaren kabuz egin zen dena eta berak bere sakeleko diruaz ordaindu zituen kostuak. Bere asmoak zeinen ederki gauzatu ziren ikustean, pozaren pozaz gaztetu egin omen zen Urrutia hori: “bolvió a los años de gallardo moço”, esaten du Ayllonek liburuan (10).

2. Liburuaren azalean ageri den bigarren pertsona, liburuaren beraren egilea da, hots, *P. Fr. Juan de Ayllón*, “Predicador mayor del convento de N.P.S. Francisco de Jesús de Lima..., natural de la misma Ciudad” (Limakoa, beraz).

Ayllón Segovia aldeko herri bat duzue, noski. Ez dakigu fraide honen gurasoak herri horretakoak ziren; hor nonbait ingurukoak, behintzat, baina Ameriketara joanak. Semea, berriz, Ameriketara, Liman konkretuki, jaioa eta Liman bertan frantziskotar egina. Berak, euskaraz mintzo dela, *errico seme* deitzen dio bere buruari, eta erdarara itzultzen du “criollo” (11). “Criollo” hitzak, dakizuten bezala, horixe esan nahi du: espainiar gurasoetarik Ameriketara jaioa.

Ezagun da Ayllón honek hurbildik ezagutzen zituela euskaldunak, frantziskotarren elizara joaten zirelako edo, eta euskaraz ikasteko zaletasun zerbait ere izan zuela. Zenbatetaraino menderatu ote zuen euskara, ordea, ez dakigu. Hona hemen euskaldunei buruz egiten duen laudorioa:

“Alentado pues mi espíritu con el amor que debo a la nación Viscayna, de quien experimenté constante siempre la fidelidad, y repetida la correspondencia en los favores, les hurté un poco de Bascuense por restituírle sonoro, y que entienda el mundo que no es tan corto el language, que por mí habló tan terso y corriente con el dichoso Pastor, a quien apareció tanta felicidad en María” (12).

(10) Ikus 16. folioa.

(11) Ikus 37. folioaren gibelaldea.

(12) Ikus 24. folioa. Pasarte honek badu eite edo antz zerbait (idei-etan) Axularren *Gero*-n ageri den beste batekin. Ikus Ax 10.

Ayllón honek badu oraindik beste liburuska bat Liman bertan 1630ean agertua, latinezko bertsotan egina, Japoiko frantziskotar martirien omezez (13).

3. “*M.R.P. Fr. Juan de Durana, Padre de la santa Provincia de Cantabria*”. Beroni dedikatua dator liburua. Durana Arabako herrixka bat da, Arrazua Ubarrundia udalerrikoa, Zadorra ibaiaren ezker aldean kokatua (14). Ez dakigu, halere, Aita Durana bera hor jaioa ote zen edo jatorria hor zuen soilki. Dena den, arabarra zela dirudi.

Fraide hau Arantzazun irakasle egona zen, gero Ameriketara joana eta han kargu handiak izan zituen. Seguraski euskaldun zen, garai hartan Arabako lautadan euskaraz egiten baitzen. Aita Durana euskalduna zela jakiteko liburu honetan bada frogabide moduko zerbait. Elkar hizketatxo bat dator liburuan Arantzazuko Ama Birjinaren eta Aita Duranaren artean, eta elkar hizketatxo hori euskaraz dago. Ama Birjinak euskaraz agurtzen du Aita Durana. Eta Aita Duranak euskaraz erantzuten dio Ama Birjinari. Hau Ayllonen asmaketa da, noski, baina Ayllonek ez zuen —bistan da— holakorik egingo, Aita Durana euskaldun zela ez baleki.

*Archivo Ibero-Americano* aldizkariak, frantziskotarrek Ameriketara XVII. mendean egindako lanari buruz ateraberi duen liburu gotorrean, Aita Duranaren izena zortzi aldiz gutxienez agertzen da (15).

\* \* \*

Ikus dezagun orain, gaingiroki baino ez bada ere, liburuaren edukina.

Sei kapitulu ditu guztira, eta gero eraskin bat. Baina kapitulu izenik ez da jartzen: “Primer”, “Segundo” eta hola egiten du gaiaren sailkapena.

**Lehenbiziko kapitulua.** Kapitulu honek aparteko garrantzia du, ene ustez. Arantzazuren hasiera nola izan zen kontatzen du, eta, dirudenez, ura —hots, berriak— iturritik hartuz kontatu ere. Tokiari buruz egiten duen deskribapena miresgarria da. Hango mendi, ibai, piztia, arbola, bide eta abarren kontaketa zehatzak dakartza, alegia. Bertan Arteak eta Teologia irakasten direla eta, hain zuzen, Aita Durana jakingai horien irakasle izan zela Arantzazun dio.

Arantzazu inguruan bizi diren piztien artean tigreak aipatzen ditu. Baina jakin behar da gaur “lince” esaten zaionari deitzen ziotela tigre.

(13) “Poema de las fiestas que hizo el convento de S. Francisco de Jesús de Lima a la Canonización de los 23 Martires del Xapón”; Lima 1630; 87 págs.

(14) A. Baratciart, Iparraldeko euskal idazlea, Duranan jaioa zela baieztatuz, eginberri du E. Knörrek artikulua bat prentsan.

(15) *Archivo Ibero Americano*. Actas del III Congreso Internacional sobre los franciscanos en el Nuevo Mundo (siglo XVII); enero-diciembre 1990.

Neronek ere Arantzazuko baserritar zaharrei entzuna diet lehenago Arantzazun tigreak egoten zirela. “Venta de Arricruz” ere aipatzen du bere izen eta guzti, eta hauxe esaten du: “de cuyo sitio toman camino para Alaba y Rioja” (16). Eta hala da, Calahorrako galtzada deitzen zen antioaleko bide hori igarotzen baitzen hortik. Gaur erdi galdua dago bide zahar hau une batzuetan, behintzat.

Arantzazuko errekez, berriz, esaten du Guezalsan (sic) harkaitz artean ezkututzen dela eta lekoa-laurden bat igarorik, berriz ere agertzen, Oñati aldera joaz.

Nork esan zizkion “criollo” horri hainbeste xehetasun hain zehatzak? Aita Duranak ez ote? Seguraski Aita honek, arabarra izanik, behin baino gehiagotan hartuko zuen Arrikruzko galtzada zahar hura.

Gainerako kapituluetan kontatzen da nola egin zen Arantzazuko Ama Birjinaren irudiaren kopia bat, itsasoz Ameriketara eraman eta Limako frantziskotarren elizan jarri, gertaera hau handikiro ospatuz. Baina horretaz mintzatu gara jadanik eta ez goaz berriz errepikatzeraz.

Nolakoa da liburu honen idaztankera edo estiloa? Barrokoa eta kontzeptista oso. Greziar eta erromatar mitologiaren mila aipamen ditu. Zinez, ez da irakur erraza eta ez gaurko gustukoa ere, baina halakoa uste dut zela orduko usarioa. Mirakuiluak nonnahi ikusten ditu. Hori ere XVII. mendeko Espainiaren ajea zela, gauza jakina da.

\* \* \*

Eta beste gabe, goazen liburuan datozen euskarazko pasarteak azaltzera. Bost pasarte labur dira. Horietaz gainera, badira euskarazko hitzak hor-hemen sartuak erdarazko edo euskal-erdarazko bertsotan datozenak, eta olerki batzuk erdara txarrean, euskaldunen erdara traketsa imitatu nahiz, dirudienez.

Hona hemen bost pasarteok:

1. **Aurrenengoa** (17). Ikus dezagun lehenik testu-ingurua, testua bera ulertzeko beharrezkoa baita. Saba-ko erregina esku-erakutsi handiekin etorri zen Salomon ikustera (18). Arantzazuko Ama horrelaxe etorri da Ameriketara Aita Durana ikustera, eta honako elkar hizketa hau egiten dute bion artean. Ama Birjinak —hots, “la Viscaynita Soberana”— diosala hau egiten dio Aita Duranari: *Agur mi arsaya. Mi hori erdaraz dago, noski. “Hola, mi pastor”, edo horrelako zerbait esan nahiko du.*

(16) Ikus lehen folioaren gibelaldea.

(17) Foliatu gabe dauden lehen orrietan dator, Aita Duranari egiten zaion liburuaren eskaintzan.

(18) Cf. 1 Reg. 10, 2.

*Arsaya s*-kin dago. *Za-*, *ze*, *zi* etab. gehienetan *s-z* idatziak dakartza liburuak, bai erdaraz eta bai euskaraz, eta hori da, ene ustez, Ameriketako zabaldu den erdara-modua; eta ahoskera horren ondorioz, bai euskaraz eta bai erdaraz, liburu honetan *s* asko dago. Adibidez: *apassible*, *serro* (cerro), **Aransazú** (azentua azkeneko bokalean jarririk), etab. (19).

Ikus dezagun orain nola erantzuten dion Aita Duranak Ama Birjinaren agurrari. Honela dakar Ayllon-ek:

“Y Vuestra Paternidad muy reverenda *veguitatuta ederra*, respondería *velarico*.”

*Veguitatuta ederra*. Esaldi hau berriz ere agertzen da beherago, erdal itzulpen eta guzti (20). Eta ez da dudarik han bezalaxe itzuli behar dela hemen ere, hots, “habiéndole visto tan hermosa”. Nik uste dut Ayllón hori euskaldunen ahotan entzundako esaldiez baliatzen dela liburuan.

*Veguitatuta ederra* respondería *velaricó* = Habiéndola visto tan hermosa —Ama Birjina, noski—, respondería de rodillas.

*Velaricó*. Gaur *belauniko* esaten dugu, noski. Azkueren hiztegian *belhariko* Zuberoako gauza bezala azaltzen da (21).

Eta segituan dator Aita Duranak Ama Birjinari erantzuten diona:

*Cautivaturi naucam ene lastana*. “Me tienes cautivado, mi amada”.

Ama Birjinari zuzendutako hitzak dira, noski, eta horregatik, emakumeari hitz egitean erabiltzen den adizkia jartzen du (egia esan “*m*” dakar, “*n*”ren orde, errataz edo): *naukan* = “me tienes (cautivado)”...

\* \* \*

## 2. **Bigarren testua** (22)

Juan de Urrutiaren ahotan ipintzen du Ayllonek pasarte hau:

*gloria gustia etorri da neure echera i etorriagasic* (sic).

Hemen Ama Birjina *i*-ka tratatua agertzen da. Uste dut *gatic* behar lukeela esan, baina *gasic* dator, errataz seguraski.

(19) Ameriketako zabaldu den gaztelaniak Andaluzia eta Extremadurako-aren marka du, eta beste gauzen artean “seseoa” hortik dator; *ce-*, *ci*= *se*, si ahoskatzen dute, alegia. Baina Extremadura eta Andaluziara jo gabe ere, Euskalerrian, batez ere Bizkaian, seseo hori komunzki egin ohi da jende arruntaren artean, bai euskaraz eta bai erdaraz mintzatzean.

(20) Ikus 24.folioaren gibelaldea.

(21) Ikus Azkueren hiztegian *Belharika*, *belhariko* (S) de rodillas.

(22) Laugarren kapituluan dator, 18. folioan.

Beraz, itzulpena hauxe izango litzateke: “Toda la gloria ha venido a mi casa por haber venido tú”.

Jakin behar da hau ulertzeko, Juan de Urrutiaren etxean egon zela Arantzazuko Ama Birjinaren imajina bi hilabete eta erdiz, elizan egin behar ziren prestamenak egin arte. Horrekin du zer ikusi esan honek.

\* \* \*

### 3. Hirugarren testua (23)

*Cuidade gustia, guisonac eta andreac, saltasen daue contentuarequin.*

“Toda la ciudad, hombres y mujeres, saltan de contento”.

Hitz hauek ere Juan de Urrutiaren ahotan jartzen ditu Ayllonek.

Hemen agertzen den adizkera, *daue*, bizkaierazkoa da, noski.

\* \* \*

### 4. Laugarren testua (24)

Ama Birjina arantzan jartzerakoan, Ayllonek hitz hauek zuzentzen dizkio Juan de Urrutiari:

*Yre viosa esta cavisen contentuz gorpucean.*

Eta Ayllon berberak honela itzultzen du: “Tu corazón no te cabía de gozo en el cuerpo”.

“No te cabe” behar luke, baina berak hala dakar.

\* \* \*

### 5. Boskarren testua (25).

Arantzazuko Ama Birjinari buruz ari dela, honako hau esaten du Ayllonek:

*Eta milagroric andiena da ni isanda errico semea yracasi deust eusqueràs.*

Pasarte hau honela itzultzen du Ayllon berberak: “Y el mayor milagro es que siendo yo Criollo, me a enseñado Bascuense”.

Beraz, “criollo” esateko, *errico seme* darabil gure Ayllonek.

Eta kasu *deust* bizkaierazko adizkiari.

\* \* \*

(23) Ikus 18. folioan.

(24) Ikus 34. folioa.

(25) Ikus 37. folioa.

Pasarte hauezaz gainera, liburuan datozen erdal olerki eta bertsoetan badira euskal hitzak edo erdara-euskaraz egindako bertsoak eta horietako hitz batzuk bederen aipagarri direla uste dut (26).

*sure amea* = tu madre.

*Ama* hitzak gaur ez du artikulurik hartzen. Halere, bizkaieraz behintzat, txorien amari buruz edo, mintzatzean, entzuten da *amea*. Hemen Ama Birjinari deitzen zaio hala.

*Iracuçi deu çuri* = te mostró a ti.

Badirudi *deutsu* behar lukeela, baina horrela dator.

*Veguiratuta ederra* = “aviendote visto tan hermoso” (sic). Esaldi hau gorago, aurrenengo testuan ere azaldu zitzaigun.

Ondoren erdaraz *Décima* deitzen den motatako bertso bat dator (27). Bertan nik esango nuke teologi ikuskera baten puntta edo hasiera bat sumatzen dela. Ama Birjina aurkezten zaigu, alegia, Jainkoaren egontoki edo etxea bezala.

Hona hemen *Décima* delako horren zati bat:

*Oy asco eman didasu  
Pues mis ojos Xauna ydoro  
En vos mi Virgen xausoro  
Que se puso aransazú...*

Oharrak: *Didasu*: hemen gipuzkerazko adizkiaz topo egiten dugu.

*Xauna*, *Xaungoicoa*, *Xausoro*. *X* honek gutigorabehera gaur euskaran daukan balioa bide du. Eta halakoa zuen orduko gaztelanian ere. Adibidez: “truxo” (gaur *trajo*), “México” etab.

*Ydoro* bizkaierazko hitza, gaur behintzat. Axular-ek *ediren* dakar.

*Xausoro* “casa solariega” itzultzen du Ayllonek. Beraz *jaunaren sorora*.

*Aransazú*. Toki honetan alusio bat dago hitz honen herri-etimologiari (“Vos en el Espino”).

Beherago *décima* horretan bertan datoz bizkaierazko adizkera hauek: *gagoz* eta *zagoz*.

Liburu honetan maiz agertzen da *i* bigarren pertsonaren izen ordaina, baita Ama Birjinari hitza zuzentzean ere, baina *zu*-rekiko formak ere ez dira falta.

(26) Ikus 24. folioaren gibelaldea.

(27) Ikus 25. folioa.

*eman didasu*, horra gipuzkerazko adizkera.

*Iracuci deu çuri* = “te mostró a ti” (28). *Deutsu* behar lukeela dirudi. *Iracuci deutsu çuri*, alegia.

*Xaungoycoari*. “al Señor de lo alto”.

\* \* \*

Garrantzizkoak ote dira liburu honetan azaltzen diren euskal testuak? Eta hasteko, zer euskalkitakoak ote dira?

Euskalkiei buruz agirian dago, ene ustez, bizkaiera eta gipuzkera direla hor nagusi.

Garrantziari buruz ez dakit zer esan. Antzinasun aldetik ez dira gutxiestekoak. Gainerakoan, ez dakigu Ayllon horrek zenbatetaraino menderatzen zuen euskara, baina Lima-n XVII. mende erdian euskaldunen kolonia aski ugaria zela bistan da, eta azken batean gertakizun hori du oinarrian liburuak.

\* \* \*

**Eraskin gisa.** Bukatzeko, eta bide batez, aipatu nahi nuke —aipatu bakarrik— Arantzazuri buruzko beste liburu zahar bat, gaur aurkitzen zaila dena. Iparraldekoa da, gainera. Behin baino gehiagotan gogoarazi nion Lafitteri, baina berak ez zuela sekula ikusi esan zidan.

Julien Vinson-ek bere *Essai d'une bibliographie de la Langue Basque*-ren bigarren tomoan dakar (29).

Francisque Michelek ere *Le Pays Basque* liburuan aipatzen du. Liburu ttipi bat da edo zen, bertotan egina, eta 1778an inprimatua. Beronen titulua: *Aranzazuco Misterioa*. Eta tituluaren ondoren honako hau dio edo zioen liburuak: “Miracuillu hauc tradituak dira Españoletic Aranzazuco Misterioaz mintzo den liburutic, hainitz guizon handi eta zuhurrec aprobatutic, eta tratatuac asco miracuilluen artetic. Bayonan, Piarres Fauvet, Imprimatzailea baithan, Carmesetaco aldean”.

Vinsonek dio ez dela gaur liburu honen ale inprimaturik ezagutzen, baina bai eskuzko kopiak, beharbada ez osoak. Berak ezagutu omen du bat eta kopia honetatik kopia berri bat egin ere duela dio. Vinsonek utzitako paperen artean baliteke berak egindako kopia hori egotea...

Liburu honen iturria Aita Luzuriagaren *Paraninfo Celeste* delakoa da. Liburu hau, gorago esan genuenez, Mexicon inprimatu zen 1686. urtean,

(28) Ikus 24. folioaren gibelaldea.

(29) VINSON, o. cit., II, 587 orr.

eta lau urte geroago argitalpen berriak egin ziren, bai Madrilen eta bai Donostian. Biak urte berean (1690ean).

Ikusten duzuenez, euskarazko liburutto hau ez da bestea bezain zaharra, Frantziako Iraultza baino pixka bat lehenagokoa baizik. Lapurtarrez dagoela bistan da. Eta gauza hau ez da hain harrigarria, bai baitakigu Lapurdiko arrantzaleak Arantzazura errones etorri ohi zirela, eta gero, Espainia eta Frantziaren arteko gerlengatik hona etortzerik ez zutenean, Arantzazuren errepika edo birlandaketa bat jarri zuten, hots, Ainhoako Kaperak, eta geroztik hara joaten ziren (30).

Ea, bada, Iparraldekoen batek liburutto honen alerik edo kopiarik bederen eskuratzen duen. Halabiz.

---

(30) Ainhoko kaperaz ikus J. Olhagarayren liburuska.—Iparraldetik Arantzazura etorri ohi ziren Lapurdiko beilariez, ikus *Euskera*, 1989, 371.



## **EUSKARA TESTAMENDU ETA AZKEN-NAHIETAKO IDATZIETAN**

*Bilbo, 1992-IV-24*

*Patxi Zabaleta*

### **1. HIZKUNTZAREN ERABILPEN OFIZIALA ETA BIZIMODUA**

Gauza jakina da pertsonaren bizimoduan, edozein pertsonaren bizimoduan, erakunde eta Administralgoarekiko harremanak gero eta ugariagoak eta gero eta garrantzitsuagoak bihurtu direla. Ezinbesteakoak gehienetan.

Gizarteko harremanak, jaiotze ber beretik hasi eta hilobirainokoak, (edo errahusterainokoak) gero eta gehiagotan loturik daude Administralgoarekiko harremanen sareetan. Baimenak, berriemateak, eskakizunak, erregistroak, aseguntzak, pentsioak, zergak, subentzioak, jubilazioak, salneurriak, osasun zaintzeak, heritetxeak, zaharretxeak... Eta hori guztia komunidabideek gure inguruan sortu duten saretzar guztiarekin eskutik harturik gainera.

Pertsona bakoitzaren bizimodua eta bizibidea bera ere harreman guzti horietatik zintzilik eta askotan horien menpean gelditu da.

Harreman guzti horietan, bitarteko diren tresnetako bat, ez bakarria alegia, idazki ofizialak dira. Idazkiak, izkiriaturak, eskriturak... Idazki ofiziala edo publikoa, pertsonala soilik ez dena alegia, gizarte osoarengan ondorioak izan ditzakeena da; eta ez bakarrik pertsona bat edo batzuenengan eraginik duena, baizik eta beste hirugarren batzuekin eta gizarteko harremanei dagokionez eragina eta ondorioak dituena.

Horren ondorioz eta ziurtasun juridikorako, idazki publiko horiek alde batetik mota ezberdinetako Erregistro edo zerrendakin publikoetara eraman ahalak edo eraman beharrekoak ohi dira; eta bestalde fede publiko deitutakoaren fidagarritasunaz orniturik daude.

Idazki publiko eta ofizial horiek pertsona bakoitzak bere hitzarmenak, eskakizunak eta borondate edo nahimen adierazpenak egiteko eta

ezartzeko erabil ditzake. Baina baita ere bete beharrak zehaztu eta onartzeko, ondasunak zaintzeko eta ziurtasun juridikoa, gizarteko bere harremanetako, besteekin zuzpertzeko.

Idazki horietako batzu ordea, gehienak, herritarrek beren borondatez eta aukeraz hastaspena emanez sortzen dira. Hau da, pertsonen edo herritarren borondatea eta nahia dira idazki horien taiua eta hizkuntza baldintzatzen dituen oinarri eta iturburua.

Baina gaur egun halere, zenbat idazki, zenbat eskritura egiten da euskaraz?, zenbat euskaldunek eskatzen ote du euskaraz egin dakizkion eta euskaraz ipin daitezen berak euskaraz pentsatu dituenak, euskaraz esan dituenak eta, ziur aski, euskaraz hobekienik ulertuko lituzkeenak? Eta ikusiko dugun bezala, hori hain gutxitan gertatzen baldin bada, zergatik?

Soziolinguistikako arazo eta eztabaidatan gehigi murgildu gabe esta zerbakiak ematen hasi baino lehen zera aitortu nezake betiere, euskaldunok —oro har— ez dugula oraindik behar hainako konfidantzarik geure hizkuntzarekin. Mendeak zehar atzera jo beharko genuke horren arrazoinen bila, latinera, Administralgoaren izaerara, soldaduskak hainbestetan ezarri duen herbesteratze horretara, Erdi Aroko gizarte motara agian eta abar. Baina ikus ditzagun zerbaki batzu!

## 2. AZKEN URTE HAUETAN EUSKARAZ EGIN DIREN IDAZKI edo IDATZI NOTARIALAK

— Beste erabilpen ofizialez beste lan batean arituko naiz. Oraingoan izkribu edo idazki publikoez mintzatuko naiz...

Hegoaldeko Euskal Herria Notaria barrutiei dagokionez bi zatitan banaturik dago. Iruñeko barrutikoak dira, oraindik, Gipuzkoan eta Nafarroan ari diren Noratiak; lehen izkiriauak deitzen zirenak; Leitza eta Larraun aldean berriz ‘exkurrauak” deitzen ziren eta deitzen dira oraindik (bada gainera Leitza *EXKURRAUEN BORDA* izen zaharra duen baserria). Araban eta Bizkaian lantokia duten exkukendurrauak berriz, Bilboko Notaria barruti edo Kolejiokoak dira.

Hona Gipuzkoa eta Nafarroa osoan azkeneko zortzi/hamar urte hauetan kendu euskaraz egin diren idazki notarialen zerrenda:

1.—SALEROSKETAK.....	25
2.—AZKENAHIAK (TESTAMENDUAK).....	25
3.—ORDEZKARITZA AGINTEAK.....	8
4.—TRUKAKETAK.....	1
5.—ELKARTEAK.....	2
6.—DIRU MAILEGUA.....	1

Gaur egun Nafarroan eta Gipuzkoan ari diren exkurrau guztiei galde egin zaie eta beraien bulegoetatik eman diren zehaztapenetatik ateratakoa da berri hori. Iruñeko Notaria Barrutiko bulegoko arduraduna den Joakin Azpirotz jaunak egin du galdaketa 1992.ko apirilak 22.an.

Exkurrauek egiten dituzten idazkiak hoegi urtez eduki ohi dira bakoitzaren bulegoan; baita exkurraua bera aldatzen bada ere. Gero Notaria Barrutiko egoitzetara beretara eramaten dira eta azkenik ehun eta hogeitaz urte ondoren Dokumenduen artxibategira sartzen dira. Horrengatik bada, nahiz eta gaur egun dauden exkurrau guztiak ez daramaten oraindik zortzi edo hamar urte, beren bulegoetan epe horietako idazkien berriak jakinak dira eta beraien erantzunetatik jaso da, goian aipatutako laburpena. Iruñean urterik gehiena daraman Exkurrauek, Juan Garzia Granero jaunak alegia, ia hogeitamar urte darama eta bere bulegoan ez da inoiz egin izan ez euskaraz egindako idazkirik eta eztaere ez du inoiz eskariarik eduki.

Baina bere laguntzaile nagusia den Migel Anjel Moreno, Notariako Ofizialak dioenez, lehenago beste hamabi urtez lan ber berean aritu omen zen Don Juan San Juan Otermin exkurrauentzat. Azkeneko hau Lakuntzako zen, euskaraz bazekiena, baina exkurrau edo notaria jaun horrek ere ez zuen, gutxienez bere azkeneko hamabi urte horietan ere, idazkirik euskaraz egin. Are gehiago, exkurrau honek, nahiz eta euskara maite izan eta gainera pozik erabili bere herrikoekin batez ere, lotsa pixka bat bezala omen zuen euskaraz ari zenean. Eta bitxikeria bada ere adierazgarria da, bere lantegian aritutako Moreno Jaunak dioena aipatzea: langelako atea beti eta edozertarako irekirik edukitzen omen zuen San Juan notaria zenak, bi kasu zehatzetan ezik, emaztearekin hitzegin behar zuenean eta euskaraz hitzegiten zuenean; Ez beste inoiz!

Eta non egin ote dira euskaraz idatzitako horiek ordea?

**Nafarroari** dagokionez, Elizondon ez da idazkirik egin euskaraz azkeneko zortzi urte hauetan; eztaere Lesakan, ez Altsasun eta eztaere Lekunberrin. Erribeheran zer esanik ez. Iruñean berriz azkeneko bost urte hauetan bakarrik bi idazki edo eskritura egin da euskaraz: Ordezkaritza aginte bat (: poder bat) eta azkenahi edo testamendu bat. Eta ez besterik.

**Gipuzkoan** berriz, ez da idazki bat bakarrik euskaraz egin, gezurra badirudi ere, azkeneko zortzi/hamar urte hauetan hurrengo herri hauetan: Azpeitia, Segura, Zumaia, Hondarribia, Hernani, Pasaia, Erreterria, Ordizia, Beasain, Bergara, Elgoibar, Oñati eta Zumarragan; exkurraua duten herriak aipatu dira alegia eta gogoan izanik herri horietako exkurrau bakoitzak baduela beste herri mordoxka bat ere bere lanaren adierazpenetarako. Zarautzen 12 salerosketa egin da euskaraz eta bi azkenahi edo testamendu; Eibarren, bi testamendu eta Tolosan Ordezkaritza bat; Arrasaten salerosketa bat eta trukaketa bat.

Gogoan izan behar da gainera esate baterako udalek beren lekukoa den exkuarrauarekin idazkiak egitera beharturik daudela eta ondorioz batzuetan harritzekoa eta guzti dirudi egoera honek, gogoan izanik euskara hutsa erabiltzen saiatzen diren herriak badaudela eta elebiduna aitortzen den Administralgo bat dagoela.

Gainera, Gipuzkoan, exkurrau edo notaria jaun batek bakarrik (eta notaria jaun hori, Pedro Baraibar jauna jatorriz nafartarra da) eginak ditu guzti horietatik: 12 salerosketa; 20 azkenahi edo testamendu; 1 diru mailegua edo zorketa; 6 ordezkari eta aginteak; eta 2 elkarte.

**ARABARI** dagokionez Don Alfredo Perez Avila jaun Notaria da euskaraz idazkiak egin dituenak. Exkurrau honek esaten didanez lehen Ondarroan egon zen, gero berriz Bergaran; eta leku horietan egin zituen euskaraz lanen batzu; ondoren Gasteizera joan zen eta hor, berak dioenez, azkeneko urte hauetan SEI idazki edo eskritura ditu euskaraz egindakoak; horietatik bi azkenahiak dira; beste bi berriz salerosketako hitzarmenak; bat, elkarte baten sortze eta tajutzea; eta azkenik beste bat, senar emazte arteko elkargoari eginiko emaitza edo ahortaketa bat.

**BIZKAIARI** dagokionez Andres Urrutia Ondarroako exkuarrauarekin eta Don Juan Ramon Manzano Malecheberria Bilbon ari denarekin hitzegin da. Urrutia jaunak dioenez urtean 35 idazki inguru egiten ditu, urte osoan egiten diren 1.700 idazkien artean. Horietatik 6/7 salerosketak dira; besteak berriz ordezkariak edo poder edo aginteak, gero testamenduak, diru maileguak, eta abar. Manzano jaunak aditzera ematen duenez euskaldun berriak dira batez ere euskaraz egindako idazkiak eskatzen dituztenak, eta ez euskaldun zaharrak, nahiz eta behar bada Ondarroko kasua aztertu beharko litzatekeen berezia bezala. Eta beste berezitasun bat, testamenduak edo azkenahiak han hemenka ugaritzen ari diren bitartean, oinordekotza onartu eta eskuratzeko egin behar diren idazkien adibiderik ez da askotan ageri, nahiz eta hor diren, elebidun bezala eginak Bergarako Olaso Dorreko Fundazio edo erakundearen sorrerak eta holakoren batzu.

Bizkaiko Aldundiko idazkiek ere aipamen berezia merezi dute, zeren eta J.M. Makuaz geroztik, hau da Makua jauna diputatu nagusi izan zenez geroztik, eta nonbait hark emandako aginduak tinko diraelko edo, beti elebidunak egiten omen dira.

Gainera aipatu beharko litzateke ere beste baldintza eta mugapen garrantzitsu bat, hona zein alegia: idazkirik edo izkiriaturarik gehien gehienak ondoren beren indarrari eta baliobideari eusteko, errejistroren batean igaro eta ezarri behar izaten dira. Salerosketa edo jabegoa adierazten dutenak propietatearen errejistroan; elkarteak merkantilean; errejistro zibilean berriz ezkontzaren ondoriozko aldaketa eta berezitasunei dagozkionak; azkenahiak ere azkeneko nahien errejistroan. Eta esate

baterako Nafarroan, nahiz eta euskara ofiziala izan lur eremu batean, gero lurralde horretan egiten diren izkiriatura notarialak beste nonbait eta ez lurralde euskaldunean dagoen erregistroan ezarri eta onartu behar dira. Esate baterako Elizondon egindakoa Iruñean. Baina gainera azken nahien erregistroa bat bakarrik da estatu guztian, Madrilen hain zuzen ere.

Bestalde ohitura nire ustez txar bat eta guztiz gaitsetsi beharrekoa mamitzen ari da ere guzti honen inguruan eta zera da, itzulpenak erabiltzearena. Idazkiak espainolez egin, badaezpadare baserritarren batek esanen lukeen bezala eta gero ondoren itzulpenak erabili, ziurtaturik badira ere... Horrelakorik maizegi egiten hasi ote direlakoan nago. Gainera Juan Ramon Manzano exkurrau jaunak dioenez, mailegu hitzarmenak egiterakoan beste arazoren bat ere sortzen da, eta hain zuzen ere, aurrezki kutxatako ordezkariak sortzen dituzten istiluak eta gora beherak eta kezka eta zalantzak direla eta.

Beste galdera mota batzu ere eginak ditut; esate baterako Nafarroako Gobernuko Zerga Kudeaketako Zerbitzuko Zuzendaria den Mikel Aramburu jaunak dioenez, zerga ordaintzera ihazko urte osoan, eta euskaraz soilik egindako BI IDAZKI aurkeztu zen; eta aurrean oraindik bat bakarra. Euskara soilan egindako testamendurik ez da ordea aurkeztu bi urte hauetan. Zergatik ote?

Ez da txiripa edo kasualitatea. Erantzuna soziolinguistikaren alorrera doakigu zuzen zuzenean. Eta alor hortako erantzunera garamazki nor beraren arazoetan, nor beraren etorkizuna, zorrak eta bete beharrak ukitzen direnean, orduan azpi azpian ziurrera jotzen dugulako, eta ziurtasuna oraindik gure subkonszientearen diglosia horrek espainol edo frantsesean aurkitzen du. Agian ez gaude oraindik Afrikara soldaduskara joandako erdaraz idazten duen euskaldun hertsiarengadin hain urruti, Don Juan San Juan Iruñeko notaria ohia ez zegoen bezala...

Nafarroako Gobernuoko Erregistro Orokorreko arduraduna den Karlos Larraia jaunak ordea beste berri bitxia eman digu, eta neurriren batean esaten ari garen gehienarekin kontrari jarria iduri lezakeena; hain zuzen ere erregistro orokor delako hortan sartzen diren dokumentu eta eskariatatik %5.etik 10.era euskaraz sartzen dela; elebiduna horietatik erdiak baino gehiago eta batez ere eskaria eta subentzio eta ariketa kulturelei dagokionez, baina baita ere udalen harremanei dagokionez erruz eta azkar ugaritzen ari dela euskararen erabilpena. Bera eta bere lankidea euskara ikasteko egunean bi ordu ematen hasiak omen dira.

Ezin ahaztu halere bai Nafarroako Gobernuoko Erregistro Orokorrean, nola Hazienda Foralekoan, nola eskurrauen barrutian, ez zeukatela euskararen erabilpenari buruzko zenbaketarik, ezta ere kriterio zehatzik. Gehienetan itzultzaile ofizialen menpera erortzeko zorian izaten dira. Eta

ezagunak dira baita ere euskaraz idazkia egiteagatik itzultzaileari ordaina eman behar izan dion nor edo noren kezak.

Egoera aztergarria benetan! Garai batean aldizkariak euskaraz egitea, edo egiten hastea, Damaso Intza hasi zen bezala, 1913.an ez zen erraza; ondorean irratiak, telebista bera eta egunkaria ere zailak, guztiz zailak diren bezala. Horiek denak sortu ziren eta badiraute; buletinak ere euskaraz egiten dira egunero eta euskara mota bitxi eta zaila sortzen eta lantzen ari dira.

Baina halere nor beraren eskubideak, etorkizuna eta ahalmena tajutzen eta bideratzen dizkionak euskaraz idaztea oraindik zailagoa da... gogoan izan behar da mendeak daramazkigula euskaraz ezkondu esate baterako eleizan eta gero espainolez edo frantzesez idazten eta mendeak ez dira berehalakoan ahazten.

### 3. AZKENAHIAK ETA TESTAMENDUAK. NAFARROAKO EGOERA

Baina idazki publiko edo notaria izkiriaturatan ordea, bada bitxitasun bat euskarari dagokionez. Azkenahi edo testamenduei dagokiena.

Hizkuntza autonomikoen egoera berezia, Konstituziotik eta Estatu-tuetatik dator, hemen Espainiako estatuan. Bai Kataluñiari edo Euskal Komunitate Autonomoari dagokionez, edo baita ere Galizari edo beste edozein hizkuntzaren egoerari buruz. Hizkuntza horiekiko diren eskubide guztiak Konstituzioaren beraren artikuluko edo ataletako oinarritatik abiatuak dira...

Baina Nafarroako Foru Berria lehenagokoa da, eta lehen zen bere hartan dirau. Bere 192.legeak hona zer dioen: Nafartarrek beren azkenahia euskaraz egin ahal izanen dute.

Ondoren, eta exkurrauren aurrean egin nahi baldin balitz azkenahi hori, eta exkurrau horrek euskaraz ez baleki, lekukoak behar izanen direla eta abar baldin badio ere, horrek guztiak ez dio inolako indarririk kentzen lehenengo eskerari.

Azkenahia edo testamendua ez baita bakarrik eskuarran baten aurrean egiten ahal. Badaude beste tankerko azkenahiak ere, esate baterako "olografoa" deitzen dena, guztira ezkuz azken borondatzea ezarri nahi duenak idatzia alegia; edo Nafarroan baita apaizaren aurrean edo lekukoaren aurrean egindakoa ere, egoera larrian aurkituz gero.

Orduan bada nafartarrok azkenahia euskaraz egiteko ahalmena dugu, eta inolako lurralde mugarik gabe. Horrek esan nahi du orduan, nafartar batek bere testamendua euskaraz Madrilen egiten badu ere baliaduna

dela. Baita atzerrian egiten baldin badu ere. Bai exkuarruaren aurrean egiten badu edo olografoa edo beste mota batetakoa egiten badu ere.

Bai Konstituzioak, nola Estatutuek eta Nafarroako Amejoramenduak berauen artean —denak—, lurralde mugaketa edo oinarria ipintzen dute, territorialitatea. Konstituzioak hizkuntzaren ofizialtasuna aipatzerakoan gaztalaniaren ofizialtasun orokorraz eta jakin beharraz gainera, beste hizkuntzak ERE ofizialak izanen direla dio, zein bere lurraldean eta bakoitzaren estatutoak eratuko duen erara. Estatuto eta Amejoramenduak oinarri hori dute abiapundu. Baina gainera, jakina den bezala Amejoramenduak bere 9.artikulu tamalgarrian Nafarroaren barruan bi zati sortzen ditu; gero Vasconcearen legeak gainera beste eremu mixto deitutako sortzen du. Baina guzti horiek ez dute ez ukate eta eztaere aldatu Foru Berriko 192.legeak ematen duen eskubidea. Kriterio edo eskubide pertsonala, ez territoriala, zauden edo dagoen tokitik at den eskubidea. Ez bakarrik konstituzioaren aurrekoa edo lehenagokoa, baizik eta baita ere gainditzen duena.

Nafarroako Foru berriaren lege hau Francisco Salinas Quijada, idazle oparoak bere Derecho Civil de Navarra Bildumako VI liburuko edo tomoan azterzen du (297. orrld.). Lakarra eta Santamaria, Foru berria egin zen baino lehengoko aztertzaileak aipatu ondoren, foru berria egiteko erabili ziren textuak ere ematen ditu. 1.970. lehen urteetan ari gara. Legegintza hortan Diputazioak izendatutako batzorde bereizi bat aritu zen eta gero Estaduko jefaturatik zuzen zuzenean ontzat hartu zen, Españaiko Gorteetatik ere igaro gabe, ez zezaten eskurik sar.

Hori baino lehen, Lakarra eta Santamariak euskarari dagokionez uste zutena da euskara, nafartarrontzat eta Españaiko estaduari dagokionez hizkuntza arratza bezalatsu erabil zitekeela. Baina esandakoetan gelditu zen eta dirau. Ez dago argi nork idatzi zuen lege horren edukina. Nire ustea da, Gartzia Granerok berak egin ote zuen edo.

Ondoren Tuterako Salinas jaunak aipatzen du Nafarroako mendialdean azaltzen direla testamendu elebidunak lege hori baino lehen eta agian ohitura horrek sorrerazi zuela lege hori. Ezin izan dugu ziurtatu eta egiaztatu holakorik.

Gehiago oraindik; Foru Berriaren aztertzaile den Fernandez Urzainki epaile jaunak eta bere taldeak egin dituzten azterketatan ez da jurisprudentziako berririk ematen.

Aranzadi editoriala bera, Espainia guztiko legeak argitaratzen dituen alegia ere, galde egin dugu ea ba ote den lege honi buruzko epairik edo jurisprudentziarik eta ez da bat bakarrik ageri. Galdetu ere egin diet Editorialekoei beraiei, baina berririk ez dutela eman dute erantzuna. Hori ber bera egiaztatu du baita ere Aranzadin lan egin eta Iruñeko abokatuon dekanoa den Angel Ruiz de Erentxun jaunak.

1.906-ko epaiketa baten berri eman digu Andres Urrutia exkurrau jaunak, Tolosako espainolez egindako testamendu bati buruzkoa alegia, euskaraz irakurri zitzaielako edo ez zutelako behar bezala ulertu edo holako arazoengatik sortutako istilurengatik ordea; baina ez euskaraz egina zegoelako.

Azkenean jaunok laburbiltzeko lan laburra:

Lege bitxi bat, oso gutxitan erabilia, gutxiegitan, euskaraz azkenahia egiteko eskubidea nafartarroi ematen diguna.

Galdera zera da, ea zergatik euskaraz dakitenak, euskara erabili ere egiten dutenak, askotan euskal giroko inguruan bizi direnak ere, ea zergatik horiek ere mailegu bat sinatu behar dutenean, badaezpadaere —horixe baita hitza— badaezpadaere, zergatik erderara jotzen duten.

Erantzuna, jaun-andreak, ez dago legean.



**BERRIAK**



Urtarrilaren 5ean Irisarrin, mezatik landa, egin zaio omenaldia Emile Larre euskaltzain eta herriko erretorari Bertsolarien biltzarrak antolatuz. Gero denak joan dira Baigorriara eta han ukan du Emile Larrek bertsolarien omenaldia. Besta horretan euskaltzainburuak eskaini dio Emile Larrerri Euskaltzaindiaren oparia.

\* \* \*

Urtarrilaren 19an Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta euskaltzain urgazlea eta Emile Larre euskaltzaina omendatuak izan dira Donostiako "Victoria Eugenia" antzokian. Euskaltzainburua eta euskaltzainburordea Euskaltzaindiaren izenean egon dira besta horretan.

\* \* \*

Donostian, otsailaren 5ean Carlos Santamaria jauna, euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitateko "doctor honoris causa" izendatua izan da. Akto horretan Euskaltzaindiaren izenean zorionak eskaini dizkiote Santamaria jaunari euskaltzainburuak eta euskaltzainburordeak.

\* \* \*

Donostiako Foru Aldundiaren areto nagusian apirilaren 4ean hartu du *Manuel Lekuona* saria Bernardo Estornes Lasa jauna euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiaren izenean zirela euskaltzainburua eta euskaltzainburordea.



## NAZIOKO LITERATURA SARIA

*Patxi Altuna*

Urtero bezala, Madrileko Kultura Ministeritzak eskatuz, Euskaltzaindiak urtarreleko bileran izendatu zuen bere izenean *Nazioko Literatur Sarien* irabazleak hautatzeko hara joango zen ordezkari bana. Saiakerako epaimahairako Patxi Altuna izendatu zen. Martxoko lehen bileran ia hirurogei liburuko zerrenda osatu zen, haietarik lau euskarazkoak zirelarik. Egun berean eta geroko beste bi bileretan eginiko bozketen bidez murriztuz joan zen sarigaien kopurua. Azkenik ekainaren 3an Emilio Lledó-ren *El silencio de la escritura* deritzana gertatu zen garaile.



## **HIL BERRIAK**





## BARANDIARAN HIL ZAIGU (1889-1991)

1991eko abenduaren 21eko egunsentian, Ataungo *Sara* bere etxean, itzali zen Jose Miguel Barandiaran jauna. Aurreko hilabeteetan larri ibilirik, haren egoera gaizkituz joan zen, tarteak tarte. Euskaltzainek Saran, hamalau urtez euskaltzainkidearen egoitzan, jakin zuten azken gaizkitzearen berri, bezperako arrastirian, eta biharamun goizean, Elizanbururen omenezko jardunak hasi aitzin, Euskaltzainburu jaunak aditzera eman zuen heriotzearen mezu hitsa.

Hitsa, zinez, eta hala erakutsi da Euskal Herri osoan barrena ez ezik, bai eta Euskal Herritik landa ere, mundu zabalean. Maitetasunez eta begirunez inguratua zen, izan ere, Barandiaran bizi zelarik, haren jakituria eta lan ikaragarria aitortua, eta guztiak dute deitoratu heriotzea, hau etorri denean, jakintsuak 102 urte bete hurran zuela.

102 urte hurran, 1889-ko azken egunean sortu bait zen Jose Miguel Barandiaran. Sorlekua, hil-lekua bezala, Ataun, eta sortetxea *Perune-zarre* baserria (*Sara* etxetik berrehun metrotara). Bederatzi seme-alabetarik (bost mutil eta lau neska) gazteena izan zen. Guztiak bera baino lehenago hilak, bi haurretan eta azkena, Mikaela, Angelun monja, 1972an, 92 urterekin.

Mutiko ernea, nahiz hasieran ez gailen erdal eskola hartan, apaizgai sartu zen Baliarraingo apaizgai-etxean, 14 urterekin, Gasteiza aldatu baino lehen. 1914an apaiztu zen. Tartean, ordea, Erligioen historia eta antzeko gaiak hobeki ezagutze-ko eta bere fedeari oinarri sendoak emateko, Alemanian izan zen lehendabizikoz 1913an, diruaz urri baina ikasina hiaz aberats. Besteak beste, Wundt irakaslea Leipzigen ezagutu zuen ikastaro hartan.

Eta Gasteiz izan zen geroztik Barandiaranen lan- eta bizi-tokia, 1936ko zorigaiztoko gerra etorri arte. Bi apaizgaitegietan berehala eman zizkioten karguak eta kargak, administralgoan eta irakaskuntzan. Bi alorretan, ezagunak dira Barandiaranek sarturiko aldaketak, batez ere, Agirre apaizgaitegi txikiko errektore izendatu zenetik. Molde berriak apaizgaien ikaskizunetan eta garaiko haizeen arabera-ko irakasbideetan: hein handi batean Barandiarani zor zaio orduko apaizgaitegiaren izen ona.

Apaiz-lana eta zientzilari-lana lotzen jakin zuen ataundarrak beti. Artzain-betekizunetatik kanpo ez zen berez deus ere, Barandiaranen iritziz. *Eusko Folklore* aldizkaria eta mintegia berak ere ez, ezta *Gymnasium* eta *Idearium* aldizkariak, edota goiz argitaratzen hasi zen artikulua eta liburuak. Kardaberaz taldea ildo beretik zihuan. Apaizgai eta apaiz ongi heziak nahi zituen, jakitez hornituak, mundura irekiak eta, denbora berean, Euskal Herriaren ezagutzaileak eta bertan sustraituak.

Bekatu larria, ordea, azken hau. Separatismoa ez bazen, arlotekeria zeritzoten askok Barandiaranen lanari, edo biak. “El Rector del Seminario de Vitoria declara que tales *Anuarios [de Eusko Floklore]* constituyen una mamarrachada. Tampoco quiere que pertenezcan al Museo Diocesano, que en breve se inaugurará en el seminario, los objetos de prehistoria vasca y las lápidas romanas de Alava que yo poseo, pues dice que son puras tonterías”, dio bere egunkarian (1). Horra zergatik *Eusko Floklore* apaizgaitegitik Lanbide Eskolara eraman behar izan zuen 1925ean. Eusko Ikaskuntzaren batzarretara joatea debekatu zioten denbora luzean. Separatista ez ezik, *entziklopediazale* omen zen Eusko Ikaskuntza. Giroa nolakoa zen beste gertakari batek adierazten du garbiri: Guridiren *El Caserio* ikustera joateagatik *monitum* bat plazaratu zen Elizbarrutiko aldizkarian 1927an, meza gabeko egun bateko zigorra iragarritz apaiz ikusle haientzat (2).



(1) Luis Barandiarán, *José Miguel de Barandiarán, Patriarca de la cultura vasca*. Donostia 1976, 88. Bidenabar, guztiz eskertzekoa litzateke egunkari osoaren argitarapena.  
 (2) *Ib.*, 145.

Hori guztia, ordea, Barandiaranek gogo onez eramaten zuen. Ezen Elizarekiko guztiz leiala izan zen beti ere, Elizako agintarien eta apaizkideen huts ikaragarriak barkatzen zituena, aro hobek igurikitzen zituelarik.

Ezinikusiak, jakina, ez zetozkion Elizatik bakarrik. Giménez Caballero, garai hartan errepublikazale eta gero faxismozalea, atera zen Madrileko *El Sol*-en, *Eusko Floklore*-ren aurka, 1925ean: zientzia fidagarria ezin zitekeen egin, zioen, fede katolikoa tartean denean. Trebeki erantzun zion Barandiaranek, ezizenez ("M. Roldán de Aranguiz"), halabehar, Gasteizko *El Herald*-n. Laguntzaille bikaina izan zuen Odon Apraiz, *El Sol*-en bertan, handik egun batzuetara.

Ezinikusien zerrenda luzea agortu nahi gabe, aipa dezagun masoneriaren inguruko istilua, urte haietan Gasteizen gertatua. Kanpaina bat piztu zuten Lucas Oriolek, Oriol-zaleek eta eskuin-muturrekoek masoneriaren aurka. Muturka eta ukabilka ere ibili ziren zenbait. Orduan, Elizbarrutiko zensorea zen Barandiaraini eskatu zitzaion gai horretaz txosten bat. Eta halaxe egin ere. Baina harriturik irakurri zuten txostena: masoneria ez zen infernuratua! Adierazi behar ote dut zientziari zion begiruneak eta Euskal Herriari zion maitetasunak denbora luzean ekarri zioten kaltea?

Baina Barandiaran beti bera. Historiaurrean eta etnografian bezala, gainerako alorretan prestu eta hotz, datuei kasu eginez, asmakeriak eta sasiletratuen erreto-likak bazterturik. Batzuk, borondaterik onenarekin, agian, gehiago eskatu izan diote Barandiarani: *sintesia* da hitza. Positibista bat izaki, ordea, nekez asebeste zezakeen Ataungo jakintsuak besteren apeta hori. Areago, esan daiteke urteak joan ahala zuhurrago bihurtu zela ondorioak ateratzean. Konpara itzazue *El hombre primitivo en el País Vasco* libururaren 1. eta 2. argitaraldiak: bigarrenean desagertu zen teoriaren atal nagusia. Ildo beretik, aztarnategiko solasaldi interesgarri haietariko batean, Arabako Markizen, 1965ean, Caro Barojaren *Los Vascos* liburuko hitzaurrearekiko ere kritiko samar agertu zitzaigun. Harriak harri ziren, Barandiaranentzat, eta datuetatik aurrera segurtasun osoz baizen ez zen zilegi joatea. "Morfologia hutsa dugu hemen", zioztan beste behin, Dimako Axlorren, harriei eta hobiari begira.

Jakite-gaiarekiko begirune, leialtasun eta zehaztasun-kezka hau George Lacombe, *Eusko Floklore* hasi berritan, nota labur batean, goraiatu zuen: "Et ce qui augmente encore al valeur des documents qu'il nous offre, c'est qu'ils sont, avec un très louable souci d'exactitude, recueillis dans le basque même de chaque village où ils son été trouvés" (3).

Euskararentzako onura neurgaitz hau kontutan harturik, euskaltzain izandatu zuten Barandiaran. Izendatuaren gogoz kontra, jakina denez: "Ni ez naiz hizkuntzan aditua", esaten ohi zuen. Apaltasuna: horra Barandiaranen izaeraren ezaugarri nagusietariko bat. Zenbat aldiz entzun diogun harako hura: "Sariak eskertzen ditut, baina horiek ez dakarte jakituririk". Eta zenbat aldiz arbuiatu duen *aitalehen* (edo patriarka) deitura: "Ni ez naiz ezeren patriarka ez matriarka". Hemen haren nahia ere errespetatu beharra genuke, gehiegi eskatzea ez balitz.

(3) *RIEV* 13, 1922, 254.

Apaltasuna, prestutasuna eta eskuzabaltasuna. Axularrek Echauzi diotsana Barandiarani ere esan diezaiokegu: "Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, beti ere izatu da euskaldunen etxea, pausa lekua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak eta ondikoak kontu. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki kontseila, kida, goberna eta burutan atera".

Euskaldunak ez ezik, jakina, atzerritarrak ere. Judu arriskutan zeudenak barne, ezaguna denez, nazismoaren garai beltzean.

Bego betiko bakean eta biz denontzat exenplu eta argi zuzi irazekia jakite-eremuan, gizatasunean eta euskaltzaletasunean, gure *aphez tipia*, haran handitasunean edaten dugularik.

*E. Knörr*

## ERREZUKO JURGI AITA (1896-1992)

Casto Inza Arbeo, fraide izenez Errezuko Iurgi aita, Bentura eta Brijidaren hamargarren eta azkeneko umea, Nafarroako Errezu herri txikian jaio zen 1894.urteko uztailaren lehenengo egunean. Herriko eskolan hasi zen ikasten, gero Iruñean, Altsasun, Hondarribian eta berriz ere Iruñean osatuko zituelarik bere ikasketak. Kaputxino 1910.ean bilakatu zen Zangoza hirian, eta apaiztu Gasteizen 1917.urteko abenduan. Apaiz ikasketekin batera batxilergoa egin zuen 1916 eta 1918 artean, azterketak Gasteizko “Instituto General Técnico Cardenal Cisneros” delakoan izan zituelarik eta batxiler titulua 1919.ean eskuratu. Aztertzaileen artean Luis de Eleizalde euskaltzalea izan zen. Ikasketa horietan Altzoko Migel aita izan zuen lagun, Altzoko Diego eta Monsinor Olanoren anaia euskaltzalea, Lekarozen eta Argentinako erbestaldian ere lagun izango zuena.

Garai horietan hasi zen euskara ikasten, Luis de Eleizalde aditz trinkoaz burututako lana oso lagungarri gertatu zitzaiola euskal aditza ulertu eta ikasteko.

Hala ere eta esanak esanik, lehenbiziko maisua eta handia aita izan zuen. Ia erabat itsu egon zen 45 urtetara arte. Bultuak bakarrik ikusten omen zituen, baina baliatzen zen zaldiz eta batetik bestera aldatzen, txoriak arrapatzen etab. Begi bateko bista lortu zion Askuntze doktoreari bospasei eper eman zizkion ordaintzat. Begi batetik sendatu zenean, ikasi zuen idatzi eta irakurtzen, musika leitzen etab., eta seme gazteenari irakatsi zion musika eta matematika zaletasuna. Euskaltzaletasuna ere esan daiteke etxetik eta errotatik datorkiola. Aita bezala aitona erre errotazaina izan zen, Ollotik Errezura etorria, euskalduna, eta Axular-en *Guero* *Guero* ekarri zuena errota batetik bestera. Ba omen zegoen beste libururik ere Errezuko errotan: Moreten *Anales* famatuak, Inca Garcilasoren libururen bat etab. Bakarren batek galdetuko du nola ezkondu zen Bentura, ia erabat itsua bazen. Semeak esanda dakigu, Brijidak esaten zuela biak ezkongai zirenean: Norekin ezkonduko da gizajo hau? Errukiturik ezkondu omen zen Brijida Benturarekin. Hura Murietakoa zen eta bere osaba kaputxino komentutik jaurtikia eta Errezuko parroku zen Murietako Bernabe Arbeoren zerbitzaria, beraz, apaiz zerbitzaria.

\* \* \*

Apaiz ikasketak amaitu eta Lekaroz bidali zuten Jurgi nagusiek eta bertan egongo da 1918-1936 urteen artean. Baina irakasten hasi baino lehen, Madrilgo Universidad Central-a abiatu zen matematikak ikastera. Ikasle trebea izan zen.

1923.ean Alberto Einstein ailegatu zen Madrila eta hitzaldi bat egin behar zuen hango unibertsitatean. Fakultate bakoitzeko bi ikasle hautatu zituzten haren hitzaldira joateko, eta horietako bat Errezu izan zen. Einstein-en liburu bat erosi eta han aurkezten da liburua eskuan eta fraide habitua jantzirik, eta Einsteinek "tolerancia" eta bakeaz hitz egin omen zion.

Madrilen zegoelarik, *Regimiento Asturias*-ko kapilau egin zuten, eta Afrikara bidaliko zuten bildurrak egon zen. Soldaduen artean lan ona egin zuen: irakurtzen eta idazten irakatsi, otoitzak ikasarazi, haien gutunak idatzi, etab.

Lizentzia agiria 1927.ean eskuratu zuen, bitarte horretan doktoretzako urtea ere egin zuela, ez ordea memoria, eta gainera termodinamikako urte bat. Ez zuen ahaztu musika Madrilen, eta lortu zuen nagusiengandik asteen behin bederen musika kontzertuera joateko baimena. Lekarozen dagoelarik, ez da bakarrik irakasle izango. Antolatzen eta zuzentzen du ikastetxeko mutikoekin abestalde bat, ikasten du alemana eta itzultzen du alemanetik bi liburukitan banatzen den liburu lodi bat: *Historia Biblica*, alemanez *Handbuch zur Biblischen Geschichte*. Lan hau gaueko orduetan egiten du, laguntzaile Larrantzarko Biktoriano eta Lizarrako Pater Augustinus dituela. Hark mekanografiatzen laguntzen dio, eta besteak, Olazaran aitaren anaiak, hitz eta esamolde egokiak hautatzen.

\* \* \*

1936. urtean 17 fraide jautikiko dituzte Lekaroztik, eta horien artean Errezu aita. Uda aldean bisitatzen du bere sorterrria, eta saiatzen da ezagutzen ohiturak, biltzen euskal kutsuko hitzak eta hango toponimia. Hori izan da bere bekatu nagusienetako bat. Guk esan dezakegu ez zela politika zalea, langilea baizik, liburuetan murgildurik bizi zena: irakurtzen, prestatzen, antolatzen eta argitaratzen. Hori dena musikak lagundurik.

Llavalloigo *Euskal-Etxea* ikastetxean aritu zen 1936-1949 urteen artean. Irakaskuntzaz gainera egiten du beste lanik: herriko parrokiari laguntzaile da, erlijioa irakasten du herri eskoletan, *Flor de Canciones* argitaratzen du, frantsesetik zenbait liburu itzultzen ditu, Kempis, Garrigou-Lagrange eta Maritain-en lanak.

Buenos Airesko Ama Birjinaren santutegi izen handikoa den Nueva Pompeyara bidaltzen dute 1949. urtean eta hor egongo da 1952. urtea arte. Parrokia lanetan, bibliotekazain, kronikari eta itzultzaile bezala ihardun zuen Nueva Pompeyan.

\* \* \*


Berriz ere Lekarozen dago 1952-1988 urteen artean. Irakaskuntzan egiten du lan 70 urte bete arte, baina ez da ahazten itzultzaile lanez eta bi liburu itzultzen ditu alemanetik, Karl Adam eta Romano Guardini direla egileak.

Beronen adiskide on izan zen Donostia aita 1956. urtean hil zelarik, haren lanen biltze eta sailkatzeari ekin zion, horretarako Donostia Aitaren Artxiboa antolatzen zuelarik. Han-hemen sakabanaturik zegoena bildu ondoren, haren lanak argitara ematen erabili du denborarik gehiena, *Obras Musicales* deituan 12 liburuki argitaraturik eta 5 liburuki *Obras Completas* del P. Donostia izenarekin.

Euskal Kantutegia prestatzen ziharduen azkeneko urteetan, baina ezin izan zuen burutu arras ezindurik zegoelako. Bere aldetik lan txikiagoak ere egin zituen eta bi liburu: *Nafarroa-ko euskal-kantu Zaharrak* eta *Cartas al P. Donostia*. Gainera *Alboka*. *Entorne folklórico* deitu lana prestatzen laguntza handia eman zion José María Barrenechea liburuaren egileari.

Arrasaten 1979.urtean euskaltzain ohorezkoa izan zen izendatua. “Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País” deituan 1980.ean egin zuen sarrera. “Manuel de Lekuona” saria eskuratu zuen 1985.ean. Donostia Aitarenean Artxiboaz Eusko-Ikaskuntza elkarteko kide egin zuen.

Iruñean hil zen 1992. urteko martxoaren 27.ean, 96 urte eta ia 9 hilabete zituela. Gorpuzkera handikoa, 178 zm. goi, osasun onekoa, buru azkar eta oroi-men handikoa, gauzak zehatz adierazten ohi zituena, nekaezina, ongi menderatzen zituena euskara, gaztelania, alemana, latina eta frantsesa, ideietan zabala eta harremanetan eskuzabal eta leiala joan zaigu, ibili behar dugun bidea erakutsiz.



**ERREZUKO JURGI AITAREN IDAZLANAK:****a. Berak egindako lanak:**

1. "Franz Schubert", *Lecároz*, 22. zb., 1928, 77-81.
2. "Pío XI y las Misiones", *Lecároz*, 24, 1929, 163-167.
3. Eihalarar, Martín de: *A Dios por la caridad. En memoria de la Madre Teodomira*, Ediciones Desclée de Brouwer, Buenos Aires, 1944.  
N.B. Martín de Eihalarar Errezuko Jurgi da.
4. *Flor de Canciones Populares Vascas*, Editorial Vasca EKIN, Buenos Aires, 1948.
5. *Cantad al Señor. Colección de cánticos del Templo de Nuestra Señora del Rosario de Nueva Pompeya*, Buenos Aires, 1950.  
N.B. Egilearen izenik gabe dago.
6. "La balada alemana de Mina en el puente del Bidasoa", *Lecároz*, 2. aldia, 4-5-6, 1953, 37-41.
7. *Vida, obra y semblanza espiritual del P. José Antonio de Donostia*, imprenta Verdad y Caridad, Pamplona, 1956.
8. "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Príncipe de Viana*, 70-71, zbk. 1958, 149-164.
9. "Axular, ala Yaun Benat?", *Príncipe de Viana*, 1967. urteko azaroa-abendua alean, 6. or. Ik. Suplemento mensual...
10. "(Pierre Lafitteri gutuna)", *Príncipe de Viana*, 1968, urtarrilean.
11. "Acerca de la palabra "agur" ", *BAP*, 1970, 4. alea, 415-429.
12. "Material folklórico de la Collectánea Lingüística de Humboldt, Canción del Vino", *Boletín Sancho el Sabio*, Gasteiz, 1971.
13. "Excomunió por el Abad de Urdax", *FLV*, 12, 1972, 371-375.
14. *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrak*, Donostia Aitaren Artxiboa, Lekaroz, 1973.
15. "Pedro de Axular en Baztán", *FLV*, 16, 1974, 129-130.
16. "Dos cartas de Enrique Zubiri, "Manezaundi", al P. Donostia", *FLV*, 21, 1975, 389-391 eta 2 lamina.
17. Barrenechea, José Mariano, *Alboka. Entorno folklórico*, Donostia Aitararen Artxiboa, Lekaroz, 1976. Errezu aitaren laguntasunarekin.
18. "La canción del Rey Abarca, abarcaren cantua", *Lekuonatar Manuel Jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma*, III, Kardaberaz-Bazkuna, 1977.
19. "Sucedió en Vitoria", *Odon Apraizi omenaldia*, Arabako Foru Aldundia, 1980.



20. *Cartas al P. Donostia*, Grupo Dr. Camino de Historia donostiarra, Donostia, 1980.
21. "Contestación del P. Jorge de Riezu...", *BAP*, 1-2-3-4, 1980, 353-358.
22. "El Cancionero Vasco", Eusko-Ikaskuntza, "Sección Música", 1, 1983, 161-170.
23. *Xerri Kuttin*, Tolosa, 1984.
24. "De cómo conocí al P. Donostia", *Aita Donostiari omenaldia*, Eusko-Ikaskuntza, 1986, 149-153.

**b. Itzulpenak:**

25. Schuster, Ignacio - Holzammer, Juan Bautista, *Historia Biblica*.  
1. liburukia Bartzelonan 1934 eta 1946. urteetan; 2. liburukia Bartzelonan 1935 eta 1947. urteetan. Editorial Litúrgica Española. Alemanetik itzulia.
26. Garrigou-Lagrange, Reginald, *La Providencia y la confianza en Dios*, Ediciones Desclée de Brouwer, Buenos Aires, 1943 eta 1945. Frantsesetik.
27. Maritain, Jacques y Raissa *De la vida de oración*, Ediciones Desclée de Brouwer, Buenos Aires, 1943. Frantsesetik.
28. Kempis, Tomás de, *Imitación de Cristo*. Obra comentada con citas tomadas de la Biblia. Ediciones Desclée de Brouwer, Buenos Aires, 1946. Frantsesetik.
29. Englebert, Omer, *Vida de San Francisco de Asís*, Ediciones Desclée de Brouwer, Buenos Aires, 1949. Frantsesetik.
30. Adam, Karl, *La Esencia del Catolicismo*, Editorial Litúrgica Española, Bartzelona, 1955. Alemanetik.
31. Guardini, Romano, *Signos Sagrados*, Editorial Litúrgica Española, Bartzelona, 1957. Alemanetik.

**c. Argitarapenak:**

32. San Sebastián, José Antonio de, *Obras musicales del P. Donostia*, Donostia Aitaren Artxiboa, I-XII, 1860-1980.
33. San Sebastián, José Antonio de, *Obras completas del P. Donostia*, I-V, 1983-1985.

*Donostia, 1992-V-29*

*Frantzisko Ondarra*



## AITA RIEZU, MUSIKOLOGOA

Patxi Ondarra euskaltzainak Aita Riezu euskaltzain ohorezkoari eskaini dion nekrologiari zeozer erantsi nahi nioke musikaren ikuspuntutik. Baina lehendabizi gogoan daukadan zerbait agertu nahi dizuet, euskaltzainkideok. Casto Inza Arbeo, Riezuko Jorge jauna (1894-1992) ohorezko euskaltzaina izendatu izan zen egun berean, hots, 1979.eko abenduaren 20an, ni euskaltzain urgazle izendatua izan nintzen eta biok jaso genuen Gabon gauaren bezperan bakoitzari zegokigun diploma. Aspaldanik ezagutzen nuen adiskide min hau, 1965.etik edo, musika zela medio. Aita Donostiaren argitaragabeko hitzaldi batzu utzi zituen Aita Riezuk orduan nere eskuetan, euskal musika aztertzen nembilen sasoi hartan. Eta gero, bai gutunez bai Lekarozera egindako osteretan bera eta Aita Donostiaren lana ezagutzeko ezin parada hoberik izan nuen. Eta biak maitatzeko, egia esan.

Mende honen hasiera-hasieran, sei urte zitularik, orduan itsua zen aitarekin egin zituen lehen musika ikasketak. Gero, meza berria 1917an eman ondoren, Madridera jo zuen matematikak ikastera, baina, Aita Donostiaren musika eragina izan zuen, biak bizi izan baitziren gela berean Jesusen Plazako kaputxinoen komentuan. Ez zuen alperrikakoa izan harreman hau, musikaz ondo hornitua 1923.urtetik 1936.arte koru zuzendaria izan baitzen Lekarozen.

Baina gerrako egun ilun eta nahigabetuak heldu zirenean, ihes egin beharrean aurkitu zen Aita Riezu. Izpirituz bikoitzak ziren Donostia eta Riezu, egun berean joan ziren Lekarozetik erbestera: 1936.eko azaroaren 3an, elkar agurtuz, lehena Toulouseran joan zen eta gure Riezu Lisboatik Argentinara. Lavalloleko Euskal Etxean irakasle izan zen 1949 arte eta bertako parrokiako organulari. Gero hiru urte bete zituen Buenos Aireseko Pompeya izeneko komentuan, hemen ere organulari izan zelarik. Lekarozera 1952an itzuli arte. Han ezagutu zituen Madina eta Mallea musikariak eta beste erbesteratu batzuren artean Isaka Lopez Mendizabal. Honek sortutako "Ekin" argitaldarian kaleratu zuen 1948an *Flor de Canciones Populares Vascas*, 100 herri kantu testuekin bilduz. Aitaren eiherezain ogibidea gogoratzuz "Martin de Eiheralar" izenordearekin beste liburu bat ere argitaratu zuen Buenos Airesen.

Lekarozera 1952an itzuli zen eta berehala hasi zen, Aita Donostia bizirik zegoelarik, honen artxiboa taiutzen eta 1956an hil zen euskaltzain urgazle honen musika lanak argitaratzeko prestatzen. Adiskide hori hil zen urte berean eman zigun *Vida, obra y semblanza espiritual del Padre Jose Antonio de Donostia, capuchino* (1956) eta 1960an hasita argitara eman zituen, hamabi tomotan, haren musikalan guztiak. Honen lanetan murgilduta zegoelarik Bilboko Filarmonika Elkartearen Aita Donostiaz hitzaldi bat eman zuen Elizondoko Koralarren lagun-

tzaz. Alemana ondo ikasteko opor egunetan hainbat osterata egin zituen Alemaniara eta Berlinetik etorruta "Material folklórico de la Collectanea lingüística de Humboldt. Canción del vino" musikologiako ikerketa argitaratu zuen 1971an. Herriko Adiskideen Elkartearen 1980.eko ekainaren 3an onartu zutenean, sarrera hitzaldian berriz hartu zuen Aita Donostia gaitaz.

Azkenengoz agurtu nuen Aita Riezu 1989.eko abenduaren 28an Aita Villasanten, Jean Haritschelhar eta Juan Mari Lekuona euskaltzainekin zegoen erite-txean ikustera joan ginenean. Musikaz izan zen, nola ez, berarekin izan nuen elkarrizketa. Eta Aita Donostia izan zen berriz gure solasaldiaren ardatza. *Euskal Eres Sorta* kaleratu zuenetik, hainbat kantu berri bildu zituen Aita Donostiak. Batzuren batzuk Aita Riezu eman zizkigun *Nafarroako euskal kantu zaharrak* liburuan 1973an. Baina ehundaka kantu geratzen ziren argitaratu gabe eta lan horretan zebilen gure Aita Riezu. Hauen argitaratzeaz hitz egin genuen eta pozik hartu zuen nere laguntzaren eskaintza. Aurtengo otsailaren 17an idatziz bidali nion plangintza gutun luze batetan. Baina ez nuen erantzunik izan. Eta lan hau burutu gabe joan zaigu. Gure eskuetan geratzen da, omenaldi gisa, bilduma honen argitaratzearen burutzea. Ni, behintzat, saiatuko naiz.

*Donostia, 1992-V-29*

*Jose Antonio Arana Martija*

## GABRIEL ZAPIAIN URRETAVIZCAYA (1917-1991)

### JASOTAKO INFORMAZIOAREN ITURRIAK

Gabriel Zapiaini buruz lan hau egiteko Maria Lodosok, beren emazteak, Agustin Zapiain anaiak, (Pello Kirten izenez gehiago ezagutua) eta M.<sup>a</sup> Doloręs Agirrek (Gabrielekin antzerkigintzan lanean arituak) emandako informazioez baliatu naiz.

Bizi zuen giroaz jabetzeko, alde batetik Gabrielekek berak idatzitakoak, batzuk argitaratuak eta besteak argitaragabeak (1), eta bestetik Agustin Zapiain anaiaren bitartez eskuratutakoak baliagarri izan zaizkit. Beraz guztiei eskerrak.

Gabriel Zapiain 1917ko abuztuaren 13an Donostian jaio zen eta bertan bizi 1991ko apirilaren 28an azken arnasa eman arte. Hiru senideetan zaharrena, programaturiko kinkenio familiarra zirudiela dio Agustinek, bost urteko aldea bai zeukaten Gabriel, Agustin eta Karmenek.

### IKASKETAK

Txikitan ikastolara joan zen, Etxaide kalean, Arzellus andereñoarekin eman zituen ikasketetako lehen pausoak. Hamar urte bete arte etxean euskaraz egiten zuen, gero familiarako giroan haur erdaldun bat eduki zutelako, gaztelania zen mintzaia. (Kaparrosoko zazpi urtetako haur bat eduki zuten etxean).

Baina hala ere euskal giroan bizi izan zen. Bere osaba batek (aitaren anaia) ez omen zion soldatarik ematen euskaraz eskatzen ez bazion.

Mutil koskorretan Marianistetan ikasten du, eta Sagrado Corazón eskolan komertzio egin ondoren merkatal irakasle, (profesor mercantil) karrera burutu zuen komertzio eskolan.

Lau hizkuntza hitzegiten zituen: ingelesa, frantsesa, euskara, eta gaztelania; hauei karrera egiterakoan ikasitako alemana gehitu behar zaie.

---

(1) "Gure Aitona..." Gaztelaniaz, makinaz 7 orrialde Tellatxuri izenpean. "La Villa Mouriscot" 1906-1988. Gaztelaniaz, makinaz 8 orrialde. Tellatxuri izenpean.

Mutil gaztea zelarik, (1934-1936) hamazazpi urtetan, hor ikusten dugu Toribio Altzagak ematen zituen antzerki eta euskarazko klaseetan. Easo kalean, musikako kontserbatorioa dagoen tokian, "Euskal Iztundea", ('Escuela de declamación vasca') zegoen, hemen ematen zituzten klaseak. M." Dolores Agirrek laguntzen zion ekintza honetan. Berari eskatu diogu, Gabrieli buruzko oroitzapenak, lerro batzuetan adierazteko:

"Donostia-Udal-Etxeko Euskal Iztundean ikasle lez ezagutu genuen. Bai azkar asko nabarmendu ere gaztea. Irrika bizia euskera ikasteko. Baina oker jo zion kukuak. Berealaxe guztiok dakigun mutu-aldi luzea, ixil-aldi gogorra.

Atertuko ez dan euri-jasarik ez da ta, ondoren, luzaro itxaro genuen oskarbia. Berri pozgarria gure izkuntza, antzerki sailean. Euskal Iztundea berriro zabalik. Iriki orduko an azaldu zan gure ikasle saiatua.

Zapiain jauna, euskal gizon jatorra. Bere bizi osoa euskerari eta euskal antzerkiari eskeini ziona. Izkuntza ikasi eta ondo baino obeto itzegitea zan bere amets osoa.

Euskal Antzerkiak zor aundia dio. Amaika neke, saio eta laguntza eskeinitakoa.

Antzerki garaia eltzen zanean, Santo Tomas eta Done Sebastian jaietan, berebizikoa ibili oi zan. Besteak beste antzerki lanetan eraman aundikoa, saiatua, langilea eta ikasle apala izateko jaioa.

Gabriel, Euskal Iztundekoak ez zaitugu aztuko. Beti izan baizera langile utsa, ermoa, eta danen gain on ona".

Gerra zela eta isilaldi luze samarra pasa ondoren 1953ko urtarrilean irikitzen da eskola eta berriro ere han agertzen da Gabriel. Nahiz eta eskola itxia egon denboraldi honetan Toribio Altzagarekin harreman estuak izan omen zituen, baita E. Zipitriarekin euskara ikasten isilka ibili ere.

Bere andreak kontatutako beste pasadizu batzuk ere jaso ditugu.

Gerra garaian frentean ibili zen boluntario gisa, lehenbizi errepublikanoekin gero frankistek preso hartu zuten eta Santoñako gartzelan sartu. Atera ondoren soldaduzka egin gabe zegoelako Francoren armadara bidali zuten, penitentzia ikaragarria izan omen zen hau beretzako, ez bait zuen hori batere gogoko.

Bere andrearen hitzetan oso euskal zalea omen zen, ona, baketsua eta familia asko maite zuena. Laguntzeko beti prest zegoen. Behin leuzemiaz jotako haur bati bizkar hezurreko muina ("médula ósea") eman zion, sendatu ahal izateko.

1965.urte azaroaren 24ean euskaltzain urgazle izendatu zuten.

1930.urtetik hasi eta biblioteka interesgarria du bere etxean, Euskal Herriaz, batez ere.

## LANA ETA KULTUR EKINTZAK

Ogibidez administraria, Pakea aseguruan egin zuen lana administraritzako buru izatera iritsiz. Baina bere lana ez zen horretan amaitzen, nahiz eta bizitzeko premiak asetzeko hor bete.

Oso gazte zelarik, gerra aurretik, Xagu elkarte kulturala eraiki zuen, lehenbizi bere izeba baten etxean, gero Urbietako kaleko 13an, bere familiak zeukan dendan, hilerio izen bereko aldizkari bat bertan inprimatzen zutelarik. Kultura, politika, musika, kirolak ziren erabiltzen zituzten gaiak, gizon ospetsuekin elkarriketak (Soroazabal adibidez), Pio Barojaren obren azterketak ere egiten zituzten. Beste gauza askoren moduan gerrarekin desagertu zen elkarte hau, bibliotekan zituzten liburuak bazkideen artean banatuz. Argazkigintza ere oso gogoko zuen Gabrielelek, bazkideek elkarte honetan errebelatzen zituztelarik.

Bere auzoan, (orain oso aldatua den San Martin) ospatzen ziren San Martin festak eratzeko buru belarri sartzen zen, eta baita argazki erakusketa prestatu ere auzoko iraganeko historia gogoratuz eta Kutxan hitzaldiak antolatuz.

Arte ederretaz maitemindua egonik poesia, pintura eta musika alorrean sentiberatasun berezia nabari zitzaion. Hemen ditugu honen lekuko adibide batzuk:

– Orfeoiko kantaria zen eta hil arte bertako babeslekide. Kultura musikaleko partaide izanik ez zuen kontzertu bat ere galtzen.

– M.<sup>a</sup> Dolores Agirrek adierazi digunez, antzerkigintzako pausoak ere eman zituen, berak euskaratutako *Lourdesko lorea* antzerkia, Gabrielen alaba Itziarrek 13 urte zituela antzeztu zuen.

– Elkarte askotako partaidea izan zen: Cultura Musical, Coro Easo, Orfeon Donostiarra, Urkirolak, Schola Cantorum, Euskal Iztundea, (Academia de declamación vasca), Sociedad Vascongada de Amigos del País, Aranzadi. Azken honetan Prehistoriako lanetan, trikuharriak eta abar aztertuz Peña Basurtorekin batera ibili zen.

– 1985.urtean Club C.C.C.ek urtero egiten zuen kongresuan, Euskalerriko kantu eta dantzariak eratu eta aurkeztu zituen Donostiako udaletxean, hemengo ohiturak kanpokoek jakin zituzten.

– Bere etxeko altzari guztiei euskal kutsuko artea ezartzen zien, espreski berak diseinaturik, hala nola lanparak, burdinazko berogailu-estalkiak Gernikako arbola hostoen irudiekin apainduz.

Urbia mendian dagoen Peru Saroy errefugio edo aterpearen sortzaileetako bat zen, On J.M. Barandiaranekin aste oso bat pasa izan zuten bere emazteak kontaktzen digunez, maisuak egiten zituen ikerketa lanetan lagunduz.

## GABRIELEN ALFABETATZEA ETA TORIBIO ALZAGA

Gabriel, Toribio Alzagaren eskutik alfabetatu zen euskaraz. Berari buruz zuen iritzia jakiteko Gabrielelek idatzitako lan bat hartu dugu lekuko "El centena-

rio de Toribio Alzaga" (2), honela dio: ona, alai, eta umore onekoa. Kuadroan txaketoia, bisera, bigote eroriak, ez zeukan Toribiok ikusten ohituta geunden euskal gizonaren itxura handirik.

Bere ikasgeletatik maila sozial guzietako pertsonak pasa omen ziren. Klaseek familia giroa zeukaten, lagunarteko elkarrizketak ziruditen (3).

### GABRIEL "ACADEMIA ERRANTE"-KO PARTAIDE (1955-1962)

1955-1962 artean eman zuen bizia "La Academia Errante"-k. Azkoitia (1959), Araoz (1961), Aizarnan (1961), Ataunen (1962) egin zituzten bilerak, bertan irakurritako lanak Añamendik publikatu zituen. Gabriel Zapiain hemengo partaideen zerrendetan agertzen zaigu (4), baita bi lan argitaratu ere aurrerago adieraziko dugunez, Araozen eta Aizarnan egin zituzten bileretan irakurriak.

"La Academia Errante": F. de Iturriak dioenez jende desberdinen kokaguna izan zen: artistak, idazleak, intelektualak. Garai bateko entziklopedistak akademiko ibiltariak bilakatu ziren, Luis Peña Basurto, Angel Cruz Jakaren eraginez (5). Jende ospetsua ikusten da partaideen artean, Azkoitia egin zuten bileran hauek agertzen dira: Alvaro del Valle Lersundi, Trino Uría, Ignacio Uría, José M.<sup>a</sup> Busca Isusi, Luis Michelena, Angel Jaka, Reyes Corcóstegi, José Oregui, Martin Irizar, José Villar, Ignacio Zumalde, José Aranzadi eta Luis Peña Basurto (6).

1961ean Araozen Lope de Agirrerri egindako omenaldian lehen aipaturakoez aparte beste hauek ere agertzen dira: José Antonio Ayestarán, Gabriel Zapiain, Juan José Lasa, Ramón Zulaica, Elias Amezaga, Luis Martin Santos, Jorge Oteiza. 1962an Ataunen; beste hauen izenak gehitu behar dira: Jesús Elósegi, Estornés Lasa anaiak, F. Unzurrunzaga, Luis Pedro Peña Santiago, José Leon Careche, Manuel Madrazo, José Arteche, Aitor Goiricelaya, Luis Merino, Eugenio Arbide, Antonio Valverde, José Segura, Basterreche pintorea, eta José Arin Dorronsoro (7).

Añamendik "La Academia Errante" dela eta argitaratu zituen lanetan, bi agertzen zaizkigu Gabriel Zapiainenak: "Lope de Aguirre y Felipe III, padres" en "La Academia Errante: Lope de Aguirre descuartizado" (Araozen 1961. urtean irakurria). San Sebastián, 1963, pp. 119-143; "Toribio Alzaga" en "La Academia Errante: sobre la Generación del 98", San Sebastian, 1963, pp. 117-127 (8). (Aizarnan, 1961. urtean irakurria).

(2) "El centenario de Toribio Alzaga", *Vida Vasca*, 1962.

(3) Id.

(4) *Diario Vasco*, 1984-1-17.

(5) Id.

(6) *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Edit. Añamendi, 1970.

(7) *Diario Vasco*, 1984-1-17.

(8) *Eusko Bibliographia*, Jon Bilbao, 1987. Suplemento 1961-1975.



*Eusko Bibliographian* (9), Jon Bilbaok egina, agertzen diren Gabriel Zapiainen lan argitaratuak hauek dira:

– “El centenario de Toribio Alzaga”, *Vida Vasca*, 1962, XXXIX, 105, 107, 109.

– “Lope de Aguirre y Felipe II, padres”, en “La Academia Errante”: “Lope de Aguirre descuartizado”, San Sebastián, (1963), pp. 119-143.

– “Toribio Alzaga”, en La Academia Errante: “Sobre la Generación del 98”, San Sebastián, (1963), pp. 117-127.

(Oharra: *Eusko Bibliographian* Gabriel Zapiainen hiru lan hauek agertzen dira, baina “El centenario de Toribio Alzaga”, *Vida Vasca*, 1962, XXXIX, 105, 107, 109 argitaratua eta “Toribio Alzaga” “La Academia Erranten” argitaratutakoa ia berdinak dira. Hitz batzuk eta irudi batzuk sartu dira hemen baina artikulua bera dela esan daiteke.)

#### ERASKINA: Gabriel Zapiainen familiaren aztarnak

Gabrielen iturriak eta giroa nolakoak ziren argitzeko interesgarria iduritu zaigu eraskin hau idaztea.



(9) Id.

Aurrekoen aztarnak, aitona-amonenak, Astigarragan eta Donostian ditu Gabriel-ek. Familiagandik zetorkion euskal sena. Amaren aldeko aitona-amonak donostiarrak ziren; aitarenak: aitona Astigarrakoa, Miguel Jose Zapiain y Arrillaga, amona Felipa Irastorza Elua, Donostiakoa.

Astigarragako aitona honen berriak Gabriel beraren argitaragabeko idatzieta-tik jakin ditugu. "Gure Aitona..." izen buruarekin gaztelaniaz idatzia, zazpi orrial-detakoa, *Tellatxuri* izenpetua anaiaren eskutik iritsi zaigu. Miguel Jose Zapiain y Arrillagaren xehetasun ugari dakartza bertan (10).

Astigarragatik etorri zen Donostiara bost seme alabekin hango etxea erre zitzaielako. San Martin auzoan kokatu ziren eta Gabrielen aita, txikiena eta seigarrena, hemen jaiotzen zen (11).

Zurgin, bizargin etab. denetatik izan zen aitona hau, gizon abila izanik hondartzan erregeak bainurako zeukan kasetaren ondoan eraiki zituen lehenengo kasetak, txuri-urdinez pintatuak. Baina ezbeharrak! 39 urterekin ito egin zen, bederatzi eta hiru urte arteko sei haur eta alarguna utzirik (12).

Gertaera honek esames franko sortu zuen. 1892ko apirilaren 23an *La voz de Guipuzcoa* egunkariak luze eman zuen berria. Carlista izanik liberalek itsasora bota ote zuten susmoa ere zabaldu zen. Gizon prestua, itxura onekoa, karisma zuena omen. Egun hartan Bretxako *La Verdad* tabernan hartu zuen azken tragoa. Hemendik atera eta "Viva Don Carlos" oihukatu zuen. Aldamar kalea ez zegoen garai hartan, erroketa erori edo... martxoaren 30ean desagertu zena, apirilaren 22an azaldu zen oso desitxuratua, arropen bidez ezagutu zuten. Arrantzale batzuk aurkitu zuten itsasoan (13).

Aitona honen senitartekoa zen, Antonio Pildain y Zapiain, Kanarietako gotzaina; arrebaren semea, Gabrielen aitaren lehengusu propioa, Errepublikara garaian Azañaren gobernuan (1931-1936) diputatua izana. Azañarekin kanonigo, Francorekin gotzain, baina Erromatik zuzenean egindakoa. Konkordatua geroago etorri zen.

Behin Kanarietara Franco joan zenean, bera hango gotzain zela, etzion palioa kanpora atera ohitura zenez, Franco elizara sar zedin, ateak irikita omen zeuzkan edozein kristauri zegokionez. Baita nonbait gero afusilamentu bat zela eta erruki eske joan zitzaionean ukatu ere eskaria.

Amona Felipa Irastorzaren aldetik ere bazuten beste gotzain bat Javier Irastorza izenekoa Orihuelako gotzaina, militar ordenetako, Filiparen nebaren semea.

Bi gotzain hauek Gabrielen aitaren lehengusu propioak ziren, gazterik, 39 urterekin, itsasoak irentsi zuena, Gabrielelek zazpi orrialdetako idazkia eskaintzen diona. Gabrielelek bi gotzain hauekin izan omen zituen harremanak, bere anaia Agustinen bidez jakin ditugu gotzain hauen berriak.

(10) "Gure Aitona...". Tellatxuri izenpetua, 7 orri, argitaragabez. Azkue Biblioteka.

(11) Id.

(12) Id.

(13) Id.

Beste idazki bat ere burutu zuen Gabrielelek gaztelaniaz idatzia “La Villa Mouriscot” (1906-1988) (14) Urbietan 13an zegoen denda baten historia. Amona Felipak jarritako negozioa eta ondoren Agustin Zapiainek (Pello Kirten) eraman izan duena. Familia osoa honen inguruan biltzen zen nonbait. Gogoan eduki Gabrielelek sortu zuen Xagu elkarte kulturala ere hemen kokaturik zegoela.

Bi dokumentu hauek “Gure aitona...” eta “La Villa Mouriskot” *Tellatxuri* izenpetuak, Gabriel Zapiainen lanak, Azkue Bibliotekan geldituko dira artxiborako.

*1992-V-29 Euskaltzaindiko bileran irakurria*

*M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte*

---

(14) “La villa Mouriscot” 1906-1988, *Tellatxuri* izenpetua, 8 orri, argitaragabea. Azkue. Biblioteka.



## AITA ISIDRO BAZTARRIKA (1931-1992)

Hirurogoi urte zituen aita Isidro Baztarrika-k, joan den martxoaren 24-an Estibalitz-en hil delarik.

Ataun-en sortua zen, hogeita hamaika-n, uztailaren 15-ean; eta, hamazazpi urtetan fraide-agintzez finkatu zen Lazkao-ko beneditar etxean.

Berrogeita hamabortzean apezturik, fraidegaien moldatzaile ta erakasle izendatu zuten, Erroma-n bi urtez ikasten egon ondoan.

Euskaraz idazteko eta mintzaldi egiteko dohain berezi bat agertu zuen; eta, berrogeita hemeretzi, bere lehen liburua argitarazi zuen: *Goazen Lurdes-a*.

Ordukoa dut haren lehen eskutitza: “Jakin det Lurdes-aldean zabiltzala edo ibili izan zerala beintzat; ta eskale natorkizu: arren! olerki bat egingo al diguzu Lurdes-ko Andra Mariari buruz? Asko edertuko luke gure liburutxo”. (Agorrak 12/57).

Igorri nion. Hark orduan

“Bai lan ederra, hasi zerala salmoak euskaratzen... Ea noiz bukatzen dituzun; eta hemengo euskeran zuretik jarriko ditugu guk.” (57-11-11).

Hitzak baino egintzak hobe zirela, etorri zitzaitan, Santamaria jaunarekin, Donostia-ko karrikaraino: nerekin ikusteko nolaz argitarazi euskal-salmoen zortzi ehun eta berrogeita hamasei orrialdetako gure liburua.

Baiona-ko apezpikutegian erakutsiak nituen euskal-samo horiek; eta, orduko elizkizunak izanik ere latinez, zorionak eman zizkidan... Zorionak bai, baina diru-laguntzarik ez.

Santamaria jaunaren eta aita Isidro-ren gomendiozko hitz batekin joan nintzen, Lekeitio-n zegoen andere Goiri baten ikusterat; bihotza zabalik hartu ninduen eta Bilbo-ko Castor Uriarte jaunaren ganat igorri, bi urterako diru-mailegu bat egin baizidan hark.

Egun hartan euria jauts-ahala ari zen Bilbo-ko karriketan; baina, aingeru begirale ta laguntzaile, atxeman nuen: aita Lino Akesolo.

— Salmoen liburua argitaratzeko behar nuena eskurat eman izan zitzaidanez geroz, *Ordorica* tegikoei eraman nien nere idazkia.

Argitaratu arte, haatik, dirua nori utz? Abertzale gazte baten eskuetan utzi nuen; eta, debrua ez baitago sekulan lo, nere diruzaina giltzaperat bildua izan zen... Zer egin? berriz ere, aita Isidrok eman fraide-lagun batekin, Bilborat joan. Giltzapeturaino sartu nintzen; eta, haren ahotik, jakin nuen: delako dirua segurean zela.

—Horiek hola, hirurogeita laueko martxoaren 17-an, euskal-apezak bildu zituen Baiona-ko jaun Apezpikuak; eta galdegin zuenean: “Liturgia berria euskaraz egiteko, non dituzue euskarazko salmoak?” Erantzun izan genuen: “Hona Salmoak, aita Lertxundi-k euskal-kantutan emanak”.

Azaroaren 18-an ardiesten zuten Erromako baimena. Ondoko urtean, aita Baztarrika-k gipuzkoeraturik, Gipuzkoako elizetan hedatzen ziren; aita Lino Akesolok bizkaieraturik, Bizkaiko elizetan.



Ordukotz, Estibaliz-ko fraidetxeari bizi emaiterat igorria zen aita Isidro. Handik idazten zidan:

“Aspaldi huntan ez dizut berri handirik bidali. Izan ere, orain ez naiz bizi Lazkao-n lasaitasunean. Oraindik etorri berriak, lan asko egiteko, etxea ere piska bat txukuntzen ari gera. Ta gainera jende asko etortzen da; ta hoieri ere zerbeit begiratu behar. Aurreko igandean bertan, goizetik baziren ehundik gora kotxe, oiñez ta motoz etorritako jendea kontatu gabe.

Neure euskal-lanak bazterrean utzi-ta dauzkat, oraingoz beintzat; tarteka-tarteka egiten det zerbeit: ezin-egon egin gabe... Ez dakit nola egin-arazi niñuzun zuk Euskaltzaindiaren laguntzaile; halere eskerrak zuri, zure asmo ona gatik.” (1965, epailak 31).

– Urte berean, Orixe-ri egin omenaldian, artikulu bat argitaratu zuen: “Orixe Jainko-billakari porrokatua”.

1968-ko urtean berriz: “Aditza, metodo nor-nori-nork”, Elvira Zipitria andereñoak Lazkao-ko gazteei erakatsi aditz-bidea baliatuz.

Haren idazlan gehienak Lazkao-ko *Jaunaren Deia*-an argitaratuak ditu; eta, datorren zenbakirako, badu artikulu bat, hil baino hogeit bat egun lehenago idatzia: “Gaxoekin otoitzean”.

Joan den irailaren 8-an, Estibalitz-en ikusi dugu dena kar, egun handi hartako elizkizunen sustatzaile. Hango fraideen eta Beloke-koen bazkaria bukatzerakoan, xutitu da. Etxeko nagusiar dagokion bezala, batetik bertzerat joan da, bakotxari bihotzeko hitz bat erranez. Hasi zait orduan: “Egon zenbeit egun, gurekin”. Ez diot baietzik eman; baina, lerro hauek idaztean, harekilako istan goxo bat iragan dudala iduri zait.

Aita Isidro, orroit Estibaliz-ko Amaren gizona zarella; orroit Estibaliz-ko Ama Euskal Herriko zaindaria dela; orain bazauden betirako bizian, harekin aipa Jainko Jaunari Euskal Herria, bai-eta... Euskaltzaindia.











